



Iturria: *Bonaparte Ondareko Esquizkribuak*, (Rosa Miren Pagola eta taldearen edizioa). CD-ROMa, Bilduma osoaren edizio digitala. Deustuko Ubibertsitatea / Eusko Jaurlaritzza, 2004.

Klasikoen Gordailuan:

<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/M/MogelJAErakasle.htm>

KRISTAU ERAKASLE EUSKALDUNA

Juan Antonio Mogel

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira, eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

KRISTAU ERAKASLE EUSKALDUNA

**Zeñek agertu, ta adirazotzen dituen astiro
Erakaste askotan Kristauak sinistu,
eskatu, egin, ta artu bear dituenak.**

Libru onetan erakasten da egin bear duena
ta egin bear ez duena Jangoikoaren Legeko
lenengo bost Mandamentuetan.

Ateratzen du argira Giputz itzkeran
Kristau euskaldunen onerako.

DON JUAN ANTONIO MOGEL, TA URKIZA.
Markinako Kura, edo Anima-zaiak.

Liz do. Alegría
V.S.



IRUGARREN ZATI EDO PARTEA

Jangoikoaren Lege, ta Eleizako Mandamentuen gañean.

ERAKASTE I.

**Zer, zenbat, ta zein gorde-bearrak diran
Jangoikoaren Legeko amar Mandamentuak**

Erakatsi ditugu orain artean Fede, ta Esperanzako Birtuteai ditzaien gauzak, edo zer sinistu, ta zer eskatu bear dan. Ezarri degu zimentua, egin ormak, baña etxe eder onek bear ere du bere tellatua, dio San Agustinek, zeña dan Karidadea, iru Birtuten artean andiena. Karidade au dago, edo dator Jangoikoaren amorio, edo maitetasunetik, ta au izaiteko bear bearra da gordetzea osoz Jangoikoaren Legea, ta Lege au dago sarturik bere amar mandamentu, edo agintzeetan. *Nai badezu betiko bizitzan sartu, gorde itzatzuz mandamentuak*, dio Kristok, ta oek gordetzen dituenak, maite du Jangoikoa, ta berekin du Karidade, edo amorio santu ta garbia. Baña nola ondo gordeko ezin diran ondo jakin gabe, ala bear ditugu argiro ta zearo azaldu edo adirazo, artzeen dugula mandamentuen etorria. Dakuskun bada.

G. Zer dira baña amar mandamentuak?

E. Dira Jangoikoak ipiñi dituen agintze eder batzuek, agertzeko bera dala gure Jaun, ta Jabea, ta guri eskatzeko zor diogun mendetasun, edo obediencia oso osoa, oek gordeaz, edo bere esanak egiñaz, irabazi dezagun betiko zoriontasuna, zeña bakarrik dagoan Zeruan.

G. Noiz eman, ta agertu zituen Jangoikoak bere agindu, edo mandamentu oek?

E. Israelgo Semeak Ijitoko katigeratik atera ezkeru irugarren illean.

G. Nola gertatu zan?

E. Esan zion Jaunak bere adiskide andi, ta Israeltarren Agintari edo Buru egin zuen Moisesi, adirazo bear ziola jende ari, zeñi ematen zion bere Puebloaren izena, nolako mesedeak egin zizton Ijitotik atereaz, ta ateratzeko egin zituen mirari arrigarriak; ta balin nai bazituzten egin bere esanak aurrerakoan, artuko zituela bere kontura, ta beti arkituko zutela bere laguntasuna. Eman zien Moisesek Jangoikoaren mandatu au, ta ao batekin eranzun zioen, prest zeudela guziak Jaunaren esanak egiteko. Igaro zion Moisesek Jangoikoari bere Jende aren eranzuna; bazekian egiaz Jaunak leenaz ere zer eranzungo zuten, edo orduko bere gogoen berri, baña nai zituen itzetik artu Moises bitarteko zala, gero izan etzezen esesio edo aitzakiarik. Esaten dio bada berriz Jangoikoak bere serbitzari, ta mandatari onari; adierazo bear diezu bada, nik diodala, presta ditezela iru



egunean, ta itz egingo diedala Sinaiko mendiaren gañetik, ipiñi bear zituztela orretarako mugarri batzuek mendiaren inguruan; irtengo ezin zutela mugatuko lekuetatik; ta non ez, edo bestela, bizitza galduko zuela irteten zuen edozeñek.

Jetsi zan Moises mendi gañetik, non egon zan astiro Jangoikoarekin, ta esan zitzen Israeltar bean zeudenai Jangoikoak agintzen zuena. Irugarren egunean argia agertzeaz batera, edo egunsentian, enzun zan mendi gain artetik irtetzen zuen trumoi ots zugarri bat; mendi guzia zegoan keatua, jetsi zalako Jangoikoa suarekin. Mendipetik enzuten zan itzaro zoli nork nai argiro enzun zezakeana, ta itz aietan esaten ziran amar Mandamentu oek. Exod. XX.

I. Ni naiz Ijtotik atera zaituen Jauna. Ez dezu idukiko beste Jangoikorik. Ez dezu izango Idolorik, ez adoratuko eskubearrik. Nik (sic) naiz Jangoiko portitz, poderoso, ta honrari begiratuko diodana, ta dakidana kastigatzen gurasoen bekatua irugarren edo laugarren jenerazio, edo oñerano; ta miseriak ugari zabalduko ditudanari amatu, ta nere esanak gordetzen dituztenen gañera.

II. Ez dezu ezeri ez dagokala, edo utsean aitatuko Jangoikoaren Izena.

III. Oroi zaite gordetzeaz atseren eguna. Ez dezu egun onetan bearririk egingo, ez zuk, ez zure seme-alabak, ez morroe-mirabeak, ez da zure abereak ere.

IV. Honratuko dituzu Aita, ta Ama luzaro bizi zaitean.

V. Ez dezu iñor illko.

VI. Ez dezu aragizko bekatu loirik egingo iñoren emaztearekin, ez andreak iñoren senarrarekin. Eragozten ere ziran ezkondu ta ezkongabeen arteko bekatua; ta milla lekutan erakusten da Eskritura Santuan, debekatuak daudela mutil ta neskatx utsen bekatuak ere, korputzez ez ezen, baita pensamentuz, itzez, gogoz, ta sentiduekikoak ere. Asko hereje gaiztok mandamentu au itz azalean arturik, sinistuerazo nai izan dute ez daudela eragotziak, baizikan ezkonduen bekatuak.

VII. Ez dezu ezer ostuko.

VIII. Ez diozu iñori testimonio gezurrezkorik egotziko.

IX, ta X. Ez dezu bide txarrez nai izango, ez lagunaren emazterik ez bere etxe, serbitzari, asto, ez idi, ez beste gauzarik. Ona emen amar mandamentuak.

Beldurrez izutu ta igarota zeuden Israeltarrak mendipetik itz oek entzuteaz, ta esan zioen Moisesi: ez dizagula zuzen Jangoikoak guri itzik egin; itz egiguzu zeuk bere orde. O gauza arrigarria! Jangoikoaren itzak

anbeste itzal bazuen bere lege santua emateko une edo orduan, zer izango da, ta nolako itzala izango ez du bere Lege santua gorde etzutenai itz egingo dienean? Trumoi beldurgarriak ematean izan ziran sua ta kea; ikaraturik etzuten nai Jangoikoak itz egitea bere Pueblotzat zeuzkanean, zer izango da Juizioko egunean, kontuak artzean, ta madarikatuko dituenan gorde etzutenak bere Legea?

Ekusirik Jangoikoak jende beldurtu ark nai etzuela berak itz egitea, deitu zion Moisesi mendi gañera, ta an eman ziozkan bere legeko mandamentuak izkribiturik Arri bitan, gogoan idukitzeko enzun zituztenak. Agiri etzanean Moises, edo luza irtizirik onen mendiko egoereari, ernegazio eman zion jende pazientzia laburreko ari, ta asmatu zuen egitea urrezko txal bat Jangoiko orde adoratzeko. Emakumeak eman zituzten artarako beren belarrietako pitxi urrezkoak, ta oekin, Itxurazko Idisko bat egiñik, aduratu zuten danza ta pesta andiekin. Alako batean jetsi zan menditik Moises zekarzala mandamentuak izkribituta zeuden Arri zabal biak. Ikusi zuenean Idolo ura, ta jende gaizto aren zoramen gogorra, artu zuen aserre santu batek, apurtu zituen Arri bi edo Mandamentuen olak, alperak izan balira bezela, ekarri baño leenago Israelgo semeak biotzez ausi zituztenak; erre ta urtu zuen urrezko Txal, edo Idiskoa guziak zekusela; bota zituan apurrak uretara, edan erazi zien ur ura; egin zion agiraka latz ta andia bere Anaje Aaroni eragotzi etzielako jende aiei alako bekatua egitea, ta dio Moisesek: Jangoikoaren alde edo bandokoak diranak, urrera ditezela ta batu nerekin. Bildu zitzaizkan Lebitak, artu erazi zitzen ezpatak, ta illerazi zituen ogeta iru milla gizon pekatari bezela. Nola beste bein San Migel Aigeru Nagusiak, bereganaturik beste Aingeru beeragoko asko, gerra eman zien Aingeru gaizto Jangoikoarekin bat egin nai izan zuteenai, ta jaurtiki zituen Infernura; ala Moisesek ere irten zuen Jangoikoaren onragatik, ta kastiga erazi eriotza emanaz anbeste milla gizon, Jangoiko orde Idisko bat artu zutelako. Damu andia eman zion Moisesi bere kontura zegoan jende ark ain laster ausi zuelako Jangoikoari eman zion itz ona. Bildu zituen biaramonean guziak, egin zien Sermoi latz bat; eman zan negarretan bekatuaren damuz jende ura, ta Moises bitarteko Jaunarekin jarririk, iritxi zion barkazioa penitentzia egiazko bat egin zutelako.

G. Beraz mandamentuak zeuden Arriak ausita apurtu bazituen Moisesek, ez bide ziran gelditu gerokoentzat.

E. Bai; zeren agindu zion Jaunak gizon santu ari artzeko leenagokoen gisako arri zabal bi. Eraman zuen berriz Sinaiko mendi gañera, non egon zan beste berrogei egunean jan ta edangabe baraur gogorrean, ta an izkribitu zituen Jaunak arri bi aietan amar Mandamentuak. Jetsi zan Moi-



ses oekin, arpegitik zeriola Jangoikoarekin egotetik atera zuen argi zeruko bat. Ekusirik beldurtzen zala jendea beragana urbiltzen arpegiko argiak ematen zien ikara andia gatik, estaldu zuen arpegia, ta ala itz egin zien: Orra nola etorriak diran amar Mandamentuak, ta zenbat doktriña eder atera ditzakegun jakitetik berri ain ona. Nor egiaz arrituko ez da enzun ta sinistu ezkeru, ez ipui kontuak, ezpada fedeko gertaera oek? Nork artuko ez du Jangoikoaren beldur santu bat, ekusiezkeru fedeko begiak, nola kastigatu zituen Moisesek beste aldetik maite zituen bere mendeko Israel-tarrak, ausi zutelako Jangoikoaren lenbiziko mandamentua? Eta zer gertatuko zan Jangoikoak agertu zuen gogoia lotu ezpalu Moises berak orazio beroakin? Illko ta galduko zituen bekatu egin zuten guziak. Badakit esango didatela kristauak, ez dutela Idolorik, ez Idiskorik Jangoiko orde adoratzten, ez bekatu ain itxusirik egiten. Eroak ta esker gaiztokoak zirala Israel-tarrak, ez Jangoiko bakar Zeru ta lurra egin zituena adoratzeez, ta sinistatzeaz urrezko Idisko, edo Txaala ezertako zala. Ederki diote: ordea, zenbat kristau dira Idoloen adoratzallen gisakoak, gaiztoagoak ezpadira? Bai, dio San Pablok, ondasun ta diruak onratzea, oetan biotza lotzea da idoloak serbitzea. *Avariitia, quo est simulacrorum servitus*. Zabaldu bearrean pobreen artean, beti dabilta diruak pillotzen, ta tejitzen; eta askok bide okerretatik irabazte logrieriako edo bidegabekotik. Jangoikoa onratzen da limosnakin; da eskintzea inzenso usai ederrekua. Baña ukatzen die Jangoikoari inzenso au, gordetzen dituztenak diru alperrak, edo ondatzen dituztenak joko ta leku gaiztoetan. Eta zer, pekatua erosteko ematen badira?

Badira sabela Jangoiko orde artzen dutenak, dio Apostol berak: *quorum Deus venter est*, jan ta edan geiegietan zoriona ipintzen dutela; ta asko, Idolo ta Txaal bezela biurtzen dirala arrazoiko argia lausotu ta geundurik, adiña galdurik, ta Idiskoak baño ere korputzez gaiztoago egiten dirala. Nola ez? Idiskoak korputzez zuzen dabilta, dijoaz kortara edo larrera zaburik egin gabe, ta berai ondo dagokien ura edanda, ez diezu zurrutada bat geiago edaneraziko milla akullurekin zirikatuta ere. Ordea kristau larregi dira trokatu artean jan ta edaten dutenak, janaren janaz, edo edanaren edanaz, ezpañetatik ardo bitsa dariotela, zabuka ta oñak lokatuta dijoazela etxera parre egiten diela mutiltxoak. O nolako bekatua! Badira kristau onratzen dutenak amore loi lagun bat, geiago Jangoikoa baño; beren gogorazio, asmo, itzketa ta gauza guziak zuzentzen dituztela amorelagunagana. Nola ekusiko duen; noiz era ona izango dan, noiz ta nola egingo al dituzten gaiztakeria itsusiak beren buruakin. Beren begiak enpleatzen edo dendatzen dituzte ekusten amarez beren maitea; belarriak

ez dute beste pozik, ezpada enzuten alako baten itzak; oñak daramazkie beraren egotegira, biotza saldu zion guziz; eskuak, ezpañak, ta korputza bera ematen dioe amorio amorratuaz bekatu lagun infameari, ta gero Jangoikoarentzat pozik eztue. Nor dago lurrean idoloak adoratzten dituenik alako gar, ta amore itxuarekin nola gizon ta emakume amonatu ta likitsuak alkar? Eta zer itxaroten dioe onelako adoratzalle gaiztoai? Ez dakuste kastigurik Sinai azpian Israetarrak (sic) bezela, urratua gatik lotsa gabe, ta sarri, Jangoikoak anbeste itzal, ta lotsarekin eman zituen mandamentu santuak. Ordea elduko zaio itz egiteko eguna.

G. Arrazoi ederrak, egiaz, esan dizkidanak, baña baldin bearrak badira Mandamentuen ezaguera ta gordetzea, nola etzuten gizonak beren berririk Moisesen egunak artean? Urte txit asko kontatzen zituen munduak ordurako. Beraz iñor salbatuko etzan.

E. Ez dezu ondo aditu esan deguna; ta eranzun baño leenago zure galdeera edo itauneari, jakin bear dezu iru alde edo modutara itzegin diela Jangoikoak gizonai; biotzez biotzean, eskuz begietan, ta aoz belarrian.

G. Ezin aitu nezake naaspillako itzkera ori argiroago adirazotzen ezpadit.

E. Ona bada. Itz egin zien Jangoikoak mundutarrari urte askoan, edo mandamentu iskribituak Moiseri eman artean, beren biotzetan ezkutuko argi edo inspirazio ederrakin erasten ziela animan bere Legea; ta argi onen bidez ezagutu zezakeen zer egin; ta zer egin gabe larga. Bazekiten amatu bear zituztela beren Jangoikoa, ta projimo edo lagun urko egiten ziran, ta guraso batzuetatik zetozen beste giza seme-alabak. Ezagutzen zuten etzala lagunari egin bear kalte, edo ondo etzan gauzarik, nola bakoitzak nai eztuan berari iñork gaitzik egitea. Amar mandamentuen artean bat baka-rrik arrazoiko argian sartutzen etzan osoz, au zan, egun bat osoro honratzea bearrik egin gabe, ta egun au Zapatu edo Larunbata izatea. Orregatik beste mandamentuetan ezer aldatu gabe kristau legean Zapatuko egun au aldatu zuen Elizak Igande, edo Domeekara. Baña nola Jangoikoaren pueblo edo jende ark izan zuen gurasorik guraso munduaren egieraren berri zuzena, bazekian nola sei egunean egin zuen Jaunak, ta zazpigarrenean atseren, au da, larga zion geiago ezer egiteari, ta bear bada egun au gordeko zuen Moisesen bidez mandamentuetan Jangoikoak iskribitu baño leenago. Nolanai, bazekiten igaro bear zutela denporaren bat Jangoikoaren onrako gauzaren batean. Argatik esan degu biotzean irakatsi ziela Jangoikoak leenago bere Legea, ta biotzeko lege au ausitzen zuenak, egiten zuen bekatu ta kondentatzeko bidea. Zenbat ziran leenago ere txit ondo bizi ziranak?



Ordea obeto iraasteko biotzean lege santua, sarri gogoan erabili zezaten, eman zien eskribituta len esan degun bezala, beren begiekin ekusi, erakurri, eta gordetzeko errazago. Oni deitzen dioe Lege eskribitua, ta artietakoari naturallezako legea.

Azkenean, egin zigun itz aoz, Jangoikoak berak gizon eginda. Zenbat alditan predikatu zuen Jesu Kristok, etzala bera etorri legea urratzera gordetzera baizik? *Nai duenak Zeruko bizitza, gorde bear ditu Mandamentuak;* ta oek gordegabe ezin iñork bera amatuko du. Nolako erakaste, ta bizitza santuakin eman zigun Zerurako jarraibidea! Kristoren Lege oni deitzen dioe Graziatzko ta *amodiozko* Legea. Au da guzien artean onena, zerren laguntza geiago dagoan Kristoren legean beste bietan baño, Zerua irabazteko. Au onela izanik, ta Kristauak ezaguturik, nola daude anbeste, bizi diranak Infernuko bidean? Nola gorde ez Jesu Kristoren doktrina ta Lege amorez bete? Begitantzen zaie batzuei? Ezin gordeko dituala legeko Mandamentu guziak aragiz janzirik dagoan gizon zabukor edo argalak; besteak uste dute txit astuna ta pisutsua dala Jesu Kristoren Lege au. Beste askok uste dute, nola ala bizi izan agatik salbatuko dirala. Kristok larga zuela salbazioko bide erraza, zeña dan konfesio on bat. Baña ona nola deabruak zoraerazitzen dituen Kristau asko.

Jangoikoaren Legea ezin osoz gorde dezakeala aragiz janzirik dagoan gizonak? O nolako blasfemia, edo itz astuna Jangoikoaren kontra! Beraz Jaunak agintzen ditu ezin egiñak, ta izango da Jaun Mauruak baño gogorragoa. Jangoikoak ez du agintzen ezin dezakegunik. Egia da gere alegin ta indarrez ezin dezakegula gauza onik, ez garaitu tentaziorik. Zer da baña ansi, prest badago bere laguntza zeñekin guda dezakegun! Aur txikitxo bat ezin oñez ebilli bada erori gabe, aurzaiak ematen dio eskua, edo oratzen dio erabilgarrietatik, ta dabil onela. Argi gabe, ezin gizonak ezer ekusi lezake, baña bai argiarekin. Ala bada Jangoikoak argitzen gaitu, ta eskuak luzatzen ditu ibilli gaitezen zuzen ta erori gabe Mandamentuetako bideetan. Argiagandik iges egiten badegu, ta eman nai ez badiogu eskua Jangoikoari, gure kulpaa edo errua da guzia. *Kondenazio*, edo *gaitzapeña zugandik, Israel*, dio Jangoikoak. Argalak gera ta erorkorrak; bai, baña zenbat gure orakok gorde dituzte osoro Mandamentu santuak guk baño tentazio portitz ta gogorragoen artean? Jose Ijitokoak ez du garbitasuna galdu nai bere etxeko andrearen erregu, eskintza, ta indar guziekin, ta naiago du urte bi osoan Presondegi batean onra guzia galdurik egon seigarren mandamentua ausi baño. Nolako asmoak artu etzituzten Juez edo Agintari gaizto bik erori erazitzeko berekin bekatu loian Susana emakume onari? Artutzen dute bakarrik baratza batean, enpleatzen dituzte erre-

gu, palagu, eskintza, beldurbide, ta zer ez? Egiten du oiue edo deadar. Gizon gaiztoak oro bat; oek asmatzen due mutil batekin bekatuan arrapatu zutela. Ematen zaie siñistea Juez gaiztoai, ta darame iltzera Susana, naiago zuena honra ta bizitza gabe gelditu garbitasuna galdu baño; azkenean honra ta bizitzarekin gelditu bazan ere, ta tentatzalleak guzia galduta. Zertako da esatea astunak dirala ta gorde-gaitzak Mandamentu santuak argiro badio San Juan Ebanjelariak, ez dirala? *Mandata tuo gravia non sunt.* Zertako esatea gogor pisukoa dala Kristoren Legea, berak badio biguñaa dala bere uztarria, ta ariñ eraman erraza berak egozten digun karga? Gutxitu zituen anziñako legean agintzen ziran gauza asko; geitu zituen graziako laguntasunak; lautu aldatsak, ta erraztu asko aldetzara Zeruko bidea. Orain bada, anziñako lege artan arkitu baziran asko gorde zituztenak osoro karga astunagoak, ta laguntza gutxiagorekin, zer eskusa edo aitzakia emango dute Kristauak lege amorezko, biguñ, ta gorde errazago ez gordeaz? Josuek gorde zituen legeko karga guziak, Dabid garbitu zan penitentzia andiko iturrian, ta gero zedukan biguñegitza bezela Jaunaren Mandamentu edo legea. *Latam mandatum tuum nimis.* San Juan Bautistaren gurasoak bizi izan ziran zuzen, ta garbiro, gordetzen zutela legea osoz. Nola bada estalduko degu gure nagitasuna Kristoren Lege biguñago gorde gabe? Gauza gaitz, gogor ta astuna dirudi pensamentu gaiztoari lekuri ez ematea, beti gerra ta guda bizian ebilli bearra animako etsaiakin. Baña orretako, ez da osasunik galdu bear; asko da biotza Jangoikoari jasotzea, gurutze bat ezkutuan egitea, Ama Birjiñari eskatzea laguntasuna, garaitzeko tentaziorik portitzenak. Eta nork esan lezake au dala neke andia? Non egon, dioe batzuek, itz, eskuka, ta akzio loirik egin gabe bizitza guzian? Nor? Jangoikoari ta animari amorio apur bat diona.

Geiago dana, munduak bere maitatzalleai ematen dien legea da azkoz (sic) gogorragoa, ta astunagoa Jesu Kristok bere mandamentuetan ematen diguna baño; munduko atsegiñak beazunez beteak, eta gurutzeko neke ta atsakabeak (sic) eztitu ta gosatzen dionak. Konzienzia gaiztoak, amesetan bezela atsegin loa igaro ezker, dakar esturasuna, naieza, ta mingoiztasuna. Gaiztoak, Espiritu Santuak dionaz, esango dute: *ibilli giñan bide gaitz ta gogorretan. Ambulavimus vias difficiles.* Igo nai duenak kargu andi batera nolako naiez ta samintasunak igaro bear ez dituzte? Lo ariña, jateko gogo gutxi, ta asti gabe edo itoka; ugari mukertasun ta bekoki astunak; dabilta betiko arazoan, enpeño edo bitarteko billa lotsarik askorekin ondatzen dituzte diruak, zorpetzen dira, ta azkenean geienak ezteue iristen anbeste nekerekin billatu zutena. Nolako ernegazio, birao, ta gaizki esateak ezer atera ezpadute? Jangoikoa errazago arkitzen da; non nai,



edozein orduz, bakar bakarrik bagoaz ere, ezungo gaitu; ez digu arpegiari atarekin emango; ta bere amorez ta bere mandamentuak gordetzea gatik eramaten ditugun nekeak, ondo saristatuak izango dira; ta lurrean ere, dakarte animako pake ta atseren andi bat. Zoaz ekustera bekatu loizaleai gertatzen zatena. Galtzen dute askok beren onra edo izen ona; ekusiko dituzu ille tiraka, birao, ta araoka, engañua ezagutzen dutenean. Igaro zan beingo batean aragiaren atsegin itsusi, zatar, ustelkor ta iraupen labur-rekoa. Gero, nolako kezka ta amorrusko arrabiak? Amore itxuan daudenak, zenbat asmo ta arrazkeria logratzeko denpora edo ordu egokiak, leku ezkutatuak? Galtzen dute loa, dabilta egunaren edo argiaren igesi. Osasuna askok galtzen dute, eraasten zaiete gaitz lotsagarriak, argaltzen dira, artu bear dituzte osagarriak, igertzen zaie gaitza, ematen dute zer esana... Ta zenbat lujurioso igaro dira sepulturara aragi ta ezur ustelduekin? O deabruaren martiri zorigaiztokoak! Anima garbizaleak berriz, dira osasun obekoak, atsegin geiago arkitzen dutenak baraur, ta penitenzietan, Kristau aragikor edo lujuriosoak beren ibillera, ta gozo diruditen egitekoetan baño; munduan bertan ere zorionekoagoak dirala ondo bizi diranak Mandamentuen bidean, gaiztoak beren jolas, joko, ta nasaitasunetan baño. Aberastu nai dutenak, nolako bide gogorretan sartutzen ez dira? Ekustea da merkataria asko beti paperak beztuzen, egunik geienak daramez kontuak ateratzen; batean poza, bestean beldurra. Egiten dituzte askok irabazi oker ta bidegabeak; konzienzia deadarrez, ta onen oi ta kezka ito eziñik. Lapurretakin aberastu nai badute, nolako asmo ta tranpa gaiztoak estaltzeko logreria edo irabazi txatarra! Ala bada, egia garbi garbia da, aurrez daramatzela askok Infernuko peneen asipenak mundu onetatik, Jangoikoaren Legearekin konturik egin gabe bizi diranean.

Ori orrela bada ere askorekin, esango zait: beste asko bizi dira pake galantean, osasun ederrarekin, ezeren falta gabe, mandamentu santuak ausia gatik. Berriz kristau on ta lege santua gordetzen dutenak, bizi dira osasun gutxiarekin, persegituak, gauza askoren premian, ta konzienziako beldur andiak beren salbazioaren gañean. Ala da batzuetan, aitorzen det. Ordea norekin itz egiten det? Fedea galdu duten, edo ez duten anima kristauekin? Fedea galdu ezpada, Jangoikoaren kastigu andiena da largatzea bekataria kezka ta arantza biotzeko gabe; ematea osasuna, ondasunak, ta lurreko honrak. Gizentzen ipintzen da korta batean idi bat; ematen die ugari jaten, ez die uztarririk ezarten, ez ezertan nekatzen. Ekusiko dezu zein gizena, kolore argikoa, ta saltokaria dagoan. Berriz beste idi batzuek gutxiago jan, bearrean nekatu, akulluarekin zirikatu, beti uztartuta bezela ille latzarekin erdi argalduak agiri dira. Baña gero? Etorriko da

Zemendia, aterako dute idi loditu ura gizontegitik, eramaten dute illtegiara, beingo batean bukatzen zaizka egun gizontzen igaro zituenak, ta uztar idiak gelditzen dira etxean. Ala bada bizi dira kristau asko urratzen beldur gabe Jangoikoaren Lege Santua animarik ta etorkizunik ezpalego bezala. Gizentzen dira bekatuz, daukate gera ona edo estimazioa munduan, osasun ederra, neke gutxi, jan, edan, jokatu, ta nai bezela bizi Jangoikoak kastigu apur bat ere eman gabe. Baña esango zaie uste duten baño leenago: *bildu dituzun* atsegiñak, *norentzat dira?* Aterako dio anima eriotzak, ta agur honra, osasun, ondasun, jolas, jan edan, ta gozaldi mota guziak. Bai dio Espiritu Santuak, atsegin gaizto, ta bekatuzkoen azkena; izango da negarra ta damua. *Extrema gaudii luctus occupat*. Berriz Jangoikoak bere legearen gordetzalleai ematen badie emen naigabea, onen ondoren etorriko zate atsegiña. Zuen tristura, negar, ta naieza bihurtuko da goramen edo kontentura. *Tristia vestra vertetur in gaudium*. Ordea nork esan dizu beti bizi dala triste anima garbi, ta Jangoikoaren Legea gordetzen duena? Noiz aztertu ta ekusi dezu bere barrunbean igarotzen dana? Zenbat alditan gozatzen du Jaunak zeruko atsegin, samurtasun, ta poz, gozo gozo egiten zaiztenekin? Bai, dio San Agustin ondo zekianak, penitente batek Kristoren oñetan bekatuen damuz bota edo ixurtzen dituen malkoak, gozoagoak dira, ta animako atsegin geiago dakarte, danza ta komedia munduan eskintzen dizten parre ta algara guziak baño. Nolako atsegiña ekarriko dio bada anima garbi bati amorezko kontentu samurrak?

G. Baña mandamentu guziak gorde bear ote dira salbatzeko kristaua?

E. Bai, ta ona zer dion Santiago Apostoloak: bat ausitzen duenak beste guziak gordeagatik, nolaere bait guziak ausitzen ditu. *Factus est omnium reus*. Badira Infernuan asko ta asko, Mandamentu bat baño ausi etzutenak. Ez da asko kastidade edo garbitasuna gordetzea, arrotasuneko bekatu astun batekin ausitzen badegu Jaunaren Legea. Donzella garbiak, edo bekatu loirik egin etzutenak ziran Ebanjelioan Kristok pintatzen dituen sei Birjiñak. Ordea ziran nagiak, humiltasun edo karidadeko oliorik etzuten prestatu mugones, beren lanparetan, ta etzituzten santu ezteietako gelan ate joka ta oleska gero egon baziran ere. Humilde ta limosnaria izatea gauza ona ta bearra da; baña lujuria sartu bada animan ez du salbatuko beste birtuteak. Pipa edo upa ardoz bete bati egiten bazaio zirritu, edo arraka bat, bera da asko ardo guzia erorteko, ala largatzen bada. Egia da, lau edo bost zirritu baditu gaiztoago dala, leenago ustuko da ardoa, ta neke geiagorekin itxi, edo tapatu ere. Ordea bat du asko, guzia erorteko ta ustutzeko. Ala bada, gaiztoago ta kaltegarriagoa da urratzea iru edo lau mandamentu, bat baño; baita mandamentu bat sarri ausitzea,



beñi edo beste baño. Ordea, bekatu mortalaren epai, edo pitzadura bat da asko galdutzeko graziaren ur ederra, anima guziaz leortua gelditzeko. Eta egiaz, Mandamentu bat ausitzen duenak gauza astunear, borondatean aldatzen ezpada, ausiko lituzke beste mandamentuak ere; esan nai det, ez dituela ausigabe largatzen beste guziak Jangoikoaren egiazko beldur edo amorez, ta bai bakarrik oniritziz, munduko lotsaz, edo pasioak tirarik egin ez diolako. Bekatu mortal baten egiazko damurik idukiko ezinda, beste bekatu mortal guziena iduki gabe; argatik dio Santiagok, bekatu guziak nolabait bereganatzen dituela, mandamentu santu bat gauza astunear ausitzen duenak.

G. Zer aginsari egin du Jangoikoak bere Lege, edo Mandamentu Santuak zuzen ta osoro gordetzen dituztenentzat? Eta nolako zemaizta, edo kastiguak gordetzen ez dituztenentzat?

E. Ona emen Eskritura Santuan erakurten ditugunak: *Enzuten badezu (dio) Jangoikoaren itza, ta gordetzen badituzu bere Mandamentuak, etorriko dira zure gñiera bedekazio oek. Bedinkatua zu erri barruan ta bedekatua soroan; bedinkatuak zure aurrak, lurreko frutuak, abere, giberri, ta ganbarak; bedinkatuak zure ondorengorak.* Eskeinsari ederrak. *Baña baldin dio berriz, enzun nai ezpada dezu Jangoikoaren esana, gordetzeko bere agintza edo mandamentuak, eroriko dira zure gñiera madarikazio oek. Madarikatua izango zera erri barruan, madarikatua soroan, madarikatuak zure ganbarako aleak, ta madarikatuak zuk largatzen dituzunak.* Deut. 28.

Bai, dio Dabid errege Santuak: *gaztea izan nintzan, ta zaartu naiz; baño ez det iñoiz ekusi Jangoikoak egiaz largata anima justu edo zuzena; ez da bere ondorengorik ogi eske aterik ate, edo zer jan ez duela.* Uste dezue Jesu Kristoren legean ez tala egiaztzen eskintza au? Ona zer esan zien Kristok bere jarraitzailei: *zuen Aita Zerukoak, gutxi balio duten txoritxoentzat prestatu du jana, ta janzia; begira nola apaintzen diran ibarrak lora ederrekin. Ez dezue txori askok baño geiago balio zuek? Billa ezazute bada lenen Zeruetako erreinua, egizute Zerura joateko bear dana, zeña dan gordetzea bere Mandamentuak, ta emango zatzue bear dezun guzia.* Utsik egin lezake Kristoren eskintza, ta esanak? Ala ere; o negar eragiteko gauza! dio damuz beterik San Krisostomok, Kristok argiro eskintzen dizkiguz, godetzen baditugu bere esanak, animako pakea, bear degun jana ta janzia, ta geien balio duena, edo Zeruetako erreinua. Guziaz ere jarraitzaile gutxi ditu. Infernuko etsaiak itz on beterik ez du Adani ta Ebari eskiñi zien jakituria, ta zorientasun osoa; ta ausi zuteneko Jangoikoaren Mandamentua, sartu zitzaten jakiñeza, galdu len zuten zorientasuna, ta gelditu ziran milla naigaberen azpian. Kristok eman zuen gure amorez eman al zezakean guzia, igaro anbeste

neke gure salbazioa gatik; berriz deabruak ez du gure onagatik ezer egin, egin ere ezin lezake; bai al duen gaitz guzia. Bere esanak egitean ateratzen da animako gerra, pake egiazkorik eza, ta azkenean betiko kondenzazioa. Guziaz ere, dio Santu, andi onek, geiagok egiten dituzte etsai gaizto onen esan kaltegarriak, Jesu Kristorenak baño. O itsutasun ezin esan duikoa! *Mags illi obtemperatur; quam Christo.* Geiago egiten dira etsai amorratuaren esanak Adiskiderik andienenak baño. Sinis lezake iñork ezpagiñaki betiko ekusiaz? O nere Kristau maiteak! Sartu arren gere biotzen barrenean, ta ez iñoiz aztu Espiritu Santuaren itz eder oek: *Nere semea, gorde nere Lege ta mandamentuak zere ninia edo betseina bezala, lotu itzatzuz zere atzetan, ta eraatsi zure biotzeko oletan. Scribe eam in tabulis cordis tui.* O nolako atsegiña arkituko degun Jangoikoaren esanak egitean! Nolako poza eriotzako orduan, deituak geran aurrean Jangoikoari kontu osoa ematera. Eta nolako zorientasuna Zeruko sari azken gabeak artuko ditugunean emengo neke laburrak gatik Jaunaren Legea gordetzen! Iru, lau, ta milla bider zorionekoak gu ala egiten badegu.



ERAKASTE II.

Lenengo mandamentuaren gañean

Diliges Dominum Deum tuum ex toto corde tua.

Zer agintzen da Lenengo Mandamentuan? Jesu Kristok eranzuten du itz oekin: *Amatuko dezu zure Jaun ta Jangoikoa biotz guzitik. Adin, edo entendimentu guziaz, anima guziarekin, ta alegin osoarekin.* Ex Deut. 6.

Asko ote da Jangoikoari ez gaitziriztia, edo ez gorrotorik artzea Mandamentu au gordetzeko? Ez ori; bear da Jangoikoa laztan ta maite izatea borondate zuzen ta garbi batekin. Bakarrik Infernuko gaizkin, ta oen gisako gizon ernegari (sic) ta gaizto batzuek artu oi dioe gaitz-iritzi edo gorroto Jangoikoari. Ordea guziz gutxi dira kristauen artean Mandamentu au gordetzen dutenak; zerren benetako amorio edo maitetasunak eskatzen duan askok uste duten baño geiago. Guraso bat ez da paketuko gaitzik umeak nai ez izateaz; eskatuko dio arrazoi andiarekin maitetasun, oniritzi, edo amorio oso bat.

Eta zergatik amatu, edo maite izan bear da gure Jangoikoa?

Amorio bi ezagutzen dituzte Santo Thomas ta beste Jakitunak; bata sariaren ustez artzen dana, ta bestea sariari begiratu gabe iduki dezakeguna; bata da, seme pin ta on onen maitetasuna, ta bestea serbitzari leialena. Serbitzari on ta leial batek egiten ditu etxeko Jaunaren esanak borondate onarekin; baño igitzen edo mugitzen da ala egitera, ematen zaion aloger edo sari onagatik, eta ekusten badu zerbitzari onek bere urteko alogeraz gañetik noiz edo berriz etxeko jaunak ematen diozkala sari berriak, jateko, soñeko, edo gabon sariak, onek pizkortzen du obeto bear egitera ta alabatzera etxeko-jaunaren liberaltasun, edo prestutasuna. Eta dio: noren biotza irabaziko ez du, nork pozik egin ez gau ta egun bearra, ain ongi saristatzen didan ezker? Alako batean, esaten dio etxeko jaunak, testamentua egin duela, ta ill ondorako largatzen diozkala aginsari ederrak seme bati bezela. Zer esango ez luke ta zer egin gabe utzi serbitzari ark? Al duen guzi guzia. Baña guziaz ere, bere amorio, maitatze, ta serbitze ona jaiotzen da etxeko-jaunaren sariemateetatik. Maitatzen du, zeren dan ain ona, ta eskuzabalekoa beretzat. Esker onekoa da serbitzari au, zeren ondo eranzuten dion ondo egiñari.

Berriz seme on ta piñ batek egiten ditu kontuz ta atsegiñez bere aita-ren esanak. Ez da oroitzen aita eman al dezokeanaz, ta itxaroten badu

ere ondo saristatua izango dala, ez dio oni begirutzen, ta bai aitari dion berezko maitetasun bati, egiteko bere esanak. Uste, ustekabe pobretzen da aita, arkitzen da gaisorik, etzaio gelditu zer eman bere semeari, damutzen da onezaz. Zer esaten dio seme onak: nere aita maitea, ez naiz orain artean ere egon zurekin, ez egin zure esanak zugandik itxaroten nituen erenzia edo ondasunak gatik. Ni lengoa izango naiz zure premia, gaizotze, edo eritasunean. Nere bekokiko izerdiarekin zure jana irabaziko det. Zu, nere aita izatea, ta ain ona izatea da asko nik zure esanak egin, zuri lagundu, ta zure amorez eramateko edozein neke. Ona emen amore garbiaren irudi bizi bat. Ez du seme onek bere onera, edo interesik billatzen; serbitzen du bere gurasoa onegandik ezer artu ezin dezakean orduetan ere. Ez da lotutzen bere biotza aitaren erenzia edo ondasunetan; ta bai bakarrik aitaren izatean, ta oni dion oniritzi, maitetasun, edo amore orakari batean. *Amor non laborat.* Amore garbiak berriz ez du neke astunik; guzia arintzen zaio. Galduko ditu gauak, igaroko ditu otzak, beroak, eguraldi gaiztoak bere maiteari atsegin emateagatik. Ez dio ezer eskatuko bere amoreaz gañetik, ta bai berak eman, al duen guzia. Ala gertatzen zaie Jangoikoa maite dutenai amorio garbi zindo, ta bere ona edo interesa gabeaz. Gauza bat da amatzea Jangoikoa guretzat ona dalako, edo bere ontasunetik itxaroten ditugun betiko ondasunak gatik, ta beste bat amatzea gure aita dalako, edo berez duen ontasun ondo gabeagatik; bat da seme onen maitetasuna, ta beste bat serbitzari onarena. Biak dira amore onak, baño seme-amorea askoz ohea, zeren jaiotzen dan egiazko karidadetik, ta ezin iñoiz egon diteke era batera, ta biotz batean bekatu mortallarekin, Elizak erabakita daukan bezela Baioren kontra, *Nik maite ditut*, dio Jangoikoak, *neu maite nautenak*. Eta Jangoikoak maite duena dago bere grazian. Bada orain guri lenengo Mandamentuan eskatzen zaigun amorea, da amore garbi, zindo, edo semeena. Egia da bata beste eragozten ez duela; esan nai det, Jangoikoari dioenak amorio garbi ta biotzean beste interes edo oni irasten ez diranak ere, baizikan Jaunaren oniritzi ta on nai izateari, deseatu dezakeela Zerua, nongo saririk ederrena dan Jangoikoa bera, ta onen betiko gozamina ta gutxienak diran ango beste atsegin guziak. Zeruko deseo au igaro diteke erraz amorio karidadeko, edo garbira. Zerua deseaten duenak, ez anbeste an animak ta gorputzak izango dituzten kontentu ta atsegin andiak gatik, nola an iñoiz ofendituko ezin degulako Jangoikoa, amatuko degulako txit asko ta borondate garbiarekin, batuko diralako anima ta Jangoikoas (sic) amorezko katea iñoiz urratuko ezin diranekin, ta ekusiko degulako Jangoikoa dan bezela estalki ta irudi gabe, ta non aspertuko ezin geran bera alabatzez, bera bedinkatzez,



amatzen dute onela amore garbi garbiarekin, ta argatik erakusten zuten Santuak anbat naikunde, edo deseo Zerura joateko. *Desiderium haberi dissolvi, et esse cum Christo*. Ala esaten zuen San Pablo batek amore garbiko garren artean; *urratu nai nituzke korputza animarekin loturik daukaten kateak, egoteko Kristorekin*.

G. Nai nuke enzun onen gañeko gertaera edo ejenplotxo bat.

E. Ona emen txit egokia. Amore ardoz ordituta bezela irten zuen egun batean bere gelatik Santa Maria Magdalena Paziskok esku batean illitia, ta bestean morko bete ur zekarzela. Nora zoaz Magdalena? Esan zioen beste Monja ala ekusi zuteenak. Zoratu zatzu? Nai dezu erre Konbentua? Geiago egin nai det eranzun zien; erre Zerua al banu illiti onekin, ta itzelli Infernuko sugarrak ur onekin. Jakin beza mundu guziak, ez duela Magdalenak Zerua bearrik, ez Infenuan gogoa ipintzearen premiarik, amatzeko ta serbitzeko Jangoiko ain on ta maitagarria.

Alaere nola gutxi batzuen dan amorio ain gori ta ain garbia, kristauak bear dute geienez gogoa eraman ta sarri Zeruan Jangoikoak bere maiteentzat prestaturik dauzkan atsegin andietara. Asi bear gera amatzen Jangoikoa bere ontarte edo mesede andiak ezagutzetik, ta eskertsuak izanda, elduko gera errazago, amorio gozatuagora. Bide onetatik igo zuten Santuak perfekzio ain andira. Santa Teresa, ta San Ignazio Loiolakoak ala egin zuten, ta ala besteai erakatsi ere. Errazenetatik asi bear da, gaitzago-etara eldu edo igoteko.

G. Beraz Jangoikoaren amorioa ez da berdiña guzietan?

E. Ez da. Ona San Agustin, ta Santo Thomasi artuta gizon aitua erakasten duteena gai onetan. Iru amoriozko gradu edo maila ezagutzen dituzte: amorio asi berriena, amorio aurreratzen diradenena, ta amorio eldu eldua, edo anima garbituena. Gizonak ere ditu iru estadu: aurtzakoa, gatzetasuneko ta egingo dan añekoarena. Ala bada Jangoikoaren bidean sartu berriak diranak, geien geienez idukitzen dute amorio-ume, argal, ta eten erraza. Onelakoak tratatzen ditu Jangoikoak aurtxoak bezela atsegin biguñ, samur, ta sentikorren esnea emanaz, artzen ditu bere bularrean bezela, zeren indarririk ez duten janari sendoentzat; ematen die ogi mamiñ utsa ta bera biguñ, ta ez azaltsu gogortua; bide bigun onetatik alderatzen ditu anima beragana etor-berriak lurreko atseginetatik. Ordea zerbait indartu diranean, kentzen die ogi biguñ ta samurra, janerazitzen dizte gogor sikatuak. Esan nai det, gelditzen dira puskaka animako agortasunetan, entendimentuko illunpean, gozogabe oraziorako; ezin len bezela aztertu dituzte Kristoren bizitza, edo Pasioko pausuak, daude beren uestez ezer egin ezinda. Jaikitzen dira bere kontra etxeakoak, adiskideak, ta nor ez.

Sarri deabruak ekarten diez milla tentazio itxusi, ernegazioko pensamentuak, larga bear diola bide artu zuenari, eztuela ezer egiten orazioan denpora alperrik igaro baño. Ikaratzen dira komuniora eltzeeko; begitantzen zaie ezkutuko bekatu mortalen baten daudela, larga dituela Jangoikoak; ta zenbat onelako pena ta espirituko mingoztasun! O anima gaisoak. Aurre-ra bide orretan, zeren sartu zaitu Jangoikoak purgatorio, edo garbitegi ezin obean. Landara gazte udaberrian ostro ta lora ederrekin zetorrena, gelditzen da neguko otz, txingor, ta elurrekin igartua bezela. Baña orduan azitzen dira bere sustraiak, sartutzen dira barren ta sakonago lurraren azpian. Sendotzen da, ta udaberria berriz datorrenean, nola eze ezea dagoan, errotuko da, emango ditu ostroak, janziko da loraz, ta ekarriko ditu frutuak. Betiko euri ta bustia ez da ona arbolentzat, ez da geienez betiko negar ta gozotasunak ere. Tentatua ez danak zer daki? Dio Espiritu Santuak. Soldadu gerran iñoiz sartu ez diranak, betiko pake, ta olgantzian bezela egon diranak, dira beldurti, ta iges errazak. Ez ala Soldadu gerran oituak, noiz bait erituak, otzak, ta beroak igaro, ta gose eta egarri-eginak. Oek, zenbat obeak dira? Ala bada anima, betiko pake ta gozotasunean daudenak, ez tentaziorik, ez persekuziorik daramatenak, igaro ez diranak bide agor ta illunetatik, edo dira utsegiñak, au da engañatuak, edo txit argalak ta amorioan umeak. Garbitzen ezpada atsekabe, edo tribulazioko sutegian, ez da iñoiz sartuko Kristoren ezteietan, edo Jangoikoaren unio edo batutasun estu ta gozoan. Nai dutenak sartu bizitza, Kristori atsegin osoa emango dionean, guziak igaro bear dute sarrasketa edo persekuzioa, dala anima barrenean, dala munduaren aldetik: *Guziak*, dio Apostoloak. Jesu Kristogan arkitzen degu ispillu ta jarraigari ederra. Nolako agortasun ta tristurak igaro etzituen Baratzako orazioan? Onek ateraerazi zion odolezko izerdi lurreraño erorten zana. Begira berari gurutzean agortasun gogorrean bere Aita Zerukoari itz egiten ziola: *Nere Jangoikoa, nere Jangoikoa, zertarako, edo zergatik largatzen nazu?* O, ta nolakoak izan bear zuen, bere Aita ain maiteak gozagarri guziak kenduta, edanera-zi zion kaliza edo edari mingoitza azkeneko ondarretaraño! Irakurtzen baditugu Santa Teresa, Santa Maria Magdalena Paziz, ta Santa Rosa Lima-koaren bizitzak, ekusiko ditugu sarturik urte osoetan eriotza bera baño ere gogorrigo ziran espirituko illuntasun ta agortasunetan. Eta oro bat gertatzen zate anima birtute goratura deituak diradenai, beintzat bai geien geienai. Orain bada, onelakoen amore ezkutu, ta ezagutu gabea da Jangoikoaren amorioan aurreratzen diradenena, zeren txit asko aurreratzen dan pazienza, humiltasun ta beste birtuteetan, penazko bidean. Berriz, zer esan dezaket amorio osatu, edo birtute goratuan arkitzen danaren



gañean? Onelakoak dira txit gutxi, ta ala ez da leku au amore ain andiaren goratasunak azaldatzeko. Goazen gauza errazagoetara.

G. Fedea, ta Esperanzako birtuteak egon ditezke karidade, edo Jan-goikoaren amorio gabe?

E. Bai; kristau txit asko dira sinisten dituztenak fedeko artikulo guziak, ta itxaroten dutenak salbazioa penitentzia egingo dutelako usteaz, bizi dirala bitartean bekatu mortalean; ta pekatu mortalean dagoanak ez du karidadeko amoriorik. Orregatik Eliza Ama Santak eragotzi du sinis-tea ta erakastea bekatu mortalean dauden obra edo egitada guziak dira-la gaiztoak. Oen Fedea, ta Esperanza, oen limosna ta beste berezko obra onak ez dira egiaz karidadean sustraituak, baña intenzio edo gogo onare-kin egiñak badira, ez dira gaiztoak, ta txit sarri laguntzen dute biguntzeko Jaungoikoa, ta iristeko penitentzia egiteko laguntasun sendoak. Baña Jan-goikoaren grazia gabe ez da Zerurako irabazten; azitik dator garia, ta gra-ziatik gloria.

G. Zein dira Jangoikoaren amorioko señale, edo ezaubideak?

E. Lenengoa ta Kristo ber berak erakatsia da, bere Mandamentu san-tuak gordetzea. Oek *gordetzen dituenak, ni maitatzen nau*, dio. Mandamen-tuetan agintzen dan guziak, joten du Jangoikoaren, ta lagunaren amorio-ra. Beraz gorde ezker, nai ta ez amatu bear da Jangoikoa, bada laguna edo projimoa amatu bear da, ez lurreko begirakunez, ez adiskidetasun, aidetasun, edo beste doaiak gatik, ta bai Jangoikoaren amorez. Ez du Jan-goikoak debekutzen amatzea adiskide, aide, auzoko, erriko, ta ezagunak; baña Jangoikoaren zuzenbidez edo begirunez ez dana, ez da karidadeko amorea, ta bai mundukoa. Orregatik, amatu bear dira etsaiak, edo gaitz egiten digutenak ere, ta oen amorea geienez ohea da, zerren bakarrik ama genzakez Jangoikoaren amorez, ta ez gure naturalezak lagundurik. Eta etsaiak amatzen ez dituenak, ez du amatzen Jangoikoa, ala bere esana gor-detzen ez degulako, nola diralako projimo guziak Jangoikoaren antzera edo irudira egiñak. Ala bada dionak amatzen duela Jangoikoa bere man-damentu guziak gorde gabe, gezur garbia esaten du. Guziaz ere galdetzen badiogu edozein kristauri, amatzen duen Jangoikoa, eranzungo du berea-la: nola ere maite dedan, ez det amatuko? O itxutasun lotsagarria! Nola onra lezake Jangoikoa bekatuekin desonratzen duenak? Nola amatu ofen-ditzen duenak? Nola alabatu, bere esanak egiten ez dituenak? Nola on guzia deseatu Jaunari berez danez gaitz egiten dionak, edo bere lege san-tua oinbean darabiltenak? Amorioa eratsia dago obra onetan, eta ez itz uts ta soiletan, dio gure euskaldun Santu ta Patroi Ignazio Loiolakoak. Amo-rioa beargiña da, ta ez nagi alperra dio San Gregorio andiak. Obra onak

dira amorioaren ezagubideak, ez berriketa luzeak. Nolako soldadua, dio San Agustinek bere Erregeren esana egin nai ez dituen, gerrako denpo-ran iges egiten duena; sari ta alogera artzeeko prest dana ta nekerako nagi alper andia? Nork farra egingo ez lioke onelako Soldadu txarrari esango balu, maite duela bere Errege? Nork bada gezurti andizat idukiko ez du kristau dendatzen ta nekatzen ez dana animako etsaiak garaitzera, esaten duenean, nik amatzen det nere Jaungoikoa? Au onela izanik aterako degu kontu, zein gutxi diran Jaungoikoaren amorioa dutenak, ta Soldadu onak! seme batek egin nai ez balitu aitaren esanak bai berriz aitak nai ez ditue-nak, naigabeak ematen diozkala, atsegin eman bearrean, litzake aita ama-tzea? Nork esan au?

Bigarren señalea da, esku aurrea ematea Jangoikoari; au da naiago izatea galdu gauza guzia Jangoikoaren amorio ta grazia baño. *Ni baño gei-ago ezer maite duena, ez da gauza neretzat*, dio Kristok. Galdu bear dira honra, osasun, ondasun, ta bizitza bera, Jangoikoa baño leenago. Ala bada ez du Jangoikoa maite, ta bai bere burua, bizitza galtzeko prest ez dagoana Jau-naren honran ta amorez. Eta egia esateko, nolako injuria egiten etzaio Jaungoikoari gere buruak, gauza, edo bizitza geiago estimatzeaz bera baño? Bizitza galtzen badegu Jaunaren amorez, arkituko degu bizitza ohea Zeruan, bizitza iñork kenduko ez diguna, bizitza gozo beti iraungo duena. Orain bada askok dute maite Jaungoikoa? Goazen azterrenak ate-ratzera. Etorriko da adiskide bat beste bategana, ta esango dio: informa-zio txar bat egin bear det, zeatz bear dezu auta bestea. Gizona, nik ez dakit orrelakorik, nai dezu gezurraren gañean juramentu egin dezadan, ta anima galdu? Ezin nezake, eranzuten dio, ta ongi. Baña estutzen du adis-kideak: nik uste nuen geiago egingo zenuela nigatik, etzera adiskide ona; zuk ala ez esatera, galdua naiz, multatuko naute, galduko det auzia. Adis-kide bat ateratzeko onelako estu ondolik, ez dezu orrenbeste egingo? Ez nikezu nik orrelako txatarikeriarik egingo. Biguntzen da, ta adiskide anima galtzalle bati atsegin ematearren galtzen du Jaunaren amorioa, grazia, ta gloria, ta geiago estimatzen du adiskide gaizto ura Jangoikoa bera baño. Orra nolako biotza zedukan; bigarren itzerako aldatu zan ta gauza gutxi bate gatik, iñork bularrean ezpatarik ipiñi gabe, ausitzen du Jangoikoaren Lege santua. Batak maiteago zuen bere onra edo diruba Jangoikoa baño, ta besteak adiskidea. Badira beste batzuek esango dizutenak maite dutela Jangoikoa, ta kalteren bat egiten badie soroan, mendian, edo honran, an dira birao gogorak, madarikazioak, gorroto edo ekusi eziñak. O amataz-lle ain gauza gutxi bate gatik ausitzen dutenak Jangoikoaren Legea, ta galdu bere grazia ta amorioa!



Nola esan dezakete berriz beren ondasun ta bizitza baño ere mai-teago dutela Jangoikoa itz garratzen bat esan dielako, kalte arin bategatik, ematen dituztenak benguzko auzi edo kerellak, gasta erazitzeke gaizki esan edo egin dienai? Kristok nai du, ematen *badige masallako bat, prest ego-teko beste bat eramatera* bere amarez, auzitan kendu nai badige Korputz estalgi edo tunika, emateko kapa pakearen amarez. Nork esango du bada, maite dutela Kristo bere esan oek egin bearrean, ematen dituztenak auzi bidegabeak, edo erneguz, aserrez, ta gorrotoz ematen diranak?

Berriz, non dute Jangoikoaren amorio garbi ta santua edaten dituz-tenak pekatu loi zatarrak ura bezela, ta ardoa baño ere poz geiagorekin? Eztue ezpatarik bear onelakoak pekatu egiteko. Borondate idiki, ta zabal zabalarekin ematen die sarrera ta egotegia pensamentu txatar lizunai, gozatzen dira beren naiz gauza loietan. Amore loiarekin nola alkartu amorio Jangoikozkoa? Ekusten dira kristau izeneko asko atsegin geiago-rekin enzun, edo esaten dituztenak itz itsusi ta lotsagarriak, parre gozoak egin oi dituztenak ipui gaizto, ta amore kantak enzunda ta Jangoikoaren itzetarako iguia ta atzerapena dutenak. Oek maite dute Jangoikoa? Zein gutxi! Maite dute bai Infernuko Asmodeo deritzon etsai zikiña, edo onen legea.

Zoaz berriz galdetzera maite duten Jangoikoa eskuka zikiñez ase ezin diranak, amore loitik sortzen diran apa ta laztanetan aspertu ezin diranak beren, ta beste askoren animak galtzen dituztela. Zoaz bai galde-tzera aragizko bekatuetan korputz, anima, ta sentidu guziekin sarturik daudenak, amatzen duten Jangoikoa biotz, ta alegin guziarekin berak eskatzen digun bezela? Eztue beste amorerik beren bekatu lagunarena baño. Oekin beren pensamentuak, oetan beren biotza, oekin itzkera amo-rezkoak, oen amorean daude katigu, ta ez bakarrik ezarten die, beren idolo loiai fede gabeak zur, edo arrizkoai bezela, inzenso zati bat, baita eman ere beren entendimentua, ta borondate osoa. O zori gaiztokoak! Eta zer esango die Jangoiko amore guziak merezi dituenak, bere esanak gorde nai ez, ta maitatzalle gaiztoen esanak pozik egiten dituztenai! Ta, nola kastigatuko ez ditu! Nik botako det alakoa, dio Kristok, Infernuko oean, ta an lengo amore ordean egon bear due beren maitatzalle zatarr-kin betiko gorroto, ernegazio, ta alkarganako aserrean. *Mittam eam in Lec-tum*. Apoc. 2. 22.

Amore ederraren beste siñalea da pazienza, edo onez eramatea mundu onetako naigabeak, dala Jangoikoak ematen dituenak zuzen; dala gizonen edo infernuko etsaien aldetik datozkigunak. *Charitas patiens est*. Karidade, edo Jangoikoaren amorea padezikorra da, edo onez eraman

erazitzen dituana atsakabe, ta naiezak. Kontrako aizeakin geitzen da sua mendi bat erretzen dagoanean. Onzi bat zuzendu bear duenak, ez du bere jakituria agertuko itxasoa eznetan edo pakez dagoanean, ta bai olatu ase-rre, laño, ta bisutsen erdian. Udaberrian enzuten dira txoritxoak kanta-tzen; ordea negua urreratzean, ixiltzen dira. Ala bada kristau batzuek ere. Tentaziorik ezpadue, orazio, konfesio, ta komunio santuetan arkitzen badira gozaro, negar samur ta biotz biguñarekin, sendo dabilta Jangoi-koaren bidean, kantatzen dituzte bere alabantzak. Baña mundukoak eses-ten badie parrez, zorrozten (sic) badituzte mingañak oi duten bezela, gaizki esateko, aserraten dira, tristetzen dira, ta asko, pazienziaren paltaz, biurten munduko dibersio ta nasaitasunetara.

Badira beste batzuek azaletik, ta mingañaz Jangoikoa maite dutenak, ta biotzaz ez. Esango dituzte egunoro iru errosario, debozioko Aita gure ta Abe Maria asko, ta Jangoikoa ta bere Ama alabatzen duten mingain berarekin esango dituzte murmurazio astunak, ta gauza bear ez diranak; egongo dira luzaro elizan errezatzen, eta etxe guzia irabiraturiko dute dea-darrez mirabe gaisoi pakerik ematen ez diela ezerezkeria batzuek gatik, ta bai humildatu nai ez pake osoak egitera auzokoren batekin. Oek dira Fariseo gaiztoak bezela *zaietan zioji iriñetan era*, obligaziorik ez duten gau-zetan txit begiratuak, beldurtiegiak, pakerik ez debozio batzuek esan gabe eguna igaro bazaie; eta urratu ardura gabe Jangoikoaren Legea, ta larga obligazio estuko gauzak. Ematen die mamia deabruari, ta azala Jangoiko-ari; garbitzen dituzte onziak gañetik, ta barrunbea uzten dute garbitu gabe. O amatzalle ederrak! Jangoikoak eskatzen du biotz ona, garbia, zuzena, ta oso osoa. Asko daude deboto, buruz beera goizean elizan, ta arratsaldean modestia gabe plazaan.

Jangoikoaren amorio señaie andia ere da animen zelo, gose edo ega-rri izatea. Jangoikoa maite maite dutenak ez dakit nik zer egingo ez lukeen besteen animen salbazioagatik. Badakite zer kosta zaion Kristori gure sal-bazioko atea idikitzea; zer dan zorioneko edo zorigaiztoko izatea Zeruan edo Infernuan. Ezin badue agirian bear egin animak irabazteko, ez ari predikatzen, ez konfesatzen eliz gizonak ez diralako, egin oi due alegin guzia itz onekin, orazio ta penitenziakin irabazteko Kristorentzat. Nola-ko negarrak botatzen etzituzten Santa Teresa, Santa Maria Magdalena Pazizko, ta beste Santu ta Santa askok, fedegabe, ta kristau gaiztoen itxu-tasuna ekusita? Nolako eskaariak Jangoikoari aien salbazioagatik? Berriz Jangoikoa maite dutenak sentitzen dituzte asko berari egiten zaizkan inju-ria ta ofensak bekatu mortalekin. Nola Seme on batek sentituko ez ditu bere Aita kolpetzen ta banatzen ekusten badu? Eta nola minberatu ez,



Jangoiko Aita guziak baño Aitagoa dana milla aldetara ofenditua ekusten duen anima ona?

O Kristauak! Amaezazute Jangoikoa, *zeren berak leenago amatu gaituen. Quoniam deus prior dilevit nos.* Eta Jangoikoa gizon egin baño leenagokoak ere amatu bear bazuten biotz ta anima guziarekin, zenbat arrozoi geiago degu, Kristau bere odolarekin erosiok amatzeko gere Kristo Salbagille maitagarria! O lotsatzeko gauza! Jesus gure premiarik ez duenak eskatu guri ama dezagula, ta amatu nai ez? Eta ofenditu? Ez arren geiago, ez.

ERAKASTE III.

Gauza beraren gañean

Ego Dominus Deus tuus.

Zeren gañean izango da gaurko doktriña, edo erakaspena?

Gauza txit bear baten gañean, ta da agertzea zer agindu, ta zer eragozten duen Jangoikoak lenengo bere Mandamentuari dagozkion itz oetan. Ni naiz ijitu ta katiguko etxetik atera zaituen Jauna; ez dezu idukiko Jangoiko arrotzik; edo bakarrik artuko nazu zure Jangoikotzat, ta ez asmatu, ez adoratu beste jende itxu askok bezela Jangoiko berri, ta ez diranak. Ez diozu ezeri idolo edo imajiñarik egingo, ez zeruan, ez lurrean, ez itxasoan arkitzen dan gauzari; ez dituzu kreaturak honratu, edo adoratu.

Ori onela bada, gaizki egiten dute kristauak Jangoikoaren, Jesu Kristo, Ama Birjina, ta Santuen itxura, irudi, edo imajiñak egin ta onratzeaz, bada dirudi eragozten duela Jangoikoak.

Ez dituzu itz aiek gaizki aitu bear, baizik Elizak aitzen dituen bezela. Agintzen du bada Jangoikoak bera bakarrik onratzeko; bera adoratu, ta bera amatzeko, ta ez beste Jangoikorik, ez talako bera baño besterik. Jangoikoak bere jendeari eman zionean agindu au, baziran lurrean Erreinu ta bazter asko, non onratzen ziran Jangoiko asmatu, begitandu, ta gezurrezkoak. Egiten zituzten urrezko ta zillarrezko imajiña edo idoloak. Batzuetan itz egiten zuten infernuko gaizkiñak idolo aien barrenetik, edo Sazerdote diruzaleak egiten zituzten milla asmo, ezkutuetatik itz eginda, siñis erazitzeke jende eroai beren Jangoikoak itz egiten ziela, ta eranzun galdeztzen zituzten gauzai. Batzuek adoraten zuten Jangoikotzat eguzkia, beste batzuek illargia; baziran suge, dragoi ta gizon ill ziran gaiztoai beldurrez bezela egiten ziztenak idoloak Jangoikotzat arturik. Guziak, arrazoiko argiarekin ezagutzen zuten bazala Jangoiko edo gauza guzien Jaunen bat, ta nola etzekiten nor zan, asmatzen zuten, batzuek bat ta besteak beste bat. Arritzeko itxumena! Fedeak argitu ez dituen jenderik geien geienak, egiazko Jangoiko bakarra ezagutu gabe, asmatu dituzte milla Jangoiko gezurrezko. Israeltarrak berak, Jangoiko egiazkoaren ezauera ta berri andiak izanik, ekusiezkeru milagro asko, ta mandamentuak enzunik Jangoikoaren aotik, ekusi ziran idisko baten itxura bat egin ta adoraten Jangoikotzat. Gure Euskalerrian, Jesu Kristo etorri baño lenago ere, etzuten



ezagutzen idolorik, ez Jangoiko askorik, ta bai bat bakarra ta izengabea. Athenasko jakitunen artera joan zanean San Pablo, arkitu zituen idolo ta Jangoiko palsoak, baita bai nola onratzen zuten Jangoiko ez ezagun, edo izen gabeko bat, ta esan zien uraxe zala berak predikatzen zuen Jangoiko egiazkoa, ta besteak utsak, ta gezurrezkoak zirala. Baña gure anziñako aasaba edo guraso euskaldunak etzuten ezagutzen bat baño, zeñen izenik etzekiten, ta gero ederki eman zioen Jaun goikoaren izena, zerren Zerua da bere egotegi argiro ekusten ematen dana; ezta ere inoiz galdu Jangoikoaren ezauera au, ez herejiarik sartu, Jesu Kristoren fedea sartu ezker. Zein nazio edo jendek mundu guzian konta dezake mirari au? Israeltarrak anbeste Profeta erakatsien artean, anbeste milagro ekusi ezker, biurtu ziran sarri idoloak adoratzera Jangoikoa largata, ta euskaldun basoen artekoak Profeta edo Irakasle gabe, milagrorik, dakigunez, ekusi gabe iduki zuten Jangoiko bakar baten ezaguera, ta eskeñi ere bai honratzeko gauzaren batzuek. Erromatar ain jakitunak jabetu ziran gure Españaz Kristo etorri baño zerbait leenago; adoratzan zituzten Jangoiko txatar asko, jaso elizak, egin idoloak, ta España guzia sartu beren engañu ta gezurretan. Baña ez inoiz Euskalerrri au. Emen iraun zuten len bezela ezagutzen Jangoiko bakar izengabekoa. Jesu Kristoren Fedea sartu ezker etorri ziran Godo herejeak, jaubetu Españaz, zabaldu zuten Arrioen herejia. Baña ez gure Euskalerrrian. Beti oek sendo Jesusen doktrina garbian. Zazpireun urtean egon zan Españarik geiena Mauru gaiztoen mendean, baño etzien sarrerarik eman berai, ez beren Profeta falso Mahomari euskaldun on ta leialak, ta leenago utziko zituzten ezpata artean beren bizitzak, Kristori traizio egin baño. O milla esker Jangoikoari emateko gauza miragarrikkoa! Nik ez dakit izango geran gu ain sendoak fede santuan, arkitzen bagera aiek bezelako peligroetan. Beintzat enzun dira itz ez onak igaro dan Franziaiko gerran. Tratatuak izan dira Sazerdoteak itz astunekin; amarrenak pagatzeko atzerapenak agertu dira batzuen aoan; ta ez dakit zer gertatuko zan Jangoikoak ebaki ezpalu etsaiak luzarago egotea gure artean. Nai izan det berri au eman etzekiten euskaldunei, ezagu dezaten nolako gurasoen umeak diran. Goazen orain utzi genduan gauzara. Eragotzi zien bada Jangoikoak israeltarrai jarraitzea beste jendeen oitura gaiztoa, zeña zan adoratzea beste Jangoiko asmatuak, ta egitea idoloak lureko, zeruko ta itxasoko gauzai. Zeruko kreaturen izenean aditzen dira eguzkia, illargia, izarrak; lurekoen izenean naiz gizon naiz beste gauzak, ta itxasoarenean, arraiak. Baña ez du inoiz eragotzi Jangoikoak bere itxura, Aingeru, ta beste Santuenak egitea, honratzen bada bakoitza bear dan bezela gero ekusiko degun gisan.

G. Baña nola ez da idolatriako bekatua onratzea imajinak? Oek edo pinturaz egiñak, edo zur, zillar, urre edo bestelako gaiak dira. Zer eman dezakete, zer enzun, zer ekusi, begiak iduki ta ezer ezpadakuste, belarriak iduki, ta ezer enzuten ezpadute?

E. Galdetze onek ematen dit bidea erakasteko zer honratzen dan Santuen imajiñetan. Ongi dio Erromako Doktrinak, ez dala pintatzen inoiz Jangoikotasuna, baizikan Jangoikoaren perfekzio, edo propiedade-ren bat. Pintatzen da Aita Eternoa Isaias Profetak ekusi zuen bezela Trono batean eseririk gizon zaar baten irudian. Zergatik ala? Adierazteko bere anzinakotasuna, bere betikotasuna, ta nola iñorgandik ez duen bere izatea. Onratzen da Espiritu Santua uso zuri baten itxuran, ala agertu zalako Jesu Kristoren gañean, ta usoaren kondizioetatik adierazteko Espiritu Santuaren propietade (sic) batzuek. Aita Eternoa gizona ez da, ez du gaztetze, ez zaartzarik, ez korputzik. Espiritu Santua ere usoa ez da, korputz itxurakoa ere ez. Baña gure argaltasunak, mundu onetan gauden artean, ezin Jangoikoa ekusi lezake dan bezela; ta argatik bear ditu estalki, ta figuraren batzuek. *Orain ekusten degu estalgarri*, edo itxurapenekin, *baña gero Zeruan arpegi arpegi*, edo dan bezela, dio San Pablo Apostoluak. I. Cor. 13. 12.

Berriz errazago aditu liteke txit ongi egiña dala onratzea Jesu Kristo, Ama Birjiña, ta Santu edo Santaen imajiñak; zeren iduki zituzten mundu onetan egiazko korputzak, ta badituzte gaur ere Kristo ta bere Amak Zeruan. Elizako lenbiziko urteetan asi zan usuario edo oitura au. Zeruko Aingeruak izan ziran Zaragozako errira ekarri zutenak, berak egindado Ama Birjiñaren imajiña gaur ere dirauana, ta zeñen debozioak ekarri diozkan erri ari ta España guziari anbat mesede. Eskribitu edo itz egin bear banu herejeai siniserazitzeko doktriña au, ekarriko nituzke argibide asko egi onen alde, au da, Eleizako denpora guzietan onratuak izan dirala Kristoren, Ama Birjiñaren, ta Santuen pintura, itxura edo imajiñak. Nork esan berriz, zenbat mirari egin dituen Jangoikoak Santuei ematen zaien onragatik imajiñen bidez?

G. Beraz onera edo probetxo andiko gauza da onratzea imajiña santuak?

E. Nola ere dan, Eliza Ama Santak nai du bere semeak ikasi ta gogorra sarri ekarri ditzeen imajiña edo pintura onen bidez lege anziñako, ta berriko gertaerak, obeto onratzeko Jangoikoa. Zenbat gauza miragarri adirazo zitzen Espiritu Santuak Profetai onelako estalki edo imajiñen bidez? Zer esan nai du deitzea edo ematea Jangoikoari Judako Leoiaren izena, baizikan adierazteko bere Altasun edo Podere guzien gañekoa?



Ekusten danean Jesu Kristo bildots baten irudi, edo itxuraz, nork gogoratu ez ditu bere humiltasun, otzantasun, ta espiritu biguntasuna? Ekusten degunean Kristo bera Arzai baten soñokoaz, aditzen degu bere erruki ta ontasun neurrigabea. Beste batzuetan pintatzen da Kristo munduan ekusi ta agertu zan itxurarekin, edo pilare bati lotuta azotetz ebakirik, edo Kurutzea lepoan duela, edo Kruzifikatua bezela. Zein kristau da onelako imajiña, edo irudiakin bigunduko ez dana? Zenbat Santuk beren besoetan artu, laztandu, ta bustitzen etzituzten malko goriz Jesus Kruzifikatuaren imajiñak? Zenbat bekatari gogorak irten dute Magdalenak bezela jiratuak, negarrekin bustirik Jesus Kurutzetuaren imajiñen oñak? Nork adirazo denpora laburrean zenbat debozio gozo, ta asegiñakin irten duten kristau askok, Loreto, ta Pilareko Ama Birjiñaren imajiñen aurretik? Zenbat eri edo gaixo osatu dira, zenbat beste mirari ekusi imajiña santuen bitartez Jangoikoak egiñak? Zer? Lurreko errege, ta izen andiko gizonak onratzeko egiten dira beren imajiña edo pinturak, eta ez dira egin bear gure Redentore, Jesu Kristo, bere Ama maite, ta serbitzari on, edo Santuenak? Bai, kristauak, au da Elizako doktriña Santuak jarraitu ta erakatsi dutena, ta onek izan bear du gure jarraibidea.

G. Ala ere jakin nai nuke nola onratu bear dan Jesu Kristo, nola bere Ama, ta nola bere Serbitzari Santu Zeruan daudenak.

E. Doktriña bear bearra jakituria laburra kentzat. Ona bada Eliza Ama Santak erakasten diguna Trentoko Konzilioan. Jesu Kristorekin Zeruan erregiñatzen dauden Santuak erregutzen dute gure premiak gatik, ta gauzez on edo probetxagarria da gu zuzentzea berak gana eskatzeko beren laguntasuna, ta beren birtutez iristeko mesede ta grazia bear ditugunak Jesu Kristo gatik, zeña dan gure Salbagille, edo Redentorea. Onela bada gu zuzentzen gera Santuak gana, ez berak guri emateko bear ditugun laguntza, mesede ta graziak, baizik jarri ditezen enpeñu ta bitartekotzak Jangoikoarekin, zeñen adiskide maiteak diran, ta beren bitartez, ta Jesu Kristoren izenean alkantzatzeko bear ditugun gauzak. Ematen duena zuzen, ez da Santua, ta bere Jangoikoa, zeña dan grazia guzien iturburua, ta Jangoikoak emango duena ematen du bere Seme Jesu Kristoren izenean, edo bere amarez ta merezimentuak gatik. Ezin salbatuko gera Jesusen izen edo amarez baizik, dio San Pablok Santuak esaten dute Jangoikoak ematen du, Santuak berak enpeñutat ipintzen duten Jesusen izena gatik. Ala bada Santuak gana gu zuzentzeak, ez du gutxitzen Jesu Kristo Jangoiko danari zor zaion lotsa, onra edo benerazioa ta bai nola bait geitu zeren obligatzen ditugu Santuak eskatzera Jesusen izenean ta onela onratzen dute izen santu au zeña gabe ezin ezer iritxi dezaketen. Zuzentzen

geranean Santuak gana eskatzen diegu, erregutu dezatela gugatik, izan ditezela ta enpeñu, ta bitarteko; ordea zuzentzen geranean Aita Jangoiko bera gana, edo bere Semea dan Jesu Kristo gana, esaten degu: Jauna, errukitu zaitte guzaz eman bekit salbazioa, edo grazia. Zeruko Santu, Santa, Aingeruak ez dute berenik ezer; guzia dute Jangoikoa gandik artua; onratzen dute adoratzen ta bedeinkatzen dute Jangoikoa, ta bildotsaren izena artutzen duen Kristo *Sedenti in throno et Agna*.

G. Eta zer ofizio egiten du Jesu Kristok gure alderako?

E. Nola Jesu Kristo dan Jangoiko, eta gizon, eman dezake berak, ta erregutu ere bai Aita Jangoikoari. Ala dio San Juanek, dala gure abogadu, edo bitartekoa Aita ganako, ta bitartekoa izate onek ez du eragozten berak ere ematea Aita Eternoak bezela, biak Jangoiko bakar bat izanik; ta Aitak, Jangoiko gizona dan Jesu Kristoren eskuetan ipini zituelako grazia ta gauza guziak. *Sciens, quia omnia dedit ei Pater.*

G. Baña nola honratu bear da Ama Birjiña, ta zer egin dezake guri laguntzeko?

E. Aditu ondo. Ama Birjiñari ematen zaion honra edo benerazioa da laburragoa bere Seme Jesu Kristori ematen dioguna baño; zerren Kristori zor diogun Jangoikoari dagokion adorazio oso ta onra betikoa, ta Ama Birjiña da Kreatura bat, Jangoikoak egiña, ta Jangoikoari bezelako adoraziorik zor etzaiona. Da gure bitartekoa, gu gatik erregutzen duena, ta aitortu zuena izan zituen grazia andiak artu zituela Jangoiko poderosoa gandik. Ordea zor zaio Aingeru ta beste Santu guziei baño onra andiagoa, ta iritxi dezake guretzat askoz geiago. Nola ori? Zuelako urtasun txit andia Jesu Kristorekin, zeñen Ama egiazkoa dan, ta San Agustinek dionez, Kristoren aragia dala Mariaren aragia, Ama dan aldetik. *Caro Christi Caro Mariae* Ama Birjiñaren graziak dira Aingeru ta Santu guzienak baño andiagoak, ta maiteago du Kristok beste kreatura guziak baño. Beraz geiago egin dezake bere bitartetasunaz. Ori aditzen det orain, baña nola jakin lezakete Santuak gure premia? Nondik jakin eskatzen diegula?

Guk, ez dakigu argiro nondik dakizten; bai ordea ekusten, enzuten, ta jakiten dituztela. Jakin dezaketuz lurreko gauzak, edo Jangoikoak ematen dien argiaren bidez, lurrean Profeta Santuak jakiten zituzten bezela, edo Aingeruak erakatsirik, edo berriak emanik, edo bai Jangoikoagan, ispillu argi, garbi ta eder batean bezela, ekusten dituztelako. Lurrean, erbeste negarrezko onetan, anbeste gauza miragarri etorkizun ere agertu bazien Santu askori, nola agertu ez Zerukoai lurrean igarotzen, ta igaroko diran gauzak?



G. Baña zertako onratzea Santuen erlikia, edo ezur ustelduak, edo erabilli zituzten soñokoak? Zer aterako degu debozio modu onekin?

E. Sarri askotan adirazo du Jangoikoak honra ditzagula Santuen erlikia, ondokiñ edo enparauak. Zenbat mirari ekusi ez dira? Eliasen estalki edo kaparekin, zer egin etzuen Eliseok? Irakurri, San Agustin, ta San Anbrosioren libruak, ta oetan agertuko dira, zenbat gaixo osatu ta zenbat beste mirari egin dituen Jangoikoak Santuen ezur edo bestelako erlikiakin. Elizako denpora guzietan onratuak izan dira ezur, len Espiritu Santuaren tenploko zatiak izan ziranak. Santuen ezurrak daude egun batean biztuzteko Zerurako. *Zuen buruko illetxo bat ez da galduko*, esan zien Kristok bere Apostoluei.

G. Eta mezako Sakrifizio santua nori eskintzen zaio?

E. Jangoiko ber berari, ez Santuei, ta bai oen memoria edo oroitzapena honratzeko. Izendatzen ditugu Santuak meza ematean, ta ala onratzen ditugu; ematen ere diozkaguz eskerrak bere serbitzari onak irabazi zituzten bikotoriak gatik, zerren lagundu zien artarako bere grazia andiakin. Milla ta irureun urtera dijoa esaten zuala San Agustin andiak. Ez degu sinistu bear eskiñi edo ofrezitzen zateela Martiriari, beren obi edo sepulturen gañean meza emana gatik. Egiten degu ori onratzeko beren memoria edo gomutea; ezta eskintzen Purgatoriotik ateratzearren, bada martiriak ill ondoan Zerura dijoaz iñon gelditu gabe; eskintzen da bada onratzeko Jangoikoa Santuetan, ta oek eska dezaten gu gatik. Ona nola itz egiten duen Sazerdoteak mezako orduan: *O Trinitate santua! Arzazu eskinsari au, zein ofrezitzen dizugun gure Jaun Jesu Kristoren Pasio, biztze, ta Zerura igo zuenaren onra ta oroigarriako; beti garbi gelditu zan Maria zorionekoaren, Joan Bautista doatsuaren, San Pedro, San Pablo Apostolo, ta Santu guzien onran, oen onrako dana, izan didin (sic) gure salbaziorako, ta guk oroitzen ditugunak, erregu dezaten gu gatik*. Ez da itz ederragorik aitutzeko Elizako doktriñaren garbitasuna. Eskintzen dana da Jesu Kristo ber bera; eskintzen zaio bere Aitari, ta eskintzen da onratzeko Santuak; ta oek eska dezen Jesu Kristo eskintzen danaren izenean.

G. Baña zergati Elizak onratzen ditu Santuak, zergatik ipiñi beren imajiñak aldaretan, ta zergatik celebratu beren jaiak, edo Zerurako jaioteguna?

E. O nolako galdetze ederra! Baña gutxik ezagutzen duena. Onratzen dira bada jaiakin Santuak beren birtuteak guk gogoan arturik, egin ditzagun berak egiten zituzten gauza onak, beren oñatsetatik (sic) ibilli, ta eldu gaitezen, elduziran betiko Gloriara. Ez dute Santuak gure onraren bearrik, guk bai beren eskarien eskari oek zuzendu bear dira geien, *alkan-*

tzeko grazia salbatuko gaituena. Animako premiak dira leenengo eska gaiak, ta korputzekorik ere eskatu bear etzaie gure animaren kalterako izango bada. Eskatzen zaizte osasuna, onrarekin irteeta aldi batzuetan. Ordea, zenbat alditan obeago da animarentzat gaitza, ta desonra? Euria bearbada, edo eguraldi ona, egiten dira Prozesioak. Ondo egiña da. Baña zein gutxi diran animako euri bear edo grazia gatik eskatzen ari diranak! Bekatuarekin galdurik daude asko, ta gutxi ekusten dira Santuak gana zuzentzen iristeko penitenziako grazia. Osasuna bear bada mezak ateratzea, Boto edo Promesak. O Fedearen laburtasuna! O animaren amorio laburra! Santuen jai-egunak artu oi dira bekatu geiago egiteko. Joan ermitetara, elizan sartu irten bat egin, ta beste egun guzia igarotzeko jan edan geiegietan, danza gaiztoetan, ta zertan ez? Jentillak ez tue anbeste gaiztakeria egiten beren idoloen jaietan, nola kristauak Ama Birjiña ta beste Santu batzuen egunetan. Nola igo zuten Zerura? Ordikerian ta bekatu bideetan zebiltzala? Martiriak eman zuten bizitza Jangoikoa ez ofenditzea gatik, ta zenbat kristauk egiten dituzte bekatu mortalak txit erraz, tormentuen beldur gabe? Nai duenak bada salbatu, ibilli bearko du beren bide garbi, ta zuzenetatik. Au da berentzat onrarik andiena. Bai, bai.



ERAKASTE IV.

Nola ausitzen dan Jangoikoaren legeko mandamentu au superstizioko gauzakin

G. Zer erakatsi bear degu gaurko doktriñan?

E. Nola urratzen dan Jangoikoaren adorazioko Legea superstizioko bekatuarekin.

G. Zertan dago bekatu au?

E. Ematean Jangoikoari bidegabeko onraren bat, ta onekin urratzen da bere Legeko lenengo mandamentua. Onra bidegabeko au da Jangoikoaren desonra andia. Ona zein ederki galdetu ta eranzuten duen Aita Astetek bere Doktriñako libru txiki, baña urrezkoan. *Nork geiago utsegiten du mandamentu onen kontra? Sinisten duenak sorginkeria, aztuen berri-emate, ames bidegabeko, ta onelako gauza txatarretan.*

G. Zer? Bekatu da sinistea sorkinkerietan?

E. Gauza bat da sinistea dirala sorgiñak, ta beste bat sinistea sorginkeria. Ez da pekatu sinistea dirala sorgiñak; baña baliatzea bat sorginriakin edo deabruaren bidez datozen gauzakin, da ematea Infernuko gaizkiñari onra bat, ta ukatzea Jangoikoari. Sorginkeria izenez aditzen dira gauza eragabeko asko gero banaan aitatu diranak.

G. Zer aditzen da ames bidegabe sinisterik eman bear etzaien izenez?

E. Amesak dira batzuek onak, edo Aingeru onagandik datozenak, beste batzuek Aingeru gaizto, edo deabruaren aldetikoak, ta beste batzuek gure imajinazio erotik, non egiten diran begitazio modu gabeko asko. Orain bada siniste ematea amesai, arrazoi onakin uste danean datozela Jangoikoa gandik, ez da bekatu, ta bai ondo egiña. Eskritura Santee-tan argitzen dira ames Jangoikozko, ta Aingeru onagandik datozenen ejenplo miragarri asko. Sinistea eman zion San Josek amesetan agertu zitzaion Aingeruari, ta iges egin zuen Ijitura Herodesen atzaparretatik gordetzeko Jesustxo. Sinistea eman zion Jose Jakoben Semeak, egin zuen ames bide onekoari, zeña egiaztu zan gero igo zuenean Ijitu Faraonen urrengo Gizon izatera. Sinistea eman zion Jose onek Faraon beraren, ta karzelako biren ames onai ta ames guziak esplikatatu edo adirazo zituen zeruko argiarekin. Onela ziran Daniel Profeta Santuak gizon itxura, ta arbola andi baten ames esplikatatu zituenak.

Jangoikoaren aldetiko amesak, ez dira alperrak edo utserakoak; beti dira onerako egiñak; ez dira bereala aztutzen, ta irasten dira gogoan

begiekin esnaturik gaudenean ekusten ditugunak bezela, edo geiago. Jangoikoak modu askotan itz egiten die gizonai, baña beti onerako. Zenbat bekatari iruditu zaie arkitzen dirala eriotzako esturasunean, Jangoikoaren juizioan, irteten dutela ames onelakoetatik beldur santuz beterik, ta konbertitu dira beste modu askotako abisuai gogortu ziranak? Pensatzea batek ta sinistea alako ames bizi, sendo ta on izatera garamezanak datozela nola edo ala Jangoikoa gandik, ez da bekatu, ta jarraitu bear diogu beti mobimentu santuari. Konzienzia gaiztoak esnaa bat dagoanean ere baditu arantzak, beldurrak, bakerik eza, ta ikarak, ta lotan ere izan ditezke alako ames beldurgarriak. Baña zenbat alditan alako kezka ta ikarak datozkigu Aingeru ona gandik, zeñek ez duen inoiz lorik egiten gu lo gaudenean ere?

Beste ames batzuek dira deabruaren aldetikoak. Argatik da gauza ona ur bedeikatua artzea, oera ezartea lotara goazenean, ta eskatzea Jangoikoari gorde gaitzala ames gaizto, ta gaueko ekusmen txarretatik. Ona Eliza Ama Santak artarako erakasten digun orazioa: *Iges dezela urruti amesak, gauetako ikuste edo irudi txarrak; O Jauna, lotu ezazu gure animako etsaia korputzak zikindu ez ditezen. Procul recedant somnia.* Beraz Elizak sinisten du gure animako etsaiak persegitzen gaituela ames gaiztoakin. Egia da, amesetan igarotzen diran kontu loi ta zatarrak ez dirala bekatuak, iratzartu, arrazoia argitu, ta borondateaz lekuri ematen ezipada. Baña da tentazio gaizto ta beldurgarria ta zeñean erorten diran bestela erorten diran asko. Kristau nasai, ta bekatuaren beldurrik ez dutenak, ames ondoan gozatu oi dira ezauera osoarekin beintzat bai asko. Ez ala bekatuari gorroto dienak. Onelakoak zaitzen ditu gauaz Aingeru onak, gordetzen ditu ames ondoan lekuri eman ez degioen, ta irteten dute kalte gabe, ta merezimentu andiarekin. Badira berriz (au esan nai det bidez) ames gaiztoetarako bideak ematen dituztenak. Esan oi da, *txakur gosea ogi ames.* Daramate eguna bizitza lasai ta aragi gosean, ematen diela bidea pensamentu loi askori, esaten dituztela itzketa zatarrak, egin akzio lotsagarriak, jira ta bira bekatu loien inguruan dabilzala. Oek, zer ames egin bear dute beti gogotan darabiltena baño! Zenbat onelako, deseaten dutenak leenaz ames itxusiak idukitzea, lotan ere aspertzen ez dirala bekatu loiz, zeren dan lujuria gelditzen ez dan bekatua, dionez San Pedrok, kate sendo beti bezela luzatzen dana? *Incessabilis delicti.* II. Petr. 2.14.

Irugarren amesak, dira gure naturaleza, edo imajinazio moldagaitz ta aldakorrean sortutzen diranak; dira begitazio geienez sustrai gabeak. Zenbat gauza ekusi ta enzuten ez dira amesetan? Uste du batek diru pilloak biltzen ebilli dala, aberats dagoala, ta iratzartuta arkitzen da esku utsean



oera joan zanean bezala. Beste bati deritza, zezen batek jarraitzen diola, arinik ezin duela, galdua dala aberetzaz begitandu aren adarretan, ta ikara andi batekin esnatzen da, ta arkitzen du burua oe biguñean. Onela egiten dira milla ames ero ondo gabeak. Ala bada ames on Jangoikoarenak diralako ezaugarri edo señaile argiak dituztenak, ez dira despreziatu bear. Baña onelakoak gutxi dira. Deabruaren aldetik datozenai, ez diegu lekurik, ez sinisterik eman bear.

G. Zer esan nai du baña ez sinisterik emateak?

E. Eztegula zai bezela egon bear zer ames egingo degun, igarteko zer gertatuko zaigun, edo dan gauzaren baten. Errazak diranak edozein ames zaitzen jartzen dira peligroan Jangoikoarentzat artzeeko deabruarenak, ta gure begitazio eroak profezia egiazkotzat. Ona zer dion Espiritu Santuak: *Askori utseragin die amesak, ta oetan konfianza ipintzen zutenak erori ziran. Ez diezu etorkizunai igarri bear amesetatik. Eztu iñork zuen artean izan bear ames zai gauzai igarteko; zerren gorroto dien Jangoikoak onelako gauzai.* Kristau gutxi dira onetan uts egiten duteenak, baña bai mandamentu onetan beste modu askotan.

G. Zer esan bear da asmatzen dutenen gañean urlia defuntu edo defuntaren animak irten diela?

E. Asmatzen badute, da bekatu mortala, zerren ezarten dioen Jangoikoari falso testimonio andi bat, edo gauza pisutsuan. Asmatzea gezurrez beste munduko errebelazio, agermen, edo ekusmenak, da desonratzea Jangoikoa onra bidegabeko bat eman naiaz. Nork sinistu berriz anbeste erakeria, nola zabaltzen dituzten batzuek beste mundutik agertu zaitela esan oi dituzten animen gañean! Guziak dute soñu bat: Agertu zat Urlia anima; esan dit Purgatorioan dagoala, egin zuela bizi zan artean promes bat joateko, edo Lezora, edo Aranzazura, edo Urkiolara, edo beste ermitaren batera; zor dituela onenbat meza, ta aiek atera ta promesak kunplitu artean ezin irtengo duela Purgatoriotik. Asmatzen dituzte batzuek alditxaar beldurretik jaiok; biltzen dira defuntuaren senideak; diaz (sic) guziak promesa kunplitzera enbustera berarekin; ta gero onek esaten die elizan bertan, edo ur bedeikatu onziaren ondoan ekusi duela berriz, eman diozkala eskerrak egin dion mesedea gatik, ta igo duela animak Purgatoriotik irtenda Zerura uso eder baten itxuran. O anima zorionekoa! diote gero. Nork lukean alako ditxa! Aita Santu Erromakoak kanonizatu edo santutzat eman balu ere, ez litzake izango poz geiago aideen artean, nola dauden berritxu, edo gezurti baten asmazioak sinistuta. Eta bear bada, dio Aita Kalataiud (sic) Misionista enzunak, difuntu ura izango zan bizitzan lasai ta kristau txaar bat, ta Deabruak sinistu erazo nai die,

erraz salbatzen dala, anima agertua ere izan zala lujuriosoa, ordia, edo bizitza nasaikoa; guziaz ere salbatu zala Purgatorioan denpora zati bat igerota. Egia da, bein baño geiagotan agertu dirala animaren batzuek sokorru edo orazio eske; baña ez dira agertuko edozein berritxuri. Santu ta Santa onelako agermenak izan dituztenak dira ixillak, errietan zabalten ez dituztenak alako gauzak; ta agermen oek dauzkee señaile obeago batzuek. Ala bada, geien geienak dira, edo begitazio utsak, edo gezurrez asmatuak, edo deabruak emanak animako kalteak ateratzeko.

G. Nork geiago uts egiten du Mandamentu onetan?

E. Asmatzen duteenak gaizkinduak daudela. Badakit Ebanjelio Santuan arkitzen dirala ejemplo asko, ta nola Kristok ateratzen zituen demonio edo Infernuko gaizkiñak askoren korputzetatik, ta eman ziela bere Dizipuluai gaizkiñak ateratzeko grazia edo eskubidea. Eliza Ama Santak ere ezagutzen duela bere ministroetan podere edo eskubide au konjuruen bidez, ta erakurtzen dala Santu askoren bizitzetan, nola ateratzen zituzten gaizkiñak korputzetatik. Izan dira bada egiaz gaizkinduak izango ere dira aurrerakoan. Baña bai gezurrez dabiltzan asko ere. Anziña Deabrua zan mundu onetako nagusi bezela; Kristok kendu zion bere nausitasun au *Princeps huius mundi ejicietur, foras*, ta ez du Satanasek anziña zuen eskubiderik. Gauza bat da benetan gaizkindua egotea korputzaren jaube bezela eginik, ta au gutxi gutxitan gertatzen da gaurko egunean; ta beste bat inguruan bezela ibiltea deabrua gaizki egiteko guri. Santurik andienak, birtute andira Jangoikoak eraman nai dituenak, dira geien persegituak. Job Santuari kalte andiak egin ziozkan deabruak ondasunetan ta korputzean gait andiak. Orain ere izango dira gaitzen batzuek bere gorrotoz datozenak, ta gauza ondo egiña da sendatzeko Ebanjelio Santuak erakurtzea, ur bedeikatua oera ezartea; baña konjuru osoak egin bear ez dira Obispo Jaunaren agindu gabe, zeñek ezaguerazi bear ditu, zein diran egiaz gaizkinduak. Bestela gezurrekin sartuko dituzte engaño asko, ta egingo dira konjuroak bear ez dirala. Konjuratzalle asko dagoan errian izango dira gaizkindu asko. Asmatzea batek gaizkiñak dauzkala, deadarrak egitea eleizan sartzean, ta onelako beste asmoakin jendeak engañatzea, da bekatu txit andia. Onetan ta sorgiñetan egon oi dira asko gezur. Jende adin labur-rekoak bereala sinisten dute bata edo bestea sorgiña dala gaizkiñakin dagoala. Sorgiñen izenez aditzen bada gizon edo emakume deabruaren bidez gaitzak egin dituztenak, edo enkantatzalleak, izan dira munduan onelakoak. Faraonek bazituen Ijitian onelako enkantatzalleak, mirari irudiak egiten zituztenak, nola zan zigorrai suge bizien itxura eman, ta urari odolarena. Saul Erregea ere baliatu zan emakume etxizera batekin biztu



erazitzeko Samuel Profeta Santua, ez egiaz Sorgiñak, edo Etxizerak dutelako illak piztutzeko bertuterik, baña bai okasio artan Jangoikoak piztu zuelako Samuel, zein biurtu zan laster iltzera Saul erregeri Zeruko kastigua adierazo ondoan. Len Deabruak zedukan munduan orain baño esku-bide geiago, argatik ziran etxizeru edo sorgin asko. Baña orain badaude batzuek, dira guziz gutxi ta ala ez da sinistu bear urlia atso dala sorgiña, itxura txarrekoa, edo ez negatua dalako. Umetxoak gaisotzen diranean, zenbat dira sorgintzatik gaixotu dala uste duteenak? Eztaude gaitz mota asko? Zertako da bada sorgiñai kulpa egoztea? Aurtxoak Jangoikoaren grazian egonik Aingeruak ere gogozago gordetzen dituzte andi gaizki bizi diranak baño. Urlia emakume sartu zan nere etxean ain egunetan, begiratu zion kontu andiarekin nere aurtxoari, zeña zegoan gizen, mamintsu ta txit ederra. Andik laster gaixotu zitzatan, asi zan argaltzen, lorik egin ezin du, ta guzia galduaz dijoa, ta ala begizko egin zion. Oro bat esan oi dute ganadu gizenen bat argaltzen ta gaixotzen bada; guzia da begizkoari ezartea, ta gaiztoago dana esatea izenez, urlia emakume izango dala. Onela ezarten dira gezur astunak. Ah Kristauak! Ez orren erraz sinistu begizko kontuak. Edo guziak gezurrak dira edo egia bat nekez arkituko da milla gezurren artean. Adanen bekatuak ekarri ditu gaitz asko, ez bakarrik bere ondorengoetara, baita ere ganaduetara. Ez det orregatik esan nai, aurtxoai ipintzea kutunak. Ebanjelio Santu eskribituarekin, dala gaizki egiña; sorgin ta begizkodun gabe gaitz egin lezake Deabruak berez Jangoikoak lizenzia ematen diorean, ta Ebanjelio Santu eskribitua, ona da beldurtzeko gezurraren aita, baita ere bestelako gaitzak osatzeko fede bizi batekin laguntzen badiogu. Ordea ez dira larga bear munduko sendagarri edo erremedio Jangoikoak larga zituenak.

G. Baña nolako erremedio, edo osagarriak artu bear dira?

E. Bide zuzenekoak. Onelakoak dira, edo Jangoikoaren edo naturalezaren aldetik datozenak. Erakurtzea sazerdoteak gaixo danari Ebanjelio Santuak aplikatzea Santuen relikiak, Mezaren bat atera erazotzea Ama Birjiña edo Santuen onran, eskatu degioen gure osasuna gatik; da sendagarri zuzena, ta guziz ekusten danean naturalezako sendagarriekin ezer aurreratzen ez dala. Dira sendagarri edo erremedio zuzenak mediko edo barberak ematen dituztenak; zerren belar, ta beste gauzaren batzuetan larga zuen Jangoikoak gaitzak sendatzeko bertutea. Baña badira bide txarreko erremedio edo sendagarriak ere, ta dira Jangoikoaren edo naturalezaren aldeti ez datozenak. Onelakoak dira bedeinkazio bidegabekoen bidez egiten diranak. Gizon edo emakume dirua atera nai dutenen batzuek dira ikasten dituztenak orazio modu Jangoikoak jakin nolakoak;

siniserazitzen dioe sendatuko dituztela; egiten dituzte kurutzearen seiñaleak miña dagoan tokian; badira zapi edo pañueloak ere bedeikatzen dakiztenak, ta oek ipiñi gero gaitza edo miña dagoan lekuan. Eta nork eman dioe eskubidea Eliz-gizonak izan gabe gauzak bedeikatzeko? Eliz gizonak ere egin ezin ditzakez bedeinkazio zuzen ta ontzat emanak baño. Ezkutuko orazio gaixoak sendatzeko esan oi dituztenak gizon ta emakume artara ematen diranak, ez dakigu nolakoak diran. Onak balira ere eman erazitzen dute konfianza bidegabea. Ala bada larga alako sendatu nai. Orazioa nai bada sendatzeko, izan dedilla zuzena ta jakiña; bakoitzak berak egin dezake; erregutu ere bai kristau onai eska degioen Jangoikoari osasuna iristeko, ta artu gizon aitua agintzen dituzten erremedio edo sendagarriak. Nolakoak oi dira gizon ta emakume bedeinkazioakin sendatu nairik dabilzanak? Diru zaleak, ta bear bada ardanzele eta alper batzuek. Oei emango die Jangoikoak grazia guzia, ta beste kristau bertutetsuai ez? Justiziak artu bear luke kontua eragozteko onelako osasunemallak, edo galtzallak egiten dituzten kalteak.

Deabrua da Jangoikoaren tximoa bezela dio San Gregoriok. *Simius divinitatis*, artzen du eskua agirian ezpada ere, bai ezkutuan edo albokerrara. Asmatu erazi ditu bedeinkazio ez onak bedeinkazio santu ta Elizakoak desegiteko. Asko kristauk eraspem edo konfianza geiago dute bedeinkatzalle txarren osasun ematean, Elizako bedeinkazio ta Jangoikoak larga dituen erremedioetan baño. Gaixo dagoanak, osasuna nai du, esan oi dute. Ondo dago, baña billa beza bide onetik. Osasuna gero arkituko ez dute, ta galdu bai dute anima. Nik ezagutu ditut bat baño geiago orrelako bedeinkatzalle bide txarrekoak, superstizio gauzak egiten zituztenak. Ordea gaixoak gelditzen ziran gaixo, ta ill ere bai beren erremedio txarrekin. Izan diteke bat edo beste sendatzen duena noiz bait deabruak lagunduta; baña geien geienak dira gezurti batzuek milla eskintza ta itz labañekin jendeak engañatzen dabilzanak. Gizonak ill bear du; artu ditugunean bide garbi ta zuzenak sendatzeko, sendatzen ezpatera, dei egiten badigu Jangoikoak beragana, zergatik enzun ez bere deia? Zertarako gaizki esatea medikuen kontra, zeintzuek egin alak eginda ere ezingo gaituzten libratu erioko gaitzetik? Gaisotzen diranean asko, guzia da ona ta ara promesa, erremedio edo sendagarriak billatzea zuzen edo oker, ta gutxi gutxi dira ezin bestez baño animarekin kontua artu oi dutenak. Gaitz guziak datozkigu bekatu, edo jatorrizkotik, edo bakoitzak egin dituenetik sendatu zuen bein Kristok inork sendatu ezin zuen eri edo gaixo bat, eta zer konseju eman zion gero? *Ez geiagorik egin*, esan zion *gauza gaitztoagoren bat gertatu ez dakizun*. Au zan esatea bezela: Zure gaitza bekatutik



sortua da. Orain sendatu zaitut; baña berriz bekatuak egiten badezu, ez dizu ala irtengo. Bai kristauak, bai; bekatuak dira gaitz askoren ekarle ta iturburuak. Sendatu nai duenak garbitu konzienzia konfesio ondo egiñarekin; artu aurrera bizitza zuzen bat eramateko gogo sendoa. Errazago etorriko da Jangoikoa osasuna ematera, ekusten badu serbituko dezula bera osasunean. Baña badakus frutu gaiztoak emango dituzula, ebakiko du arbola txaar ta kaltegarria. Bai, dio Espiritu Santuak, *gaiztoen urteak laburtuko dira*; egun erdietara elduko ez dira. Au askotan gertatzen da. Onak ere iltzen dira gazterik, baña eriotza onelakoa da salbazioeko prenda ederra.

G. Nola utsegiten da berriz ta berriz adorazio santuaren kontra?

E. Billatzen diranean igarla falso, edo euskeraz izentatzen diran bezela, *aztuak* edo *aztiak* jakiteko beren bidez bestela jakin ezin diran gauza ezkutukoak. Badira bai jende eroai sinistu erazi oi dien emakume, edo gizonak, igarten dakitela non galdu dan onelako edo alako gauza, nork ostu duen. Galtzen bazaie zaldi, idi edo beste ganaduren bat, dijoaz konsultazera aztia, edo igarle txarrarekin. Onek eranzuten dioe, agertuko dala onelako edo alako egunean, jaten dagoala belarra ordu artan, ta milla erausirekin, konsulta egiña ondo pagatuta, biurtzen dira etxera. Noiz edo berriz agertzen bada ganadua, aztia gabe ere gertatu oi dan bezela, alabatzen dute aztia Jangoikoaren jakituriaz beterik balego bezela. Au da bekatu txit andia. Nondik jakin dezake aztia, edo igarle ark gauza ezkutukoa? Edo Jangoikoa gandik, edo Deabruagandik. Jangoikoagandik baltza, agertuko luke bere birtute andian; ta ikusi da iñoiz aztia birtutekorik? Nik iruren berriak izan ditut, ta bi, zeintzuek ziran gizonak, ziran ordi gaizto batzuek. Ta dirua eramatea Jangoikoaren doaiak gatik, bera da bekatu txit andia. Deabruaren bidez badakizki, ezin lagundu genzake bere gaiztakeria. Gezurti andiak badira, zertako sinistu? Lurreko jakituria berriz ez da dui orretako. Beraz, ez dago arrazoi zuzen ta garbirik sinistea emateko, ez galdetzeko ezkutuko gauzeen berria alako igarle edo aaztia txarra. *Divinant mendacia*. Bai, gezurrak asmatzen dituzte, diru billa dabilta nekazari gaixoen ziskutik, ipintzen dituzte errietak gezur andien bidez. Kristau errietan ekusten dira bada profeta falsoak, anziña idoloen adoratzallen artean bezela. O nolako bidegabeta Jesu Kristoren Lege garbiari! Nola kastigatuko ez ditu Jangoikoak? Saulek arkitu zuen laster eriotza gaiztoa alako igarle edo aaztia txarra bilatu zuenean. Zer gertatu zitzaion Okozias Erregeari? Gaixo zala billatu etzuelako osasuna bide zuzenetik, ta bai egin konsultak profeta txarra, adirazo zion Elias Jangoikoaren profeta garbiak, etzala jaikiko zegoen oetik, ta gaitz arekin illko

zala. Zer gertatu zitzaion Manases Erregeari? Zuzendu zalako profeta txar ta gezurtietara, galdu zuen erregetzea, ta eramana izan zan kateakin loturik presondegi gogor batera. Oek ez dira ipui ta munduko jakitunen istoriatik atera diranak; dira bai fedeko gauza edo Eskritura santako gertakuntzak. Iraatsirik dago iñoiz desegingo ez diran itzakiz Jangoikoaren zemaizta au; Nik galduko det anima zuzentzen dana zerbaiteko, sorgin, aaztia, edo igarla txarretara. *Animam quae declinaverit ad Magos et Ariolos interficiam*. Nork ordea atera asko beren begitazio, ta iritxi eroetatik? Esan bezee nai dutena apaiz-eraileak, guk ala egin nai degu; au da askoren soñua.

G. Zer esan berriz salutatzaileen izena darabilten gizon zatar batzuen gañean? Ez dute bertuterik sendatzeko txakur amorratuaren uski, edo jaana? Nork esan ezer oen kontra? Dute grazia berezkoa.

E. Au da erri askotan sartuta dagoan beste utsegite kaltegarria animarako, ta kaltegarria polsarako. Ona doktrina garbi ta iñork ukatuko ez duena zenu apur bat badu. Bada bide zuzeneko salutatze bat; ta da San Bernardoren seme edo monjeak egiten dutena. Oen orazioak alako gaitzetan dira zuzen, garbi, ta edozein kristauk billatu ditzakeanak. Berriz ez da ala bestelako salutatzaile zatarren zeremonietan, zerren geienez egin oi dituzte bide gabeko gauza ez gutxi. Nork eman die Eleiz-ez gizonai ogia bedekatzeko eskubidea, ta ori berak dakizten zirimonia ta itzakiz? Nork eskiñi die urdindu edo lizunduko ez dala berak bedekatu duten ogia? Au da Elizako ogi bedinkatuak ez duen pribilejio bat. Nork esan die, edo nongo arrazoiz sinistu, salutatzaile txar alakoak bedinkatu duten ogia jan ezkerro; gordeko dala amorratzeko gaitzetik zakur amorratuak jango balu ere? Ez nuke nik beintzat orrelako probarik egin nai. O jakin eza, eta zenbat kalte egiten dituzun nekezari gaixoetan! Nor errukituko ez da ekusteaz etxeko jendea belauniko jarri, ta debozio elizan baño andiagorekin, ekusten salutatzailearen konjuru, ta enzuten berak dakizten erreguak! Bedinkatzen ditu giza traskil batek ganaduak, ta kristau etxeok ere; ematen die gero alogera edo bear-saria, ta sabela janez ta ardoz beterik dijoa. Zeruko graziaz jaunzirik dagoan gizon ura begi lausotuekin zabuka Kristoren imajina bat bular agirian duela, ta polsan dirua. Oek kristau errietan? Eta justiziak lotan errietatik deserritu gabe gezurti ordi Elizako gauza santuen desonratzaileak? Negargarriago da, erriko justizia, ta bezi-noak berak ajustatzea alako salutatzaileekin, emateko urteoro onenbat diru, ta salutatze erriko etxeak. Kendu bada errietatik onelako oitura txataarrak, ez sinistu gezurtiai, ta ibilli beti bide zuzenetik.



Ona emen zuzenbidea igarteko noiz dan superstizioa esaten, sinisten, edo egiten dan gauza: ezpadute birtuterik, edo Jangoikoaren edo naturalezaren aldetik artzen diran bitartekoak zerbait izateko edo iristeko, dira superstizioak. Onetara ere datoz begiratze, zaitze, edo obserbazio bidegabeak: Zenbat onelako nekazari ez jakiñen artean?

Ona batzuek, zein diran alde batetik erakeria utsak ta bestetik superstizio edo sorkinkeria utsa dutenak. *Kukua kantatzen enzuten duena, ez dala illko urte artan*. Zenbat iltzen dira kukuaren soñua enzuna gatik? Non-dik du kuku soñuak urte artan eriotzatik gordetzeko indarra?

Ostiralean illea orraztzen bada, loditu edo sendotzen dala. Zer du ostiralak beste egunak baño geiago?

Begizkoa norbaitek eginda illea erori ez didin, beardala busti burua Elizan artuzen dan ur bedeikatuarekin. Ur bedeikatuari nork eman dio ille gordetzea?

Zenbat okaran ale jaten diran San Lorenzo egunean, anbat zaldarrek irtengo diela jaleari. Au ala balitza, zenbat zaldardun munduan?

Doneane goizean oñak garbitzen badira intzetan, ez duela urte artan sarnarik izango. Nork eman dio Doneaneko intzari bertute au?

Baratxuri atalarekin, igorzen badira enar edo karetxak, sendatuko dirala, edo desegin, ez nola ala, baizik *gero gordeaz baratxuri atal ura orma zilloan*. Baratxuria izan diteke ona enorrek osatzeko; baño orma zilloan gorde-tzeak, zer bertute emango dio?

Sardina jan danaren ezurra surtara botatzen bada, igarriko dala semea edo alaba jaioko dan. Salto egiten badu surtan, edo salto gabe erretzen bada, dala, diote, igarbidea. Zer du zer ekusi asmazio onek amaren sabelean dagoan seme edo alaba ezagutzeko?

Begizkorik iñork egingo ezin diola, ikatza kolkoan darabilenari. Kolkoko ikatzak zer du zer ekusi begizkoetan? *Botatzen badira bidagurutzean ollo beltzaren lumak, zenbat botatzen diran, anbat pamerial arkituko dirala*. Zer ote dira pamerial oek? Berriz ollo beltzaren lumak, zer dute zer ekusi zuriarenak baño geiago pamerial asmatuak billatzeko? Zer geiago bidakurutzeak (enkruzijada) bestelako bide edo tokiak baño? Oek siñistea da sorginkeriarai siñistea ematea. Guzia da gezurra, ta fedeko gauza santuen desonra utsa. Zenbat onelako? Burkoko luma edo artilleak gora ta bera erabilliaz, egiten dituzte etxurapen edo figura asko. An dabilta batzuek begiratzen figurai, ta beste gabe begitantzen zaie sorgiñak dabiltzala, gaitzak irrasten dirala, ta galduko dala oe artan etxuten dana erretzen ezpadira figura aiek. Korputzean irteten badu zetaka, orban, edo natu beltzak, guzia da esatea sorgiñen jana dala. O Kristauak! Zertarako dira asmazio ero ta animaren kaltegarri oek ta onelakoak? Jangoikoaren Legea garbia da, ez du sustrai

gabeko sinisterik; jentil ta fedegabe anziñakoak utzi zituzten jentil usaiak ez dira kendu oraindikan. Sazerdoteai ez die kausio ta jaramonik egin nai esaten dienean ez diela sinisterik eman bear bidegabeako gauzai. *Jangoikoak gorroto die*; Dabid Erregeak dion bezela, *alako obren batzalle eragabekoai*. *O disti observantes vanitates supervacue*. Ona Espiritu Santuak ematen digun konsejua eritzen edo gaixo geraneko; *Nere Semea, zere gaitz orduan ez utzi zere buruari, eskatu bear diozu bai Jangoikoari, ta berak sendatuko zaitu*. Bide bi larga ditu Jaunak, bata billatzeko osasuna zuzen Jangoikoagandik lurreko sendakarriak eltzen ez diranean garaitzeko gaitza, ta bestea berak ipiñi dituen erremedio edo sendarrietan. *Onra ezazu medikoa, dio Espiritu Santuak, egin itzatzuz bere esanak; Jaungoikoak larga du gizonen ikasteen, zein diran erremedio edo sendarrien bertuteak; ta ematen die Jaunak ezagutzea onratua izan didin bere mirarrietan*. Ezekias Erregea osatu zan Jangoikoari gogotik eskatuaz; ta Isaias Profetak iraatsi edo aplikatu zion piko aleen enplastua. Orobat eman zitzaion Tobias zarrari begietako ekusmen galdua arrai baten beazunaz. Egia da Jangoikoarekin aztu, ta eraspene edo konfianza guzia ipintzen dutenak mediko lurrekoen jakiturian, egiten diela injuria edo bidegabe ez txiki bat Jangoikoari. Gaitz iritzi zion Jangoikoak, Asa Judako erregek iduki zuen konfianza geiegiari lurreko sendagille edo medikueta, ta zuzendu etzalako beragana eskatzeko osasuna. Medikoa utsegin dezakete milla aldetara; ta utsik egin ez dezen, orazio humill batek lagundu bear dio. Azkenean bi bide oek artu, ta badator eriotza, artu bear degu petxu zor dan au, zeren iltzeko jaiogian. Ordea largatzea Jangoikoari ta berak ipiñi dituen sendakarriai; eta zuzentzea bide okerrekoetara, bendizio Elizak ezagutzen ez dituenetara, asmo gaiztoetara, da Deabrua sendatzalletzat artzea. Orobat larga bear dira beste gauza aitatu ditugunen gisakoak. Ona zer dion San Juan Krisostomok: *Billatzen dituzte batzuek asmo gaiztoko atsa ordi edo ardanzeak enkantuko bidez sendatzeko, ta uste dute garbituko dituztela buruak esanaz, emakume kristaua da*. *Anbat gaiztoago baliatzen dalako Jangoikoaren izenaz bera desonratzeko (sic) Infernuko gaizkiñak ere ezagutzen ta aitortzen zuten Jangoikoaren izena; baño Infernukoak ziran*. Infernukoak nai dute ibilli didin gaizki Jangoikoaren izena, ta baliatzen dira ezkutuz bada ere, kristauekin, oek billatzen edo eman nai dutenean osasuna Jangoikoak debekatzen dituen bideetatik. Kendu bada kristau errietatik jentil usaiak, ta artu Elizak ta bere irakasle Santuen sinisbide zuzenak. Ala egiten ezpadegu, goiz edo berandu, eroriko da bere zigorrada zuzena, ta egingo da negar.



ERAKASTE V.

Jangoikoaren Legeko bigarren mandamentuaren gañean

Non assumes nomen Domini Dei tui in vanum. Exo. XX.

G. Zeren gañean izango da gaurko doktrina edo erakastea?

E. Jangoikoaren Legeko bigarren Mandamentu onen gañean, *ez dezu aitatu zere Jaun ta Jangoikoaren izena utsean*, alperrik, edo ezeri ez dagokiola.

G. Zer agintzen da itz oetan?

E. Onra dezagula Jangoikoaren izen beneragarria, edo aitatu bear dala lotsa andi batekin.

G. Zer eragozten da berriz?

E. Eragozten dira, bere izena lotsa edo errespeto gutxirekin artzea, blasfemia, edo itz bere desonragarriak, juramentu bidegabeak, ta birao edo madarikazio itzak lagunaren kontra.

G. Agintzen da beste gauzarik?

E. Bai, eta da osotzea edo kunplitzea boto, edo eskintza bere izenean egiñak, edo bide zuzenekoak, gero banaan aitatu ta azaldatuko ditugun bezala.

G. Nolakoa izan zan Jangoikoak beretzat artu zuen izena?

G. Etzuen artu izen berezko edo apartekorik. Gizonak asko izanik, bear dituzte bakoitzak beren izenak, ezagunak izateko, baña nola Jangoikoa bakarra dan, ez du izen bearrik. Onela eranzun zion San Atalo martiriak fedegabeko agintariari galdetu zionean, nola deritza zure Jangoikoari? Orobat agindu zionean Jangoikoak Moises bere serbitzari andiari joateko Ijituere Faraonen aurrera, ta bai Israeltar an bizi ziradenetera, zer izen dezula esango diet galdetzen badiaie esan zion Moisesek? Eranzungo diezu, esan zion Jangoikoak, *Danak* edo izatea duenak, *bialdu nau zuek gana. Ni naiz naizana*. Etzien bada berezko izenik artu. Jentilak eman zizten izen asko beren Jangoiko asmatu, edo begitanduei. Esaten duenean gure Jangoikoak, bera dala dana, esan nai du bera bakarrik dala bere izatea berez duena; len, orain, gero ta beti esan dezakeana, *ni naiz naizana*. Beste gauza guziak ez dute berenezko izaterik, ta bai izate berezkoa duenak emana edo eraatsia, zeñek eman dien bezain erraz kenduko likie, nai balu.

G. Ori orrela bada, edo Jangoikoak beretzat izenik artu ezpazuen, nola agintzen digu ez dezagula utsean artu bere izena?

E. Itz oetan agintzen digu Jaunak ez dezagula ofenditu bera iñolaere itzez. Lenengo mandamentuan eskatu zizkigun bera onratzeko gure gogo, edo biotz osoa, ta egitada onak, ez onratuaz imajina bidegabeak; ta bigarren mandamentuan eskatzen digu onra dezagula edo adoratu gere itz onakin.

G. Jangoikoak beretzat izenik artu ezpazuen ere, etzioen eman gizonak izenik?

E. Bai, Hebreoak, zeintzuek zuten Jangoikoaren ezaguera, deitu zien *Jehovah*ren izenarekin, ta izen oni anbat lotsa gordetzen zioen, zein da aizartzen edo atrebitzen etziran aoan artu edo erabiltzera. Irakurtzen ziran izen au zeukaten libruak, etzuten aitutzen izena bera, ta bera aditze-ko esaten zuten: *lau letra dituenak dio*, esan ordean *Jehovahk dio*. Bakarrik apaizak artu zezaketen aoan, ta ez ori, nola nai baizik elizjanziekin zeudenean; ta apaizak ala aitutzen edo izendatzen zutenean, aurrean zegoan jende guzia auspaztzen zan; onelakoa zan izen santu onen itzala, ta gordetzen zitzaion lotsa. Zein gauza lotsagarria Kristautzat! Nolako bidegabe, edo injuria egingo ez dioe bere izen santua gaizki darabiltenak geuzrezko juramentuetan?

G. Noiz berriz eman zioen euskaldunak Jangoikoari izen au?

E. Galdetze ederra. Baña nork jakin noizkoa dan? Bear bada euskara bera bezain anziñakoa; esan nai det, Babelgo Torrea egiten ari zirane-rik Noeren ondorengoak. Euskera orduko dala sinistzeko daude arrazoi asko Eleiz-doktriñarako egokiak ez diranak. Denpora artan gizon guziak zuten Jangoiko egiazkoaren ezagutza. Beraz nola edo ala adierazo bear zuten, ta euskara irasteen tokatu zitzairen Tubalen familiakoak, zein ziran euskaldunen asabak, artu zezaketen Jaungoikoaren izena. Dan bezela dala, anziñakoa, egoki ta ederr da izen au, ta beste itzkuntza guk ezagutzen ditugunena baño ederragoa, *Jehovah* Hebreoena alderatu ezker. Jaungoikoak esan nai du, goietan, edo Zeruetan dagoan Jauna. Onela esaten zuen Dabidek *Qui habitat in caelis irridebit eos*. Zeruetan bizi danak, edo Jaun goikoak farre ta burlak egingo die gaiztoai. Iñon ere obeto ez du agertzen bere Jauntasuna, nola Zeruan. Beraz euskaldunak eman dioen izen Jaun-goikoarena da txit eder ta asko esan nai duena. Ala ere ez da izen, esan oi dan bezela, proprio edo beretsua, nola etzan esatea Jangoikoak beragatik, *ni naiz naizana*, nola ez dan Karlos laugarrenarentzat esatea Españako Jauna. Guk esaten badegu ere *Jaungoikoa* ez diogu Goietako Jaun oni beste izenik ematen eta egia esateko Theologoak diotenez, Jangoikoak ez du izen bear bezelakorik; *nomen Dei est ineffabile*. San Agustin Elizako Irakasla andiak dio, anziñako edo lenbiziko Españarrak (eta ziran



guziak orduan euskaldunak) ezagutzen zuteela Jaungoiko bakar gauza guzieren egillea, korputzgabea, iraupen betikoa, gure asiera, ta ona. Gerora Españarrak jende arrotz ta erbestekoen sarreraz, ta erakastez sartu ziran idoloak adoratzten; baña Kantabroak zeriztenak, erri orain euskaldunak diran guziak, ta orduan euskerari eutsi zienak, adoratzten zuten Jaun-goiko bakar anziñako Españarrak ekarri ta ezagutu zuteena, ta etzien ematen izen berekoi edo propiorik, ta Athenastarrak bezela adoratzten zuten izen gabeko Jangoiko bat, baña ez aiek bezala beste Jangoiko palsoekin naas. Eta Jangoiko izen gabeko ura, esan zien San Pablock, zala Jangoiko egiazko berak erakatsi edo predikatzen ziena. Onela gure Euskalerrietan beti ezagutu da egiazko Jaun-goiko bakar gauza guzieren egilla, ta asiera. Ala bada badegu zerekin adirazo Jangoiko bear bezelako izenik izan ezin dezakeana. Ez da alperra au jakitea kristau euskaldunentzat bigarren mandamentuaren esplikazioa obeto aditzeko.

G. Ori ondo da, baña jakin nai nuke nola onratzen dan Jangoikoaren izena,

E. Aitatuaz, ez edo nola, ta bai debozioz, gauza onean, lotsa andia-ekin, ta izen santu onen amore edo oniritziz.

G. Zer esan nai du aitatzek debozioz?

E. Esan nai du, aitatzera goazenean egin bear dogula biotzaren jaso-kerera edo altxatze bat, ta aitatzean, gogoan ta gogoz eduki bear degula.

Emendik dator uts egiten dutela kristau askok Jangoikoaren izen itzaltsu ta ain beneragarria aoan darabiltenak edonoiz, alperrik, utsean, ta ezeri ez dagokiola, gora ta bera itz bakoitzean bezela, aserre ta alegre diranean. *Ez dezu beti aoan erabilli bear Jaunaren Izena*, dio Espiritu Santuak. Zergatik ez? Izan diteke bere izena baño izen ederragorik? Ez; baña bera gatik, bakan erabilli bear da aoan. Soñoko edo jaunzi txit eder ta balio andikoak ez dira edo-noizko; dira jai andietarako; ez astegun ta leku guzietan erabiltzeko. Ala bada Jangoikoaren izena aitatu bear da debozio aldietan, gauza onetarako, ta biotz lotsa santuz betearekin. Agiraka, atralaku, iskanbillaz dabiltzala, arpegi su, aserrezkoz betearekin enzungo diezu askori, *Jangoikoak naibadu pagatuko didak*. Beste batzuek edozein berriketa, ipui kontatze, ta itzkera parregarrietan aitatzten dute Jangoikoaren izena. Ez da au lotsa gordetzea. Aserre aldiren bat badator, ta aitatzten badegu Jangoikoaren izena biotza paketzeko, umiltasuna eskatzeko, ta gogo onez, txit ondo egiña <...>. Oro bat Deabru edo aragiaren tentazio aldietan esatea *nerre Jangoiko maitea, nerre Jesus ona lagun zakizkit estura onetan*. Onelako ordu ta gauza onerako aitatztea, da izen santua onratzea; baña bestelako aldi askotan, gauza gaiztorako ta gezurrez ezipada ere, ta bai

alperrik, da pekatu beniala, lotsarik gordetzen ez diogulako, edo eman ez bear duen estimaziorik izen ikaragarri ta santuari.

Berriz, egiten dute bekatu mortala Jangoikoaren edo Jesusen izen, Eskritura Santako, ta Elizako itzakin baliatzen diranak superstizioak diran gauzeetarako, nola dan bidegabeko osasuna billatzeko. Ala bada gaixoak osatu nai dituztenak Kurutzea oker eginda, orazio berez ona oker esanda, edo izen santuekin alkartzten dituztenak zeremonia bidegabeak, laguntzen dira, berak igarri gabe, Deabruarekin desonratzeko Jangoikoaren izena. Obeago, edo gaitz gutxiago litzake Infernuko etsai, naiz Mahomaren izena mauroak bezela aitatztea gaixoak osatzeko, Jangoikoaren, Jesusen, edo Santuen izenak aitatztea baño superstizioko zeremoniak laguntzen dienean. Zoazte gero billatzera atso, agure, edo gizon zatarra beren bedeinkazio ta zeremonia bidegabeekin osa zaitzen itz onak esaten dituztelako aitzakia, edo esesioarekin.

Egiten ere dute bekatu mortal itsusi bat Jangoikoari eskatzen dienak gauza gaizto ezagunen bat, nola dan etsaiaren kastigu bendekuzkoa. Badira bai, nork sinis lezake! ematen dutenak zerbait, Santuren baten imajinari argi egiteko, edo argia ipintzen dienak, kastiguren bat iristeko etsaiarentzat. O pekatu andia! Santuak billatzea berez gauza on diranakin, biotzeko gaizki nai edo gorrotoari lagundu diozen. Au da Santuak desonratzea ta armatzea eskale gaiztoaren kontra.

Badira bai mutil zoratu batzuek ematen dioenak neskatxen bati amore gaiztoz, kariño aragizkoz, edo bekatura erakartzeko Errosarioaren bat, edo zidarrezko kurutzea. Non da oen fedea? Gauza santuakin baliatu animak galtzeko? Noraino elduko ez da bekatu naia edo Pasio txarra?

G. Nork ere darabill gaizki Jangoikoaren izen santua?

E. Blasfemiako itzak esaten dituztenak.

G. Zer da blasfemia?

E. Da, Thologoen Maisu nagusi Santo Thomasek dionez, Jangoikoaren kontra atera edo esaten dan ezauerako itz astun edo desonragarriren bat. Santuen kontra, esaten dana ere da Jangoikoaren kontra esatea.

G. Zenbat modu edo gisakoa izan diteke blasfemia?

E. Iru gisakoa dio San Buenabenturak; lenengoa, egozten zaionean Jangoikoari ez dana; nola dan esatea *dala arduragabea, zuzentasun edo justizia gabea*; bigarrena, ukatzen zaionean dana, edo duena; nola dan esatea, *ez duela gure kontu edo probidenziarik*; irugarrena, ematen zaionean kreaturaren bati Jangoikoari bakarrik dagokiona, nola litzakean esatea *Deabruak dakiala Jangoikoak beste, urlia emakume Ama Birjiña bezain garbia dala*.

G. Blasfemiako bekatua, zer pekatu da?



E. Beti da mortala ezaguera ta borondate osoz esaten bada. Egiten dute bada bekatu au premia, edo pobrezak estuturik ta ekusirik beste askoren zoriona, erneguz esaten dutenak, *Jangoikoak ez duela zuzentasunik, ez dala bear litzakean bezalako, ez duela ondo egiten batzuei geiegi, ta besteai gutxiegi emanaz*, eta onelako itz Jangoikoaren desonragarriak. Atozte ona jende zoratuak; uste dezute Jangoikoak arrazoi zuzen gabe egin dituela, Aberatsak, ta pobreak? Ez dala ondo egiña batzuei ematea osasun osoa, ta besteai gaitz betikoa bezala? Nor zera zu, gizon itxutua, aztertzeko Jangoikoaren bide ezkutukoak! Aberatsak daukatzuz zorionekotzat; ordea salbatzeko, Kristok dionez, ez da era ona aberats izatea; da gauza gaitza ez lotzea biotza arantzen izena ematen dien ondasun soil ta galkorretan; gauza gaitz da bear beste limosna egitea ta au ez egiña gatik kondenatzen dira asko. Egin ditu batzuek ondasundun edo aberatsak; baña irabazi ezen Zerua pobrei lagunduz, ta onegiñez. Nola bait Santuak diotenez, egin ditu ondasunen zailla edo administratzalle, ez jabe, beren eskuetatik igarotzeko premia dutenetara oek bear dutena janzian ta janean. Au egitea erraz ez da beraz ere ez salbatzea aberats izanda; Egin ditu pobreak, munduan biotza itxatsi edo etzigi ez dedin; pazienza andi batekin Zerua irabazi dezaten; ta bestetik, billatzen badute lenen Zeruetako Reinoa, au da gordetzen badituzte bere esanak, eskintzen die laguntasuna premia lurrekoetan. Txoritxoak baño urreragokoak gaitu Aita Zerukoak; txoriai ematen die jana ta jaunzi ederra. Ibar-zelaiak apaintzen ditu lora ederrez. Eta gere Aita Zerukoak largako gaitu gu? Aita gurea erakatsi zigun Kristok, ta orazio ezin obeago onetan, nola eskatu egunoro ogia; ukatuko ote liguke guk eskatuko bagiño fede sendo, ta anima garbiarekin? Ez mantendu gu Aita Zeruko maitagarriak, bagiña seme edo alaba onak beraganako, edo maite bagenu? Azterten bada ondo konziencia, arkituko dute pobreza andian bizi diran askok, Jangoikoaren laguntza ez ezagutzea datorrela bizitza txarretik; eskatzen ez dutelako bear bezala, biraoka ta araoka jarduten dutelako premia orduetan, lapurretara ematen diralako ta bai bizi ere Jangoikoarekin konturik egin gabe. Eta gero zorroztu mingañoak Jangoikoaren kontra suge batek eztena bezela min ematen dionaren kontra. Zer gertatzen da gero? Daramate emen Infernu zati bat, bizitza gozo gabe ta ernegaria, ta ill ondoan Infernu oso ta betikoa, non egongo diran blasfematzen sekula guzietan biziko dan Jangoikoa. Zenbat sartzen dira ezkontzako sakramentu santuan ezkondu baño leenago pekatu askorekin beren animak zikindurik ta penitentzia egiazko gabe? Zer itxaron dezakete onelakoak jentil batzuen gisan ezkondu badira Jangoikoaren beldur gabe? Emendik anbat etxe zorizaiztoko, non enzuten ez

dan alkarren arteko errieta, birao, ta gaizki esatea baño. Emendik bizi izatea pobreza edo premian, zorpeturik, soroak agortzea, prutuak urritzea. Emendik gero Jangoikoaren kontra itz egitea, ezagutu bearrean beren bizitza gaiztoak ematen dituela bideak anbeste esturaldi, edo miseria idukitzeko. Egiten ezpadute penitentzia egiazkoa, garbitzen ezpadituzte animak bizitza gaizto guziko Konfesio oso ta damuzko batekin, iraungo du pobrezak, ernegazioak, pakerik ezak. Jangoikoak bidaltzen badu osti andi batekin arri soroen kaltegarria, galtzen badira gari edo artoak sikatze, edo euritza larregiarekin, adoratu bearrean Jangoikoaren esku kastigatzen gaituena, gure pekatuen penitentzia egiteko bidaldu duena, guzia da esatea ez duela probidenziarik; edo beste birao onen gisakoak, edo Infernuko etsaiak dearka egotea. O bizitza infernuko irudikoa! Non jaiki da odei belz bazterrak galdu dituen? Begira zenbat bekatu gisa errietan! Zenbat logreria edo bidegabeko artu eman, edo irabazte! Zenbat nasaitasun itzetan! Zenbat lujuria usai! O negargarrizko itxumena! Jangoikoak ematen baditu urte ugari, edo frutu askokoak, geitzen dituzte bekatuak eskerrak eman bearrean. Zenbat itzketa ero ta zatar soro edo basoetan? Nolako askatutasun edo libertade txarrak galjaitetan?... Dator urte estua? Lapurreriak, biraok ta Jangoikoaren kontrako zer esanak. Eta zer dio Jangoikoari bere izen santua desonratua gatik? Zer onera aterako dezu bildu baño zure gañera bere aserre geiagoo? Presondegi gogorretan katea lodiakin, gose dirala ta kirats artean juezak ipiñi dituen gaiztagiñak, zorrozten dituzte mingañoak agintariaren kontra; ematen badu berriz eriotzako epai edo sententzia, jakitun egin dutenean, nolako biraok ta itz astunak juez zuzenaren kontra? Onek parre bezela egiten die alako gaiztagiñen marmario edo gaizki esateai. Urkamenditik gordeko ez dira biraok. Ala bada dira batzuek Jangoiko juez zuzenak kastigatzen dituenan.

Badira beste batzuek jokora emanak, galdu dutenean diru zatiren bat erneguz ta bendekuz ostikoka zoratuaren gisan askatzen diranak Jangoikoaren kontra, zeñek eragozten dion jokatze bidegabe, edo geiegia.

Da ere blasfemiako bekatua esatea, *Jangoikoak damu duela egingo det au, edo bestea. Orobat esatea, ernegatzen det Kristoz, edo Jangoikoaz. Ez da Jangoikoa nizzaz oroitzen, ez du nere konturik jaiio ezpanintz baño geiago; kastigatzen nau, merezi dedan baño geiago.*

G. Zenbat gisakoak dira blasfemiak, esan diranez gañetik?

E. Bi gisakoak; batzuek dakartenak berekin herejiako bekatua; besteak, herejia gabeak.

G. Zein dira herejia dakartenak?



E. Dira fedeko gauzaren bat ukatzen dutenak; nola diran esatea, *ez duela Jangoiokak Probidenziarik, ez dala zuzena, errukiorra, ta ongiña*; ta guzien burukoa, esatea *ez dagoala Jangoikorik*. Onelako blasfemiatzarrak esaten badira ezaueraz, ta ala dalako siñistearekin, dira herejia osoak, ta salatu bear dira esanlak Inkisiziora, ta galdetu leenago gizon ixil, ta jakitun bati zer enzun duen.

Ote dira blasfemiak itz oek, *barkatuko ezin dizkidaz niri Jangoiokak anbeste bekatu, salbatuko ezin nau; nere bekatuak andiagok dira barkazioa merezitzeko baño?* Ala esan zuen Kain gaiztoak. Berenez bada dira blasfemiako itzak; ordea batzuetan esan oi dituzte anima on ta beldurtiegiak ere deabruaren tentazio estuetan. Onelakoak badakite barkatu ditzakeala Jangoiokak, ta geiago esaten dituzte pintatzeko beren bekatuen anditasun ta askotasuna, Jangoikoari injuria egiteko baño. Ala ere, ez da ondo egiña ala itz egitea. Badira Kain ta Judasen gisako gaizto batzuek ernegazioz ta ondu nai ezez esaten dituztenak, ta ala bizi dira emanik edozein bekatu egitera. Oentzat dira blasfemiak. Badira ere ez gutxi beste bidetik uts egiten dutenak, esaten dutela, *Jangoiokak ez du Zerua lastoz betetzeko egin, eroak ta sinpleak kondenatzen dira, kristaumentzat egin zan Zerua, ez du mugarik bere ontasan ta errukitasunak*. Onelako itzakin egiari okerrera joerazitzen dioe, ta jira ta bira esan nai dute, ez dagoala bizi baño nasairo, ta Jangoikoaren miserikordia utsarekin salbatuko dirala egitada edo obra on gabe. Itzen azalean blasfemia ezagunik eypadago ere, bai usaia, esaten diran asmo edo intenzio gaiztoagatik.

G. Ondo ote da esatea gauzaren bat siniserazitzeko, *Jangoikoa dan bezela, Jangoikoa Zeruan dagan bezela, gaur esan dan Ebanjelioa bezain egia da?*

E. Dira itz gaizki esanak, ta Jangoikoaren desonragarriak. Zer du zer ekusi Jangoikoaren izateak, Zeruan egoteak, ta Ebanjelioko egiaztasunak lurreko beste egia usteakin? Zenbat bider utsegiten dute egiaztat dauzkeen gauzeetan? Badakit askok esaten dituztela asmo gaizto gabe, ta diotela, egia zuzena dala siniserazitzeko gogoz; ordea gorde bear gera onelako konparazio edo berdintzak egitetik. Fedeko egiak ta bestelakoak ez dute berdintzarik. Egia esan bear da, ez da euskal-errietan erdaldunetan beste blasfemia; ta euskerak ez ditu berez itzkuntza blasfemiagarriak beste erdarak bezela; ala ere euskarari indar eginda enzuten ditugu noiz edo berriz gaizto batzuen ezpañetatik.

G. Blasfemiako bekatu ezaueraz esana bekatu andia ote da?

E. Ona zer dion San Jeronimok: *edozein bekatu txikiagoa da blasfemiakoa baño*; eta ona Santo Thomas Irakasla andiak dakarren argibide edo arrazoia: Korputzeko gaitzetan da peligrosoena biotzera geien urreratzen

dana, emen dagoalako bizitzako iturburua; ala ere bada Jangoikoari urren ikutzen zaion bekatua edo ofensak, izan bear du eskergeena edo astunena. Orain bada blasfemiako bekatua zuzentzen da artez artez Jangoikoagana, ikutzen dio bere Persona Jangoikozkoan. Errege bati bere arpegian esatea itz astun bat, zenbat andiagoa da bere bitarteko edo ministroren bati esatea baño? Zenbat gaiztoago bere agindu edo ordenaren bat ez gordetzea baño? Bada blasfematzalleak esaten du itz gaizto edo astuna Jangoiko beraren kontra. Argatik da bekatu itsusi, belz, ta beste guzien aztugarria bezela. Aldean darabilte alakoak Infernuko sillu, edo marka. Zoriogaiztoko kondenatuak amorrutz ta erneguz gaizki esaten dute beti; beti biziko dan Jangoiko zuzenaren kontra madarikatzen dute bere izen santua; Zerukoak emango dizten bedeikazio edo alabanza aspertu gabeak, edo beti iraungo dutenak.

G. Beraz kastigatua izango da portizki blasfematzallea?

E. Bai, ta munduan merezi izan dituen kastigoetatik atera dezakegu, zer itxaraten (sic) dion beste munduan. San Luis Franziaiko Erregeak jakin zuen bein Jaun andi batek esan zuela itz txaar bat Jangoikoaren desonragarria. Agindu zuen ezarri edo iraatxi zegotela aoan erradura bat zaldiari oñetan bezela iltzeak josirik aragi bizian. Jarri ziran bitarteko edo enpeñu andiak atzeratzeko errege santua sententzia gogorra zirudian artatik. Baña alperrik. Ez, eranzun zien: nere injuria baño izan ezpalitza, barkatuko nion. Baña gizon bat jaiki Jangoikoaren kontra itz egitera ta utzi nik kastigo latz gabe? Ez orrelakorik; kastigo laburra da nik ematen diodana. Ezagutu dezala bere pekatu andia oñaza gogorren artean. Españako legeak ere kastigo andiak ipiñirik dauzkeez blasfemia ezarten dutenen kontra. Nork esan berriz, Jangoiokak egin dituen kastigoak blasfematzalleakin? Baña utzirik asko ta asko aitatu gabe, ona Eskritura Santako egia garbiak. Erabakirik zedukan Jangoiokak, Moisesen bidez eman zuen Legean, sententzia au: *Jaunaren izena desonratzen duena blasfemia, edo itz gaiztoz illko dute arrika errikoak*. Ona gertaera bat. Gizon gazte batek egotzi zuen blasfemia bat. Sartu zuten laster katigutegi edo kartzelan. Galdetu zion Moisesek Jangoikoari: Jauna, zer egin bear degu mutil gaizto onekin? Eranzun zion: atera ezazute kanpora, ta ill dezatela arrika arria jaso al duten guziak. Ala egin zan. Jesu Kristoren Legean, edo Ebanjelioan ez dira ipiñi onelako kastigo eriotzakoak. Eliza biguñ dabil alde onetatik. Ordea ona nolako penitentzia ematen zan orain baño blasfematzalle gutxiago zegoan denporetan. Esaten duenak itzen bat Jangoiko, Ama Birjiña, edo Santuren baten desonragarria, egongo da agirian eliz atarian zazpi igandeetan, ta azkenekoan oin utsik, estalgarri gabe, ta lepotik soka



bat duela. Beste zazpi ostiraletan egingo ditu ur, ta ogi utseko baraurrak; ez dioe emango denbora orretan sarrerarik elizan; zazpi igande esan diranetan mantenduko ditu iru pobre, edo bi, edo bat bederik al badu, ta ezin badu, emango zaio beste penitenziarik orren ordean, ta nai ezpadu artu, itxiko zaizka eliz-ateak, eta onela iltzen bada, etzaio emango lurrik leku bedeikatuan. Senakerib erregea nola kastigatu zuen Jangoikoak bere blasfemiatzarrak gatik? Jetsi zan zerutik Aingeru bat, ta gau batean ill ziozkan bere ejerzito andiko eun ta larogeta bost milla soldadu, ta andik laster errege bera ere ill zuen bere seme batek. Eta nola kastigatuko ditu Jaunak Infernuko leizan? Ai! egiten ezpada penitenzia mugonez, zuzen konfesatu ta bizitza berri bat arturik. Ala egin dezatela bekatu itsusi onetan erori diranak. Bai arren, bai.

ERAKASTE VI.

Nola onratzen dan Jangoikoaren izen santua boto, promes, edo eskeintza onakin

Non assumes nomen Domini Dei tui in vanum. Exodi XX.

Ekusi degu igaro dan doktrinan, nola egiten zaion Jangoikoari bidegabe txit itxusia blasfemiako bekatuarekin. Ekusi bear degu orain nola honratzen dan bere izen santua, izaten bagera itzeko, edo leialak osotzean egiten diozkagun boto, promes, edo eskintzak; ta nola ez egiñaz gaizki artzen degun bere izen santua.

G. Zer da baña boto edo eskintza, zeñari deitzen dien geienak promesa?

E. Da bada, Jaunari egiten diogun ezaguera ta borondade osoko agintza bat, egin al dezakegun, ta egitea, ez egitea baño obeago dan gauzaren batean. Batek borondate ta obligatzeko ustearekin, agintzen badio barautzea urteko ostiral guzietan, egiten du gauza bat egitea obeago dana, ez egitea baño, ta egin al duenean kalte gabe egin bearko du, ta gaitz edo arrazoizko beste gauzaren bategatik ezin baraurtu bada, ez du orduan katigatzen boto, edo eskintza egiñak. Ordea beste gauza bat da gogo, asmo, edo zerbait egiteko propositoa, ta beste bat boto edo egintza. Konfesatzen geranean degu obligazio osoa artzeko gogo edo proposito sendoa ez bekatuan geiago erorteko, ez lekurik emateko gogorazio edo pensamentu gaiztoai. Ordea proposito oso alakoak ez dira egiazko boto, edo promesak. Onetan uts egiten dute ez dakiten askok, eta gaitz da igartea askori, noiz artzen duten proposito soilla edo utsa, ta noiz botoarekin lagundua. Botoak berez dakar obligatzeko petxu edo karga borondatezkoak diran gauza guzietan ere; ta onelako kargarik bere buruari ezarri ez dionak, ta bai bakarrik artu gogoa egiteko, ez egiñaz bekatu ez izatea nai duela, du igargarria proposito utsa zala. Gaisotzen da bada, ta sendatzea gatik artzen du gogoa mezaren bat ateraerazi, edo Santuren baten imajiñari argigarria eramateko. Galdetzen bazate, nolako obligaziopean egin zuten agintza alakoa, ez dute arrazoirik emango; bakarrik esango dute artu zutela asmo ta gogo bero bat aitatu ditugun gauza onak egiteko. Benetako botoak eskatzen du aozko edo biotzeko eskintza obligatzeko gogo ezagutuaz. Itzekin egin bada, aztertu, aratu, edo ekusi bearda itz



aiak diran edo ez botoarenak, edo bakarrik propositu utsak, ta nai zuen edo ez obligatu; edo bai bakarrik egin debozio utsez.

Botoak eskatzen du ezagueraz ostean naibide edo libertade osoa, ta egiten bada ezin bestez indarrez edo engañuz, ez da baliosoa. Ordea beldurra bada bide onekoa, ta beregan sartua, balio du. Ona ejenplotxoak. Guraso batek artzen du asmoa bere seme, edo alabaren bat fraile, edo monja sartzeko. Obeto obligatzeko, erregutzen dio egin dezala relijioan sartzeko promes, edo botoa. Ekusirik guraso gaiztoak, bere umeak gogo gaiztoarekin artzeen dituela erreguak, zer egiten du? Erakutsi arpegi gaiztoa, egin sarri agiraka, edo tratu gaiztoa eman. Umeak bere burua gordezteagatik alako bizieratik, egiten du promesa gogo gaiztoz, indarrez, edo nora ezean bezala. Promes onek ez du balio, zeren ez duen bear bezelako nai oso edo libertaderik. Baña beldurra bada zuzena ta bere biotzetik etorria Jangoikoaren argiz edo inspirazioz bezala, da egiazko botoa. Itxasoan bat dijoala jaikitzen dira olatuak, aize portitzak. Onzia dabil galdu gordean edo ondartzeko perillean. Beldurtzen dira batzuek ito bearrak, ta bestela leorreen iñoiz ezpazuten ere alako gogorik, itxas-andiak larritzen ditu; Jangoikoaren aurrera agertu bearrak eskiñierazitzen die sartzea erreljioan, ta obligatzen dira artara. Boto onek balio du, katigatzen du egin zuena, zeren beldurra zan zuzena, ta bere biotzean sortua, engaño gabea, ta asko eraman ditu Jangoikoak gauza onetara, bizitza berri ta on bat arteera, ta kobentu estu batean salbazioa billatzera, bestela galduko ziranak. Jonasek egin zituen Jangoikoaren esanak itxasoko osinean sartu, baleak irentsi, ta Jaunak andik ito gabe atera zuenean.

G. Zergatik esaten da Jangoikoari egiña? Etzaie botoa egiten Ama Birjiña ta beste Santuei ere?

E. Egia esateko botoa beti egiten zaio Jangoikoari, dalako adorazio-ko honra berari bakarrik zor zaiona. Esaten danean egiten diot Ama Birjiñari promes, baraur egiteko bere jai aurreko egunean; ta onelako ta alako Santuari eramango diot kandela edo argigarria, aditzen da, eskintza alakoak egiten zaizkola Jangoikoari Ama Birjiña edo Santuen onrarako, ta izan ditezen gure bitarteko onak zerbait eskatzen degunean, bada ematen duena Jangoikoa bera da, ez Santua; eskatzen duena, da Santua, ta ematen da Jesu Kristo Jangoiko ta Gizona danaren izenean. Onratzen da onela Jangoikoa Santuetan, ta Santuak ez dira iñoiz aspertzen Jangoikoa onratzez.

G. Zer beste lagungarri bear du egiazko promes edo botoak?

E. Izan bear du gauza onaren gañean egiña; zeren ezpada gauza ona eskintzen dana, ez dio Jaunari atsegiñik emango, ta bai egin bidegabe edo

injuria andia, nai balu bezala gauza gaizto edo okerra; ta nola Jangoikoa testigotzat ekartzea gezurren baten gañean dan bekatu txit astuna, ala ere da eskintzea Jangoikoari bere kontrakoa dan gauzaren bat, ta ezjakiñak, edo ezagutu ezak libratzen ezpadu, egiten du pekatu mortala.

Onela egiten dute pekatu mortala dakitela, ezagueraz, ta libertade osoaren palta gabe; esaten dutenak, egiten diot Jangoikoari boto edo promes bengatuko naitzaikola Urliari, egin didan kaltea gatik, kenduko diodala bizitza, emango diodala kerella ondatuko dedan bat.

Oro bat gauza onen batzuek eskintzen bazaioz Jangoikoari asmo gaiztoz nola diran Mezaren bat atera erazitzea bere etsairen bat ill didin, edo beste kalteren bat izan dezan; ematea limosna edo eramatea argia ain lekutako imajiña Santu bati, iritxi dezan kastiguren bat gaizki egin edo nai dionari. Oek dira blasfemiako bear egiteak.

G. Zer egin bear da egiten bada promes bide gaiztoko, edo kunplitzea gaizki egiña dana?

E. Damutu gaizki eskeñia, ta ez kunplitu eskeñi dana. Israeltarren agintari batek eskeñi zion Jangoikoari Amonitarren gerran ongi irteten bazuen, sakrifikatuko ziola eriotzaz lenen arkitzen zuena bere etxeoetan. Berri onak ematera irten zion etsaiak garaitu ondoan, bere alaba bakar ta maite maiteak neskatx asko, ta soñu ederrekin. Begitandurik kunplitu bear zuela Jangoikoari egin zion eskintza eragabea, illerazi zuen damu andiarekin. Gaizki eskini zuen, gaizkiago kunplitu.

Izan ere bear du gauza obeago baten gañean. Ezkontzako Sakramentua berez ona da; baña berez obea garbitasun osoa gordetzea. Ala bada ezkontzako botoa berez ez da baliosoa, ta katigagarria, zerren eragotzen duen berez obeago dana, au da kastidade, edo garbitasun osoa. San Pablok dio ezkontza ona dala, ez ezkontzea obea. Ezkontzako botoa baliosoa balitza, eragotziko luke obeago dana, ala kastidade osoa gordezteza, nola relijioan sartzea. Ezkontzako obligazioa dagoan esturaldi batean, edo juezak artarako obligatuta ezaguturik, agintzen dionean; edo bestela bekatuaren bean obligaturik dagoanean, noiz bait gertatzen dan bezala, izan liteke baliosoa ezkontzako botoa. Bere buruz ebilli bear ez da gauza ain astunean.

G. Zenbat modukoa da boto, edo promesa?

E. Askotakoa; bata da osoa, leta edo kondizio gabea, edo euskaraz esan oi dan bezala biribil biribilla; eta bestea, kondizioaren baten bean egiten dana. Lenbizikoak ez du katigario edo lotutasunik bigarrenak bezala. Onelakoak dira borondatez bat obligatzea Jangoikoari atsegin emateagatik, edo animako salbazioa errartzeko, relijioaren batean sartzera, kastida-



dea gordetzera, baraur egitera onelako edo alako egunean. Bigarrena da egiten danean promesa lotutasunen batekin, edo kondizioen baten azpian; onelakoak dira: egiten det promes sartzea relijioren batean, baraurrak ateratzea, santuren baten imajiña bisitatzea sendatzen banaiz gaitz onetatik. Geiago; boto batzuek dira bakoitzaren, edo bakoitzak berak bere nekez egin bear dituenak, nola dan joatea onelako edo alako elizara; besteak, eskintzen danean bakoitzaren ondasun edo gauzaren bat, nola diran mezaren batzuek ateraerazitza, limosnaren bat egitea; ta irugarrenak, bakoitzak berak, ta bere gauzaren batekin egin bear dituenak, kontu dezagun joatea Aranzazuko eleizara, ta an largatzea limosna, edo mezaren batzuek, ateraerazitza Ama Birjiñaren onran. *Vota personalia, realia, et mixta*. Onelako botoak osotu edo kunplitu bear dira, al didilla, egin diran gogoari begiraturik.

G. Egin lezake batek botoren bat bestea obligatu edo lotu dezakeanik?

E. Bai gauzaren batzuetan, ta ez guzietan, ona nola. Herederuak obligatuak daude konplitzera ondasunen jabeak egin zituzten promesak beren ondasunen bidez, kunplitu ezipazituzten egin zutenak, nola dauden ateraerazitza larga zituzten meza karguak, ta pagatzera zorrak. Ordea egin bazituzten bestelako boto beren buru edo personekin kunplitzekoak, ez daude obligaturik besteak, ta bai bakarrik berak. Ez du ondorenak baraurrik zer atera, elizaren batera zer joan, onelako botoak egin bazituen ere ill zan ondasun emaleak; bai ordea obligatu bazan norbait kunplitzera ill zanaren ordez.

Guraso batek egiten badu boto bere seme, edo alaba relijioan sartzeko, ez dute seme-alabak obligaziorik kunplitzeko alako eskintza gurasoak egiña.

Botoa izan ditekete betirakoa, edo aldibatekoa. Boto betirakoa da bizi dan arteko egiten dana. Onelakoak dira apaiz, ta fraileak egiten dituzten kastidateko botoak baita ere beste-edo-zeñek egiten dituen muga gabeko promesak bizitza guzian gordetzeko asmoz. Aldibateko edo denpora mundukoak dira denpora jakin, ebaki, mugatu, edo zatiren baterako egiten diranak, nola diran urte bateko ostiral guzietan baraurtzea, edo urte-batean illoro konfesatzea. Betirako edo bizitza guzirako egiten denak obligazioa dakar bizitza guzirako, arrazoi egiazkoren batek eragozten ezipadu. Baña denpora neurtu edo jakiñekoa bada, bukatzen da obligazioa denpora berarekin. Edozeñek daki sazerdote, fraile, ta monjak egiten dituzten botoak dirala oso osoak ta solemneak, aditzen da apaietan kas-

tidatekoa, ta fraile-monjeetan berbera, ta beste biak, zein diran obedienzia, ta pobrezakoa.

G. Ondo da boto edo promesak egitea?

E. Berez gauza ona da, baña ez dira ariñegi ta arrazoi on gabe egin bear, ta ebakiko dira okertasun asko, iñoiz egiten ezipadira konfesari jakitun batekin itundu edo alkartu gabe. Asko dira beren buruz katigatzen diranak obligazio estuekin; gero edo damutzen zatee, edo dabilta ezagutu ezinik ziran edo ez egiazko botoak, buruauste, ta arazo askoren artean jartzen dirala berak ta konfesoreak. Eskeintzen dituzte baraurrak debozio aldi edo une batean ta gerora urratzen dituzte; eskintzen dituzte meza ateratzeak bear bada bere etxeko premiari begiratu gabe; gatzetxo dirala beingoan eskeñi Jangoikoari beti gordetzea kastidatea, ta emendik gero Erromatik dispensak ekarri bearrak, bear bada gezurren bidez; edo ezkontzea, agertu gabe boto egiña ta damutua. Ez naiz aspertuko esateaz, botoa egin baño leenago galdetu bear litzakeala konfesoreari egitea ondo dan ta nola egingo dan. Egia da botoaren indarrez egiten dan gauza onak duela irabazi edo merezimentu geiago; baña nolako karga kunplitzen ezipada? Egiten du batek garbitasun edo kastidateko botoa. Jangoikoak artzen dio; garaitzen baditu tentazio zatar garbitasunaren galgarriak, irabaziko du geiago botoa egin gabe garaitu dituenak baño. Baña leku ematen badio borondatez, ta deabruak bera garaitzen badu, egiten ditu bi bekatu mortal, bata kastidatearen kontra, ta bestea botoaren, edo relijioren kontra, ta au da bekatu txit astuna, egiten diolako Jangoikoari bidegabe itsusia gorde eztiolako eskiñi ziona. Zenbat geiago begiratu bear dute eleiz gizon izateko gogoan sartu diranak! Nolako señaile edo igargarriak eman bear ez dituzte sartu nai dutenak eleizako ministro izatera? Jangoikoak egiaz billatu ta deitu gabe lotutzen badira anbeste obligazioren azpian, nola salbatu gero? Nolako kalteak egin ez beren anima ta besteena? Beti betiko agur bat egin bear dionak ezkontzari, Jesu Kristori aldara aurretan eskiñi bear dionak aingeruen gisako garbitasuna, nola prestatu bear du aurrez aragiari uko egiñik, bezatu, ezi, ta illduratuaz naitkunde, ta griña oker guziak? Bekatu guzia ez da sartzan diranena erraz, ta prestaera txatarrakin; guraso ta aurride asko ere naastzen dira. Buruan jartzen bazaie beren semeak eleizatik eramatea, ez die begiratzen beren lurreko onizateari baizik. Egiten dituzte nola alako infarmazioak (sic), santu batzuek balira bezela irudierazi edo pintatzen dituzte, billatzen dira nai bezelako testigoak, gezurrezko juramentuak egiten dira, ta kristau ona etzana, egiten dute sazerdote on bat. Emendik zenbat kalte? Baña nork esan?



Promesa ezpada Jangoikoari atsegin emango diona, edo animarentzat ona, kunplitu bear ez da, edo gutxienez aldatu bear da on izango dan gauzaren batera. Zenbat promes egiten dira Jainkoari begiratu gabe, ikusgura, ebilli naiz, ta sentiduai atsegin ematearren? Zenbat mutill, zenbat neskatzek egiten dituzte promesak joateko Aranzazu, Urkiola, ta ospe andiko Ermitetara, estalki onekin. Gurasuai baieza, edo baimena ateratzeagatik, ta olgatzeko galanki ta gaiztoki? Gurasoak enzuten dutenean egin dutela promesa, beldurtzen dira; ta beste gabe ematen die, beren baia edo lizenzia. Orain bada nolako onra ta atsegiña emango dioe Jangoikoari onelako promesak? Zer onera edo mesede animai? Autatzen dira egun ospe edo bulla andikoak; jende gazteak dijoaz bideetan nasaitasun andiekin; mingaña darabilte itzketa lotsagarriekin, eskuak askatuak egiteko esango ez dedana; bekatu astun asko eginda sartutzen dira elizan; konfesatzen badira, ez konfesatzea obeago litzakean gisan, ta biurtzen dira beren etxeetara gauza egiaz on bat egin gabe, ta bai gauza gaizto asko. Zenbat urrutiago erromeria, anbat naiago. Ostatueta, ardantegietan, ta errietako etxeetan gelditzen badira, Jangoiko maitea! Zenbat gaiztakeria! Nolako danzak? Apaintzen dira alegiñez; begiak lotutasun gabe, ederiritziak likatzen ta arrotzen ditu neskatzak; emendik gero anbat ezkontzeko itz era gabeak; emendik anbat animako kalte, ta burukomin berentzat ta gurasoentzat. O Boto ederrak! Gurasoak, ez utzi seme-alabai joaten alako lekuetara ta alako egunetan, ta inoiz ez, animako kaltea ezagutu ezker; neskatzik onenak ere arkituko dira milla labanarri, edo perillen artean. Etxe, edo erritik kanpora, gurasoen begi gabe, eztago gazte galtzeko arriskoan ez dagoanik. Promesak estalkiak dira ta beintzat bai obligatzen ez dutenak animako onean ez diranean. Nik libratuko nituzke gazte guziak alako botoetatik, ta naiagoko nuke beren errietan konfesa ditezen alako egunetan, ta gorde dezen etxea. Zergatik ekusten ez dira boto edo promes geiago konfesatzeko onelako egunetan? Ebilli nai da, olgatu ta ez Jangoikoari atsegin eman.

Arritzeko gauza da Turko, Mairu, ta kristauen arteko desberdintasuna. Aiek beren itxutasunean sinisturik Mahoma zeritzon Profeta txarra, dala gure artean Jesu Kristo bezala, egiten dituzte Boto edo Promesak, joateko bisitatzerara Gizon gezurti aren ezur ustelak. Dijoaz leku urrutietatik jende pillo edo aldra asko prozesioetan. Baña nolako debozio itxurapenekoz beterik? Ateratzen dituzte baraurrak; bide luze ta gorietan dijoaz ixil isillik, buruz beera, oin utsetan. Eltzen diranean beren Profetaren elizara, auspeztzen dira: nolako negarrak? nolako eskaariak? Itzalaren itzalez aizartzen ez dira ez itz bat ateratzen, ez txistu apur bat botatzen,

ez begiak eregitzen. Erromeria eginda biurtzen dira beren etxeetara humill humillik. O kristauen lotsagarriak! Ez du merezi Jesu Kristok Profeta falso batek beste? Noren legea da santuago ta garbiagoa? Bada nola aserratuko etzaio Kristo garbitasunaren ain zaleari ekustean kristauak dijoazela erromerietara nasaitasun guzien artean, ta bere Jai santuak ta Santuen Elizak artzen dituztela aitzakia ta estalkitzat egiteko bekatu asko? Bada, larga onelako Promesa bulladun edo ospetsuei, ta egin nai dituenak botoak, egin ditzala animarentzat onak izango diranak, Jangoikoari atsegin emango dioenak, ta konfesoaren oniritxi edo baiduri zuzenarekin. Egingo balira promesak Jakob batek egin zuen gogo santu ta debozioarekin Mesopotamiako bide luzean sartu bear zuenean, ta santu-santa askok egin dituzten asmoakin, batzuek Jerusalem bisitatzerara Kristoren Sepultura edo ill obia, beste batzuek Erroman San Pedrorena, Santiagon izen onetako Apostoluarena, Loreton Ama Birjiñaren etxe ta imajiña, ez nioke atzerapenik emango; baña gaurko erromes ebiltariak beste asmoeikin dabilta erriak ekusteagatik, ta olgatzarren (sic) galanki nasaitasun andien artean.

G. Eta boto egiñak bete edo konplitu bear ote dira?

E. Bai, badira, esan dan bezela, egiazko botoak izan bear duen gisaok, au da animaren onekoak. Ona zer dion Espiritu Santuak, *Egiten diozunean eskintza edo botoren bat zure Jaun ta Jainkoari, ez dezazula luzatu konplitu, zerren Jangoiak eskatuko dizu, ta luzatzen badezu (arrazoi on gabe) eraatsiko zatzu bekatutzat*. Ona zer dion beste leku batean: *Kaltegarria da gizonarentzat promesa egin ezker ez egotea eskintzan*, edo egin gabe largatzea. Nolakoko damua artzen ez dute gizonak gordetzen ezpazate itza edo eskintzaren bat? Ez da itz batekoa esan oi da. Da esatea dala gizon dollor, prestu ez, ta zikotza. Eta ontzat eramango ditu Jangoiak berari egiten zaizkon dollorkeriak?

Ona jakitunetatik ateratzen dan zuzenbidea. Promesa edo botoa bada gauza astunean da bekatu mortala ez kunplitzea, baita ere geiegi lutzatzea (sic) arrazoi egiazko edo zuzen gabe. Izango da gai astuna meza bat aterarazitzea, errosario bat esatea, baraur bat ateratzea, ta onelako beste gauzak. Ordea Abe Maria bat esatea, ta onelako gauza arinak ez kunplitzea botoz eskeñi ondoan, bakarrik izango da bekatu arin edo beniala.

G. Jokoan maldizio edo birao astunak egiteko oitura batek ekusirik, egiten badu ez geiago jokatzeke botoa; ote dago obligaturik ez inoiz iñoalere jokatzeke ta bekatu mortalaren azpian?



E. Egingo du bekatu mortala jokatzeko badu diru zatiren bat, zeña galtzeak len ematen zion birao astunetarako bidea; baña jokatu balu dibersio utsez, edo gauza gutxi gutxiren bat, zeña galdugatik etzaion aseraturako, ez biraoetan urratuko, ez da beintzat bekatu mortala izango jokatzea alako moduz. Botoa egin bazuen alperrik denpora galtzen zuelako, ekusi bear da denpora alperrik galtzeak eragozten dion obligazio astunen bat kunplitea; ala bada, izango da botoaren kontrako bekatu mortala, baita ere obligazio astunai ez erantzuteak dakarren bekatua. Erakurri bear dituztenak libruak beren obligazioai ongi eramateko, nola diran konfessore, mediko, barbera, letraduak... igarotzen badute denpora geiegi jokoan erakurte bear bestekoa eragozten diena, ta gero gaizki egin beren ofiziko karguak, oentzat da gauza astuna denpora alperrik igarota, ta botoa ere kunplitu bear dute bekatu mortalaren bean. Baña jokatzeko denpora gutxian, ta beren obligazioai erantzutea eragozten ez dien neurrian, ez da izango bekatu mortala, beintzat jartzen ezpada denpora gutxitik askora igarotzeko peligrorik. Diru asko jokatzeko eragozten dute legeak, ta oek gauza astuneari obligatzen dute bekatu mortalaren azpian. Diru askoko jokoak dakarzikiz ernegazio astunak, madarikazioko itzak, etxeak galtzea, ta jokatzalea balitza aberatsa, pazientzia andikoa, ta kalte andirik bere etxeare ez dakarkiona ere, emango luke eskandalua, ta joko-lagunen bekatuak bere animan artu beariko ditu. Botogabe ere egiten dira bekatu astunak joko onelakoetan, ta botoak, laguntzen badie, urratzeak egitendu relijioaren kontrako beste bekatu astun edo mortala. Botoa egin duenak ez jokatzeko, dala birao astunak egin, edo geiegi jokatuz ekarri dituen kalteak gatik, ezin eskatuko du dispensarik, ta ez beste gauza batera aldatzerik; emango ere ezin dio konfessoreak jokatzeko lizenziarik buldaren bidez; zerren onetarako bear da arrazoi ona, ta arrazoi onik ez dago jokatzeko animako peligrorik andiarekin.

G. Zer esan berriz ardorik inoiz ez edateko boto edo promes osoa egin dutenen gañean?

E. Begiratu bear da zergatik egin dan boto ain astuna. Orditzen edo moskortzen zalako bazen, ezingo du edan ardao orditzeko duikorik, ta boto ondoan ala edaten badu, egingo du edan-aldi bakoitzean bekatu mortal relijioaren kontrako, baita ere orditzeak dakarren bekatu edo bekatuak. Esaten det bekatuak, zerren orditzeak dakartzen batzuetan bekatu bat baño geiago. Edaten duenak alako botoaren ondoan gauza gutxi gutxi bat geiegira igarotzeko peligrorik gabe, egingo du bekatu beniala. Badira ordea gizon mota batzuek edaten asiezkero largatzen ez dakitenak, errazago daudenak batera edan gabe, zerbait edanda aurrera igaro

gabe baño; trago bat edatea, batezere lagun artean, ta ardantegietan, da alakoentzat okasio ezaguna orditzeko. Onelakoak gutxi bat ere ezin edan lezakete, botoa ausi gabe gauza astuneari; zerren okasio urreko ta ezaguneari jartzea, berez dan bekatu. Ur betikoak gaitz egingo badie, edan dezakete ardo ondo urtua, edo ematua. Askok legoke zer itz egin gauza onen gañean; bakarrik esango det botoren bat egin duenak artu dezala konseju konfessore aitu bategandik. Dispensarik atera nai badu, egin bear duela egiazko arrazoiakin; ekarriko duela bere gañera Jaunaren aserrea konplitzen ezpadi egin dion ezkontza. Ona San Pedro Damianok dakarren gertaera negargarri bat.

Sartu zan bein itxasoan gazte bat; jaiki ziran olatu andiak ta galdu gordean zebillela, egin zion Jainkoari eskintza au: Jauna, egiten diot boto, ta ematen diot itz osoa sartuko naizala onelako Relijioan gordetzen badit bizitza. Paketu zan itxaso, irten zuen leorrera, ta laster aztu zan egin zuen botoaz, ta onelakoak egin oi duten bezala, eman zan bizitza lasaira. Bondil (sic) edo txanbil batekin iturrira dijoanak, artzen du ura, ta gero atzea ematen dio iturriari; ala bada egin zuen Jainkoarekin gizon gazte ark. Zebillela egun batean danzaten bere lagunekin, erori zan etxe batetik tella bat; jo zuen buruaren erdian, ta larga zuen illik bertan libratu zan itxasoko uretatik, ta leorrean arrapatu zuen uste ustekabeko eriotzak. Itza edo botoa bete balu, eranzun izan balio Jangoikoaren deiari, zeñek arrotu zuen itxaso salba zidin Relijioan, izango zan bear bada santu bat, ta da gaur kondenatuen artekoa, non igaro beariko duen bizitza gogorragoa Relijioan penitentzia artean baño. Zenbat aldiz bidaltzen ditu Jainkoak gaitzak, eritasunak, naigabeak, ta eriotzako peligrorik ondu gaitezen? Ordea egiten diran botoak dira geienez osasuna billatzeko, eriotzari iges egiteko. Beldur utsa, ta bera mundukoa ta aragiaren amorez irtena, da geienetan botoak egiteko gai edo motiboa. Egin botoak bai ordu onean, *Vovete*; baña ez utsik eman, ez larga egin gabe eskiñi zaiona Jainkoari *reddite*. Begiratu nola Jaunak konplitzen dituen bere itzak, bere eskintzak. Ala bada guk ere egin bear degu berarekin. Bai arren bai.



ERAKASTE VII.

Juramentuaren gañean

Jurabis in veritate, et in iudicio, et in iustitia.

Ekusi degu nola onratzen dan Jangoikoaren izena botoak egin ta konplituaz. Dakuskun orain nola onratzen dan juramentu on, ta bidezkoekin, ta nola desonratu gaizto ta bidegabekoakin.

G. Zer da Juramentua?

E. Da ekartzea nolabait Jangoikoa testigotzat gauzaren bat siniserazitzeko. Juramentua egiten duenak nai du berez danez Jangoikoaren izenarekin agertu ta siniserazi egia dala dioana. Juramentuan artu diteke Jangoikoaren izena argiro, ta zuzen, baitaere estalkiz, zearrera, ta ezkutuz bezela. Artuko da argiro ta zuzen, izena bera aitatzen danean; onela da esatea *Jangoikoa gatik au onela dan bezela; Jangoikoa ipintzen det testigo egia diodana*. Orobat da Jesus ta Kristoren izenak artzea, zerren Jesu Kristo Jangoikoa dan. Berriz artuko da estalkiz, egiten danean juramentu Ama Birjiña, santu-santa, Zeru ta Jangoikoaren perfekzioren bat argiro agertzen dan kreaturaren batzuetan. Emendik datoz ez dala juramentu esatea, euli edo txoriagaitik (ta onelako beste kreaturak gatik) onela da esaten dedana; zerren esaten duenak ez du asmorik onelako itzekin Jainkoa testigotzat ekartzeko, ez enzuten dutenak daude alako ustean, ta testigo alakoak ez dira Jangoikoaren izena adirazi nai dutenak.

G. Juramentu ote da gauzaren bat siniserazitzeko esatea *ala Jainkoa?*

E. Itz au geiegi dabil mutil ta gizon euskaldun askoren aoan. Ez da erraz jakitea zer esan nai duten itz onekin. Esan nai badute *Jainkoa Jainkoa dan bezela*, batetik da juramentua, ta bestetik blasfemia gisa bat dalako berdintza edo konparazio Jangoikoaren izen, ta izatearen desonragarria. Badu zer ekusi Jangoikoaren izatearen egiak beste egia lurrekoekin? Ez da bada orrelako konparaziorik egin bear; ezjakiñak, ta asmo gaiztorik ez idukiak libra ditzakez bekatutik; baña kendu bear da oitura txaar guzia. Esatea bada *ala Jainkoa* gauzaren baten sinisgarriarako, da juramentua artakotzat artzen danean, aitatzen dalako Jaunaren izena egia ustekoren bat siniserazitzeko. Ezpadu ere uste esaleak egia dala dioana, juramentua da, ta alakoan beti bekatu mortala, zerren adirazi nai duen, egia dala esaten duena gezurra bada ere beragango.

Esaten duenak itzen bat juramentua dalako ustez, edo juramentu egiteko gogoz, egiten du juramentu biotzez badaere. Badira batzuek uste dutenak juramentua dala esatea *ementxe nagan bezela, gaur jan dedan ogia bezela*. Oek ez dira juramentu itzak, zerren nere emengo egoteak, ta gaurko ogjjateak ez du zer ekusi Jangoikoa testigotzat ekartzeaz. Ordea, nola juramentu itzak zirala uste zuten batzuek, ta uste arekin esan dituzten, biotzez ta gogoz egin zuten juramentu. Beste batzuek esan oi dute, *gaurko argi santua ekusi dan bezela ala da au*. Au esaten dutenak ere juramentutzat daukate izkune au, ta gutxienez da biotzeko juramentua, zerren asko alditan ez dago juramentua izatea itz uts ta azalekoetan, nola esateko asmo, uste, edo iritxian. Zer esan nai dute berriz argi *santuaren* izenez? Ez dakite esaten dutenak ere. Argiuts ta soilla aitatzea onela, *orain argi dan bezela* au egia da, ez da juramentuko itzkeria; ez dan bezela esatea *gaba dan bezela*. Baña geitzen zaionean argi, edo egunari *santuen* izena, dirudi aitatzen dituztela itz aiek juramentu gisan, edo Jangoikoak egiñak diran aldetik.

Da juramentua esatea *Ala Jangoikoak Zerua enan dezadala, edo ala salba nazala*, baita ere Jangoikoa izentatu gabe esatea *ala salba nadilla*. Esaten danean askok bezela soil soilik *Kristoren Pasioa*, edo gauzaren bat siniserazitzeko esaten ezpada, ez da juramentu itza. Baña ez dira itz orrelakoak aitatu bear debozioz baizik, ez irritu edo ernegu aldietan. Ez dira ere juramentu itzak oek; *nere fedean, nere konzienzian* ala da, *gizon prestua, kristaua, Apaiza* edo *Frailea naizan bezela*. Ala ere obe da ez esatea orrelako itzkerarik, ta bai, edo ez garbiro. Juramentua da atzekin kurutzea egitea gauzaren bat siniserazitzeko, muñ egiten ez pazaio ere kurutze egin danari. Edozeñek daki berriz Eskribadu, Alkate, Rejidore ta beste Juezak eskatzen duten juramentua, dala itz utsekin esanaz *egiten dezu juramentu egia diozuna?* dala Bara edo Alkate zigorrari, edo Kurutzeari muñ eginaz beste itzgabe, dirala juramentuak.

G. Zer esan berriz gaztetxoan juramentuen gañean?

E. Ona zer gertatzen dan oekin. Dabilta jokoan; pillota falta bada edo ezpada (orobat beste jokoetan) asitzen dira errierta ta ez da baida andietan. Esaten dio batak besteari, artzen dek *ere animan*, edo *ere konzienzian?* Bai artzen diat dio besteak, gezurraren gañean eranzuten badute, beldurtzen dira, ta kezkatzen ditu konzienziak. Beraz juramentu ustez esaten dituzte, ta gaizki dalako beldur andiarekin, gezurrez eranzuten badute. Konfesatu bear dira bada azi ezkerero oroitzen *danean* txikitxotan esan oi zituela gezurrez, ta eragotzi bear zate mutiltxoai alako izkerak aoan artzea. Beste batzuek dituzu, beintzat erri batzuetan, alako errierta, ta ez da bai-deetan lagunari erasoten dioenak, *al inferno, o al inpreñu al Cielo, edo ala*



Zeru. Oen gañean orobat esan bear da. Ikasten dituzte izkune onelakoak, esaten dituzte biotzeko kezka ta beldurrez, ta Jainkoak jakin zenbat kalte animetan konfesatu gabe beldur ta guzi, edo beti iraunaz oitura txarretan. Badakite berriz ziurki dala juramentua kurutzea eginda muñ egitea. Guraso, eskola maisu, ta anima-zaiak alkartu bear lukee kentzeoko mutiltxoetatik onelako itzketa ta oitura gaizto ta animen galgarriak. Jokoaan dabiltzala berenez irtetzearren, ta estu arkitzen diranean, gezur edo egia, eran-zuten dute edozein gauza.

Juramentuak dira lau gisakoak; batzuek dira ez edo bai, dakit edo ez dakit esateko egiten diranak juramentu itzekin; onelakoak dira Justiziaren aurrean egiten diranak, galdetzen danean ekusi, enzun edo egin duen gauzaren bat, ta eranzunaz, ez, bai, edo uste det, dudatzen naiz. Bigarrena da, kintatzea edo zemaiteza pena edo kastigoren bat juramentu itzekin, nola diran esatea, *juramentu egiten diat ausiko diadala burua, ilko audala.* Eskintzako, edo zerbait eskintzen danean Jangoikoa nola edo ala testigotzat ekarrita, nola dan esatea, *Jangoikoak ala salba nazala; nik emango dizudan bezala ogei ezkutuko* edo beste edozein gauza bat. Laugarrena, Jangoikoaren ize- nez, edo Jangoikoari nolabait deituta bere buruari eskintzen zaionean gaitzen bat egia ezpada dioana, onelako itzketa txaar asko dira. *Dreabuak naramala au onela ezpada; ill nadilla ematen ezpadiat* au edo beste bat; *bizirik jaiki bear ez nuke banatzen ezpadet* urlia, edo berendia. Azkeneko itz oetan daude bi eskintze gaizto, bata bere buruari, ta bestea lagunari. Juramentu mota gaizto au egin diteke edo konplitzeko asmoz, edo alako asmo gabe. Esaten badu konplitzeko asmo gabe, egiten ditu gutxienez bi bekatu mortal, bata gezurraren gañean juramentu egin duelako, ta bestea bere buruari ezarri diolako madarikazioko itza, ta da eskatzea Jangoikoari *bizirik jaiki ez didilla*, ta onetarako bidea ematea gezurra esanda. Au da gaitz andia eskatzea, beretzat nai ezpalu ere. Esan det gutxienez egiten dituela bi bekatu mortal, zerren lagunaren gaizki nai, edo gorrotoz, esaten badu dago irugarren bekatu mortala. Gerta liteke biotzez gaizki nai izatea ezpa- du ere usterik banatzeko proximoa. Esaten badu *Dreabuak naramala bengatzen ezpanaiz urliarekin* bengatzeko asmoz, daude gutxienez bi bekatu mortal, bata egiten duelako juramentu gauza astun ta gaistoaren gañean, nola dan bengatzea; bestea proximoari dion gaitznai edo gorrotoa gatik. Badira irugarren bekatu mortala arkitzen dutenak juramentu alakoan, ta diote dala bere buruari gaitza eskintzea. Baña egia- ren gañean esaten danean, edo gauza txarra bada ere egiteko asmoz, ez dio gaitzik benetan eskintzen bere buruari uste duelako deabruak eramango ez duela egiazko gogoz esan ezker. Orregatik esan det egiten dituela *gutxienez* bi bekatu

mortal. Eta ez da ezer bi bekatu mortal egitea ain laster, erraz, ta itz batean bezala? Non da fedea? Badakite zer dan bekatu mortal bat alako juramentugilla gaiztoak? Ekusiko degu gero nolako da juramentu gaizki eginaren gaiztakeria.

G. Baña eskiñi dionak juramentuz gaitza lagunari, konplitu bear ote du?

E. Ez, egiazko gaitza bada. Azaldatuko det zer esan nai dedan egiazko gaitzaren izenez. Esaten duenak *ill nadilla, deabruak naramala ausitzen ezpadiot burua, bengatzen ezpanaitzako..* ez dio bururik ausi bear ez benganzarik artu, zerren burua ausitzea, ta bengatzea diran egiazko gaitzak. Guraso batek esango balu *Jangoikoak kastiga nazala kastigatzen ezpadet nere Seme edo alaba gaizki dabiliena*, bear du modu onean ta bide zuzenez kasti- gatu, zerren kastigatzeko obligazioa du aldi batzuetan, ta guziz bizitza gaitzotik alderazitzeko, kastigoa bear danean. Kastigoa, ta umearen nai- gabea ez da egiazko gaitza. Maite dan umeari ezarten zaio zigorra.

G. Juramentu egitea bekatu ote da?

E. Bear bezela, bear dan orduan, ta bide zuzenez egiten bada beka- turik ez dago, ta ematen zaio onra Jangoikoaren izen santuari. Au da fede- ko egia *Jainkoak egin zuen juramentu, ta etzaio damutuko.* Ala dio Dabid erre- geak. Jangoikoak juramentu egitea da eskintzea berak zerbait bere ize- nean, da agintzea gauzaren bat bere itzaren egiaztasuna gatik. *Naizana nai- zalako* edo nere izena gatik *egin nuen juramentu bedinkatuko zaitudala, ta gei- tuko derala zure arraza, zeruko izarrak bezela. Per memetipsum iuravi.* Eskritu- ra santeetan erakurten da Profeta onak sarri, baña bear orduetan gauza- ren baten sinisgarrirako, aotatzen zituztela itz juramentudun oek, *Bizi da Jangoikoa, Bizi da anima zurea. Vivit Dominus. Vivit anima tua.* Isak, ta Abi- melek erregeak ez da baida batzuen ondoren ardilarren gañean, pakeak egitean egin zutela juramentu irauteko adiskidetasunean. *Iuraverunt sibi mutua.* Abran Patriarkak egin ziola bere morroe Eliezer zeritzonari jura- mentu zuzena.

Ori ondo dago anzinako legean egitea juramentuak bekatu gabe, bada Jeremias Profetaren aoz esan zuen Jangoikoak: egingo dezu jura- mentu egiaz, juizioan, edo zuzenki ta justizian edo gauza onaren gañean. Baña dirudi Jesu Kristok ontzat emanik bera etorri baño leenago egiten zan juramentua, eragotzi zuela bere legearen jarraitzaileentzat. *Nik dio- tzut, ez juramenturik egiteko guziz. Non iurare omnino; Zuen itzketa izangö da ez ez, bai bai.* Ala dio Kristok, baña ez du itz oekin eragotzen guziz jura- mentu zuzen, egiazko, ta premiazkoa, ta bai edo nola, ta ezeri ez dago- kiola juramentu egitea. Bein baño geiagotan esan oi zuen Kristo berak,



Bene benetan dirautsuet, Amen amen dico vobis. San Pablok bazekien Kristoren erakasteen berri, ta egin zien Korintoarrai juramentu au, egia esaten ziela siniserazitzeko: *deitzen diot testigotzat Jainkoari. Testem Deum invoco.* Ala daki-gu santu ta santa askok Kristoren legean egin dituztela juramentuak, ez edo nola ta bai bear orduetan, egiaz, ta zuzenki.

G. Zerk lagundu bear dio juramentuari ondo egiña izateko?

E. Egin bear da egiaz, ondo begiraturik, ez ariñegi, ta egin bear da gauza zuzenaren gañean. Au da Jainkoak eskatzen duena.

G. Egiaren gañean egiten ezpada, beti ote da bekatu mortala?

E. Aitu ondo, zerren dan doktrina guziz bearra, zeña ez jakiñez, egi-ten dira bekatu asko. Egia bi dira, bata usteko edo iritzikoa, ta bestea izatekoa. Egia usteko edo iritzikoa da batek esateko unean egiatzat ziurki edo ezta baida gabe dadukana. Gerta diteke noiz edo berriz, nik nere-gango egiatzat idukitzea berez ala ez dana. Egia dalako uste osoarekin zerbait esaten badet, ez det Jangoikoaren aurrerako gezurrik esango, zerren nabillen zuzen nere konzienziarekin, ta uts egin dezakegu erraz asko alditan gure kulpa gabe ere. Orain bada juramenturen bat egiten duenak egia dalako uste osoan, ta bear dan azterria egin ezkerro jakiteko nola zan, berez ta izatez egia ezpalitzaere, ez du bekatu alde onetatik egin-go, zerren esan dedan konzienziak agertzen zidana. Berriz nere iritzi edo ustean esaten dedana juramentuarekin gezurra bada, gezurra berez ezpalitzaere, egingo nuke Jangoikoaren aurrerako juramentu gezurrezkoa, zerren egin dedan nere konzienziaren kontra; ta onen kontra dana bekatua da San Pablok dionaz:

Emendik dator juramentu egin orduko begiratu bear dala astiro ta arreta andiarekin dan edo ez egia esan bear dedana, eman bear dan testigantza, edo deklarazioa. Beingo batean eskatzen badie, ta leenaz ondo aztertu edo esaminatu ezpadu konzienzia, eskatu denpora zati bat juez edo juramentu eskaleari, itundu konfesore edo kura jaunarekin, ta eldu gero juramentu egitera ta egia aleginez esatera, ekusia ekusia bezela, ta enzuna enzuna bezela geitu, edertu, ta gutxitu gabe. Egin ere bear du bel-dur ta lotsa santu batekin oroitzen dala nor dakarren egiaren testigotzat. Ala egingo balitza, ez lirake izango anbeste juramentu gezurrezko.

Berriz dakianak juramentuaren bean esatera dijoana gezurra dala, ta ala egiten badu, egiten du bekatu mortal belz itxusi ta izugarria, iñoren kaltean ezpalitza ere; ta iñoren kaltean balitza, geitzen da bekatu edo bekatuak ekusiko degun bezela gero.

Oro bat da gezurrezko juramentua gauzaren bat dala edo ez dala esaten danean juramentuarekin ondo jakin gabe, ez da baidan dagoala,

edo itxumustuan. Esan bear dira bada gauzak jakiñak jakiñak bezala, dudakoak dudakoak bezela estalgarri gabe.

Jauna, esan oi dute batzuek, egia da egin nuela juramentua gezurrez, ordea, ez justiziaren aurrean, ez gezur andia ta kaltegarria siniserazitzeko, ta bai iñoren kalte gabe, gezur txikiaren gañean, ta gere artean.

Ez da ansi; dan gezurrik txikiaren gañean egiten dan juramentua, dakiala, edo jakin bearrean gezurra zala, da bekatu mortal andi andia justiziaren aurrean egiten ezpada ere. Gezur txiki utsa ez da bekatu mortala; baña gezurrik txikienean juramentu egitea da gezurraren testigo Jainkoa ekartzea, zeña dan injuria andia. Baña egia esanda, galdu bear bada bakoitzaren onra, ta etorri kalte andiak lagunari, zergatik esan egia? O zenbat anima daramazan Infernuko onra naiak, ta lagunari atsegin emateak! Galdu bear da onra, galdu osasuna, galdu ondasunak, ta galdu bizitza ere, bekatu egin baño leenago. Badago zer esan Jesu Kristoren doktrina onen gañean? Ni baño, dio, beste gauzaren bat maiteago duena, ez da gauza neretzat, ez da nere eskolakua. Eta norena da Kristorena ez dana? Bizitza galtzen badegu emen bera gatik, arkituko degu leku obean. Baña txit asko dira etorkizunari begiratu gabe, kalterik izan ez dezen munduan, anima galtzen dutenak. Salatzen dituzte. Justiziaren aurrera gaitzen bat egin dutelako. Uka ta uka egin badute ere. Orobat adiskide, aide, edo auzokoren baten salazio edo akusazioan. Galduko da, esan oi dute, nik egia esaten badet; sartuko dute kartzela edo katigotegi gogorren batean, etorriko zaizkaz kostu andiak, multaren bat ezarriko dioe. O Kristau eroa! Eta galdu nai dezu zuk betiko, igaro Infernuko presondegi irteteko aterik ez duenera, bestea galdu ez didin? Paga dezala emen gaitz egin duenak. Justiziak, zeña dan Jangoikoaren eskubideak dituena gaitzagillak kastigatzeko, du eskua galdetzeko egia dakitenai. Justiziari gezurra esatea juramenturik eskatuko ezpalu ere da bekatu zor zaion obedienciaren kontra; ta zer izango da geitzen bazaio gezurrari juramentua?

Izaten dira noiz bait erriertak, alkar banatzeak. Justiziak berea egin nairik artzen ditu deklarazioak. Eskatzen du juramentua egia esateko. Baña bakoitzak garbitu nai du burua, bestea gaizto egin, gezurra gezurrari ezarririk. Dakartez testigoak, oek oro bat adiskide, auzoko, edo aideren bati mesede iritxikoa egitea gatik, uka egia ta bear bada egotzi kulpa ez duen, edo gutxi duenari. Gero datoz kastu ta multak pagatu bearrak neurri gaiztoan, kulparik geien zedukana libratzen dala, edo guziz, edo gauza gutxi batekin. Nork desegin bear ditu kalte oek, edo egin restituzioa? Deklarazio txar ta gezurrez juramentu egin zutenak. Baña infernurako



gelditzen da bekatu au agertzea zuzen; ta konfesatzen bada zuzen, zenbat dira biurtzen dituztenak lagunari kendu zaizkonak bide gaiztoz?

Beste batzuetan iruk edo lauk egiten dituzte kalteak basoetan. Salatzon dituzte justiziaren aurrera. Bakoitza burua garbitzea ta bestea loitzea, da lenbiziko gogoia. Egia aitortu, ta pagatuko zuen pagatu bear zuenak; baña juramentu gezurrezkoekin ezkututzen da egia, ta pagaerazitzen dizte bear etzuenei, edo bear baño geiago.

Berriz auzietan zenbat okertasun egin bear ditu juezak juramentu gezurrezkoen bidez? Zenbat kalte gero auzi gaizki irabazietatik? Eta guzia iñoren esanak egiteagatik? Nola desegin kalte egiñak? Zenbat buruko min konfessorearentzat! Zenbat kezka, aranza, ta estutasun konfesatzen bada zuzen, ekusirik ez dagoala salbaziorik restituzio edo biurrerak egin gabe, iñola ere al dala edo al dan bestean? Ez duenean zerekin biurtu kalte guziak, ta baldin badago gauzak zuzentzeko biderik, juezaren aurrean itza edo gezurra deseginda, nolako atzerapen ta beldurrak ori egiteko? O balin balekitez etorkizunen berri! eta nola ikaratuko lirakean gezurraren gañeko juramentuak egin baño leenago. Informazioetan bakoitzak aldi askotan probatzen du nai duena; esanerazitzen zaie testigoai bai edo ez nai dana. O Kristauak! Ez inoiz arren juramenturik egin premia gabe, gauza onean ez dala, ta beti egiaren gañean; ta galdetu aurrez kura jaun edo konfeso-reari nola eranzun konzienzia ondo aztertu ondoan.

Juramentua artu bear da purga bat bezela. Purga artzen da ezin bes-tez, aginduz, ta osasuna gatik. Ez du purga iñork artzen premia gabe, ta bai eri edo gaiso danean, osatzeko, ta beti atzerapen ta nagitasun andiarekin. Irago al didilla artu gabe, ez du bere atsegiñez artuko. Ala bada egin bear dan juramentuarekin ere; egin bai bear orduan, premia, ta agintzen danean, ta beti egia garbia esaten dala.

Emendik dator ez dala asko egiaren gañean egitea; bear da premia, ez arinegi, ez noizean bein. Juramentua ondo edo bear bezela egiteko okasio egiazkoak gutxi dira. Ez ta bai bakoitzean bezela juramentu egiten duena egia ustean ere, jartzen da oitura arturik, duda orduetan bai, edo ez esatera, baita gezurrez ere. Espiritu Santuak ber berak dio, etzaiteala oitu juramentuetara; zerren asko erori dira oitura orregatik: *jurationi non assuescat os tuum, multi enim casus in illo*.

Egia da berez egiaren gañean egiten dan juramentua ez dala bekatu mortala premia gabe egiñagatik, bai ordea bekatu beniala. Eta bekatu benialak erraz egiteak ez ote du kalterik? Baña premia gabe txit sarri egitea egiaz dala ere, balin bada gezurrezko juramentua, edo gauza gaiztoren batean egiteko peligro ezagutuan izango da oitura alakoa bekatu mortala.

Badituzu batzuek txit sarri aotatzen dituztenak itz juramentuko oek *ala Jainkoa, Kristoren Pasioa, Kristoren odola*. Oitura au artu duenari estu orduetan oro bat irtengo dio alako esateak gezurra siniserazitzeko, ta aserre orduetan esateko, *ala Jainkoa nola banatuko au dan. Kristoren Pasioa, illko al aiz*. Ala bada, noiz edo berriz juramentua egitea premia gabe, egia zuzenaren gañean, bekatu benialetik iragoko ezta, ez pazazio beste okerririk bil-tzen. Baña usario, oitura, edo sarri egitea izan diteke bekatu mortala esan dedan peligroa gatik.

Ez bada aaztu doktrina au gezurraren gañean, dudaz edo ezagueraz juramentua egitea, naiz justiziaren aurrean, naiz bestela, beti da bekatu mortala.

Gauza gaizto ta astunaren gañean egitea egiaz bada ere, da bekatu mortala juramentua bera, ta naikunde gaiztoa beste bekatu mortal bat. Egiaren gañean premia gabe noiz edo berriz, ta oitura gabe egitea, da bekatu arin edo beniala. Premiaz, gauza onaren gañean, ta egiaz egitea, ez da bat ere bekatu, justiziaren aurrean ezpada ere.

Baña noiz egon diteke premia justizia gabe juramentu egiteko?

E. Juramentu egiazkoa egitetik dijoakunean gere onra, ondasunak ez galtzea, etxeko, edo lagunaren pakea. Santa Teresari asmatu zioen bein gezur astun ta txit andi bat. Bazekian sinistuko etzioela *ez* utsarekin. Ixi-llik egon balitza, etorriko ziran errierta andiak; ta pakea ematearren, ta animako kalterik izan etzidin etsaitasuna gatik, egin zuen juramentu au, *nik orrelako asmorik iduki badet kendu dezala Jainkoak nire izena bizitzako liburitik*. Igaroko zuen santa andi ark berez zanez edozein atsakabe; baña nai zituen kendu animako kalteak, eman pakea besteai, ta ala egin zuen juramentu egiaz ta premia artan.

Esana esan, gerez danez beti atzeratu bear gera juramentu egitetik, egin bear da ezin bestez noraezean, egiaz, ta obligatuak geranean. Ikara santu bat sartu bear da gure biotzean. Ona zer dion Espiritu Santuak. *Juramentu asko egiteak lastu, ta zurtutzen ditu buruko illeak*; ta jende on edo prestuak *alakorik ez enzuteagatik, estaltzen dituzte belarriak, ta itzuliko dute burua beste aldera*. Ona beste leku baten zer erakustzen dan. *Gizon juramentu asko egiten duena beteko da geiztakeriz, ta bere etxetik ez du alderik egingo kalte, edo zigorrak*. Nolako zigor ta kastigoa izan etzuen Balthasar Babiloniako erregeak Jangoikoaren etxeko onzi edo basoetan ardoa edan zuelako? Ekusiko bagenu norbait meza emateko Kalizak artu, kalera eraman, ta beretan ematen edatekoa edozein arlote, jente arrotz ta erromesi, zer esango genuke? Nolako naigabea artuko ez luke fede apur bat duen edozein kristauk? Zer dala uste dute Jainkoaren izen santua ekartzea gezu-



rraren testigo, ta deitzea benganzarako? Zer noizean bein aoan artzea gezur edo egia, zuzen edo oker nola deritzon bakoitzari? Ostutzen due-nak zerbait gaizki egiten du, egia da; ordea irabazten du zerbait mundu-rako. Baña zer ateratzen dute Jainkoa gezurraren testigotzat ekartzeaz? Zer atsegin iduki dezake gaiztakeria orretan? Zer litzake errege bati dei-tzea gezurrez, edo gauza gaizto ta gutxien nai duena ekusteko? Jende prestu ta ondo jaiok asko mintzen dira bere esanari sinistea ez emateaz, ta eskatzen zatenean juramentua. Munduak balekusa, dio San Krisosto-mok, ez dezula batere juramenturik egiten, ta etzerala gezur zalea, erraza-go sinistua izango ziñake juramentuakin dabillena baño; zerren ekusten dira gezurrekin ere juramentuak egiten. Nola dabilten munduan anbeste gezur, ta juramentugilla asko, siniste gutxi eman oi da.

G. Nai nuke enzun gertaera edo ejenplo bat ezagutzeko bekatu onen gaiztotasuna, ta inoiz egin ote duen Jainkoak kastigoren bat.

E. Ona emen. Bizi zan Korzegan gizon bat, zeñek larga ziozkan ill aurrean bere alaba bati irureun ezkutu. Amak alarguntzan obeto gorde bearrez diru aiek alabaren dotetzat, eman ziozkan auzoko gizon bati, zeña zeukan prestu ta leialtzat. Eldu zan bear ordua, ta joan zan ama gizonari eskatzera. Zer diru eskatzen didazu emakume gezurtia? Ez det nik zure dirurik; ortikan nere begien aurretik. Onela bota zuen ordu gaiztoan gizon animagabe ark. Alargun gaxoak nola etzuen paperik, ez testigorik, eskatu zion alkate jaunari galdetu zezola gizon gaizto ari juramentuaren bean egia zan artu zituena irureun ezkutuak. Artu zuen alkateak jura-mentuan, ta egin zuen gezurrez, etziola alargunak eman ari alako dirurik gordetzeko. Alkateak artu zuen juramentuan gizon gaizto aren emaztea, zeñek bazekian bere senarrak artu zituena diruak; baña ark ere ukatu zuen. Jangoikoaren aurrera igo zuten ama ta alabaren negarrak, eta gorde zuteenak burua lurreko justiziaren kastigotik, ez Jangoikoarenetik. Senar-emazte juramentu gilla gaizto aiek bazituzten iru ume, bata ogeta bost urtekoa, bigarrena bostekua, ta irugarrena seaskan zeukatena, bost urte-koa zaitzen zegoala. Eldu zanean andrea etxera juramentu gaiztotik, arki-tu zuen seaskan larga zuen aurra lurrean illik, ta begitandu zitzaion ito zuela bost urteko ume zaitzen zegoanak. Alako kolpea eman zion oni bere aserrean, nonda larga zuen ill leerturik. Etorri zan senarra etxera, ta ekusi zituenean ume biak ill da, artu zuen ezpata bat, ta igaro zion kor-putz guzitik emazteari. Artu zuen preso justiziak gizon gaiztoa, ta agindu zuten, laster urka zezatela. Etzegoan borrarorik, ta ona non eskeñi zan irugarren seme andia bere aita urkatzeko, artu zion gorrotoa gatik ill zue-lako ama. Ala bada urkatu zuen bere eskuekin. Andikan laster seme aita-

ren urkatzalleak ezaguturik egin zuena, beste urkatzalle edo borrarero guziak baño lotsaari edo desonra geiago an gelditzen zala, gizon aurrean agertuko ezin zala, ernegu ta amorru gogorrek arturik, urkatu zuen berak bere burua. Orra nola galdu zan bereala bezela etxe guzia juramentu gezurrezko bana egin zutelako guraso gaizto aiek, gelditzen etzala lurrean beren oinordeko, edo kastakorik. Baña nora ziraden guraso gaizto aien, ta seme nagusiaren animak? Bai, kristauak, bai; esanik daduka Jangoikoak alako juramentugilla gaiztoen etxean beti izango dala inoiz alderik egin gabe juez zuzenaren kastigoa. *Non discedet a domo illius plaga.* Jangoikoa dakartenak gezurraren testigo, egiten dioe bidegabe, edo ofensa guziz itxusi bat. Batzuek bizi dira beldur gabe, ekusten ez dituztelako alako kas-tigoak beren etxeetan. Ez luze iritzi ez. Eta orain ixillik badago ere Jan-goikoa, artuko du ezpata bere egunean, ta bere izen santua gaizki erabilli duten mingañoak, izango dute infernuko sugarretan aberats kondenatuak baño zerk mindu geiago. Zorigaiztokoak beren bekatuen gaiztotasuna ezagutzen ez duteenak. Zorigaiztokoak egiazko penitentsia, ta ondu gabe eriotzak arrapatzen dituenak. O zenbat konfesio gaizto egiten diran zuzen agertzen ez diralako juramentu egiñak, oetatik etortzen diran kal-teak, edo beintzat bai obetzen ez diranak! Zorionekoak Jangoikoaren ize-nari ekartzen dioenak lotsa, edo onra andia. Zertako eman ote zigun Jau-nak mingañoa? Bera aspertu gabe beti alabatzeko. Bakoitza izango da eza-gutua bere itzkeratik, nola ezagutu zuten Kaifasen etxean San Pedro Gali-learra zala. Itzkeria Aingeruena dutenak alabatzean Jangoikoa, dira Zeruan jaiok bezela. Infernuko itzkeria dutenak dakartela Jaunaren izena gezu-rretara, bendekuko gauza gaiztoetara, agertzen dute nongoan diran, edo noren eskolakoak. Dendatu bear gera bada bedeikatzena ta biotz guziare-kin esatera, *Izan didilla bedinkatua Jaunaren Izena orain ta mende guzietan.* Amen.



ERAKASTE VIII.

Madarikazioko itzen gañean

Benedicite, et nolite maledicere.

G. Ekusi genuen igaro dan oraiñagoko doktrinan, nola onratzen dan Jainkoaren izena juramentu, zuzen ta bide onekoekin, nola desonratu gezurrezko ta beste bidegabekoekin. Ote dago Jaunaren izena desonratzeko beste bekaturik?

E. Bai, ta au da maldizio, birao gaizto, edo lagunari ezarten zaizkan eskintza gogorrekin, ta alde onetatik arrapatzen ditu infernuko etsaiak anima geiago juramentu gaiztoen aldetik baño.

G. Zer da maldizio edo madarikazioa?

E. Da egoztea lagunari itzez, gaitz, edo kaltegarria dan gauzaren bat; nola diran esatea, *arren illko al aiz, deabruak eramango al aute*; ta pekatua da andiago, zenbat eta andiagoa dan egozten zaion gaitza; ala, esatea *deabruak eramango al aute* gaiztoago da esatea baño *illko al aiz*, gaizto ta kaltegarriagoa dalako deabruak eramatea iltzea baño.

G. Zenbat gisa edo modukoak dira madarikazio, edo maldizio itzak?

E. Iru gisakoak. Batzuetan madarikatzen da projimo edo laguna bere personan. Onelakoak dira esatea, *itoko al aiz, ler edo estanda egingo al dek, Oñaztarriren batek eramango al au; egun on bat ekusiko ez al dek, lupu gaiztok joko al au; Jangoikoaren arpegirik ekusiko ez al dek, sabeleko gaiztok eramango al au*. Noiz bukatu esan oi diran onelako eskaari benetan madarikatu, ta kristau onai illeak lastu edo zurtzen diztenak? Beste batzuetan lagunaren gaizki naiz, ta lagunaren diran aldetik madarikatzen da laguna bere gauzeetan, edo gauzak berak. Onelakoak dira esatea, *Arren koko gaiztok eramango al ditu gari ta artoak, illko al zaizkik buztari (sic) idiak, Erreko al zako etxea...* Beste batzuetan bakoitzak ernegutzaz biraotzen du bere burua, itzekin egotzirik gaitza bere buruari; onelakoak dira esatea, *ni bezelakoak jaiore bear etzuen. Ai! Amaren sabelean galdu banintza! Deabruak eramango al naute, ordu gaiztoan nere jaiotza*; ta zenbat onelako?

G. Bada beste madarikaziorik?

E. Bai; madarikatzen dira beste kreaturak ere soil soilik, edo proximoaren gaitz iritzi gabe. Onela, zaldi edo idiren bat erori dalako, soroan sartu ta kalteak egin dituelako, edo eskuetan darabiltezen erremientak laguntzen ez dielako nai bezala, madarikatzen dituzte, erneguz, ta nasaitu

nai dutela gaizki esanik alako kreaturen kontra. Oitura txatarra egiaz, baño ez ain gaiztoa nola dan lagunari egozte bere personan, edo bere ondasunetan bere gorrotoz.

G. Nai nuke enzun azaldura edo esplikazio zeze bat gauza onen gañean.

E. Arrazoia dezu, zerren ez da erraz arkituko doktrina bearragorik, ta ala ez jakiñaz, ta ez ezagutuz daude okertasun asko. Guziak naastzen dituzte; juramentuak maldizioekin, maldizioak birao izen utsekoekin, ona gaiztoarekin...

Ona lenbiziko jakinbide eztabaida gabea. Egozte birao edo maldizio borondate gaizto, gaiz iritziko, edo gorrotozkoak proximoari bere personan, naiz bere gaizki naiz, bere ondasun, edo gauzaren batzuei da bekatu mortala, opa edo eskintzen zaion gaitza bada astuna geien geienan oi dan bezela.

Emendik dator dala pekatu mortala esatea alako borondate gaiztoz, *illko al aiz, ler egingo al dek, deabruak lagunduko al dik; etxea erre, edo ganaubak illko al zaizkik*, oek diralako gaitz edo kalte astunak. Orobat aoz ezer ez esanagatik, biotzez eskintzen badira gaitzak, dira maldizio barreneko edo animatik irtenak, ta bekatu mortalak.

Bakoitzak bere buruari erneguz ta benetan egozte alako birao edo maldizio gogor ta astunak, ezagueraz, da bekatu mortala, ta andiagoa lagunari egozte baño; zerren beartuagoak gauden gere buruak amatzera laguna edo proximoarena baño, beste gauza guziak berdin dirala. Nork ez daki bakoitzak bere burua iltzea gaiztoago, ta kaltegarriagoa litzakeala, proximoa iltzea baño? Bada bere moduz orobat batek bere buruari biotzetik maldizioak egozte. Esan det erneguz, ta gaitziritziz danean; ez ordea bide onez balitza.

G. Ori ezin aitu det; nola bakoitzak bere buruari eskeñi diezakean bide onez, edo bekatu gabe gauza kaltegarria?

E. Bere edo besteren baten on andiagoa gatik, naiz Jainkoaren amorez eskintzen danean Elias Profeta Santua egon zan eriotzari dieiz, zerren naiago zuen ill, ekusi baño desonraturik Jangoikoaren izena, ta bere kontra Israelarrak egiten zituzten bekatu itxusiak. San Pablok madarikatu zituen kristau ondo bizi ziranen artean ereiten zituztenak azi gaiztoak, doktriña txaar, eta eskandaluakin. *Utinam et abscondantur*. Onelako maldizio santu asko (maldizioaren izena eman bear ezpazate ere) arkitzen dira Eskritura santako libruetan, ta guziak sortzen ziran Jangoikoaren amore, edo zelo garbitik, ez projimoaren gorroto gaiztoz; ta emendik artu ezin dezakete biderik Kristau ernegari, ta estuak gaitzak eskintzeko beren



buruai, ta lagunari. Batek esatea, *ill nazala Jainkoak bekatu egin baño leenago; naiago nuen jaió ezpanintza onelako bekatuak egingo banituen*, ez da egiazko maldizioa, ta bai itzkeria ona, zerren obe dan ni iltzea, ni ez jaiotzea Jainkoa ofenditzea baño. Job santuak madarikatu zituen bere sorrerako, ta jaiotzako gau-egunak, bekatua madarikatzea gatik. Eliza Santuak, zeñek utsik ezin dezakean, madarikatzen ditu bere etsaiak, *Gentes Paganorum, et hereticorum detere tus potentia conterantur*, ez egiaz gaizki naiz, zerren poz andiarekin artuko lituzkean, biurtuko balira bere fede edo sinistera, ta bai Jangoikoaren amore ta zelo garbiz. Gauza bat da bada lagunari gaitza opa izatea edo eskintzea bakoitzaren amore gaiztoz, ta beste bat Jangoikoaren amore garbiz eskintzea. Emen beti gordetzen da karidadea, ta lagunaren ongi nai egiazkoa; ez ordea bakoitzak bere amore gaiztoz, ernegazioz, ta gaiz iritiziz biraoak ezarten diozkanean projimoari.

Baña nolakoak izan oi dira geienean enzuten diran gaitz eskintzak? Aserre gaiztoz, ta ernegazioz sortuak. *Ni bezelakoa illda balego; jaió ezpanintza*. Zergatik ote? Bekatu egin duelako damu onez, ta Jainkoaren amorez? Zein gutxi! Aserre ta estu aldietan, gaitzen batzuek etorri zaizkolako, zorrak estutzen dituztelako, zartzako naigabeen indarrez, animako pake, edo pazienziarik artu nai ez dutelako. Eta orren prest daude iltzeko? Eta ill ondoan ez dago zerk beldurtu? Sinisten ez dutenak, ez Zeru ez infernu, ez juiziorik dala, eskatzea eriotza irtezeagatik esturagarrietatik, arritzeko gauza ez da; baña sinistera dutenak, nola eriotzari deiez egon biotz gaizki prestatuarekin? Kristau onak beldurtzen dira ill ondoko etorkizunekin, ta Kristau pazienziagabeak, ernegatuak, biotz zital ta irritua dutenak eriotza billa, zerua tentatzen? Non da fedea? Zertaraño eldu liteke kristau batzuen itxumen gogorra? Dakitela gezurra dala madarikatzen dute beren burua, *deabruak naramala, bizirik jaiki ez nadilla*, nik orrelakorik esan edo egin badet. Au, gezurrez, esatea, zer da, baizik eskatzea Jainkoari eriotza ta kondenazioa?

G. Eta gerra denporan gaitzak eskintzea etsaiak, bekatu ote da?

E. Zenbat onelako enzun ote da Franzesekin izan dan gerran? *Franzes bizirik geiago jaioko ez al da. Ondatuko al da Franzia guzia, ler egingo al dute Franzesak*. Zein gauza gaitza bear bezela erantzutea galdetze oni! Ona Kristoren doktriña. Bedeinka zazuz madarikatzen ta persegitzen zaituztenak, egin orazio etsaiak gatik, ez bendekuko orazio edo eskariakin, ta bai borondate ta amore karidadekoan sustraituz. Zergatik ala madarikatzen dira gerrako etsaiak? Egiten dizkigen kalteak gatik? Ostutzen dituztelako diru edo beste gauzak? Ori da bendeku utsa, Kristok eragozten diguna. Gere bizitza kendu nai digutenai ere, ezin eskini gentzake gaitzik. Ezagu-

tuko bagenu, nola geienez datozen alako gerra-azoteak gure bekatuetatik, geiago dendatuko giñake negar egitera, adoratzera joten gaituen Jaunaren eskua, muñ egitera bere justiziako zigorrari, etsaiak madarikatzera baño. Ordea gere bekatuak ezagutu nai ez ditugu, kentzen ditugu fedeko begiak Zeruetatik, ezarten ditugu lurrean, ta begiratzen diegu etsaiari aragiaren begi gaiztoekin.

G. Gauza sinis gaitza esan dana. Eragotzita ezpadago etsaiak iltzea gerra zuzenean, nola egon liteke madarikatzea, edo eskintzea gaitza?

E. Ez bide dakizu ondo zer diozun. Gerran etsaiak, iltzea bendeku utsez, edo bakarrik nork beraren amore soill, ta aragizkoari begiraturik, da gauza eragotzia ta Jainkoaren Lege garbiak debekaturik dadukana. Baña ez da pekatu iltzea justiziaren amorez, ta askoren on ezagunagatik, etsai gerrakoari eriotza ematean gordetzen diranean gerra zuzeneko ordena, edo legeak. Emendik dator gerra gizon edo soldaduak ezin ill izatea entregatu nai diranak prisionero. Borrero batek justizia zuzenak agintzen dionean norbait urkatzeko, urka lezake bekatu gabe, ez ordea berari gaizki naiz ez gorrotoz, ta bai justiziaren amorez. Urkatzera daramanak noiz bait egin balio injuriaren bat, ta onen indarrez gogor ta pozik urkatuko balu, eginko luke pekatu urkatzean, dadukan asmo gaiztoa gatik. Ala gerran ere kendu bear da intenzio edo asmo gaizto guzia, ta bakarrik eriotza eman justiziaren amorez. Orra bada nola bekatua egon ditekean maldizioak egoztean gerra etsaiak, bakoitzak bere interes edo on utsari begiratzen badio. Projimoaren amorea beti gorde bear da; benganza bidegabeta beti da eragotzi edo debekatu. Justiziak norbait urkaerazitzen badu, ta gu poztutzen bagera justiziaren amorez, ta munduari datorkion ona gatik, ez dago bekatuik; bai ordea gure gaizki naiz, edo gorrotoz gozatzen bagera. Gu bada poztuko bagia gerrako etsaiak garaituak diralako, dala Elizaren kontra gauza kaltegarriak egiten dituztelako, edo dala justiziaren amorez, ez genuke bekatuik egingo. Baña maldizio aitatu ditugunak Franzesai egoztean, zer asmo edo intenzio zeukaten askok? Beren on edo interes utsa, gaizki naia, edo bidegabeko gorrotoa. Sinistuko zenuke? Bada Jainkoak debekaturik daduka edo nola, au da, alan gura, edo nola nai Deabru berari birao edo maldizioa egoztea. Ona zer dion Espiritu Santuak, *Gaiztoak madarikatzean duanean Deabrua madarikatzen du berak bere anima*. Deabrua ezin madarikatu dezakegu Jainkoaren kreatura dan aldetik, ez gure borrero edo bekatuen kastigatzalea dan aldetik bai ordea Jainkoaren etsaia dan aldetik; guk bere gaiztakeria madarikatzen badegu, gerenak ere madarikatzen ditugu; zerren guk ere egin ditugu bear bada deabruak baño gaiztakeria geiago baña aren ta geren gaiztakeriak zelo



santuz madarikatzea ezta pekatu. Gerrako etsiak ez dira Jainkoaren kreaturak? Ez da Jesukristo aiek gatik ill? Egin ezin dezakete penitentzia ta salbatu? Orain bada, deabrua madarikatu ezin badezakegu Jainkoaren justiziako ministroa dan aldetik, zergatik madarikatu gerrako etsiak, egiten dizkiguten lurreko kalteak gatik, izanik oek ere Jangoikoaren justiziako ministroak? Zertako da berriz Franzes guziak arrapatzea maldizioetan? Zenbat kristau egongo dira reino edo nazio artan gaizkitzat ematen dituztenak beste gaiztoak egiten dituzten okertasunak? Ala bada esana esan, madarikatu genzakez gaizki egiñak, edo obra gaizto egiten dituztenak batez ere fedearen kontrakoak, ez ordea gaiztagillak berak, ez personak. Madarikatzen ditu Dabid Errege Santuak, Jangoikoaren agindu, lege, edo mandamentuetatik alde egiten dutenak. *Maldedicti qui declinant a mandatis tuis*. Ordea madarikazio au erorten da bekatuetara. Karidadeak izan bear du zuzendu bear dituenak gure itz ta gogo guziak.

Zer esan bear da ganadu, patari, abere, ta giberriai (ganado lanak) egozten zaizten maldizio astunen gañean?

Egozten bazaizte lagunaren gorroto edo gaiz iritxiz, esan degu dala bekatu mortala; zerren dan gaitza opa edo eskintzea projimoari bere ondasunetan. Ordea egoztea esturaz, bearrik ondo egin nai ez dutenean, soroetan sartzen diralako, edo onelako beste motiboren bate gatik; ta ez proximoaren kaltea dalako, izango da berez bekatu arin edo beniala. Baña oituraz egiten diran bekatu benialak dira kaltegarriak; ta prestatzen dute bekatu mortalera. Ekandu edo usuario txarra artzen dutenak maldizioak ganaduai egotziaz, egiten ta errazten dira izkune gaiztora, ta gero erraz etorriko da ura egitera projimo berari. Badira kristau biotz gogor ta erruki gabeko asko, biraoka ta araoka esesten dienak arrazoi gabeko kreaturari. Gu gera Jangoikoaren esanak egiten ez ditugunak, bai ofensak, arrazoi ta fedea idukirik. Ganaduak serbitzen gaituzte gu obeto, guk Jangoikoa bera baño; eta zerbait uts egiten badute zaldi, idi edo bei arrazoi gabeak, guzia da deadarra, kolpe gogorra, ta biraoa. O erruki gabeko kristauak larga bada, larga oitura gaizto oni.

G. Aitu det orain artean esan dana; baña ez diot nik iñori egozten maldiziorik; ez det esaten kristauak gatik *illko al dala, ler egingo al duela*, ez bestelako gaitzik etorriko al zakola; bai ordea birao txar batzuek *Deabruak, Demonioa, Satanas, Barrabasa*. Oek esatea bekatu ote da?

E. Asko dago zer eranzun galdetze oni. Izen oek esan ditezke alde askotara. Batzuetan kontatze utsez, deitze gabe. Onela esaten da doktrinan, *Demonioa* dala gure iru etsaietatik bat, ta San Pedrok dio, *gure etsai Deabrua dabilela gure inguruan*. Jesu Kristok berak ere aitatu zituen *Demonio*

ta Deabruaren izenak. Onela, Predikadoreak ere aitaten dituzte erakastegi santuetan. Aitatzte gisa au batere bekatu ez da. Beste aitatzte bat da deitzez bezela izendatzen danean. *Demonioetan, Deabruetan, Demonio, Deabru* aserre aldietan, edo zerbait esatean. Ezeri ez dagokiola etsai oei deitzea iñoren kontra ez izana gatik, da oitura txatarra, bekatu beniala. Zein gauza lotsagarria Kristauen arterako! Batzuek nasaitzen dira itz oekin beren aserre aldietan. Obe litzake amore ta debozior deitzea, *Jesu ta Mariari* gere esturanean Infernuko etsai oei baño? Geiago kostatzen da deitzea izen ain santuei? Ez giñake nasaituko obeto deabru-demonioai deika baño? Ba da Euskal Errian itzkera askoren aora etortzen dana, ta da esatea utsari bezela *deabruen etxe ta bidera*. Deabruaren etxea da Infernua, bekatu mortalean dagoan anima; eta *bidea* bizitza gaiztoa. Utzi bear dira bada aitatzte eragabeko oek bekatu benialak baño ez izana gatik.

Beste baitzuek (sic) erasten dizte itz oek, edo ganaduei, edo gizaseme edo alabaren bati. Ganaduai erastea ere bekatu beniala da, ez bakarrik itz alperrak diralako, zeñegatik eman bearko degun kontu juizioko egunean. Jesu Kristok dionez, baitaere ganadu Jangoikoaren kreaturak diranai aserrez ezarten zaizteelako bear ez diran itzak.

G. Baña kristau batak besteari egozte izen oek bekatu mortal ote da?

E. Ezarten bazaio maldizio gisan nola dan esatea, *deabruak aramala, milla demoniok eramango al au*, da gaitz ezin andiago bat eskintzea, eta izango da bekatu mortala, esaten bada eskandaluz, gerta dakion borondatez, ta oitura gaiztoz. Au gero adituko degu argiroago. Esatea kristau batak besteari noiz edo berriz gorroto edo gaitznai andi gabe, *Demonio ori ken akit emendik, Deabru ori ator ona*, ez da bekatu mortala. Ordea, baldin esaten zaion persona bada lotsa andia zor zaiona, ta gizon aituen iritxian, bidegabe edo injuria andia egiten zaiona, alako izen gaiztoak egotziaz, egingo da bekatu mortala.

Emendik dator, izango dala bekatu mortala. Ume batek bere Gurasoari betaz beta esatea, *Demonio, Deabru, Satanas*, izen gaizto oek erasteen egiten zaiolako ofensa andia ta galdu lotsa, sentikizun andiarekin gelditzen dalako Guraso gaixoa.

Oro bat esatea berez Kristau batek Sazerdote edo Errelijioso bati aserre gaistoan: *Demonio ori, Deabru ori*, litzake lotsaari edo afrenta andia, ta bekatu mortala, baita ere geienez morroe edo mirabe batek egozte alako izen gaizto sentigarriak beren etxeko jaun edo andreari. Bekatua da andia edo txikia, nolakoa dan ematen dan mesprezio edo ofensa; ta mesprezio edo ofensaren andi txikitasuna ezagutzen da persona ofendituaren



nolakotasun edo zirkunstanziatik. Mutil batek besteari esatea *atoz ona demoniori*, ez da ondo egiña; baña ez dio ofensa astunik ematen gizonen aurrean, ta ala ez litzake izango bekatu mortala alako esatea. Baña esatea ume batek arpegiz arpegi gurasoari, kristau batek sazerdoteari, serbitzari batek etxeko jaunari nork ezagutzen ez du dala naigabe andirako bidea? Jangoikoak agintzen die umeai gurasoak onratzeko, kristauai sazerdoteak errespetatzeko, ta morroe mirabeai lotsa gordetzeko beren nagusiei. Beraz desonratzen badira ofensa ta sentikizun andia artu oi dan itzekin, da gauza astunean ausitzea Jangoikoaren legea.

G. Eta gurasoak umeai esatea, *ator ona Demonio ori*, Deabruaren seme ori, zer bekatu da?

E. Gutxi gutxitan esatea, ez da bekatu beniala baño izango; ordea sarri esatea, edo izen gaizto oek erastea oituraz, da bekatu mortala, etxean ematen dan aziera ta ejemplo gaiztoa gatik. Seme-alabak ikasten dute doktrina gaiztoa, ikaratzen dira birao alakoak enzunda, jartzen dira kezka animako andietan bekatu mortalen bat egin ote duen gurasoari alako itzak esateko biderik eman ote dioen, aldi askotan gai edo motibo andirik eman ez dutenean ere. Auzoetan jakiten ta gaizki esaten da, alako guraso birao-tiak gatik. Zer itxaron dezakete alako etxeok? Ai! ta zein beldur izateko dan aotik sarri irtetzen duten *Demonio* izenak, irten ditezen animan dauzkeen etsai gaizto oetatik! *Biotz beteak gañez egiten du*, dio Kristok. Nola erre-giñatuko dute Jesus ta Mariak *Demonio* ta *Deabruen* izenak ugari dabil-tzan etxean? Kristoren umeak diran semeai esan ta esan *Deabruen Ume ta Kastak*? Ekusiko dira guraso gaizki azi batzuek aurtxo arrazoi gabeai bira-oak ugari ezarten, negar egiten dutelako, pakean ez daudelako. Au da pago bati madari edo txarmenak eskatzea. Bestetik aurtxo alakoan animan dago Jangoikoa, daude garbi garbirik, dira egiaz bezela bere umeak, ta deitu deabruen umea, ta Infernuko kasta gaiztoa? Eta ori itzoro, sarri, ta eskandaluz?

E. Bai, ta da burua gorde bear danean anima galtzalletatik. Kristok esan zien Apostoluei: zuen arteko bat Deabrua da, *ex vobis unus Diabolus est*, au da deabruaren lanean dabill. Esan zuen Judas gaiztoa gatik. Emakume batek esango balio garbitasunaren tentatzalleari, *Urtikan prestuez, dollor, Deabru, demonio, edo Satanas gaizto ori*, ez luke gaizkirik esango, ez bekatu txikirik ere egingo, bai egia esan, ta arrazoi onarekin. Alako tenta-tzalleak dira Deabruaren eskupeko, serbitzari, eta bitartekoak, ta iges bear zate Infernuko berai baño ere beldur geiagorekin. Esan itz gogorrak, ez egon makal, gatz gabe, otz otzik. Eztzaie ordea esan bear *illko al aiz, demonioak eramango al aute*, ta beste madarikazioko itzak; asko da aserre ta

gorroto santu batekin beste itz gogortxoak esatea, iges egitea, ta igesik ezin badu, deadar egitea, ta gordetzea bere burua egin ala guziakin.

G. Enzun ditut atsegin andiarekin gauza ain jakin berrak, ta sinisten det maldizio astun, gogor ta biotz gaiztotik irtenak dirala bekatu mortala, zeren gaitza nai izatea lagunari bekatu dala guziak dakiten. Baña alako maldizioak egozten ezpadira borondate gaiztoarekin, ta bai itz utsez aserre aldietan, ezin izango dira bekatu mortalak.

E. Ezin eranzun nezake galdetze oni Santo Thomas Erakasle andiaren doktrinatik artu ditudan argiekin baño: Iru gisara, dio Maisu andi onek, maldizioak egotzi ditezke. Lenbizikoa, egozten danean gauza txiki, arin, edo kalte laburren bat eskintzen dala; onelakoak dira esatea, *ujol, ujol*, edo *busti, busti egingo al aiz, eroriko al aiz min andi gabe*. Itz oekin etzaio eskintzen lagunari gaitz andirik; izango dira bekatu arin edo benialak aserrez esaten diranean, ta au ere ez, adiskidetasunean, ta olgantza utsean esaten badira. Bigarrena, esaten diranean aserre txiki, ta beingo batean uste ustegabe bezela asmo gaiztorik biotzean ez dagoala. *Ex levi motu, et subreptione*. Irugarrena, gorroto oso ta borondate gaiztoarekin esaten diranean. Santu onen doktrina zuzena da; baña gaizki aditzen bada, izango da kaltegarria. Galdetu baño leenago eranzun oi dute maldizio-gillak, Jauna, esan nion, *illko al zala, bizirik etorriko ez al zala, arraio gaiztok eramango al zuela*; baña bereala damutu zitzatan; gatzgabe esan nion. Damutu zitzatzun laster? Damutzea ondo da; baña ez du eragozten egin zan maldizioa gaiztoa izatea. Gizon batek beste bat banatzen edo iltzen badu, banatzalle edo eriotzgiñari damutuagatik, banatua ta illa; ill banatuak izango dira. Luxuriako bekatu andi baten erori zan Amnon Dabiden Semea; egun askotan ebilli zan okasio billa, ta bekatua eginda bereala damutu zitzaion, amore-tik igaro zan gorrotora. Baña damu onek etzuen eragotzi, bekatua izatea len egin zuen gaiztakeria. Ala bada maldizio egiña maldizioa da gero damutua gatik. Beste askok uste dute borondate gaizto gabe esaten dituztela, aserrea igarotzen zaienean nai ez diotelako lagunari gaitzik etortze-ko. Zenbat bider gertatzen da aserre aldian gaitza nai izatea, ta paketuta ez? Zenbat bider aserre orduan kolpetzen da projimoa, ta gero ez du nai alakorik egitea! Santo Thomasek dio mobimentu edo aserre txiki eta beingo batean, edo ustekabean bezela esaten diranak, bekatu benialak dirala. Baña ez dio aserre andiz, ta uste jakiñetan esaten diranak, dirala bekatu arinak. Ala bada noiz edo berriz adiskide diranak, gaitzik alkarri urrutitik ere nai ez dienak jokoan bezela *ex ludo*, edo gatz gabe aserre beingo ta txikian esaten dituztenak, ez dute bekatu mortalik egingo. Baña nork libratu bekatu mortaletik kristau aserre-erraz suturik egozten dituztenak oitu-



raz edo sarri? Batean ezpada bestean izango dute borondate gaiztoa. Eta nolako eskandalua artzen ez dute enzuten dituztenak? Nola jakin lezake-te oek, esaten dirala borondate gaizto gabe? Ala, errazak diranak maldizioak egozten lagunari, ematen dute zer esana, jarraibide, edo ejenplo gaiztoa; ez dute ezagutu nai beren bekatuak, konfesioan garbitzen dituzte beren buruak, esanarekin *gaiztik nai ez nion, bereala damutu zitzatan*, ta egiten dituzte konfesio ta komunio gaiztoak. San Pablok argiro dio: Maldizio gillak ez dutela sarrerarik izango Zeruetako Reinuan. *Neque maledici... regnum Dei possidebunt*; aditzen da, penitentzia egiazko ta ondu gabe. Judasen kontra mundu guzia jaikitzen da bere ezaña gaiztoekin laztan edo apa egin ziolako Jesus bere Maisuari. Zenbat kristau mingain gaiztoko, maldizogilla diaz Jesu Kristoren aragi ederra kristeera komunio santuan! O Judasen lagunak! O Judas baño gaiztoagoak, esan bear nuen! Daramazute mingain ta biotz gaiztoetara Jangoikoaren, ta Birjiña Mariaren Seme bedeikatu ta ederra? Konfesatzen ditut maldizioak komulgatu baño leenago. Bai, baña zenbat ederkeri, apainduria, ta estalgarriekin? Eta non da ontzea? Non negar egitea? Etxe asko Infernu egiñik daude, gurasoak, alkarri iraaften dizte. Umeai zenbat? Oek zer ikasi dezakete alako eskolan? Zerbait kalte egiten bazate, matasa, ollo, ardi, ta asko alditan azakipula batzuek gatik, guzia da esatea *arren bada besoa igartuko al zako, itoko al da...* O itzketa infernukoa! Bai, ongi diot infernukoa; au da infernuko erdera, arnegu, ta madarikazioa. Ona zer dion San Joan Ebanjelistak: Infernuan daudenak Zeruko Jainkoari ezarten diozke maldizioak, oñaza, miñ, edo dolore andien indarrez. *Blasfemaverunt Deum Coeli pre doloribus et vulneribus* Nolakoa izango da oen eriotza ta azkena?

G. Kaltegarria ote da umeentzat gurasoak birao maldiziokoak egozte?

E. Nola ere dan. Nork esan zenbat kastigu egin dituen Jainkoak? Esan zion bein guraso batek zortzi urteko aurtxo bati, *otso gaiztok jango al au*. Etzan itz au utsean gelditu. Gurasoa bera joan zan meza enzutera; elizatan zan artean sartu zan etxean otso eme otsakumetxuak azitzen zegoana. Etxean zegoan mutiltxoa, artu zuen otsoak, ta erdibitu zuen. Piztia gose ark jan erdia, ta beste erdia eraman zien bere umeai. Biurtu zanean gurasoa etxera, arkitu zuen odola ugari, ta aurrik ez. Zerua artu nai zuen negar ta deadarrez. Ordea etzuen biztu semetxo otso ta onen umeak irentsi zutena. Españako erri batean esan zion ama batek bere aurtxo bati, *amorratuko al zaik*; eta andik laster, *baita niri ere*. Enzun zuen Zerua eskaari gaizto au; egun gutxiren buruan ama semeak ill ziran amorrugaitzarekin. Beste guraso, Aita Kalataiud ain enzunarekin konfesatu zanak, esan

zien aserre batean bere umeai, *illko al zerate*; zeuzkan bederatzi seme-alaba, ta guziak ill zitzaizkon luzabide gabe. San Agustin elizako irakasla andiak dio, esan ziela bere egunetan guraso batek bere amar umeai, *Arren paratuko ez al zerate*. Guziak artu zituen korputz ikara edo dardara andiak; irten zuten erririk erri inon gelditu edo paratu ezinda. Santuak berak ezagutu zituan aien arteko bi anai arrebak, eta dio nola bera testigu zala sendatu ziran San Esteban martiri gloriosoaren erlikien aurrean orazio eginarekin. O Guraso gogorrak! Zuen aserre gaiztoa gatik etortzen zaizte seme alabai anbat kalte. Zuek eranzuten dezute, *estuak eraso zidan, oitura txarrak atera zidan*. Baña goiz edo berandu eraatsiko zaizte umeai zuen birao tzarrak. Amaren maldizioak aterako ditu *zimentu edo sustraiak*; berriz *Aitarek bedeikazioak sendotuko ditu Semeen etxeak*. Esan nai du Espiritu Santuak itz oekin, Amaren maldiziok galtzeen dituela etxeak, dala umeen ondabidea, eta aitarek bedeikazioak ekartzen dituela umeen gañera zorientasun andiak.

G. Gauza arrigarria, Jauna; Jangoikoak nai espadu gurasoak madarikatzea beren umeak, zergatik enzuten ditu beren eskari txar ta bidegabeak? Zergatik kastigatu umeetan gurasoen bekatua?

E. Iru arrazoi gatik. Lenengoa, Jainkoak ezagutuerazi nai duelako gurasoen autoridade, jauntasun, ta eskubidea umeai agintzeko, ta oek ikasi dezen lotsa gordetzen gurasoai kastiguaren beldurrez. Bigarrena, kastigatu nai dituelako guraso berak beren bekatua gatik maldizioak erasteen umeai. Irugarrena, kastigatu nai dituelako seme alabak, beren esan onik egin naieza gatik ematen diztelako gurasoai naigabe andiak. Jangoikoaren Legeko laugarren Mandamentuak dio: *Onra itzatzuz Aita ta Ama, bizi zaitan luzaro lurlean*. Beraz nola gurasoak onratzea dan bizitza luzea izaiteko bide ona, ala lotsarik ez gordetzeak izan bear du bizitza laburra idukitzeko gañibet ezkutuko bat. Gurasoak, kontu mingañarekin. Utzi itz gaizto, birao ta maldizio ondagarriai. Nai dezute jakin nola eskuratu, ta ezi umeak? Nola esanera ekarri burukomiñ ta kalte gabe? Azi Jainkoaren beldurrean txikitxotatik, erakatsi doktrina, ta lege santua, itz egiten asitzen diranetik; ez dezatela etxean birao ta maldiziorik enzun, ta bai egunoro Errosario santua ta beste itz Jangoikozkoak. Okerrik egiten badute, bizitza gaiztora ematen badira, larga biraoak, ta *artu zigorra, ta gordeko dezu bere anima Infernutik*, dio Espiritu Santuak. *Tu viroa percuties eum, et animam eius de inferno liberabis*. Maldizio orde egotzi bedeinkazioak, erregutu seme-alabak gatik Jaunari, ta esan sarritxo, *Jainkoak adu onekoak egin zaitzala*, ta one-lako itz onak.

G. Eta bekatu andia da ume batek maldizioa egozte Gurasoari?



E. Andia baño ez? Ona nolako epai edo sententzia ematen zuen Jangoikoak oraingoa bezain santua etzan anziñako legean. *Aita edo Amari maldizioa ezarten dion umea, ill didilla, ta bere odola erori didilla bere gañera.* Zer itxaran dezakete alako seme-alabak! Orain kastigatzen ez da lurrean bekatua, orduan bezela; baña Kristauaren bekatuak andiangoak izanik, gerorako gordetzen ditu Jangoikoak kastigu guziz ikaragarriak, egiten ezpada egiazko penitentzia.

G. Zein dira ordea geien erorten diranak maldizioiko bekatuetan?

E. Txit asko; baña ona ezagunenak. Ekusiko dituzu Jangoikoaren deikoak deristen asko, edo aterik ate dabilzan pobre eskatzalleak ematen ez dienean limosna, irteten dutela maldizioa etxe artakoen kontra; an dira birao arao gogorak, *etxe guzia erreko al dala; eskean ekusiko al dirala, egun gozorik ekusiko ez al dutela,* ta nork esan zenbat biraotzar? Nik badakit, egiazko pobreak al dala egin bear zaiela limosna, ez dala gogorra izan bear berekin; eman ezin bada, ez arpegi gaiztorik erakutsi, ez itz txatarrik esan, ta bai esan arpegi amorezko edo errukiarekin, Jangoikoak lagun dagizula. Emango dana, eman biotz prestu ta borondate onarekin Kristo berari emango bagaño bezela. Gure modu gaiztoagatik bidaltzen badira anima naigabe ta penaz beteakin, beldur izatekoak dira pobren maldizioak. Ona zer dion Espiritu Santuak: *Gose danari ez begi gaiztorik erakutsi; ta ez aserrek biderik eman premian arkitzen danari; ez begirik atzeratu pobreakandik aseratu ez didin, ta ez diozu biderik eman bear maldizioaren bat egzteko atzetik, zeren bere animako naigabe, edo mingaitasunean irasten dizun maldizioa, enzuna izango da.* Egia da gaizki egiten dutela pobreak alako maldizioak egozteaz, ta emengo ernegu ta biraotetik igaroko dirala Infernuko biragillen artera egiten ezpadute penitentzia. O negar egiteko gauza! Emen daramate bizitza nekez betea, ta lapur gaiztoa bezala dijoaz asko kurutzetik infernura. Ai! jarraituko balie pobreak, Lazaro pobreak! Onek etzion biraorik egozten aberats zeken gogorrari, igarotzen zituen gosea, zauri ta oñazak pazientzia andiarekin; argatik eraman zuten Aingeru onak ill ondoan. Ez ditu enzungo Jangoikoak pobre, gaizto, gazte, alperreriak eskera ateratzen dituenen biraoak; ez da bestelakoena ere, ezpadezu zer eman etxeko kalte ezagun gabe. Baña badira erri guzietan pobre egiazko asko, aterik ate ezpadabilza ere; ala ezpatera errukiorrak, oen naigabe ta negarrak igaroko dira Zerura ta maldizio gabe ere ekarriko dituzte kastiguak goiz edo berandu ondasunak iduki ta laguntzen ez dienetara.

Erori ere oi dira maldizioiko bekatuetan, senar ordi, ta moskortzeko oitura gaiztoa dutenen andreak. Etxera agiri ez diranean, edo moskurturik datozenean, au da beren soñu ederra: *Azkenekoak edango al ditu, itoko al*

da. Au da senarra ontzeko bide ona? Senarra ordi bat, emaztea biraoti gaiztoa, umeak edo negarrez, edo oro bat gurasoai biraoka. Esan dezakete *Infernua da nere etxea.* Oro bat zelo gaizto edo bidegabekoetan sarturik daudenak, zenbat maldizio gorrotzoko?

Berriz nork esan zenbat maldizio egozten dituzten auzitan dabilzanak? O auzi zorigaiztokoak! eta zenbat anima daramazuten Infernura!

Ordea ezta erraz arkituko nork maldizio geiago egin oi duen, nola neskatz bekatuan erori, onra galdu ta galae ederrak ukatzen dionean bere gaizki egiña, edo eskeñi zion ezkontza. Orduan da esatea: Ah gezurti, palso andia! Mingañoak irtengo al dik. Anbeste itz labañ eman niri, nerekin ezkonduko zala, etzidala ukatuko; juramentu egiten zuela, emango zidala ezkontza papela, leenago lurra paltatuko ziola niri ematen zidan itza jan baño; ta orain galdu ni, agurtu bekatuaren igarri ta frutua, ta uka? Asmatu, ez dedala berea, adiskide izan naizala beste batekin, ta utzi ni or konpon uts batekin? Mutil madarikatua, itoko al da, lurra irentsiko al du, deabruak aidean eramango al dute; ez diot parkatuko eriotzan balego ere. Ai ezagutu ezpanu alako gizaseme anima gabea! O ni bezelakoa sortu ezpalitza! Ederki diozu, neskatz eroa! Zu bezelakoa sortu ezpalira, ez lizake izango anbeste bekatu ta eskandalu. Nora da zure anziñako amore itxua, egon ezin ziñala bera ikusi gabe? Galai gaizto ori, maiteago zenuen Jangoikoa bera baño; galtzen zenuen anima oriatatik. Enzuten zinituen orren itzak parre ta algara gozoakin. Orain berriz birao gorrotzoko ta onik ekarriko ezin dizuenekin madarikatzen dezu. Irten bazenu zere asmoarekin, ukatu ezpalizu itz emana, izan bazenu zere gogoko ezkontza bekatuaren bidetik, *zorionekoa ni,* esango zenuen. Diot berriz, ta aspertuko ez naiz esatez: Infernuko tormentuen asipenak daramaztela emen Kristau askok beren biraoakin; damutzen zatela bekatua, ez Jainkoaren ofensa dan aldetik, ta bai lurrean dakarzien (sic) kalteak gatik. Infernuko soñuak kontatzen dituzte emen geroko ondo ikasteko. An ere alkar madarikatzen dute bekatu lagunak, batak besteari ezarten diola kondenazioaren kulpaa, edo errua. Egia esan bear da, onera ematen diran emakumeak dirala txit gori ta beroak ontasunean; baña oro bat gaitzera obentzen badira. *Ez dago zerekin berdindu emakumearen aserre sua,* dio Espiritu Santuak. *Non est ora super iram mulieris.* Gorrotoan neurri ta mugarik ez dute, pakera ekartzen osoz txit gaitzak dira; ezten guziak baño zorrotzagoa da beren mingaña, gaizki esaka, ta biraoka jarduteko, ta eskuetan ez duten indarra, arkitzen dute ezpañetan; piztiarik gaiztoenen eden, edo pozoia arkitzen da beren ezpañ-azprietan. *Venenum aspidum sub labiis eorum.* Bai, emakumek bai, zuekin naiz oraingo aldian. Zorutzen zaizue batzuei,



alabatzen zaituztenean gizon eroak eder-iritxi edo galantasun galgarri bate gatik. Enzuten badituzute itz labañoak, zatarrak, amogarriak, edo aurrera igarotzen badira gizasemeak eskuak lasai ta askatuak erabiltzera, parre galanki egiñ algara gozoak, ta arro arrorik esan biotz ondoan, *zerbat maite nauten! nola naizan billatuagoa beste neskatxak baño!* Aserratu bearrean sendoki, aienatu, edo urtikatu bearrean urruti, egon beren ondoan. Eta pakean igaro bear diran naigabeak, ez igaro aserre ta biraoka baño. Ixillik egon bear danean itz egin; ta itz egin bear danean ixillik egon. Zuzen dijoaz gauzak. Jangoikoaren grazia ederra galduagatik, ez estutu, ta bai naigabe lurreko bat izaten dan aldietan. Onelakoan, birao ta madarikatzeak. Basaurdea itxasoan, ta izurdea basoan. Ez ditut aitatu gabe utzi bear itxas aldeetan enzun oi diran beste soñu oek. *Arraioa; Arraio gaiztok eramango al au.* Marinel edo itxas gizonetan ugari dabilta itzkera eder oek. Nik ezin aitu det nolakoa dan oen kristautasuna. Dabilta arrisku edo peligro txit andietan, burruka bezela olatuekin aize portitz bat asko da jirabiratu edo itzultzeko onzi argala, ta dijoazenak bekatu mortalean, Jangoikoaren etsaitasunean, igaro ditezke txit erraz uretatik betiko suetara. Ordikeria, lujuria, ta biraotzarrak ez dira egiaz bide egokiak gorde ditzan Jaunak anbeste peligratik. Arraioai deiez, estu dabiltzan bakoitzean; ito eginik edo itozeko zorian badabilta, promesak egiten dituzte onelako edo bestelako Elizara joateko. Baña gero, aurrera biraoak. Daramate bizitza gogorragoa Kaputxino batena baño. Zer da ordea ansi, bizitza gaizto batek laguntzen badio? Igarturik dagoan aritz bati alperra da ezartea ongarri, sats, edo simaurra. Ezea badago asko aurreratuko du. Ala dira bekatu mortalarekin, au maite dala, laguntzen diran neke ta kurutzeak.

G. Zer? Arraioari dei egitea bekatu ote da?

E. Enzun kontuz. *Arraioa* uts utsik esatea geiago geitu gabe, berez ez da pekatu mortala; zeren arraioak esan nai du *oñaztarria*; ta esatea aserrez oñaztarria ez da bekatu andia. Nola deitzea sugea, otsoa, leoia, geiago esan gabe, bekatu mortala ez dan, ez da esatea ere soil soilik *Arraioa*, edo oñaztarria. Esango balu *arraioa* bere buruaren edo lagunaren gaitz naiz, edo beste itz gabe deseaten duela erortzea arraio edo oñaztarria bere edo lagunaren kontra, ori litzake bekatu mortala. Baña geienez esan oi dute orrelako asmo gaizto gabe oitura txaarrez, ala enzun ta ikasi dutelako zaarretatik, ta ez dakitela geienak zer esan nai duen izen onek. Asko dira uste dutenak egin dutela birao andi bat arraioari dei egiñarekin; kezkatzen ditu asko konzienziak gaitz andi bat esan balute bezela ta egin dezakete bekatu mortala, berez mortala ez dan gauzeetan, mortal iritziz esan badituzte. Ala bada *arraioa* esateko oitura eduki dutenak, agertu bear dute konfesio-

an, uste bazuten zala bekatu andia, edo ez da baidaren batean egon bazaran; ez berez bekatu mortala dalako; ta bai beren ez jakiña gatik, utzi bear da oitura txar au zerren asko diran jakituria gabeko jenden artean uste dutenak dala bekatu andia arraioari deitzea; ta etzaie eman bear eskandalurik enzuten dutenai; ta guziz gurasoak, daukatelako ejemplo ta aziera ona emateko obligazioa. Baña edozeñek ezagutuko du esatea *Arraioak eramango al au*, edo *illko al au*, dala maldizio andia, ta *berez* bekatu mortala, libratzen ezpada esalea gutxi gutxitan, gogo txar gabe, ustekabe edo beingoan bezela, ta eskandalurik ematen ez dala, esan duelako. Baña usarioz, edo oituraz esan oi dituztenak, ezin libra litezke bekatu mortaletatik, eskandalua gatik gutxienez.

Noiz berriz ondo gogoan al dute, nolako bekatusa dan borronte gaiztoko maldizioa? Nor arrituko ez da San Pablari enzun ezker, *maldizio gillak ez dutela sarrearik izango Zeruetako Reinoan?* Nori buruko illeak jaiki edo zurtuko etzaizko enzun ondoan San Agustin andiak diona, maldizio gillak eskua artzen dioela Jangoikoari, projimoaren kontra ematen dutela itozteko, edo iltzeko sententzia, ta Jangoikoari eskatzen diola borrero izateko, edo kunplitzeko berak eman dien sententzia? O lotsagabetasun berdin gabea! Jangoikoa borrero egin nai? Agindu Jesu Kristok barkatzeko etsaiari, barkatuak izan nai badegu, ta guk eskatu berari kastiga ditzala? Noren gañera joko du kastiguak? Eskatzalle gaiztoaren kontra: *Biotz gogorren jabeak gaizki ibilliko dira azkenengo orduan*, dio Espiritu Santuak. Nai ditugu izan Zeruko bendizioak? Sartu bada betiko gere biotzaren barren barrenean San Pablaren itzkera au: *Bedinka* mundu guzia, *ta ez iñori maldiziorik egotzi*.



ERAKASTE IX.

Jangoikoaren Legeko irugarren Mandamentuaren gañean

Memento ut diem Sabbati sanctifices.

G. Zeren gañean izango da gaurko itzgai edo doktrina santua?

E. Irugarren Mandamentuaren gañean, zeñek dion, oroi zaitte santu-kiro igarotzeaz atseren eguna, edo Zapatua, edo Larunbata. *Memento ut diem Sabbati sanctifices.* Exod. 20. 8.

G. Zergatik agintzen da egun au gordetzea jai bezala? Zer du Zapatua edo Larunbatak zer ekusi santifikatzeko?

E. Aitu kontuz. Jangoikoak Mandamentuak eman zituenean, edo anziñako legean, gorde bear zan jaitzat, orain Igande, edo Domeka bezela. Zapatuaren izenak esan nai du atseren eguna, bearrik ez egitekoa, Jangoikoak egun onetan larga ziolako gauzak egiteari leenagoko sei egunetan guziak egitez bukatu zituelako. Asi zan mundua egiten Igande, edo Domeka egunean; gizona ta andrea egin zituen azkenean edo ostiralez beste gauza guziak egin ondoan. Zazpigarren egunean atseren zuen, ez arikatu, ta nekatu zalako, ta bai larga ziolako gauzak egiteari. Onela asteak zeuzkan zazpi egun; sei egunak bear egiteko gizonak, ta zazpigarrenean, zeña zan zapatu edo larunbata, atsereteko beste egunetako nekeetatik, ta igarotzeko animako bear gaien, edo Jangoikoaren onrako gauza santuetan. Jesu Kristok berak ere gorde oi zuen egun au; ta bera ill ezkeru Elizak aldatu zuen jai ura Igande edo Domekara, egun onetan piztu zalako illen artetik, nola aldatu ziran beste gauzaren batzuek. Badira beste arrazoi onak al datza au egiteko. Igande egunean jai au Jesu Kristo, egun onelakoan egin zioen Zirkunzizio edo odola zekarren zauritxo legeak orduan agintzen zuena, zeñen ordean onera edo bentaja andiakin degun guk Bateoko Sakramentua; Igandez izan zan bateatua Jesus bera San Juan Bautistaren eskuz Jordango ibaian; Igandez egin zuen lenbiziko miraria Ama Birjiñaren eskabidez; Igandez sartu zan Jerusalem, non egin zioen arrera ta gera onra andikoa, mutiltxoak alabatzen zuteela beren libratzaletzat. Igandez piztu zan illen artetik len esan degun bezala; egun onetan, edo Igandez agertu zitzaizen bere Diszipuluai piztu ezkeru ematera pakea, ta bekatuak parkatzeko eskubidea. Igandez jetsi zitzaizen Espiritu Santua Jesus beren Maisuak eskini zien bezela; ta azkenik, Igandez egingo da Jui-

zio mundu guziarena San Agustin, ta San Hilario Irakasla andiai sinistu nai badiegu. Belarm. cap.6 del 3 Com. Ona zenbat arrazoi gatik artu duen Elizak jaitzat Igande eguna Zapatua largata.

G. Ori ondo da; baña zergatik ezagutzen ditugu Elizan Igandekoaz ostein beste jai asko gordetzera obligatzen gaituztenak? Sei egun eman baziran bear egiteko, ta bat asteoro gordetzeko, zergatik geitu dira jaiak?

E. Eliza Santa Espiritu Santuak zuzendu ta gidatzen duenak, Jesu Kristok eman zion eskubideagatik ipiñi ditu jai berriak onratzeko gure Salbagillearen egitada miragarrikoak. Ipiñi ere ditu Ama Birjiña ta Santuen honran beste jai batzuek, onelako egunetan eman gaiten Jangoikoaren serbizio ta gure animen onerako diran gauzetara. Anziñako legean ere bazituzten Zapatuaz ostein beste jai batzuek, Jesu Kristok etorri zanean gorde oi zituenak. Arrazoi geiagorekin gorde bear ditugu kristauak misterio andiangoak adirazotzen dituen jaiak.

G. Zertako da ordea jaiak gordetzea?

E. Atseren dezaten korputzak beste egunetan bear egin ta nekatuaz artu dituzten mankazioetatik, ta lurreko bear-gintza gabe eman gaitzen osoro animako bearretara. Jangoikoak ipiñi ezpalu atseren egun au, nola iraun zezaketen beargillen korputzak? Nolako gogortasunak igaro bearko etzituzten morroe ta mirabe gaxoak, biotz zikotz ta dollorren jabeak izango ziran etxeko-jaunetatik? Eta beti bearrean jardun bear izan balute gizonak, nola onra zezaketen Jangoikoa bear bezela? Zertarako izango ziran sazerdoteak? Nola ikasi Relijioko gauzak enzun gabe? Nola enzun Elizara agertu gabe? Geiago dana, agindu zuen Jainkoak bere Mandamentuan atserena emateko, gizona beste bear egunetan serbitzen zuten abereai ere.

G. Ori aditzen det, baña nola gordeko dira jaiak?

E. Gaurko egunean, meza osoa enzunaz, ta bearrik ez egiñaz, bearra debekatzen dan egunetan.

G. Jangoikoak Mandamentu au ipiñi zuenean Mezarik ezpazan, Meza dalako Jesu Kristok erakatsi ta ipinia, zergatik gordeko da jai meza enzunaz?

E. Zerren Meza santua dan sakrifizio bat geien onratzen duena Jangoikoa, ta zeñetatik, bear bezela enzun ezkeru, aterako dituzten kristauak animarako grazia, ta on geiago, anziñako sakrifizio ta beste onratze modu guzietatik baño.

G. Nork enzun bear du meza jai egunetan?

E. Arrazoi argi edo ezaguera osora eldu diran kristau guziak egiazko eragozpenen bat ezpadute ez enzuteko.

G. Beraz gorrak ta itxuak ere enzun bearko dute?



E. Ala da, zerren ez da Mezako itzak enzutea, ta zeremonia santuak ekustea bear bearra. Meza enzuteko, asko dalako korputz bat egitea Meza emalleaz, ta idukitzea atenzio kontuzko bat, ta au egin dezakete goorrak ta itxuak ere. Badira kristau bertute andiko bat baño geiago orazio ta Mezako denporan biotzeko batutasunaren indarrez begiak itxirik egoten diranak; oek daukate urtasun geiago Jesu Kristorekin Mezako zeremonia agiriari ekusten ezpadituzte ere osoro. Daude Mezan debozio batu ta obeagoarekin begi zabalekin ekusten dauden asko baño; ta guziz komulgatze ondoan Meza enzuten danean; zerren biotzeko batutasun ta debozioa obeto gordetzen dan alako denpora ederrean, begiak ez dakustenean agiriko gauzarik, begiak kanpoko gauzeetara zabaltzen diranean baño, gauza onak izanagatik ekusten diranak. Baña alako debozio bero, batu ta biotzekorik ez dutenak, obeto enzungo dute meza santua begiak laguntzen diela mezako zeremoniai, ta oetatik pensamentu onak ateratzen dirala, ta guziz Kristoren Pasioko gertaerak.

Esan danetik ateratzen da meza enzun dezaketela Mezaemalea ekusi ezin danean Eliza jendez bete dalako, ta Elizatik kanpora egon bear danean, nola gertatzen dan noiz edo berriz Eliza txikietan; zerren beti esan dezakete daudela korputz bat egiten beste Meza enzula ta Sazerdotearekin. Baña inoiz baño ardura ta kontu geiagorekin egon bear da alako denporan, errazago dalako sentiduak zabaltzea, edo dibertitzea. Ordea ondo al didilla, ez da jarri bear ala Meza enzuteko okasioan, gauza gaitza dalako bear dan debozioz enzutea Eliz barrunbean arkitzen ez dala, ta jendearen ospe, edo bulla andiagatik.

G. Zergatik esaten da enzun bear dala Meza osoa?

E. Zerren asko ez dan Meza zati bat enzutea; ala ere gauza gutxi gutxi batek ez du eragozten mezaren osotasuna, bekatu mortala egite-raño. Onela, ez du bekatu mortalik egingo Mezaren asieratik Sazerdoteak Kristoren Korputza artu, ta odola edateraño enzuten dagoanak, gero irtengo balu ere geiago mezan egon gabe; bai ordea bekatu beniala. Au gutxitan gertatzen da; ta bai Mezaren asierara faltatzea. Epistolaren asieratik Meza guziaren azkeneraño enzuten duenak ez du bekatu mortalik egingo, leenagoko orazio ta sarrerako erreguetara ez eldua gatik, ta geien iritzian, ez da Ebanjelioaren asieratik mezaren azkeneraño enzuten badu ere. Baña izango da bekatu beniala gauza arin ta gutxi bat ere largatzea, bakoitzaren nagitasunez bada. Badira bat baño geiago egoten diranak Eliza atarian itzketa alperretan, ta bear bada eragozten Elizan daudenai debozioz egotea, ta galdetzen dutenak, Mezan liburua aldatu dan; ta baietza bada, dijoaz itoka, aldraka, ta ospez Elizara Meza ondo asi ura

enzutera. Enzun dute noiz bait meza dui duia ta bekatu mortal gabe enzun litekeala Ebanjeliotik aurrerako guzia enzun ezker, ta uste dute, gaizki aituz, ez dala ansi edo ardura leenagoko orazioetan egon eza gatik. Esana esan, beti da bekatu beniala gauza gutxia bada ere, ez enzutea. Zein gutxitan dauzkeen Elizako gauzak! Ardandegi ondagarrietan egoten dira ondo astiro, gabak ere atera ezin dituela batzuek. Pestak edo danzak arratsalde osokoak, jokoa luzea; berriz Mezak nai dituzte laburrak, ito itoka esanak; bear bezela esanak badira; Oh! ta zein meza luze gogaitkarria! au da askoren soñua. Eliza erori ez didin beldur balira bezela Sazerdoteak aldaratik alde egin baño leenago, iges egiten dute askok Aldaretako bisitaxo bat egin gabe; nekez sartu Elizara, ta laster irten. O Fedea! non zera?

G. Esan degu Meza osoa enzun bear dala jaiegunetan egindako eragozpenik ezpadago. Nork du baña egiazko eragozpena?

E. Ezin dutenak enzun kalte andi gabe. Baña zeatu baño leenago, zein diran onelakoak, jakin bear da, asko dirala Meza santua uts egiten dutenak beren palta edo erruz. Egoten dira ez gutxi berrikeretan beren trauetan edo edaten ardoa; gero Meza enzuteko asmoz, baña igaro ditekealako zaio, susma, edo sospetxaz, *ez dek bai dek* alkarri esaten diela. Alako batean dio batek edo bestek, gizonak, goazen mezara, igaro ez dakigun. Dijoaz, ta orra non arkitzen duten igarota beste Mezarik ez dan errian, edo denporan; oek etziran eldu beren kulpaz, zeukeelako beldurra igaro zitekeala, eta beldur ta guzi, ez da baideen artean egon ziralako denpora zai; ta elduko balitza ere bat Meza osoa enzuteko orduan zerbait beranduago Meza sartu zalako, peligro ezagutuan jartzea ez enzuteko, da bekatu mortala.

Badituzu beste batzuek beren etxeetan daudenak kontu gutxirekin; elduko naiz, ote naiz, ez bear bada; zer ordu ote degu, ta ez da baida andien artean bear diran dilijenziak ez egiña gatik, igarotzen zate Meza; ez dira ingirutzen mugonez irtetzeko meza enzutera beldur guzien artean. Beste batzuek irten nai dute erritik jai egunean beste erri batera, ta beren errian enzun dezaketela kalte gabe, irtetzen dute bideko erriren batean, edo berak eldu bear duten errian enzungo duteelako asmoz, baña beldur dirala Mezarik arkituko ote duten edo ez. Seguru bezela ez dagoanak antxitu edo alkanzuko duela Meza, ez du erritik irten bear Meza enzun gabe, zerren Mandamenturen bat ez gordetzeko peligro andi edo ezagutuan jartzen danak, egiten du bekatu. Baña noiz edo berriz gertatzen da uste osoarekin dijoazenak meza osoa enzuteko, ez enzutea, edo erlojua oker zebillelako, edo beste arrazoi leenaz ezagutu etziranak gatik, batez ere baserri, edo etxe-aldeetan; nagitasunez, alperkeriaz ta kontu gutxia



gatik ez danean, ez oi da kulparik. Ala bada egin bakoitzak alegiña, ta ustekabe osoan, edo ezin bestez bezala Meza igaro bada, ez dago bekaturik; ordea meza erdira eldu diranak, enzun bear dute aurrerako guzia. Ona beste jakinbearra. Gertatzen da batzuetan mendi etxe, edo baserrietan bialtzea nor edo nor goiz Mezara onek meza enzun, etxera biurtu etxe zaitzera, ta beste guziak azkeneko Meza nagusira joateko. Goizeko Mezara irten zanari igarotzen zaio ustekabe; beste bat prest ez dagoan errian, gelditzen bada beste Mezaren bat enzuteko, etxean gelditu ziranak geldituko dira meza gabe. Alakoan goiz Mezara irten zuenak, ez du bekaturik egingo biurtuagatik etxera Meza enzun gabe; zerren biurtuko ezpalitza mugonez, ezin joango lirake etxeko beste jendeak Meza enzutera. Borondate onekoan utsegiñak, edo deskuidoak ez dira onelako gauzeetan kulpaokoak izaten; bai ordea aldi askotan Kristau nagi, arretagabe, ta Jainkoaren beldur gutxikoenak.

G. Badira erri batzuetan jai artu botozkoak, ta ez diranak beste erri aldearakoetan. Onelako egunean beste erri, Mezaren obligaziorik ez dagoenera joan nai duenak zer egin bear du?

E. Nere konsejua beti izango da enzun dezala Meza bere erritik irten baño leenago, errikoa bezela botoa kumlitzeko. Zer kostatzen da Meza bat enzutea ordu bat edo beste beranduago irten bear bada ere kalte eza-gunik ez dagoanean? Ez dio Jainkoak obeto lagunduko bidean Meza aurrez enzunda? Aste egunetan ere enzun al dezaketenak, zein ondo egingo lukeen enzuteaz! Zertako da ezerezkeria batzuek gatik biotza kezkatzea? Ez degu Jainkoarekin ebilli bear dollorki. *Non est tamen temere, maxime coram populo damnandum de peccato lethali, ubi non est lex aut scriptura certa, sive ubi varia est virorum doctorum sententia. Dulcibus verbis, et cohortationibus facillime ducuntur docilium corda ad observantiam legum dubiarum. Non temere asserendum mortale ubi certo non constat. Hec Divi Thomae doctrina omnes amplexari tenentur. Neque affirmandum in concionibus nullam esse obligationem audiendi. Sacrum in casu seu dubio proposito. Tacendum igitur circa obligationem. Quicumque in Ecclesiae Suggestu ita edocent, hoc secundum aliquos peccatum est lethale, non secundum alios, non se gerunt prudenter, nisi me omnia fallunt. Imperiti omnes efformant conscientias dubias. Quid in hoc boni? Nihil illi intelligunt de aequali, minori, aut maiori probabilitate opinionum. Leges, saltem moraliter certae, et ut tales cognitae, anuntiantur sunt Populis. Mittendae opiniones ad Theologorum exedras.*

G. Enzun ditezke ondo meza bi batera?

E. Bai; baño nere ustez obe da batena enzun, birena denpora batean baño. Meza erdi bi aldabatera edo erabatera enzun ezin ditezke, ta au erabakita dauka Elizak. Ez da ere enzun bear meza erdi bat Sazerdote bate-

na, ta beste erdia beste batena; enzun bear da bada meza oso Sazerdote batena. Onetan ez da utsik egiten Kristauen artean.

G. Eta nork bekaturik egiten ez du Jaiegunean meza ez enzunaz?

E. Eragozgarri edo inpedimentu egiazkoa duenak, ta guziak jotzen dute, edo ezin enzun ospea edo ezin enzutera bere buruaren edo lagunaren kalte andi gabe, edo animan edo bizitzan, edo onran, edo ondasunetan; zerren Elizako aginduak katigatzen ez gaituzte anbeste kalteren bean.

G. Ori ondo dago, baño nor dira bana banako persona libratzen diranak alde bi orietatik?

E. Ona emen zerbait zeaztasunarekin nor diran, ta oetatik aterako da zuzenbidea besteentzat. *Ezin enzun osoaren* aldetik ez daude meza enzutera loturik.

1. Karzela, edo Katigutegiren batean sartu dituztenak Justiziak, noiz edo berriz gertatzen dan bezela, ematen ezpadie bere baimen edo lizenzian meza enzuteko, atzera Karzelara biurtzeko petxu edo kargaz.

2. Oean jaiki ezinda daudenak, gaitz andietan oi dan bezela.

3. Itxasoz dijoaztenak, onzian Meza ematen ezpada.

4. Deskomulgaturik daudenak, zeintzuei eragozten dien Elizak Mezara agertzea. Baña beartuak daude prestatzera iristeko absoluzioa, ta onetan nagiak diranak, egiten dituzte anbat bekatu mortal, zenbat Meza enzungabe largatzen dituzten.

5. Bigarren aldetik, edo kalte ezagun ta andi gabe ezin egiñetik daude libre meza enzutek gaixo edo eri osasunaren kalte gabe enzun ezin dezaketenak, edo osasuna galtzeeko arrisku edo peligro andian jaartzen diranak. Onetan ez da baidaren bat badago, galdetu sendatzalleari, ta onek esaten badu ez irtetzeko etxetik, ez dago zer kezkarik iduki Meza ez enzunaz. Baserrietako erdi gaixo edo erdi sendatuak neke geiago artu bear dute bide luzeagatik, ta erri barrukoak enzun dezaketen askotan osasunaren peligro gabe, ezin dezakete mendi etxeetakoak. Begiratu bear zaie eguraldi on, edo txarrari, bide luze edo laburrari, ta gaixoaren indar gutxi, eroritasun, argaltasun, ta bizkortasunari. Mendi etxeetan ez dago beti erara Mediku edo Barbera galdetzeko, ta ebaki dezake gaixoak berak, edo etxeko besteren batek ez edo bai; ta uste dutenean ezin joan ditekeala, elizara osasuna berriz gaiztatzeko peligro gabe egon etxean kezka gabe, ez iduki bekatu ta esan oi duten bezela konfesakizuntzat orduan meza ez enzutea; enzun biotzez, gogoz, ta egin etxean errezotxoren bat, ala egiten dute baserritarrak geienak.

Ez dute meza enzuteko obligaziorik etxeak zaitzen gelditu bear dutenak, nola gertatzen dan mendi etxe elizatik urruti daudenetan, batez



ere neguko goiz laburrean. Baña al danean, bidaldu bear da goiz Mezara etxekoren bat, onek Meza enzunda, gero zaitu dezan etxea, ta etxeko besteak Meza enzun dezen.

Guraso edo iñude aur txikiak dauzkeenak ez daude Meza enzutera obligaturik, ezpadute etxean nork zaitu, edo auzoko etxekoren batek zaitu nai ezpadu; ta orobat aurrak gaixo diranean ama, edo iñude gabe egon nai ez dutenak.

Badira erri batzutan ere guraso, ez dutenak nori larga aurra, ta elizara badaramez berekin, negarrez baño egon nai ez dutenak. Onelakoak besteai galerazo, edo eragozten die meza enzutea, ta alakoak badira, ta ezpadaukate nork kontu egin, ama edo iñudeak Meza enzun artean, obe da etxean egon ditezen.

Aurdun ill aurreratuetan daudenak, ta bizi diranak mendi etxeetan, eguraldi gaiztoak, ta bide labañak badaude, erori ta kolperen bat artu, ta aurra galdu ez didin peligróa dagoan denporetan, ez dute Meza enzuteko obligaziorik.

Orobat baserri edo etxalde urruti elizatik daudenetan eguraldi gaiztoak badira, urteetan aurreratxo dijozenak, ta arrazoi geiagorekin txit zar ta argalduak daudenak, ez dute meza enzuteko obligaziorik. Beste gauza bat da mutil neskatz, gizon ta andra sendo neke apur baten kostura joan al ditezkeanak elizara. Oituak daudenak neke edo lan gogorretara, aldatsetan gora ta bera euriekin ere ibiltzera, gazteak diran artean, joan ditezke elizara zar adore gutxikoak, ta erdi gaixoak joan ezin diran egun gogorretan ere. Neke zerbait badago, geiago estimatuko die Jangoikoak. Guzia dago idukitzean ezaguera on bat Mezaren gañean. Indietan ekusi dira Kristau berri asko meza bat enzuteagatik, igarotzen ogei ta berrogei legua bide, ta gero Meza guzian negar gozoz beterik egoten. Salomonen jakituria ezagutzea gatik Sabako Erregiñak, zenbat eguneko bideak egin zituen? Salomon baño geiago ez da Jesu Kristo aldarara josten dana Sazerdotearen itzen birtutez? Ogei errealeko bat eskeñiko balitz mezako denporan mezara dijoan bakoitzarentzat, esesioak largata, geiago ekusiko lirake elizan Meza enzuten, euri ta abar ere. Ala bada kalte andiren baten peligrorik ez dutenak enzun bear dute Meza santua Jai egunetan.

Noiz edo berriz gertatzen da gaixoren bat etxean dagoanean ezin larga izatea bakarrik, edo sendakarriak eman bear zaizkalako, edo naigabe andiarekin geldituko dalako gaixoa lagun gabe. Ezpadu nork zaitu Meza enzun ez duenak baño, larga dezake Meza enzutea alakoan bekatu gabe.

Justiziaren igesi ezkutuan daudenak, etxetik irtenda, eta meza enzutera joanda, justiziak arrapa dezan peligróa dagoanean, ta oro bat aurdu ixileko berria zabaldu ta zer esanak emango litzuzkeenak, beldur ark dirauan artean, ez dute Meza enzuteko obligazioarik mormorazioa eragozte, ta onra ez galtzea dalako gai edo motibo bear bestekoa, obligaziotik irtetzeko. Ona zenbat kalte dakarten alakoak beren animetara bizitza gaiztoa gatik. Baña meza ez enzuteak baño naigabe geiago ematen die beste lurreko kalteak. Ezta aditzen esan dedana goizetik egun<...>ño leenago igarri gabe bezela Meza enzun dezaketenekin ez da ere errian zabal bada aurdu dagoana, ta bestelako mandatu, edo zeregiñetara irtetzen dutenekin. Badabilta bai neskatz aur egiteko dauden batzuek lotsa gutxi-rekin non nai; beste asko, monja bat baño gordeagoak geletan egon oi dirade. Bekatuen damuz balitza artzen duten damu, ta ixuritzen dituzten malkoak, aterako lukeen barkazioa. Baña geienez damutzen ditu bakarrik desonra, ta lotsa mundukoak, ta ez Jangoikoa ofendituak.

Gertatzen da noiz bait emakumeren bat beldur izatea arrazoiak irtetzen badu jai egunean Meza enzutera, arkituko duela bidean tentatzalle gaiztoren bat, batezere mendi etxeetakoak. Ezpadu nork lagundu, ta ezagutzen badu alako peligroren bat, ez du obligaziorik Mezatarra joateko egun artan; ta oro bat beldur bada, etsairen batek billatzen duela banatzeko.

Badira nekez bizi diran batzuek ez dutenak Elizarako janzi bear bezelakorik, edo lotsa andigabe agertu ezin diranak Elizan. Zer esan onelakoak gatik? Jauna, esan oi dute, ez nuen zer janzi, ez oiñetako edo abarrik, ta ezin agertu nindekean. Nola oinutsetan, edo ortozik Elizara joan? Onelakoak egin bear duteena da, eskatzea auzokoren bati janzi, edo abarkak lotsa apur baten kostuan. Badu nork eman, enzun bear du meza, baitaere egin alegin guzia egiteko janzi bear duikoa. Goiz Mezarako ez da anbeste arropa edo soñoko bear. Bestetik pobreza dakiteenak, ez dira arrituko abarka eta janzi urratuakin Elizara dijoazalako, bada ibiltzen dira onela bide ta kaleetan ere. Berriz Jangoikoari etzaio gaitz iritziko pobre janziekin Meza enzuten daudelako. Ala gutxi gutxi dira alde onetatik libratzen diranak meza enzuteko obligaziotik. Jendea modestiagabetsuna gatik ofendituko bada, soñoko ondo estaltzekorik ez dagoan aldiren batean, ez du obligaziorik meza enzuteko, ezpadu zerekin janzi. Geiago uts egiten da ardura gutxi ematen duen beste alde batetik. Badira apaintzez ase ezin diran dama egiazko edo izan nai batzuek, dijozenak Elizara ta gaiztoago dana Meza enzutera estalki edo mantilla argi igarokor, ta pitxidunekin. Asmazio moda Infernuko etsaiak zabaltzen dituen oekin, eragozten die askori meza bear bezela enzuten, daramezalako begi ikus-



gurak pitxietara eta zer kontu emango die artarako bideak idikitzen dituztenak? Oek kalte geiago egiten dute Jerusalemgo Eleizatik Jesu Kristok azote batekin atera zituena baño. O arrotasun sakrilegoa!

G. Eta konfesatzen dagoan artean meza enzun liteke?

E. Ez; zerren konfesatzeak eragozten du iduki bear dan prezentzia. Konfesioa laburra bada ta egin ditekeana Gloria, edo Kredoa kantatzen dan artean, ta ezpadu gero erarik konfesatzeko, ez du bekatu txirik ere egingo; baño enpleatzen bada mezako parte edo zati prinzipalen bat ezin konfesa diteke, leenago meza enzun ezpazuen, edo geroago enzun dezakean mezarik ezpadago; baño leku urrutitik etorri bada konfesatzera, bekatu mortalean balego, ta Meza ondoan konfesatzeko erarik ezpadu, ta ez bere errian Konfessore bere gogokorik, konfesa diteke alako estu orduan, ta ez du obligatzen Mezak bere animari kalte andia datorkionean meza enzutetik. Bekatuen damu artzeko konsiderazioekin prestatzeak, ez du eragozten mezarako bear dan prezentzia ta atenzioa; bai ordea esamina konzienziakoa egiteak, batez ere konzienzia nastua ta korapillatua dagoanean.

Badira anima ikarakor ta beldurregi batzuek jai egunean goizetik meza enzuten dutenak gero Meza nagusi edo beste bat enzuteko gogoaz, ta uste dutenak egiten dutela bekatu bigarren Meza enzuten ezpadute. Ez da ala. Beste batzuek enzuten dute meza goizean etzokitela zala jaieguna; ta nola etzuten ipiñi obligazioa kunplitzeko asmo edo intenzioa, begitazten zaie nai ta ez enzun bear dutela bigarren meza. Ez orrenbeste ere. Elizak agintzen digu Meza debozios enzutea; au egin ezkeru kunplitu du agindua, ta etzaio besterik eskatzen. *Pauci sunt, qui huic doctrinae contradicant.*

G. Meza jai egunean enzun ezin duenak, badu obligaziorik egiteko Jangoikoaren onrako beste gauza onen bat?

E. Nekazaririk geienak, ta guziz baserrietan esan oi dute Errosario santua meza orde bezala Elizara ezin joan diranean. Ona zer dion San Agustin andiak: Meza enzun ezin badute, egin dezatela orazio etxean, pagatzeko nola bait Jangoikoari zor diogun serbizioko petxua. Jai guzia alperrik igarotzea da beintzat Kristau nagia ren igargarri edo seña lea. Gai-xorik daudenak, zergatik eskiñi ez Jainkoari gaitzak berekin dakartzien naigabe, oñaza, edo miñak? Zergatik igaro ez Jesusen amorez biotzeko akto batzuekin? Orren gauza gaitza da dese o edo gogoaz Meza enzutea etxetik? Errosario bat esatea, edo dakitenak ta al dutenak Kalbarioa bisitatzea ote da gauza burukomin andia ekarriko diona? Errealbiko bategatik egingo luke pozik; ta Jangoikoagatik ez? Berriz erakurtzen dakitenak, zein erraz igaro dezaketen denpora, Mezako orazio ta pausuk liburutik,

ta gogo onez erakurririk! Ez luke kristauak egunik igaro bear, gutxienez gogoz ta biotzez meza enzungabe, bestela ezin danean. O gauza lotsagarri andikoa! Kristau asko daude errietan beren bearren kalte gabe egunik geienetan Meza enzun dezaketenak goizago oetik jaikiko balira. Ordea nagitasunez largatzen dute obra ain andia. Ai bagenuka guk Jesusen amore andi bat, ta nola urtuko giñakean meza enzuteko suaren indarrez! Nola al degunean joango giñakean egarri andia duen bat iturri batera baño poz geiagorekin, ta ezin degunean eramango genukean biotza Aldara santura gogo bero batekin! Ona emen gertaera azkorgarri eta edifikagarri eder bat.

San Franziskoko Ordeako Legu Sukaldezai, edo Kozinero santu batek zedukan debozioa enzuteko egunoro al zituen Meza guziak. Egun batean, Elizan Meza enzuten zegoan artean, katu batek ezarri ziozkan lurrera lapiko edo eltze guziak, jan, edo galdu zituen janari guziak ta gelditu ziran Fraileak ogi utsarekin eguberdi artan. Aserratu zitzaion Konbentuko Frailezai, edo Guardianari; onek egin ziozkan Legu gaixoari agiraka garratzak esaten ziola: Zertarako dira zure debozio bidegabeak? Ez da leenago bakoitzak bere obligazio, edo eginbideai erantzutea ongi? Agintzen dizut, emendikan aurrera goizean Meza bat enzun, ta zaitzea sukaldia alderik egin gabe. Enzun zituen agiraka guziak mutik egin ta itzik atez gabe burua garbitzeko. Biaramonean zegoala sukaldean, enzun zuen andik gure Jauna jasotzean jo oi dan txillintxo. Artu zuen Sakramentu santuaren amore estu, baño gozo batek; jarri zan belauniko Elizaronz arpegia ta biotza zedukala, ta egin zion Kristori urrutitik akto au: Ah nere Jesus ekusi ezin zaitudana! Ai banengo urtxoagoan adoratzeko zure Sakramentu adoragarria! Arzazu beintzat nere gogoberotu au. Au esateaz batera, o miraria! idiki ziran beingoan ausi ta banatu gabe kortina batzuek bezala, sukaldetik ta Elizara zeuden orma edo paret guziak ta egon zan meza adoratzten, nork esan nolako debozioarekin; ta meza eman zanean bereala gelditu ziran orma guziak lengo gisaan kalte gabe kortina zarratzen dan bezala. Ai begenuka guk gizon santu aren amore zati bat Aldarako Sakramentuarentzat! Nolako zizpuru ta gogoarekin naiko genukean egon Meza enzuten! Zenbat alditan begiratuko genuke Elizaronz leku urrutitik ere agertzeko Jesu guk diogun ekusgose, ta berekin egon naia? Nola esango giñokion gure Aingeru Gordetzalleari, joan didilla gure orde z Elizara, enzun dezala Meza, ta agertu Kristori gure ezin joana, joan naia, ta egiten diozkagun erreaguak! Zein pozik joango litzakean aingeru ona adoratzera Jesu Kristo gure aldaretan ta zenbat ondasunekin biurtuko litzakean gure animeentzat! Baña, O Kristauen kontu gutxia! edo joan



nai ez dute, Elizak indarrez bezala obligatzen dituenen baizik; edo badiaz astegunetan, ta oniritziz, denpora igarotzea gatik Meza arintxoan naiago duteela, ta dauden artean Meza enzuten edozein otsek begiak nasaitzen diztela. Zertan dago guzia? Fedearen oztasunean, Jesu Kristoren amorerik ezean, edo txit gutxian, ta bizitza gaizto edo epel bat eramatean. O eskergabetasun itxusia! Igarotzen dira ordu osoak adiskideekin; nai diran gauzeetarako arkitzen da denpora, ta gure Relijioak duen gauzarik miragarrienerako atzetasunak, igesak, nagitasunak. Ez didilla aurrerakoan ala izan.

ERAKASTE X.

Gauza beraren gañean

Ekusi genuen igaro dan Ikasbide edo Doktriñan, nola santutzen dan Jaieguna Meza osoa enzunaz; nork enzun bear duen. Dakuskun gaurkorian nola enzun bear dan, ta non dan ondo kristauak enzutea.

G. Asko ote da Gorputzeko prezencia edo mezan korputzez egotea, ondo ta bear bezela enzuteko?

E. Ez orrelakorik; bear da debozio egiazko edo biotzetik irtena.

G. Zertan dago debozio au?

E. Dago eramatean Mezara borondate zindo edo egiazko bat, ta alegiñez idukitzean atenzio kontuzko bat, iduki oi dan bezala ardura andia ematen duten gauzetan. Idiren bat erosi bear bada, ekusi nai da, begiratzan zaiok kontuz, aztertzen da burutik oñetara; jaanean dan salobrea, edo garzoa. Begiraune arin batekin ez da paketzen eroslea; ez dabil batera ta bestera begira, idi aurrean dadukanari kontu geiago egin gabe. Bere atenzio ta biotz guzia daduka abere edo ganadu aren itxura, loditasun, txiki edo anditasunean begia bete artean. Ona nolako atenzioa. Zergatik? Zerren asko dijoakion utsegitean. Zenbat bada geiago dijoakio Kristauri meza deboziorik enzutean tratulari bati idia erostean baño? Beraz egon behar du Meza santuan atenzio ta kontu andi batekin biotza iraatxirik dadukala, begiak nasaitu ta erabilli gabe batera ta bestera, zeregin ardura andikoetan oi dan bezala. Atenzio bear onek obligatzen du Kristaua dilijenziak egitera, diberti dezaketen bide guziak kentzeeko. Badira bai billatu bearrean leku, sentiduak bilduko dituen, billatzen dituztenak nasaitu ideak; jartzen dira beren naiz ate ondoetan sartu-irtenak ekusteko; darabilte sarri beren begiak bata ta bestea ekusten, aztutzen dira Meza aurrean dagoanaz; atenzio asko daramate personeetara, ta ala enzuten diran mezak, ez enzunak bezala dira, ta bear bada ez enzutea baño ere gaiztoago ematen duteen ejemplo txaarragatik. Lotsatzen dira gizon asko, Elizan ta altara aur ta urrean dauden eseritegi edo jarlekuetara igarotzen; nai dute urruti egon Jesu Kristogandik; ez egiaz humiltasunez, ta bai nagitasun garbiz; pillotzen dira ate ondoetan alkarri eragozten diela atenzioa, ta bear bada kiñuka ta parrez egoteko. Ala bada, daudenak borondatez, ta berak bideak emanda sentiduen batutasun gabe, batera ta bestera begira Mezatan ezpaleude bezela, egingo dute bekatu mortala Meza enzuteko obligazioa dagoanean, leenago Meza ondo enzun ezipazuten, edo gero



enzuteko gogoia ezpadute, ta bada dibersio beren naizko au gauza edo gai astunean. Ordea zein da gauza edo gai astuna dibersio borondatezkoa bekatu mortala izateko? Meza parte bere naiz ez enzutea litzakeana ber bera. Mezaren asieratik Ebanjelioa esan arte guztian egongo balitza bat borondatezko dibersio edo nasaitasunean, dala parrez, dala batera ta bestera begira, naiz pensamentu edo gogorazio alperretan, izango litzake gai astuna; baita konsagrazio osoan ere, zerren parte oek dira meza asko gutxitzen duteenak. Noiz edo berriz begiratze ariñen bat egitea, bereala biurtzen dala atenzio idukitzera, ez da bekatu mortala izango; beniala ere ez, uste ustekabeen edo arrazoi onarekin egiten bada.

Pueri et puellae non sunt peccati mortalis rei, etsi huc, et illuc vagantur oculis, rideant, agantque alia quae essent gravia in adultis. Videatur Calataiudius in Doctrina de Puerorum sin Confessionibus. Sunt tamen monendi suaviter, instruendi quomodo se gerere debeant in Sacri auditione.

Zergatik esanda Mezako dibersioa bada borondatezkoa ta gauza astunean dala bekatu mortala?

Zerren bakoitzaren naiz ezpada, ez du eragozten biotzeko atenzioa. Gure imajinazio edo irudialmena da, dio San Franzisko Saleskok, mirabe gaizto ta ero baten gisakoa. Mirabe gaizto batek irtetzen du etxetik batera ta bestera ebiltzera etxeoandrea lotan dagoan artean. etxeoandreak jakiten du, egiten dio agiraka, ta nai luke iduki arrazoiko zeregiñetan; neskame gaiztoa gelditzen da denpora apur batean; ordea noiz gutxien uste duen etxeo andreak, artzen ditu neurri ta erak iges egiteko etxetik auzo edo kalera. Zer erru edo kulpaa du etxeoandreak neskame ero gaiztoaren sartu irtenetan? Nola egon liteke beti bere zai, lorik egin gabe? Borondatea da etxeo andrea bezela; bere serbitzari ta mirabea da imajinazio, edo gogorazioa. Borondate onekoak diranak nai lukee iduki loturik neskame txar au, eskuratu ta arrazoiria ekarri. Ordea onek iges egiten du nora nai borondatea lotan bezela dagoan artean. Dabiltza bata ta bestea burruka. *Ezin det nai dedan on guzia, zion San Pablo Apostoloak; ta bai nai ez ditudan gauza txarrak.* Nere aragian dakust lege bat gaitzera eraman nai nabena ta beste bat nere borondate ta biotzean aragiarekin auzka ta auzitan bezela ebilli bear duena. Gauza bat da aragiaren eskaari ta naiera txarra, ta beste bat biotz ta borondate animakoarena. Biotz ta borondatea sendo badaude bekatuari lekuri ez ematean, aragiak eskatu ta eskatua gatik, ukatzen bazario ez dago bekatu rik. Ekusiko dira Kristau Jainkoa maite duteenak, leenago illko lirakeanak bekatuari leku eman baño. Oek ere izan oi dituzte aragiaren eskaari txarrak, tentazio gogorrak, gogorazio zatar ta lotsagarriak. Baña ez die lekuri ematen; ezagu dezatenean etsaia, arpegi

ematen die; naigabetzen dira alako tentazioak etorri zaizteelako, kentzen dituzte gogotik pensamentu txarrak, ez dute idukitzen biotz edo borondatearen gelako atea; eskatzen die Jainkoari laguntasuna, ta garaitzen dituzte animako etsaiak. Ala bada Meza santua enzuten danean, etorri oi dira burura milla erakeria, dabill imajinazioa bazter askotan borondatea konkortuta bezela dagoan artean. Alako batean pizkortzen da, esnaatzen da lotatik bezela; ekusten du nondik nora ebilli dan bere mirabe edo imajinazio eroa; lotzen du, ezi nai du, ta indartzen da idukitzeko atenzio osoarekin Meza aurrean dagoanean; dago ala apur batean, ta berriz uste ustekabeen ta borondateak nai ez lukeala, iges egiten dio etxeo zeregiñetara, edo beste ardit bat balio ez duten arazo, ta erakerietara. Badakizu noiz dabillen etxea gaizki? Etxekoandrea ta neskamea dabiltzanean gaizki bata ta bestea; alkar laguntzen diranean gauza debekatu edo gaiztoetarako; esan nai det, borondatea ta imajinazio txarra adiskidetzen diranean; imajinazioak dakarrena biotzak pozik artzen duenean; au da borondateko atea zabaltzen zaionean imajinazio gaizto edo aragiaren naikunde, gurari edo eskabide txatarrari.

Emendik ateratzen da, ez duteela Kristau borondate onekoak zer estutu ta beldur izan Meza entzun ez duteela ondo, beren naiezez, ta damuz imajinazioa dijoakielako lurreko erakeria ta arazo alperretara. Egiaz nai danean debozioz enzun meza ipintzen ez diranean eragozpenak ondo enzuteko, sentiduak aleginez lotzen badira, ta ezagutzen danean ebilli dala imajinazio eroa batetik ta besteera bereala nai badu ezi ta berriz atenzioa ipiñi, Meza ondo enzuna da; zerren beren borondate ta biotzak ez du alderik egin Mezatik, ta ondo egon naia galdu ez dalako imajinazioaren ibiltazio ta zabaltasuna gatik. Nork esan zenbat tentazio ekartzen dizten etsaiak Kristaurik onenai orazio, komunio, ta Meza enzuteko ordu edo unean? Batzuetan tentazio itxusi ta ezin zatarragoak; beste batzuetan konkortasun ta loa, onela eragozteko gauzaak ondo egitea. Baña ez du ezer ateratzen etsaiak, animak nai ezpadu alako gauzarik, bere damuz igarotzen bazaioz, ta ezagutzen ditunean, kentzeeko dilijenziak egiten baditu; ta geienez geiago irabazten du alako gerretan, errazago dalako gozaro ta atenzioz egotea, burruka ta peleatzen ebilli bearra baño; ta neke geiagoak irabazte geiago dakarrelako. Soldadu batek erraz du erregeren esanak egitea gerrarik ez danean, eguraldi onarekin ta tellapean guardia egitean. Ordea gerra egunetan, eguraldi txarrekin, tellape gabe, bero edo otz andiekin egon bear danean etsaiak zaitzen, lo gutxi, jan gaizki ta etsaiaren persekuzioetan, zenbat gaitzago da? Eta zenbat obeto serbitzen du errege? Ala gertatzen da bada kristau on askorekin. Beti bezela dabiltza burru-



ka tentazioakin; gozorik ez meza enzute, komunio, ta orazioan; bai gauza txar asko burura etortzea. Egiten dute alegiña Meza ondo enzuteko; nai lukee txit asko atenzio ta debozios egon; penatzen dira ala eztaudenean, ta begitantzen zaie ez duteela Meza ondo enzuten imajiña ero edo gaiztoak etortzen zaiztelako. Esana esan betiko, biotza ta borondatea laguntzen ezpada imajinazio alper ta eroekin, meza ederki enzuten da. Doktrina bearra batzuentzat. Beste batzuek dira nasaitzar, ardura edo arreta gabeak, korputzez Elizan badaude, gogoaz non nai ta beren konturik ezaz ebillia gatik pensamentuarekin uste duteenak Meza ondo enzuten duteela. Ez, ez biotzak laguntzen ezpadio Meza santuari, ta borondatea badago beste leku batean, ez enzuna bezela da. Kendu bear dira gogorazio alperrak eza gutzen danean ta pensamentua lotu bear da ebilli ez didin non nai; joaten bada munduko arazo ta zeregiñetara, ekarri bear da atzera, igarri ezker aldendu dala; ta orazioa egiteko prestatu bear bada anima, zenbat geiago prestatu bear da obligazioko Meza ondo enzuteko? Biotza edo borondatea urruti badago, korputzeko egoera utsa ezertako ez da.

G. Zeñ dira prestaera onak meza ondo enzuteko?

E. Eramatea bizitza sentiduetara zabaldu gabea, egotea Jangoikoaren grazian, edo beintzat borondategabea bekatua dan gauzaren batentzat, ta artzea neurri onak meza esaten dan artean pensamentu ta sentiduak iges ez dezeen.

Ori orrela bada ez dute Mezarik enzuten bizitza gaiztoa daramate-nak, ta bekatu mortalean daudenak. Enzun dezakete dui dui, ta bekatu mortalik ez egiteko bestean bear dan atenzioa badaukate; baña galtzen dituzte grazian daudenak ateratzen dituzten animako ondasunak. Mezako sakrifizioa da gure relijioko obra edo egitarik andi ta miragarriena. Nondik etorri ditezke mesede geiago? Nola obeto eraman Jainkoari diozkagun zorrak? Nondik erakarri grazia ugariagoak? Jesu Kristo ber bera jartzen da gure alde; palagatzen du Jangoikoaren aserrea, gelditzen du bere justizia-ko zigorra, ta aldara santuan Aita Jangoikoari eskintzen dion odolak, eskatzen dio gure bekatuen barkazioa, ematen diozkaz eskerrak guri egin dizkigun mesedeak gatik, ta iristen ditu, nork esan zenbat grazia!

Meza bakar batean onra geiago ematen dio Jesu Kristok bere Aita Jangoikoari, Aingeru guziak, Santu guziak, ta Ama Birjiña Santisimak bere alabanza ta gauza on guziakin eman diena baño. Zertatik dator bada askok irautea bekatu ta bizitza gaiztoan, beste askok bizitza epel ta aurre-rapen gabean. Nola aberastzen ez dira graziaz? Ai Kristauak! Prestamentu bear bezalako gabe goazelako Meza santura. Jesusek nola bekatuak barkatuko ditu, bekatutik irten nai ezpada, bekatuko lagungarri ta okasio-

ak larga nai ezpada, iraun nai bada bera ofenditzen? Nola gure zorrak eranzungo die, zor berriak egin nai baditugu, ta ematen ezpadigute ardurarik diozkagun zorrak, edo guk barkatu nai ezpadiokaguz lagunari egin dizkigun bidegabe edo ofensak? Sazerdoteak Mezaan eskintzen digu bein baño geiago Jangoikoaren pakea esaten duela *Jauna izan didilla zuekin*. Nola iduki dezakegu berekin animako pakea bere grazia billatzen ezpade-gu, berarekin etsaitzen bagera, ta Jaunaren adiskide ezpagera, edo beintzat egiazko bekatuen damuaz billatzen ezpade-gu bere adiskide izatea?

Gerra gogorra darabilte Jangoikoarekin bere kontra dabiltzanak ta bere kontra dabilta, bere Mandamentuak urratzen dituztenak. Zer onera edo probetxu aterako dute Meza santutik bizitza ondu nai ez duteenak? Ona zer esaten zien anzina Jeremias Profetak Jerusalemgo gaiztoai: Aragi santuak kenduko dizkitzu zure gaiztakeriak zeintzuetan ipiñirik dauzkatzun atsegin ta gloria? *Numquid carnes sanctae auferent à te malitias in quibus gloriata es?* Uste degu bada Kristauak Jesu Kristoren aragi garbiak kenduko dizkigula naita ez bezala guk maite ditugun bekatuak? Barkatu, larga nai ez ditugun bere ofensak? Eta idikiko digula Zerurako atea, gure penitentzia gabe? Jesu Kristo biotza idikirik altara santuan gurutzeko eriotzan eskini zion odol ber bera eskintzen diola; berriztatzen Kristo gure amorez artu zuen Pasioa, ta guk berriz ta berriz berriztatzen (sic) bere tormentuak, ta darabilgula bere odola gere oñen azpian? Bai kristauak bai; enzunaren enzunaz sinisterik ematen etzaio San Paulo Apostuluaren esakune oei. Berriz guruzeratzen dala biotz barrunbean Jangoikoaren Semea, ta ostikopetzen dala bera bekatu mortalekin. *Rursum crucifigentes sibimetipsis Filium Dei... qui Filium Dei conculcaverit.*

Au onela izanik, zenbat borrero edo kruzifikatzalle dijoakioz Jesusi bere aldaren aurrera? Bera Jerusalem kruzifikatu zutenak biurtu ziran beren etxeetara bularrak kolpetzen, egin zuten bekatuaren damuz; eskatu ere zion Kristok Aita Eternoari aien bekatuaren barkazioa, zerren kruzifikatu zuten ezagutu gabe, zer egiten zuten, edo nor zan kruzifikatzen zutena. Orazio arekin ekarri zien argia ta bekatuaren damua. *Percutientes pectora sua revertentur.* Nola esan dezake Jesu Kristok gure altaran Kristau kruzifikatzalleak gatik ez dakitela zer egiten duten ez nor dan kruzifikatzen duteena beren biotz gaiztoetan eskuz ezpada ere? Irtetzen dute bada Meza santutik, Jesusen aurretik, ez borrero Jerusalemgoak bezala bularra kolpetzen, ez bekatuen damuarekin, ta bai sartu ziran bezala ta bizitza gaiztoarekin aurrera kruzifikatzeko gogoz. Nola deituko diegu mezan Aingeruai gurekin alabatza Jangoikoa; nola gure itzak aienekin lagundu, ezpain utsekin alabatzen badegu, gure biotzak urruti dauzkagula? Gaizto-



en sakrifizioai gorroto die Jaunak, ta ez ditu artuko oen doe ta eskintzak. Egja da, gure gaiztakeriak ez diola galerazi edo eragozten Mezako Sakrifizio santuari Aita Jangoikoari ematen zaion gloria, Jesusek agertzen digun amorea, ta berez duen bertutea. Gaizto asko bildu ziran Kalbario-ko Sakrifizioa; asko gelditu ziran biotz gogorrekin; baña etzuen aien gaiztakeriak eragotzi Aita Eternoak artzea pakez ta amorez Kristok eman zuen bizitza; mundua gelditu zan redimitu edo odol prezioso arekin erisirik. Baña gaizto gelditu ziranak, penitentsia egin etzuteenak, zer on atera zuteen sakrifizio guzientzat egin zan artatik? Beren kontra deadar egingo du Kristok ixuri zuen odolak. Ala bada, gure gaiztakeriak ez dute eragoztiko mezako Sakrifizioaren anditasuna, ez bere baliotasuna. Baña zer on aterako degu agertzen bagera deabruari emaniko biotzekin, bekatua lantz tan degula, bekatu lagun ta bideak oiñean dauzkagula? Eragozten baditugu gure animetan egin nai dituen graziak, nola aserraturiko etzaio Jesusi, ta nola bere aragi ta odol aldararen eskintzen diranak, jaiki ta deadar egingo ez dute noiz edo noiz gure gogortasunaren kontra? Aita Eternoak amorerik andienarekin begiratzen badio ere bere Seme maitearen odolari, nola begiraturiko die Kristau gaizto ara dijoazenai, bekatuaren damurik ez duteenai ta aurrera ta aurrera Meza ta guzi, dijoazenai bizitza bekatuzkorian? Ai Jesus! Zenbat eskergabetasun igarotzeko etortzen zeran aldara santuetara! Zein ixillik zauden ekusirik zere etxean ta zere aurrean anbeste Kristau gaizto! Agertzen dira Meza enzutera lapurrak, orditzarrak, lujurioso mota guziak ta bizio guzietako jendeak. Daude oniritziz gogo gutxirekin, zeren non tesoroa, an gogoa. Beren biotzetan adoratzten dituzte idolo txarrak; oentzat dira pensamentuak, itzak ta biotzeko naikunde osoak. Zu, Jauna, aserratu ziñan arkitu zinituelako Jesuralemgo Elizan saltzalle ta eroslak; atera zinituen aserre santuarekin jotgai edo azote batekin esaten zeñiela, esanik dago *nere etxea orazioko etxea da, zuek egin dezute lapurtegi bat*.

Orain bada lotsa geiago bear ez ote dute gure Elizak non agertzen dan edo nora datorren Jesus Korputz ta anima bizi bizirik, ta non dauden Aingeru asko, San Krisostomok dionez adoratzten, onratzen, ta ingurutzen Meza ematen dan aldara santuan Jesus ber bera, gure amorez ill zana, ta mundu guzia juzgatu bear duena? Orain dago egia da, Bildots otzan, manso ta illaren gisan, illda balego baño geiago aserrerik agertzen ez duela, kendu nairik gure bekatuak, garbitu nairik bere odolean gure animak. Zer aterako degu ezpañarekin, ta eskuz bularra joarekin Mezan esateaz: *Jangoikoaren Bildots munduko bekatuak kentzen dituzuna, errukitu zaiten niaz*, edo barka izkidatzu nere bekatuak, gure biotzak oso gogor urratu

gabeak badaude bekatuaren damu izan gabez? Beste batzuek dira bekatu mortaletik gordetzen diranak; baña daramatenak bizitza nagı epel bat bekatu benialetatik gordetzen ez diranak ezertan ez dauzkeelako; txit atzerak diranak orazio ta bizitza batu baterako; korputzari eman era guziak janean ta loan; igaro eguneko ordurik geienak alperrik bezela, Jangoikoarentzat asko irabazi lezakeela, au da aurreratatu bearrean birtuteko bidean daudenak; onzi aizejegabe bat bezala ez aurrera ez atzera. Onelako asko diaz Meza enzutera astegunetan ere; baña egoten dira fede laburrarekin, gozogabe, makal makal, ta urte osoak igarota pausu bat eman gabe Jangoikoaren bidean. Ai ta zenbat ondasun galtzen dituzteen kontu geiagorekin Jangoikoa serbitzea gatik! Mastiko morgotaxoak jaten dituzten azerikumeak ez artu ta iltzearren; esan nai det ez gordetzearren anima bekatu benialetatik zeintzuk egiten dituzten ugari ta beldur gabe, ta senti- duak bildu ta batuagoak idukitzen ez dituztelako, ta orazio ta mortifikazioa ematen ez diralako; erdi munduko, erdi zeruko biotz ebakiarekin. *Divisum est cor eorum. Epela zeralako errebesatuko zaitut nere aotik*, au dio Kristok alakoak gatik. Nola bada artuko ditu bere biotzaren gela ta barrun- bean? Nola sartu bere komunikazio ezkutukora? Nola igarri, zein samur ta gozo dan Jesusen aurrean egotea? Orra bada zergatik ateratzen dan onera edo aurrerapen gutxi Meza enzutetik. Jesusen biotzeko iturri ederra beti dago jario ederrean. Ordea ez die urik eman nai onzi loietara, ta txit gutxi biotz munduko gauzeetatik utsiturik ez daudenetara. Arkituko balitu bere biotza betetzen dioen biotzak, utsiturik daudenak amore bidegabeko guzietatik; edo bai bere amorean aurreratatu nai duteenak egiaz, kentzen dituztenak gogoz bere amore osoaren eragozpen guziak, nolako ur gozo ta garbigarriak ixuriko ez lituzke Meza enzutean aldara santutik! Nondik atera oi zituzten San Ignazio Loiolakok, San Felipe Nerik, Santa Teresak, ta ezin aitatu beste santu santa ta anima on askok amore santuaren garbitasun ta ur zerukoetan ito bearrak? Meza eman ta enzunetatik. Eliza, Kristo aldararen dagoanean, Zeru bat da. Zerk goiko Zeru Zeru eder egiten du? Trinidadeko iru Personak. Jangoiko batean an egoteak, Jesu Kristo korputz ta anima Aingeruz lagundurik egoteak. Zer falta da bada gure Elizetan Jesu Kristo jarri danean Ostia konsagratuan? An daude iru Persona, Aita, Semea ta Espiritu Santua Jangoiko batean; an Kristo bizi bizirik korputz anima ta odol guziarekin; an Aingeru datozenak onratzera beren Jaun ta Errege maitagarria. Ekusten ez ditugu ez, gloriako argiarekin Zerukoak bezela, egia da, baña bai fedeko begiekin. Ikusi ezin dezakeguz kartzela edo korputzeko presondegi illunean gauden artean; baña Zeruan daukatena ber bera daukagu beste gisa batean bada



ere, esan zion Santa Teresak anima agertu zitzaion, ta Zeruzale bati. O Fedea! Zein illa zauden!

Nor aserratuko ez da Jesusi amore apur bat badio, ekusirik Kristau askoren epeltasuna ta federik eza, Mezako Sakrifizio itzalgarrin batzuek berriketan, besteak parrez ezeri ez dagokiola ta nai osoz; asko batera ta bestera begiak darabiltezelaz iñoren soñoko edo janziai astiro begira, ta bear bada amorezko ekusmen txarretan? Bai, izan dira adiskidetasun gaiztoan bizi diranak, Mezako orduan ere begiak beren maiteai egotzirik urtzen ziranak amorio loi zatarrean, ta Meza ondoan alkartzen diranak berak dakite zertarako. Nora eldu diteke Jesusi egiten zaion injuria? Nola jaikitzen ez gera aserre santuarekin, arako emakume aurak daramezanak mezara oekin jokatzeko egoteko, errosarioak eman ta artu ta bota dabiltzala, ez berak Mezarik enzun, ez albokoai enzuten largatzen dienak, eleizatik ateratzeko? Nork ekusi lezake negar gabe dakartzela txakurrak Kristoren etxera beren zauka, gorabera, ta gaiztoagoak diran gauzaak egiten dituztela aldaren kontra ta beren artean? Eliza txakurtoki eginik? Meza santua esaten dan artean gora ta bera txakurrak? Au Kristau errietan? Turkoak beren Elizetan atrebitzen edo aizartzen ez dira begiak aldamera eramatzen, txistu apur bat botatzen, ta daude begi bilduekin beren eskaria egiten Profeta gezurti bati. Eta Jesu Kristoren etxean, eta Jesu Kristoren aurrean kiñuka, parre eroz, berriketa luzeetan, begi arrotu ta ebiltariekin?

Erakurtzen da Beata Beronika Binaskoren bizitzan, zegoala bein Meza enzuten oi zuen debozioarekin, egin ziola aldamenean zedukan bere aizpa bati begiratze alper edo ezertara etzetorren bat. Aingeru bat zerabilen beti bezela anima santa onek bere aldamenean ekusten zuen itxura edo irudian. Egin zion bada Aingeru ark bere arintasuna gatik alako begiratze aserrakor ta itzalsua, ezen uste izan zuen ill bear zuela bertan ikararen ikaraz, ta igaro zituen iru egun oso beti negarrez barkazioa Jangoikoari ta Aingeruari eskatzen. Boland. 13 San. L. 3. c.9. Zer esango dute bada kristauen Aingeru gordetzalle Elizara laguntzen dienak, ta Elizara josten diranak Zerutik aldan adoratzera Jesu Kristo, dakustenean anbeste lotsagabekeria, ta desprezio Elizari ta Kristo berari egiten? Nolako poza berriz Infernuko etsaiena? Bai; baldin egia bada San Agustin andiak diona, Elizeetan berriketa ta itz alperrak esaten daudenak itz egiten duteela deabruarekin, *Quim Ecclesia Dei inania fatur, cum diabolo confabulatur*; zer esan dezakegu Meza santuan berriketan, ta modu gaiztoan daudenak gatik? Munduan ezpalego Sazerdote bakar bat baño, nolako garrarekin joango lirake al dutenak bere Meza enzutera? Eta nolako debozioarekin egongo lirake? Eta Jesus onak amore geiago agertu digulako Sazerdote

asko emanik, ta ugari mezaemalleak, gu atzeragoak, otzagoak, ta esker galdukoagoak? Ez guk artu nai neke apur bat al danean Meza enzuteko, ta ezin danean damuz gelditzeko? O lotsatzeko gauza lotsagabeak ezpangiña! Dator Jai eguna, enzuten da Meza gogo gutxirekin; billatzen dute askok Meza anbat ariñena ta itoka esana; iges egiten dute Meza nagusitik luzea deriztelako, ta Animazaiak predikatzen duelako Jangoikoaren itza. Elizan Korputz bat egin bear lukeenak Zerutik eresteko grazia geiago, largatzen dute Bilkui santua, bere Elizako Meza nagusia; enzuten ez dituzte enzun ta jakin bear dituzten gauza asko, asteko jaiak, baraurrak, ta doktrina santua, ta gero zer dator emendik? Utsegitea jaiak, baraur egunak, aragia jatea egun debekatueta, ez jakitea bear dan doktriñarik, irautea jakin ez andietan onbide, bere animaren kargua duenak eman nai diotnik ez artzea, ta erriak egotea bekatuz josirik. Plazak edo karririk jendez beterik danza peligrasoetarako; Ardantegiak edan ta edan egoteko gaua etorri artean; Jangoikoaren egunak deabruari ematen zaizkola. Bespera ta Errosarioa gutxi batzuentzat. Ona zertara etorri dan Kristauaren bizitza. Ordea, Jesusen legea au da? Eta uste du erregiñatu beti Jesu Kristorekin onela bizi danak? Non ikasi degu, biziera lasai ta mundukoan dagoala Zeruko bidea?

G. Ote dago gertaera sinisgarririk ezagutzeko zenbat on dakartzen egunoro Meza debozior enzuteak?

E. Txit asko ta guziak aitzeko bear litzake denpora luzea. Bizi ziran bein auzoetan arotz bi; batak zedukan zer jan, janzi, ta zerekin on egin; ta bestea beti zebillen arrastaka gogorrean bearrari eskutik utzi gabe, baña txit estu ta premia andian. Alkarrekin zeudela egun batean, esan zion ondo ta eraz bizi zanari nekez ta premian bizi zanak: Adiskidea, gauza bat esan bear didazu, zertan dago zuk nik baño bear geiago ez egitea, langintza edo ofizio batekoak biok izanik, ni egotea premian, ta zu ez? Niri guzia palta, ta zuk bear dezuna baño geiago etxean on egiteko ere? Eranzun zion besteak: egingo bazenu zuk, nik egiten dedana, biziko ziñake ni bezala. Nik goizean goiz jaiki, ta enzuten det Meza santua; an eskintzen diot nere biotza, ta eskatu ere bai bedeika dezala nere izerdi ta bearra. Animari emanda lenbiziko gosari au, asitzen naiz bearrean, eskura datorkit bear guzia, arkitzen det nola saldu nere bear egiñak iñor engañatu gabe. Beste arotzak artu zuen bide bera, asi zan goizoro Meza debozior enzuten ta laster ezagutu zuen zein egia andia zan, zaldiari jaten emateak, ta meza enzuteak ez dutela luzatzen bidea. Ez dezu inoiz erakurri nola San Isidro Atxurlaria meza enzuten zegoan artean Aingeru batek erabili zituen idiak soroan, ta egin bearra Santuaren orde? Nai degu korputz ta animan zorioneko izan? Izan bada debozio andi bat meza santuari.



ERAKASTE XI.

Mandamentu beraren gañean

Memento ut diem Sabbati sanctifices.

Erakatsi degu igaro dan doktriñan, nola Kristauen artean jaiegunak santifikatzeko erabaki duen Elizak Meza osoa bear bezala enzutea. Ager-tu bear degu gaurkoan, nola ondo santifikatzeko bear dan ez bear debekaturik egitea, ta Jangoikoari atsegin emateko ta animak irabaziak ateratzeko gorde bear dan bekatuetatik, zeña dan obrarik gaitzoena, ta bakarrik bera berez gaitzoa; eta nola jardun ere bear dan gauza onetan.

G. Zergatik esaten du Jangoikoak *oroi zaitte* jaieguna (zeña zan anzi-nako legean Larunbata edo Zapatua) *santifikatzeaz*. Zergatik beste Mandamentuetan ez da esaten *oroi zaitte*, gurasoak onratzeaz, ez iñor iltzeaz?

E. Txit kontuz gordetzen zuten egun ura anziñako denporetan, ta Israeltarrak aztu ziran egun santua gordetzeaz eskergabetasunik andienarekin. Argatik gogora ekartzen die Jangoikoak igaro zana anziñagoko gurasoekin, ta agintzen die berak ere gorde dezatela. Ain sendo iratxi zan agintza edo mandamentu au Juduen biotz ta gogoan, non gaurko egunean gordetzen dute arreta ta kontu ezin andiagorekin. Ez du zer joan Larunbata edo Zapatu egunean Judu merkatarien etxera erosteko buruko orratz, ta jostorratz bat ere. Denda guziak itxirik arkituko dira, ta ez dago artuemanik premiaren estalkiaz ere. Zer geiago? Jesu Kristo bera salatu zuten sendatu oi zituelako gaixoak egun onetan, geigira eltzen zala beren eskrupulu, edo beldur bidegabea; ain estuak dira onetan. Ez da bada gauza lotsagarria Judu gogorak obeto gordetzea bear ez egitea Kristauak bere jaiegunak baño?

G. Ori ondo dago, baña bear egitea berez gauza txarra ezpada, ta bai bear bearra gizonak janaria izateko Adanen bekatuagatik lurrrak larrak, ta arantzak baño guretzat ematen ez dituelako, zertarako eragotzen du Jangoikoak egun batzuetan?

E. Adan ta ondorengoak egingo zuten lur bearra bekatuak egin ezpalute ere; zerren Jangoikoak eman zien Baratzta andi eder edo Paradisua bear egiteko ta gordetzeko: *ut operaretur et custodiret illum*. Baña bekatu gabe nekatuko etzan gizona, etzuen lurrrak orain bezelako urritasunik izango; bear gutxiarekin emango zituen gauza asko, ta beste batzuek berez. Ala bada egun guziak izango ziran nola bait Jangoikoaren egunak, edo

jaiegunak. Ordea nola lurra lantzeak, ta zer jan emanerazitzeak, arantza ta lar gogorak kentzeak, bear zuen neke geiago, bear leku edo astegun geiago, larga zituen Jainkoak sei egun asteko beargintzarako, ta bat bera serbitzeko, anima mantentzeko bear santuekin, ta au izan zan zazpigarren eguna, zeñean utzi zion berak gauzak egiteari, leenagoko sei egunetan egin zituelako Zerugoi bee ta lur gañean zeuden kreatura guziak. Bear egitea bada berez gauza ona da, ta Jainkoak agindua; baña berak erabaki edo señalatu zituen egunetan, ez berak eragotzi dituenetan. Ez du bakarrik eragotzi Jangoikoak jai eguneko bearra korputzak atseren dezan astegunetako bear egiteak dakarren arikatze edo mankazioagatik, baita ere geiago, igaro dezagun Jangoiko beraren onrako gauza santuetan.

G. Baña bear guzi guziak eragotzen ote dira?

E. Enzun kontu andi batekin. Bear batzuek dute beren etorki edo sorrera anima edo entendimentutik, korputzetik baño geiago, korputzak zerbait laguntzen badu ere. Ordea errazago aituko dute zuzenbide au nekazariak bein banaan bear moduak zeatzen badira.

Ez dira bada bear debekatuak kantatzea, izkribitzea, erakastea ta ikastea.

G. Eizara irtetzea jaiegunean bekatu ote da?

E. Noiz nola. Nekazari batzuek dira astegunean bear gogorretan dabiltzanak, ta datorrenean jaieguna artzen dute suarma edo ezkopetaren bat, eta irtetzen dute beren etxealde edo soroetara erbi, ollagor, edo eperren bat iltzera txit gutxi nekatzen dirala; dibersio gaitzat artzen dute lan alakoa, igarotzen ere ez dute ordu bat edo beste baño. Onelakoak ez dute ausiko bearrik ez egiteko Mandamentua beren ibiltze, zaitte, edo tiro bat edo beste egiñagatik Meza enzuteko kontua badute, ta gutxiago gauean Errosario santua, ta egun artean beste obratxo onen bat egiten badute, geiago dalako korputza arintzeko, ta dibersio lan bat, korputza mankatzekoa baño. Baña ospe edo bulla andiko eizak, nola diran euskalerrietan basaurdeenak, ez dira egin bear jaiegun debekatueta. Ez da ordea bekatu izango zaitzea ixillik basaurde kalteak egiten dituen, ta otsgabe zaitu ta iltzea, neke gutxi dakarrelako ebiltze labur, ta geldi egoteak zaitzen; ta bestetik arrazoi ona du kalteak eragozteko.

G. Zer egin baña Jaiegunean era ona badago billatzeko basaurde kaltegarria, ta ez astegunean? Batu ditezke errietako eizariak joateko basora beren suarma, porkera (txuzo) ta txakurrekin billatzeko ta iltzeko anbeste bulla edo osperekin?

E. Egia bada astegunean erarik ez dagoala, okasio ura galtzen bada jaiegunean, beste batean edo astegunez izango ez dala, ta kalte andien bel-



durra badago, nola oi dan artoak erdi eldu edo eldurik soroetan daudean, ezin esan liteke bekatu dala alako estuorduetan, jaieguna bada ere, abere zakar kaltegarria billatzera ta iltzera joatea jendeak alkar artuta. Baña ala ez dala, beste egun batean egin ditekeala, ta kalte beldurrak ezpada, egin bear ez da alako eiza ospetsu edo bulladunik. Badira bai errietan gizon alper asko jaun, edo erdi jaun neke gutxi daramatenak, jai ta aste irtetzen dutenak eizara beren suarma, ta txakurrekin meza arin bat itoka enzunda, egunik geiena daramatenak beren eizan. Oek nork libratu bekatutik? Nola emango ez du eskandalua? Artzen dute opizioz bezela eizara joatea, beren suarma, zakur, ta brujakakin, ez nekazari gure errialdetakoak bezela otsgabe, arrazoi onez, korputzaren atseren ta aringarritzat.

G. Arraiartzea jaiegunean bekatu ote da, edo bear eragotzia?

E. Noiz nola. Arraiartzera irteten bada bulla edo ospe gabe, nola dan kañabera edo zigor batekin ibai alboetan amuarrai, angira ta eskalloak artzea, ez da bekatu mortala. Badira baña beste arrai artze neke ta bullakoak, ta oek eragozten dira jaiegun osoetan (osoak dira debeketzen danean bearra, ta jai erdiak meza enzuteko obligazioa dakartenak bear egiteko lizenziarekin). Ona batzuek: sareakin ibaian bertan sartuta arraiak atxitzea, ibai barrenetik benakakin eskalloak artzea. Arraiketa onelakoak dakarte nekea, denpora luzea, ta ejemplo txarra. Oen urrean dabill terzak botatzea illun-abarrean goizean jasotzeko aga batekin. Terza, edo soka amuerantzidunak botatzeko, bear dira txizara, edo aarrak atera, edo bai eskalloak ibaian artu, oei amuak eraantzi, konpondu edo maneatu sokak, ezarri barrenetan arriak, egotzi uretara, ta zeregintxo asko. Ala bada, bear zaie jaiegun bearra debeketzen danean larga arrai artze gisa onelakoai, ta obe da kañaberarekin ere ez irtetzea. Itxas errietan dauzke lege erabaki ta jakiñak noiz irten itxasora arrai artzera, ta noiz ez ta beren kura edo anima zaiak erakatsiko die zer egin.

Ebiltzea bideetan ez da gauza debekatua, naiz oñez, naiz zaldiz. Juduak berak ere izanik ain beldurti ta begiratuak ebilli zitezkean beren jai egunean bide zati erabaki bat, ta oni deitzen zioen *Zapatuko bidea*, *Sabbati habens iter*. Gaurko egunean kristauen artean ez da bekatu, beintzat mortala egunik geiena bidean ebiltzea, (meza enzun bear da) ta benialik ere ez arrazoi onen bat badago. Baña joatea bide luzean buruan karga andia daramala, asko nekatzen dalako, edo izanik bear gogorra, eragotzirik dago. Esan det karga astun edo andia; zeren eramatea zimera, edo otarra txikian erregalo pisu txikikoak, neke laburra edo batere ez da, batezere gure euskalerrietako emakumeentzat.

Ez dira bear debekatu edo eragotziak, gaixoi bear dituzten sendagarriak prestatzea, orduan bear badira; zerren ezta Elizak, ez Jainkoak inoiz debeketzen karidadearen aldekoa dan gauzarik; sukaldeko bear egitea bazkari, edo aparia prestatzeko, ez da egun artan loitu diran katillu, erretillu edo platerak garbitzea; oek egitea edo moldatzea; etxeko garbikizunak egitea, nola dan itxuski, edo eskobarekin bazterrak garbitzea; oek diralako egun bearrak, ta premiakoak. Ordea ez dira jaiegunean garbitu bear bestelako onzi edo tresna eskuetan ez dabilzanak, nola diran sartain, kazo, lapiko edo eltzeak, errada, ta beste onzi baztertuta bezala daudenak, zeren ez tiran egunoro bear diranak, edo eskuetan dabilzanak, ta garbitu ditezke astegunean. Baña badituzte leku batzuetan ta andiki etxeetan ladrillu garbitze gogor ta asko nekatzen dituztenak neskameen beso ta korputzak, ta denpora luzea bear dutenak. Bear garbitze au ezin egin ditek jai egun osoan.

G. Bekatu ote da jaiegunean ganaduaren jatekoa egitea, dala naboa soroan atera, puskatu, otarrara bota, ta etxera eramatea; dala muga bazterretan belarra ebakitzea etxera eraman ta ganaduari emateko? Dala ostro edo orria bildu basoan, edo esietan, ta bizkarrean etxera eramatea?

E. Nork nai daki ganaduak jan bear dutela, ta eman bear zatela jaten, larrean ezpadabiltza. Ez da egin bear ganadu jatekorik bear dan baño geiago; esan nai det, ez dala jaiegun osoan bildu bear soroan geroko astegunean bear dutena ganaduak, ta bai bakarrik egun artan bear dutena, edo biaramon goizean goiztxo eman oi zaiena. Etzaio jaiegunari zimurturik egin bear; ez berariaz astegunean erraz egin ditek ganadu jatekoa aurreratu igande, edo beste jai osoan, bear egiteko denpora geiago idukitzea gatik astegunetan. *Inveni non paucos Confesarios, qui vehementer angebantur hac in re: sunt qui damnant rusticos colligentes foenum diebus festivis, enumerantque inter opera prohibita hanc foenorum collectionem. Sunt etiam, quod magis mirandum, qui e siggertu damnant rotunde mortalis peccati eos, qui contra agunt, improbantque adversam consuetudinem. At nonne se gerunt imprudenter, ne dicam temere? Sepe numero videmus coquos, sive ministras culinarias, ab ortu Solis admeridiem usque, et fere tota die, magna corporis fatigatione operam dantes ciborum praeparationi, ut epulentur homines, quorum Deus venter est. Parcunt humaniter talibus ministris culinariis; accusantque acriter rusticos miseros, qui necessaria praebent alimenta pecudibus. Quare ergo, aiunt, non colligunt foenum profesto die, ut praebeant diebus festivis? Et ego retorqueo argumentationem; quare igitur ministrae culinae non agunt multa profectis diebus, quae absque magno incommodo facere possent, ut minori defatigatione et labore die festo sequenti epulas praeparent? Ergo ad pascendos homines ad ingluviem usque licitae erunt die festo culinariae ministrations quibus vacant coqui fere tota*



die, minime vero colligere foena ad pascendos Bobes, in cuius labore vix insumunt duarum horarum tempus? Ynter opera necessaria Benedictus XIV enumerat colligere foenum ad pascenda iumenta; et ita, ait, posse dispensare in eo episcopos. Si necessitas connexa sit consuetudini, quis audeat hanc oppugnare? Qui ergo vexant conscientias rusticorum hac in re, laqueos parant, aedificantque ad gehennam. Liceat mihi dicere, habent zelum, sed non secundum Deum. Rustici, si semel audiant hoc vel illud esse lethale peccatum, et si alii maiori ratione, auctoritate veinnixi non ita esse illis asserant, agunt cum conscientia dubia. Quot inde mala?

Goazen aurrera. Ez dute bizargilla edo barberak bekaturik egiten jaiegunetan nekazariai bizarra kentzen diotelako, batezere mendi-etxe edo baserrietakoai; zerren oek ta onelakoak astegunetan ezin jetsi ditezke kalte gabe ta sarri errietara. Baña ez dute bearrrik egin bear bizarra kentzen nori nai. Badira errietan jende asko erraz ta kalte gabe bizarra egite-ra joan ditezkeanak astegunetan, nola diran jaunak, edo ofizio batzuetakoak, badute denpora jokorako, paseatzeko, ta nora nai joateko; arki deza-tela bada bizarra kenerazitzeko. Baña bizargillak egiten dute gaizki urte guzian meza arin bat goizean enzun ta eguerdi arte guzian jardutzeaz bizarra kentzen nekezaleai ere, meza nagusiarekin konturik iduki gabe, berak ez joan, ta beren denda agirietan meza nagusia esaten dan artean jende pilloak daudela. Bear lieke adirazo mendi-etxeke ta beste nekazariai etorri ditezela goizago, ta ez duela bizar kentzerik egingo meza nagusia esaten dan artean.

Edozeñek daki dirala lan edo bear debekatuak jaiegunean lur atxur-tzea edo lantzea dan bezela dala, arotzia, argintza, errementaritzta, olagi-zontza, zapata edo abarkagintza, dendaritzta edo joztunen lana, euna eio-tzea, ta onetarako prestatzeko egiten diran gauzetatik asita itxoroskitzea, edo matasatzea, ariltzea, masokartzea, irazkitea...

Baña ez dira guziak denpora guzietan eragotzi edo debeketzen.

G. Noiz bada ez?

E. 1. Animako agintariak dakitela ta eragotzi gabe usatzen edo oitu-ra danean. 2. Erruki edo piedade egiazkoak besterik eskatzen duenean. 3. Karidade galdugabe ezin danean. 4. Premia oso ta benetako dagoanean. 5. Arrazoi onarekin dispensa ematen duenean artarako eskua duenak.

Emendik ateratzen da, ez dala bekatu saldu ta erostea eguneko bear dana janean, nola diran ogia, aragi, bizkotxo ta beste gauzak; orobat argi-tarakoa, argi edo sebo-kandelak, saña kriselurako. Ala ere argizaigillak ez lituzke iduki bear idikirik beren dendak jaiegun osoetan, ta saldu bear dira otsgabe, ixiltxorik etxe, edo elizarako bear diran kandelak. Zer esan ordea merkataria edo dendera denda idikiakin, nori nai, ta edozein gauza jaiegu-

netan saltzen duteenen gañean? Zer esan? Ez dala ondo egiña; diruzale diranak bear baño geiagoan sartu dutela oitura txar au erri batzuetan. Baña nola dirugosea ase ezin dan, ez da tratulari askoren irabazteko asmoak ere. Elizak dauzka debekaturik orrelako saldu erosi jaieguneko ta neurri gabeak. Justiziak, aiturik errietako kura jaunakin, eragotzi bear du alako oitura txarra, ta itxierazo dendak. Astegunetan kaltegabe ezin etorri ditezkean mendietxeetakoai ixiltxorik, ta denda idiki gabe gauzaren batzuek saltzea, igaro liteke. Baña anbeste nasaitasunekin astegunetan bezala edozein gauza saltzea, jai ta astea bat egitea, ta bear bada jai egu-nean geiago tratatzea, ez da elizako legea gordetzea, ta bai urratzea. Zer-tara joko dute onelako irabaziaz? Eta zenbat asmazio, esesio ta aitzakia ematen ez dituzte? Nik saltzen ezpadiet beste batek salduko die. Iges egingo didate nere egokiak; besteak ere egoten dira denda idikiakin edo-zein gauza saltzen. Zergatik egongo da neretzat beste lege bat? Au diote. Igaroko ote dira ordea eranzuera oek Jangoikoaren aurrean? Joan ditezela ordu on edo gaiztoan erostera beste denda batera. Zuk gordezazu zere anima; egizu Jangoikoak agintzen dizuna, bere legetik juzgatua izango zera, ta ez besteen egitetik. Lagunduko dizu Jaunak gutxien uste dezun aldetik; irabazi bidegabekoak azkenean ondatuko dira igarri gabe bezala. Ejenplo gaiztoari ez jarraitu inoiz. Konziencia garbikoa zerala ezagutzen zaituztenak, etorriko zaituz astegunetan ere.

Ori orrela bada, esango didazu, nola ekusten dira erri askotan feria ots andikoak, karrika ta kale agirietan milla denda agiri dirala, erri urrutikoetatik datozela merkataria, ta jende asko alboera guzietatik edozein gauza erostera? Onela feriak egitea bekatu ote da? Bekatu bada, nola era-gozten ez dituzte justiziak, obispo ta apaiz anima kargua dutenak? Feria oek egitea, oetan salduerosiak egitea bekatu ezpada jaiegun andietan bada ere, zergatik eragotzi bear dira errietan egiten diran jaiegunetako saldu erosi denda idikietakoa? Nai dezu jakin zergatik? Ona nola ebakiko dizun zure aitueziña jakituria andiko Teologo batek: gaurko egunean, dio, feria oso ta guziakikoak (edo len aitatu diran bezelakoak urtean bein erri batzuetan egiten diranak) laketzen edo permititzen dira; baita ere saltzea beste gauzaren batzuek; ez ordea denda agirietan. Saldu ditezke bai den-dak itxirik ta ots gabe eroslak bear bear dituzten gauzak. *Permittunt DD etiam mercatoribus vendere aliquid clausis ianuis, cum emptores pro tunc iis valde indigent.*

Feria oso ta ots andiakoak sartu dira ez dakit nola; baña sartuta daude obispo jaunak dakustela, ta dakitela eragotzi gabe, egiten ez dira bein edo beste baño, ta begiratzen zaie askoren onerako egiñak bezala.



Baña bestelako salduerosi errietan egiten diranak eragozten dituzte obispo jaunak, teologo, edo kristau irakaslak, urte guzian irauten dute, ta ez dakarte beste onik ezpada Jainkoaren egunen mesprezio lotsagarri bat. Luzatu zait gauza onetan, baña ezin ondo adirazo nezakean, zeaztu gabe astiro, kentzeako asmazio edo esesio guziak.

Ez da bekatu jaiegunean illjanzi edo mortaja jostea bear danean enterrurako, leenaz ezin danean. Baña ez da lutu janzirik josi bear jaiegunean enterruari laguntzeko etxeoak, auzoan edo adiskideren bati eskatu-ta arkitu al badidi.

Ez da bekatu astegunean asi zan bearrari jaiegunean jarraitzea, ez jarraituaz kalte ezaguna badago. Onela ikatzkiñak, ikaztoki egozten dagoana astegunean su emanda, zaitu dezakete jaiegunean, ta egin beste bear ikatza ez galtzeko bear bear diranak. Atera ere bai jaiegunean egosita dagoana, ateraezaz egun artan, peligro ezagutua badago galtzeeko ikatza. Beren konzienziak esango die, zein dan premiazko bearra, ta zein ez. Orobat karobiak suturik dauzkenak, jarraitu dezakete zaitzen, ta galdu ez didin beste bearrak egiten. Baña ez die surik emango jaiegunean karobiarri, ez ikaztoiarri, ez da olagizonak ere arragoiari. Bekatu ere da jaiegunean kargatzea gero su eman bear zaion ikaztoi, karobi, ta arragoia. Kalte gabe al badidi, ta eguraldi on sendoak badaude, obe da su ematea karobia, ta arragoiari jaieguna artuko ez dan moldean. Jangoioak lagunduko die obeto txit begiratuak diranai bere egun santua ondo gordetzen.

Errota, edo bolu urezkoetan iriña eiotzea usu ta oitura dagoan errietan bekatu ez da; ez da ere ogigilla publiko edo errietarako ogiak egitea egiazko premia badago, edo ogiaren paltaz zer jan ez daukatenean errikoak; alako esturasunean labea sututzea, ta ogia erretzea ez da bekatu. Baña bear da zer esana kentzeeko ta elizari obediencia osoa ekartzeko, eskatu bere baimena edo lizenzia bikario edo anima kargua duen apaizari. Esan det ogi palta ordu, edo beldur ezagutuan; zerren iduki bear da alegiñez kontu andia astegunean ugariago ogia egin ta erretzeaz jaiegunerako. *Haec vera sunt de oppidis non ita magnis. In iis sequenda est consuetudo a Praelatis tolerata.*

G. Mandazai, edo itzai mando, ta burdi kargatuekin ebilli oi diranak, ausitzen dute Mandamentu au?

E. Noiz nola. Errietako korreetzat serbitzen duten mandazaiak, egun jakiñetan erritik irten bear duteenak joan ta etorri dabiltzala guzien onerako, ez dute bekatu egiten jaiegunean mando kargadunarekin erritik irtenagatik. Orobat mandazai ardoa errietara ekartzeko obligazioa arturik daukatenak; zerren beti dabilta joan ta etorri, dabiltzan erri guziak berentzat dauzkeela erri egoki ta artugabe, ta daukate ofizio publi-

ko edo guziakioa ta ala egiten da obispo jaunak dakitela, ta eragotzi gabe. Baña badira errietan beste mandazai batzuek beren irabazi ta on bakarra gatik dijozenak zerbait saltzera kargarekin. Onelakoak ez dute irten bear jaiegunean beren erritik mando edo zaldi kargatuakin, ta artu bear dute asteguna irtetzeko; baña bidean artzen baditu jaiegunak, jarrai diozakete karga eramateari, gelditzeak dakarrelako kalte ezagutua, ta ala da usu animako kargua duteenak ezer esan gabe. Orobat itxaserrietan arrai eroste-ko daudenak eramateko mandoetan leku urrutietara, ez dute bekatu egingo jaiegunean irtetzeaz kargarekin, zerren ez duten egunik galdu bear arraia igaro edo usteldu ez didin. Idiakin dabiltzanak, bidean arrapatzen baditu jaiegunak jarrai dezakete; baña bide laburretako karga eraman ta ekartzeak egin bear ez dira; egiten ere ez dute kristau usairik dutenak.

Ez da bekatu jaiegunean bearra, sortutzen bada karidade egiazkotik. Onela josla batek ekusten badu aurtxo pobreren bat erdi billosa, edo soñoko urratuakin lotsagarri dan bezala, ez luke bekatu egingo bear eginaz jaiegunean, zerren billosak janzitzea dan karidade, edo lagun premian dagoana sokorritzea. Orobat guraso nekez bizi dan batek badauka seme edo alabatxoren bat non bait serbitzen, ta ezpadute oek nork astegunean zarrak adobatu, guraso pobre alakoak ez du bekatu egingo, berak adobatuaz jaiegunean, zerren piedade, ta premiak ematen die eskua sokorritu edo laguntzeko bearran dagoan umeari. Baña gorde bear da ejemplo edo jarraigarri txaarrik ez emateaz, bekatu gabe bearra egin ditekanean uneetan; egin bear da bada ezkutuan, ta iñork arkitzen badu bear egiten, adirazo bear dio nolako premia ta arrazoiz egiten duen. Au ala da; ordea premia egiazko gabe askok egiten dituzte jaiegunetan jostea, adobatze utsa dalako esesio, ta estalkiarekin. Adobatzea bearra da, ta esan dan bezelako premia gabe egin bear ez dana. Neskame edo mirabe batek, zeñek soldata labor bat baño ez duen, manea edo adoba litzake bere soñoko zaartxoak edo etenak, bere etxeko andre edo jaunak ematen ezpadio astirik astegunean adobatzeko. *Yta sentiunt etiam severioris ethicae Patroni.* Baña gaizki egiten dute etxeko jaun, beintzat ondo bizi diranak, ez emateaz asti edo denpora zatiren bat beren neskameai, edo eguraldi txarra danean lur lantzeak dauzkeenak, edo jai ariñetan bestelakoak; ala egiten dute etxeko jaun kristau ontzat daudenak, ta galduko ez dute ezer beren ondasunetan Jangoikoaren amorez ta jaia osoro gordetzea gatik ematen dienak astia astegunetan beren zarrak adobatzeko. Orobat morroe dau den batzuek josi ditzakeez abarkak jaiegunean, ematen ezpadie etxeko jaunak leku edo astirik astegunean, edo berak arkitzen ezpadute, nola geien geienak arki dezaketen. Zenbat bider daude sualdean gizon ta



mutillak zankoak berotzen, edo ezer egin gabe emakumeak gorua iruten dauden artean? Zergatik bada alako denporetan astia artu ez abarkak josi ta adobatzeko? Premia estua bear da abarkak josteko jaiegunean, ta ezta-go premia esturik arkitu al ditekeanean leku ta astia astegunean egiteko.

Badira nekazari batzuek uste duteenak abarkak jostea ez dala bear debekatua, ta ardura gabe largatzen duteenak lan au jaiegunerako. Baña gaizki; zerren abarka jostea da zapata ta alkandora jostea bezala, ta guzia debekatua jaiegunean, iñola al dala astegunean. Nekazari bat arkituko balitza uste ustekabe jaiegunean oñetako, edo abarkarik eztuela, ez auzo-an nori eskatu, ta elizarako bear baditu oñetakoak, josi litzakez estura, edo premia artan, ez bestela; iduki bear dute bada kontu andia astegunetan prestatzeko oñetakoak, jaiegunean iduki dezen zerekin elizara joan, ta agertu jende artean.

Berriz zenbat utsegite gauza onetan zapatagin dendari edo jostunak? Zenbat tximurtxi jaiegun goizari? Zertako larga zapatak jaiegun goizean bukatzeko edo apaintzeko? Ez dute balioko asmatzen dituzten sesio ta estalgarriak. Bukatu edo akabatu gabe utzi bazituzten, itxaron dezatela enkargua eman zuteenak; ez itzik eman erraz, egingo dirala jaiegunerako. Zer aurreratu uste dute Jangoikoaren mandamentua ausitzen duteenak?

G. Badira nekazarietan beste zeregin batzuek ere, nola diran esiak itxitzea, burdia konpontzea urrango goizean bearrera joateko, ta galebatea, edo garia igitaitzea, ta itzintzea (au da galburua kentzea soroan) gaztaña ezartea ta biltzea. Jaiegunean debekatuak ote daude bear egite oek?

E. Bai ta ez, edo noiz nola. Esiak itxi edo zarratzea, astegunean idirikirik arkitu badira; ezin larga liteke jai egunerako; baña uste ustekabean ganaduren batek urratu badu, ta jaiegunean arkitzen bada idirikirik, badago beldurra sartu litekeala idi, bei, edo mandoren bat soroan, ta egin kalteak, ez da bekatu izango kaltea eragozteko bear dan bestean, esiak itxitzea. Berriz burdiak jaiegunean maneatu edo konpondu bear ez dira (ziri bat edo beste sartzea bereala egiten da, ta bekatu mortala ez da jaiegunean ere) ta larga bear da biar egun edo astegun goizerako. Jaiki ordu bat edo bi leenago goizago oera joanda, ta guzirako egongo da denbora. Ez dira ere bete bear zakuak jaiegunean ikatzez, urrango goizean zeregin au gabe, burdian eramateko.

Garia igitaitzearen gañean asko dago zer esan. Gari asko ebaki bear dan errietan, nola egun asko bear dan, dago premia geiago bestelako gari gutxi dagoan errietan baño. Ala obispo jaunak dakitela, edo beren orde zura edo bikario jaunak lizenzia osoa edo erri guzirikoa ematen duten errietan, ez da besterik bera bekatu gabe garia ebakitzeko. Baña euskal-

errietan ez dago orrenbat gari, ta ez oi da eman orrelako lizenzia osorik; beintzat ez nik ezagutzen ditudan errietan. Ala bada, ekusi bear da nola-ko eguraldiak diran; soro batzuetan galtzeko beldurra dagoan egunean ez dago beste batzuetan. Egun bat, edo biko gari ebakitzea duenak, gutxitan izango du premia jaiegunean egiteko. Egun askotakoa duteenak, eguraldi ta gauza guziaz begiraturik badago galtzeko arrisku edo peligrorik, eskatu lizenzia animen kargua duenari, ta ez dio ukatuko. Egiaz ta txuxen dabil-lenari lagunduko dio Jangoikoak; baña asmatzen baditugu premian ez daudenak; oker ta animako kaltearekin irtengo degu.

Berriz gutxi gutxitan arki liteke jaiegunean gaztaña erasteko ta biltzeko premia egiakoa. Ni bizi naizan errian gaztañadi asko dira; ta eguraldi txarrak izanda ere, arkitu oi dute egun bat edo beste astegunetan; ta aizeak lurrera bota edo egozten badu ere, ez dago kalte ezagunik garian dagoan bezala.

G. Eta uretan egin bear diran lanak, nola diran presa edo uzearleak, zubiak... daude debekatuak jaiegunean?

E. Gertatzen da noiz edo berriz ugolderen batek eramatea presa zatiren bat, ta laster osotzen ezpada, izatea guzia eramateko peligroa. Eperik, edo luzabiderik ezpadu obispo jaunari eskatzeko bear egiteko lizenzia jaiegunean eman dezake bikario edo erriko animen kargua duenak ta bear zaio eskatu. Baña epea edo luzabidea ematen duten ibaietako beargintzak; eginbear dira obispo edo probisore jaunaren baimen edo lizenziarekin; eta lizenzia oek aditzen dira bakarrik arriskua dan lekuetan, edo ugolderen batek kalte egin dezaketan, ez ugoldea eldu ezin diteketan.

G. Olagizonen bearren gañean ote dago zer esan?

E. Bai ta ez gutxi. Badira ola asko zeintzuetan asitzen diran bearrean jaiegun illunzetik, edo eguzkia sartzen danetik. Erantzuten dute ala dala usu; ala egiten zuteela lengoak ere. Beste batzuek diote, dispensarekin egiten duteela. Zer esan oei? Baldin egiazko arrazoiakin dispensa atera bazuten, ta badirau onek, eztago zer esan alako bearraren kontra. Baña gezurrezko arrazoiakin eskatua bada dispensa ura, ta irauten ezpadu, zerren eman zan urte batzuetarako, ta igaroak diralako urteak, ezin bearririk egingo dute eta ala ola-jaunak bear dute agertu dispensa. Papera erakutsi beren animazai edo kura jaunari, ta onek eranzungo die zer egin. Ura ugari dagoan olaetan, ez det arkitzen arrazoirik dispensa eskatzeko; gei-ago ta geiago irabazi naia, edo dirugosea arrazoi txatarra da Jangoikoaren agindua ausitzeko. Badira beste ola ibai txikiko, edo ur gutxiko batzuek, euri asko ez dan urtean burni guziz gutxi baño egin ezin duteenak, ta gel-



ditzen dira ikatzak suteaira gabe. Oen-jabeak ekarri badute dispensa, zuzena da, ta balia ditezke esan dan bezala urteen neurri gabe, ta betirako eman bazan, edo urteen neurrian emana bazan ta urte oek igaro ezpada. Baña ibai andi edo ura ugari daukaten olak edo uragorrez ebilli bear ez duteenak, ta mugonez beren labranza edo burni egitea bukatzen duteenak, zertako da bear egitea jaiegun arratsaldean asita? Non dago orretarako arrazoi on ta premia, zein gabe ematen ez dan dispensarik? Zertarako konfianza geiago iduki ez Jangoikoagan? Esana esan, olajaunak aztertu bear dute arkitzen dan edo ez dispensarik. Ezpadago, larga alako bear egiteari jaiegunean; badago, erakutsi gizon aitu edo jakitun bati ekusi dezan betirakoa zan edo ez nolako itzakin datorren ta zein diran arrazoi eman ziranak; ta dirauten edo ez; ez da baida edo dudarik badago, agertu obispo jaunari, ta jarraitu onen iritzia. Au da bide zuzena.

Berriz olagizon jaiegunetan bearrean asitzen ez diranak (ez dira asitzen ez erri onetan, ez alboera edo inguruetan uragorrek oleetan baño) ez dute agoia kargatu bear jai eguna sartzen dan gaberdi aurrean, dakitelako bear egin bearko duteela gero jai goizeko ordu bi edo iruretaraño; larga bear zaio bear modu oni, edo agoe kargatzeai mugonez, jaiari ezer ostu gabe egingo dan gisan. Ala egiten dutenak, ekarriko dute Jaunaren bedinkazioa, aterako dute burni ohea ta ugariago, berak igarri gabe nola dan.

Gatzamalleak esaten zaien langilla errukarriak, daukate anbat neke, zeregin ta arazo, non, ezin aldi askotan presta ditzakez mia txikitzeak jai egun arratsaldean bear galanta egin gabe. Oen artean geieneak dira nekez bizi diranak; irabazi txit laburra dute, ta ez zerekin arkitu astegunean bear laguna, jaiegunean miaren txikikizun gabe prest idukitzeko nabesa, beste olagizonak bear dituztenak. Ez dute bada bekatu egingo gatzemalleak bear egiñaz jaiegunean olea asitzeko bear bearra dan nabesa prestatzen, astegun jai aurrekoan astirik ezpadute bere etxeko edo olajaunak ematen ezpadie lagunik mia txikitzeo aurrez, edo leenaz. Badira bai olajaun kontu au duteenak, kristau onak bezala nai duteenak jai oso gorde ezen olakizonak. Oek dira beren serbitzari edo morroiak bezala, ta Jangoikoak dio mandamentu onetan *ez diezu bearrik eragingo zure serbitzariari*. Ai balego konfianza geiago Jangoikoagan lurreko arazoetan baño! Eta nola Jaunak bedekiatuko litukean beren beargintza guziak ta geiago irabaziko lukeen, bear laguna gatzemalleari ematen gastatzen dutena baño.

Baña larga ez dezagun zerbait esan gabe, aitatu bear ditugu albaiter edo erradura-erazlak. Jaiegunean erradurak ezartea mando edo zaldiai premia dagoanean, bekatu ez da. Ala bada bidiazti gelditu ezin ditezkeanen edo erritik arrazoi onarekin irten bear dutenen zamariari erradurak

ezarri ditzakez albaiterak. Baña errian geldi dauden zamariari ez, premiarik ez dagoalako; ta dakitenak aurrez, irten bear duteela erritik jaiegunean, bear diez ezarrierazi astegunean. Zuzen ebilli bear da. Berriz juez, letradu, ta eskribauak badituzte, ta jakin bear dituzte zein beargai eragozten zaien jaiegunean. Beren libruetan arkituko dute argi ta zuzen bidea jarraitu nai badute.

Aitatu ditudanean bearra egin bear ez dan jaiak, aditzen dira jai osoak, edo obligatzen gaituztenak meza osoa enzun ta bearrik ez egitera; ez jai arin edo erdi jaiak dituztenak. Oetan meza enzuteko obligazioa dago baña ez da debekatzen bear egitea. Kura jaunak adirazo oi dituzte nolakoak diran elizatik.

G. Baña bear egite guzi guzia premia gabe danean bekatu mortal ote da beti?

E. Ez ori ere. Denpora labur edo gutxi batean bada ez dago bekatu mortalik, beintzat ez eskandalu andirik ematen ezpada. Baña zein da denpora laburra? Zenbat denpora bear da bekatu mortala izateko jai eguneko lana edo beargintza? Nork erabaki zuzen galdeera au? Bear batzuek dira beste batzuek baño gogorrakoak ta nekatsuagoak. Ordu batetik beara, edo ordu bete baño gutxiago bear egitea arrazoi egiazko gabe izanagatik, ez da bekatu mortala; ordu ta erditik igarotzen ezpada ere, ez geienen iritzian. Ordu bi baño geiago egitea egiazko arrazoi gabe da bekatu mortala. Baña zertako kristauak jarri bear dute animako peligroa anbeste ez da baidaan? Ordu lauren baten bear egitea ere arrazoi on gabe da bekatu beniala. Askori begitantzen zaie, noiz bait enzun duteelako ordu bitik beara bear egitea jaiegunean ez dala bekatu mortala, egin dezaketela ardura gabe ordu bete edo geiago, bekatu benialarekin konturik artzen ez duteela. Zein gaizki! Esan det len denpora labur edo gutxi batean bear egitea jaiegunean, ez dala bekatu mortala eskandalu andirik ematen ezpada. Ekusiko balitza atxurlari bat soroan atxurtzen, laiatzen, edo idiakin aratzen nolako eskandaloa emango ez luke ordu erdi baño egingo ezpalu ere? Dakustenak, nola jakin dezakete denpora apur bat baño egingo ez duela? Orobat errementari, argin, arotz, ta beste ofizio agirikoak, egingo lukee bekatu mortala eskandalu andia ematen danean, edo jakin ezin dezaketenean ekusleak zenbat denporan bear egingo duten.

Qui abrupte et rotunde asserunt ex Saggesta ad populum, unius horae integrae laborem in die festo esse peccatum mortale, male se gerunt: neque probandi sunt qui absque ambiguitate damant, non esse peccatum lethale laborem duarum horarum. Non eadem ratio servanda in ecclesiae cathedris, ac in Theologorum. Auctor Compendii Salmaticensis (sic) pro materiae parvitate ait admittenda est vel spatium unius



horae, aut aliquid amplius, dummodo non pertingat aut nimis accedat adduas horas. Concionatores semper in animo suo haec Divi Antonini figant verba. Quaestio in qua agitur utrum sit peccatum mortale, nisi ad hoc habeatur auctoritas expressa Scripturae, aut Canonis Ecclesiae, aut evidens ratio, periculosissime determinatur. Atqui nulla expressa Scripturae, aut Canonis ecclesiae auctoritas, nulla evidens ratio habetur, ut quis asserat laborem unius horae integrae esse peccatum mortale; vel non esse materiam gravem duarum horarum spatium, cum pii, doctique idollique morum Doctores invarias absunt sententias. Ygitur periculosissime determinatur...

Zer esan dezaket azkenean? Ona nola itzegin zien Jangoikoak Israel-tarrai Moisesen aoz: *Gordezazute nere jaieguna. Zikintzen duena, arrapa dezala eriotzak. Bear egiten duena, illa izan didilla. Sei eguean bear egingo dezute asteoro, zazpigarrena atseren eguna ta nerea da, ta egun santua. Gorde dezatela Israelen umeak bear gabeko egun au, artu dezatela jaitzat beren ondorengo guzietan.* Au da Jaunaren ta berenarteko ituntza edo paktoaren bai edo señalea. Sei eguean egin zituen Jangoikoak zero lurak, ta oetan agertu ziran gauza guziak, ta zazpigarrean atseren zuen edo larga zion egiteari; zan esatea, konsagratzen zuela beretzat guk beste lanai utzirik, igaro genzan bere honrako gauzeetan. Nola itz egingo ez digu bada Kristauai gorde ditzagun Jangoikoari konsagratuiko jai egunak? Zenbat lotuagoak gaude gu Jauna serbitzera? Zenbat andiagoak dira guri egin dizkigun ontarte edo mesedeak, Jesu Kristo agertu zan ezkeru lurrean? Ogeta amar urtean bear egin zuen gure Redenzioko bearrean. Atseren zuen piztu zanean. Ez bada bear eragotzirik egin. Ez arren ez.

ERAKASTE XII.

Memento ut diem Sabbati sanctifices.

Ekusi degu igaro diran erakaste edo doktrina bietan nola jaiegune-tan enzun bear dan Meza santua nola eragozten dan bearra egitea, nola-ko bearra ta noiz. Ekusi bear deguna gaurko doktrinan da, nola aserraten zaion Jangoikoari jai eguneko bearragatik, ta geiago bekatuaren lan txarra gatik.

G. Beraz egia da aserretzen zaiola txit asko Jainkoari jai egunetako bear egiteaz?

E. Bai ta nola ere aserraten zaion, ta agertu ditu sarri bere aserre zuzenaren igargarri ezaubide edo señaleak. Zenbat denpora bearko litzake astiro ta bein banaan kontatzeko egin dituen kastiguak! Franziako Obispo Jaunak egin zuten Bilkui, edo Konzilio batean esaten zuten, anziña ez ezen gure denporetan ere, ezarri dituela Jangoikoak zigorrada edo kastigo latzgarriak. Izan dira batzuek illak soroetan oñaztarrien bidez bearrean zeudela; odola irtetzen, eskuetan beargin gaiztoak zeukan gauzatic; erri guzi bat erre ta autstua, errikoak bearrera jai egun batean irten zuteelako; bati baño geiagori gelditu zitzaizten besoak igarturik bearrean ziardutela; Ama Birjiñak Zerura igo zueneko jaietan, batek su eman ziolako karobiari, jo zuen surtara karobiarekin, ta gelditu zan erre ta desegiña, ta anima Infernuko surtara igaro zala korputza karobi sutuan erre ta kiskaltzen zan artean. Ez dira ordea kontatu gabe largatzekoak San Maurilo miragilla andiaren bizitzan kontatzen diran gertaera oek. Etxeko-jaun ardura gabe batek agindu zien bere morroe batzuei bear debekatu bat egiteko jai egun batean; bearra zan gariak jorratzea; mutil ogituko edo serbitzariak agertu zioen beren atzerapen, naiez, ta beldurra, esan ura egiteko; baña etxeko-jaunak biraoka araoka, ta deadarka estutu zituen sorora jua-teko. Aurrerena zan etxeko-jaun edo ugazaba; baña jorraiarekin lurrari ikutzeaz batean, gelditu zan itxutua, etxera bere oñekin biurtu ezin zala. Ezagutu zuen nongoa zan kastigoa; asi zan negarrez Jangoikoari barkazioa eskatzen; asi zitzaian morroia esaten, etzezela inoiz jaiegunean bearririk egin; bere buruan zekusela kastigo ondo zuzena, baña animaren onekoa, idiki ziotelako animako begi geunduak korputzekoak geundu ta illunduarekin. Eraman zuten morroeak besoetatik etxera, ta jakinik beren Obispo Santu Maurilo mirari andiak egiten zituenak zebillela alboera aie-



tan bisita egiten, eraman zuteen beragana osatu zezan. Fede bizi batekin ikutu zien Santuaren janzia gizon itxutu ark, ta bereala abiatu zan ekusten. Egin zien Santuak jende bildu zirana sermoi eder bat, erakusten ziela gizon Zeruak kastigatutako ura; beldurra sartu zitzaien, ta etorri zirana on andiak. Baña zer izango zan kastigatu ezpalu Jangoikoak amorez ta bigunki? Zer, eriotza ondoraño luzatu balio kastigatzea?

Beste gizon batek artu zuen askora bat basora joan ta bear egiteko jai egunean; ain sendo katigatu, likatu, ta iratxi zitzaion esku sabelean, non da ezin kendu izan zioen egina al guziekin, ta erabilli zuen gau ta egun bost illabete osoetan, igarotzen zituela oñaza, ta miñ portitzak. Eraman zuteen Santu beragana, erregutu zion Jangoikoari libra zezala gizon gaizki egiñaz ondo damuturik zegoan errukarri ura. Enzun zuen Zeruak erre-gu edo eskaari ain beroa; askatu zitzaion askora, ta gelditu oñazak. Ez det ezer asmatzen; ez dira ipuiak gertaera oek. Enzun edo jakin nai dituenak kastigo geiago erakurri bitzaz San Agustin, San Gregorio Turongo, San Pedro Damiano, ta San Buenabenturaren libru urrezkoak.

Askori begitantzen zaie zerbait aurreratuko duteela jaieguneko bearrekin; baña utsegiten dute, zerren lau erreal irabaztea gatik galduko dituzte beste alde batetik ezkutu asko. Gaitzen artean ekusiko dira; giberrri edo illedun ganaduak edo galdu lapurrekin, edo gaitzak eramango dizte. Osasuna paltako da etxeoetan; osatzalle ta osakarrietan ondatuko zaizte guziz geiago. Ona zer dion Jangoikoak Profeta baten aoz, *sartu zinduen etxean* ondasun gaizki irabazia ta autsa bezela putzegin batekin kanporako du. *Intulists in domum, et exultavi illud*; au da esatea, etxeko aurrerapen edo irabazi egiñak, urratuz Jangoikoaren lege bear egitea, eragozten zizutena galduko dira ta desegingo ditu Jaunak kia ta lañoa bezela, ta irabazi ustean irtengo dute kalte andiekin Jaunaren egunak gordetzen ez dituztenak. Nai dezu ejenplotxo bat enzun? Erakurten da San Leofrido Abataren bizitzan atxurlari batek akabatu edo bukatu eziñik bere lana jai aurreko egunean joan zala sorora jai goizean bere bearrari azkena emateko. Etzuen gari ale bat artu ez bakarrik urte artan, ez da ere geiago; betiko urritu ta sekeriotu zuelako Jangoikoak lur guzia. Ona nolako aurrerapenak egin zituen bere etxerako.

Oriek sinisten ditut, baña ez dit niri orrelako, ez bestelako kastigurik egin jai eguneko bearra gatik. Ez dizula egin? Anbat gaiztoago zuretzat; besoa igartu balitzatu bear debekatuan, naiz zere etxean izan kastigo ezagun bat, arimarako on izango zan; larga dizu ixillik Jangoikoak, ez zaitu azotatu, ez du zurekin zigor zuzen ta amorezkoa erabilli ta zu zaude bekatu egiñaren damu gabe? Etzera beraz bere ume garbia ta bai sasikume,

edo borta. Guraso batek ondo nai dion bere umeari ezarten dio zigorra ondu didin, bestelakoari ez dio kausiorik egiten.

Arrazoi andia du, diote beste batzuek, eragotzi nai izatea jai eguneko bearrak; gizon zeken, zikotz, dollor, ta diruzale batzuek ari dira jai eguneko bearrean, lotsarik gordetzen ez diela Jangoikoari; armiarmen bearrak dira jai egunekoak, aize batek daramazi neke andiak artuta. Ederki diozute; baña zein zerate onela itzegiten dezutenak? Gu gera gizon pres-tu, diote, ongi jai edo jaiak ondo gordetzen ditugunak, meza osoa enzun, ta bearren apurrik ez eginaz. Animarik galdu nai ez degu jaiak ez gordeaz. Naiago genuke asteoro bagenez iru ta lau jai.

Sinisten det bai erraz, baña zer egiteko nai dituzte jai asko? Gaixo diranak karidadez ekusteko, ta igarotzeko eguna orazioan, komulgatzen, liburu onak erakurten, izkune santuetan...? Ori orrela bada, Jainkoak gorde ditzala alako gurari, naikunde, edo deseo onak; baña bada igarotzeko joko, danza, jan edan modugabeko, ta olgatze korputzekoetan, ez dute sinistu bear gordetzen dituztela bear bezala jai egunak, bearrak ez egiña gatik. Iru kristau gisa arkitzen dira, engañaturik daudenak gauza onetan; batzuek egun guziak jaitzat dakakeenak; esan nai det nekerik artu ta bearrak egin gabe daramatenak aste guzia. Badute zer jan nekazariaren bekokiko izerdiarekin, ta ez dute gero besterik egiten, baizikan eman korputzari eregu ta atsegin guzia; lo galanki aspertu artean, gosari ona, bazkari ohea, aparti galanta, janzi ala galakoak; eguna, bearginak buru edo korputzak mankatzen dituzten artean, igarotzen dute alperreria utsean, paseatzen, jokutzen, berriketa, ardi bat balio ez dutenetan; meza bat goiz beranduan enzuten badute edo errosario ito bat esan (au ere askok ez) uste dute gauza andi bat egin duteela. Ona zer dion Dabid Erregearen aoz Espiritu Santuak, ez ditu nekeak ta bear egin bearrak arrapatzen beste gizonak bezala; ez dituzte igarotzen pena ta naigabeak. *In labore hominum non sunt et cum hominibus non flagellabuntur*. Zer gero? Arrotzen dira, begiratzatzen die mukertasunez bere mendekoai anditzat buruak idukita, astea ta jai guzia oro bat ezer egin gabe igarotzeko. Gogoratzen etzaie gordetzen ez duteela txit ongi jai eguna. Egiten ezpadituzte lapurreriak, bekatu itsusiak, jai bearrak, bizi dira konfianza galantean, kezka gabe, ta dira predikaririk azkorrenak lapur ta nekazari bear egiten dutenen kontra zoli zoli itz egiteko. O itxumen kaltegarria! Eta zenbat onelako erorten ote dira infernura Ebanjelioko aberats zeken ta burugiña bezala! Ark ere etzuen lapurretarik egin; ez da erakurten zala lujuriosoa, ez bearrak egiten zuela jai egunetan; bai bere buruari era guziak ematen ziozkala, jan ugari pobreen kontu gabe, janzi soñoko apaingarriakin; gastatzen zituen onda-



sunak gaizki, au da bere korputzeko on utsean. Ill zan, ta jo zuen Infernuko leizan. Aberatsak, jan ta janitzeko premiarik ez duteenak, asteko egunak artu bear lituzkee egiazko jaitzat nekazari bearrean daudenak gatik orazio egiteko korputzeko janaria anbeste nekerekin irabazten dien ezkerro, oen anima ta osasuna gatik Jangoikoari eskatzen diela; premian daudenean (ta zenbat egon oi dira jakin nai balitz!) ematen diela sokorru ta laguntasuna, zeñetara duten eskubidea beren bear gogorren frutuak diralako ondasundunen gauzarik geienak. Baña zein gauza gaitza egitea Kristoren agintza au, *bear degumez gañekoa, eman limosna*.

Beste jende batzuek dira asteko egunetan bear egin bear duteenak jango badue, edo gizon izango badira; egia esateko San Pablok dionez, ez du jan bear alperrak, edo nekerik artzen ez duenak. *Siquis none vult operari nec manducet*. Dator jaieguna? Jangoiko maitea, zenbat nasaitasun! Zenbat Jaunaren ofensa! Meza bat enzun debozio ariñarekin, egun guzian jokoa-ri, ta disersio txarrari emanak. Jai egunetan ardantegietan egoera luzeagoak Elizan baño. Jai egunean danzarik gaiztoenak, ebillerarik txatarrenak; aste artean alkar ekusi ta alkarrekin egoteko, erarik izan ez duten amore ez onean daudenak, jaia datorrenean alkartzen dira. Zertako ote? Aitatu ere bear ez diran, ta berak dakizten gauza gaiztoetarako. Oek kon-sagratzen die Jaunari bere eguna bearrrik ez egiña gatik? Ona Santo Thomas Maisu andiaren doktrina iñoiz aztu bear ez deguna *Jai egunean bekatu egiten duenak geiago egiten duela Jangoikoaren mandamentu onen kontra, beste edozein bear, berez bekatu ez dana egiten duenak baño*. Da esatea, geiago desonra-tzen duela jai eguna orditzen danak, ta lujuriako zikinkeriak egiten ditue-nak, arriak lantzen, zurak askoratzten, ta lurra atxurtzen duenak baño. Ori ezin sinistu diteke esango dute askok. Ez? Enzun arrazoi garbi ta zuzena. Arriak lantzea, zurak askoratzea, lurra atxurtzea, ta ogia garbiro irabazte-ko beste bear gaiak, ez dira berenez gaiztoak, ta bai onera ematen dutee-nak. Bearra ez da ain estu eragotzia jai egunean, zein da egin ezin ditekean noiz edo berriz premia andietan, edo dispensa zuzenaren bidez. Baña orditza, lujuria, ta bizitza gaizto Jangoikoaren kontrakoa beti beti da era-gotzia, ta Aita Santu Erromakoak ere dispensarik eman ezin dezakeana. Atoz ona. Zertarako egin zan jaia? Esango didazu fede apur bat badezu, egiña dala eguna santifikatzeko. Zer da santifikatzea? Meza bat enzutea ta besterik ez? Meza enzutea ere ez da obligazio ain estua. Gaixo diranak, Elizara joan ezin diranak, ta onelako denpora ezin dan batzuetan libra-tzen dira animan, ta Jangoikoak gaitztzat (sic) artuko ez die meza ez enzu-tea. Baña bekatu egiteko lizenziarik inoiz eman du? Santifikatu dezakegu bekatu itsusiekina eguna? Bekatuaren gatigu, esklabo edo serbitzari bagera

jai egunean bekatu egiñik, nola serbitu egun artan Jangoikoa? Arimaren-tzat Jangoikoak larga dizkigu egunak, korputzeko janaria irabazteko aste-gunak bezala; nola begiratu animari bera galtzeeko bekatuak egiten dira-nean? O itxutasun kaltegarria! O negar eragiteko gertakizuna! dio damuz ta min miñik San Antonino Florenziakoak. Kristauak bekatu geiago egi-ten dute jai egunean asteko beste egun guzietan baño. Jai egunak dira Deabruaren feria egunak, noiz geiago irabasten duten infernuko merka-tariak beste egunetan baño. Ona zertara etorri dan kristautasuna; banaka batzuek ematen dira Jangoikoagana, daude Elizatan orazioan, konfesa-tzen dira; baña oei ere pakerik ematen ez die. Ona zer dion Jangoikoak Jeremias Profetaren aoz: *Gorde itzatzuz zuen animak, ta ez ditzatzula eramán kargak*, edo ez bearrrik egin *Jai egunean*. Bear da bada beste guzien aurretik ez bekatu-rik egin, au da anima gordetzea, ta gero dator ez bearrrik egitea. Nola bada gordeko du anima korputzeko bearrrik ez egiña gatik bekatua-ren pisu astunez kargatzen duenak? O nolako atsegiña ematen zaion Dea-bruari bekatuetan jai egunak igarotzen diranean! Mamia infernukoari, oskol ta azala Jangoikoari. Dirudi jai egunerako kanpae, edo eskilloiak jotzea dala bekatuaren gerrara jotzea dala pekatu-rako soñua, edo dei egi-tea. Jai egunik ezpalego, urrituko edo gutxituko lirake Jangoikoaren ofen-sa asko. Elizetako Santu Patroiak dira berak onratzeko egiñak; baña egun oetan egiten dira errietan bekatu geiago beste ill askotan baño. Elizak ipiñi ditu Ama Birjiñaren Jaiotzako Sorrera garbiko ta Asunziazioko jai andiak ta egun oek dira erri askotan noiz bekatu-rik itsuenak egiten diran. San Juan Bautistaren jai eguna edo Doneanea da anima goratzeko eguna, ta Jentil jaiak baño gaizkiago zebratu oi da. *Danzari baten pagua, San Juan Bautistaren Burua*, dio San Anbrosiok ta bere egunean egiten dira Herode-sen Jauregian baño danza gaiztoagoak. Au ez ote da burla egitea Santu andi oni? Ala igande, ta Elizako jairik andienak dira nasaitasun egunak, ta Deabruak irabazirik andienak egiten dituenak, ta noiz animak geiago gal-tzen dituen gure etsai aspertzen ez dan onek.

Badabiltza asko goizean meza arin bat enzunda, kale ta karrikeetan lasaitasun andienetan; begiak lasai, itzak lasai, eskuak lasai. Beste egune-tan irten oi du deabruak animen eizara lakirio, edo esku-arma batekin bezela banaka iltzera; baña jai egunean su ematen dio baso guziari galtze-ko barrunbean zeuden bizitzadun guziak; irten oi du arranzara astegune-tan kañabera ta amuarekin arrai bat edo beste arrapatzera; baña jai egu-nean zabaltzen du sare andi bat ta artzen ditu pilla andiak; *traxit (totum) in sagena sua*. Ah Jauna! Ori geiegi gauzak jaso edo ponderatzea da gu bel-durtzea gatik. Gezurra da? Ez, sinistu nai badiezu San Bizente Ferrer-go-



ari, San Agustini, San Antonino Florenziakoari. Atoz ona, nola ukatu gere begiekin ekusten deguna? Zertan ari dira kristaurik geienak? Meza bat debozio labur batekin enzunda, batzuek igarotzen dute eguna etxeko kontu, arazo edo munduko aurrerapenak egiten; anima apaintzeaz arreta gutxi, ta korputza eder agertzeko arazo andietan; badira kale, edo bideetan buru goratu ta gallenduekin, begietan lasaitasuna, janzian arrotasuna, ebilleran modestiarik eza, ezpañetan irri-parre tentagarriak, itzetan eztitasun ondagarria darakustela; alboetan zaldun, mutil, edo gizon askatu ta labañak. Eskintzen die luxuriaren amak bular gozo iritzikoa, edaten dute ezpañetatik erio artean. Neskatx nekazarietako asko, edo eskapeetan, edo beste zoko batzuetan, edo ardantegietan mutill-gizonekin igarotzen dituztela itzketa gaizto, eskuka itsusi ta lasaitasun guziak. Astegunetan bearrak aztuerazitzen dizte onelako gauzak, ta jaieguna autatzen edo eskojitzen da Jaunaren ofensarik geien ta andienetarako. Beste batzuek tanboril soñuan plaza edo korruetan saltoka, modestia guzia galduta, ur bedeikaturik artu bearreko bekatu txikirik egiten ez duteela beren ustez.

Zer? Kendu nai dizkiguz jaieguneko olgantza edo dibersio garbi inozenteak? Danzarik egingo ez degula leku agrietan Elizakoak eginda? Nai gaitu iduki edo etxeetan sarturik, edo bidaldu eremuren batera inork ekusi ez gaitzan? Jai egunean olgatuko ezpatera, noiz olgatuko gera? Astegunetan bearrak darama denpora. Oriek dira humore gaiztoak erasotzen dituen doktriña estuak. Ala egin zuten gure asaba ta atzekoak, ala egiten dute jende, beata txar batzuek ez, ta beste guziak. Nik ez det konfesakizunik egiten orrelako danza agrietan; gaiztoago litzake zokondoetan dantzatea, edo itzketa lizunetan egotea. Jaunak, justizia, ta apaiz batzuek ere egoten dira guri begira galanki parre egiten duteela gure jolas ta jostatzeekin. Nork sinistuko dio gauza peligroso ta animen kaltegarriak dirala gure errietako dantzak? Alperrik buruak txikituko dituzte misionista ta apaizen batzuek, ala izanda, ala da, ta ala izango da. Bada zer esan geiago?

Enzun bada nere eranzunak, ta arrazoi gabe itz egiten badet, ez sinisterik eman.

Zer da emakume danzari bat? Nai diozu enzun Espiritu Santuari? Bai, kristaua bazera. Da bada animak galtzeeko berezko indar andia duena. Ona gero gizonari ematen dion konsejua. Ez dezu tratatu bear ez sarri itzik egin emakume saltari, edo danzariarekin galdu etzaitean bere indar, lika, edo tentaziokin. *Cum saltatrice ne assiduus sis, nec audias illam ne forte pereas in efficacia illius.* O emakume danzariak, nolakoak zerate Espiritu Santuaren aonan? Dio ez enzuterik emateko zuen itz ta berriketai, aldegitiko zuekin tratatuzetik, daukazutela lika katigarria ta zeratela anima

galgarriak. Orain bada, kristautzea baño leenago au bazion Jangoikoak, zer esango luke emakume Kristau saltari edo danzarien gañean? Beren itzak badira ain peligrosoak, ain kaltegarriak gizonentzat, zer izango da berai oratuta eskuz esku ta kolpeka ibiltzea ta belarriz belarri itzegiteas? Alkar oratze, ikutze denpora luzekoak ez dakartela kalterik ez tentaziorik? Pika berotu bati oratu ta eztutu ta zetaka edo mantxarrik izan gabe? Ez; dio Espiritu berak. *Qui tetigerit picem inquinabitur ab ea.* Danzara dijoazen neskatxak janzi oi dira, duten, ta ez duten guziekin. Eta gizon danzari neskatx bat edo bi ederki apainduak alboetan dituen, egongo da buruz beera begi humillakin iratxi gabe begia lagun aien arpegira? Eta onek ez du peligrorik? Bai, dio Espiritu Santuak, *ez begiak egotzi emakume apainduaren arpegira* galdu nai ezpadezu bere eder iritzian, *bada asko galdu dira begiratze erakorretatik; sua bezala irizikitzen da aragiaren naikunde* jatorriz datorrena. Zer eranzun Espiritu Santuari? Beldurtiegi edo eskrupoloso dala? Doktriña berri ta estuak dakazkigula? Ez dira danza nastuetan ekusten lujuriaren berogarri asko? Eztabilza begiak lasai? Ez dira izaten esku estutze amagarriak? Itztxo oniritzi edo kariñokoak? Bota ta tira modestia gabeak? Samurtzen ez da neskatxaren biotza danzara eraman duelako mutil gazteak? Ah! nolako orapillo ta katea, zeñean deabruak lotzen dituen anima argal asko! Lasai bizi diranak ez die igarten kalteari. Jangoikoagana egiaz biurtu diran animak, argi zerukoak artu ondoan esango dizute, egiten duten edo ez gaizkirik danza orietan ebilli ziranean. Laster da lasaitu biotzik onena ta debotoena, aldegiten ezpadu jolas onelakoetatik. Inoiz ekusten danean anima beatatzat iduki dana danzara joaten, farre ta siñu egiten die jende lasaiak; au ere danzara? Ona zertara jo duten onen beateriak; galanki engañatu ditu konfesoreak. Ala kokatzen edo burlatzen dira. Beraz arkitzen dute lasaigarriako bidea.

Ona beste arrazoi ederra. Santuak merezi dute edo ez sinisterik? Ez da iñor aizartu edo atrebituko ezer esatera. Zeruko bidea nork daki obeto ebilli danak baño? Bada santuak ebilli dira zeruko bidetik. Atoz ona, arkituko dezu santu bat esaten dizunik neskatx mutillen arteko danza naasiak ez dutela animako peligrorik? Ona zer dion San Efrenek: Nork sartu zituen dantzak kristau errietan? San Pedro, San Juan edo beste Apostolo santuren batek? Nor izan dan jakin nai badezu, izan da anziñako dragoi *Deabrua* deritzona. Elizako lenbiziko irureun urteetan etzan izan kristauen artean onelako danzarik; egiten zituzten bai jentil edo fedegabeak, zeintzuen artean bizi izan ziran; baña gordetzen ere ziran berak joatetik. Zer jende gisa da au? esaten zuten jentillak. Ez dute olgatu edo dibertitu nai gure pesteetan; ezkututzen dituzte buruak kantatzeko alabantzak beren



Jangoiko kruzifikatuari. Biltzen dira jai egunetan orazio egitera, ta ez daki-gu guk zer jaatera, (zan komulgatzea) ez dirudite gure orakoak. Alkar ondo artzen dute beti, batak daukana bestearena da. Gero sartu zan pakea elizan erregeak kristau egin ziranetik, sartu ere bai lasaitasuna. Lotsa botatzen asi ziraneko, abiatu ziran kristau banaka batzuek dantzatzan; ta beingoan obispo santuak jaiki ziran alakoen kontra. Eman ere zuten penitentzia gogorra jaiegunean dantzara zijoazenentzat. San Krisostomo Elizako irakasla ain jakitunak, jakin zuenean neskatz bi joan zirala mutillekin dantzatzan, aserre santu batekin esan zuen: Banakiz neskatz, bi aien izenak, deskomulgatu, edo botako nituzke Elizatik.

San Agustinek iñork ez bezela zekien zer gertatzen zan neskatz mutilen danza naasietan. Zer egin etzuen desterratzeko kristauen artetik orrelako oitura edo usuario gaiztoa? Obe luke, dio, emakume batek gorua egin, ta gizasemeak arearekin soroan ekin, jai egun santuan, anbat peligroren artean dantzatu baño. *Prestat stivam aratri ducere, lanam facere, aut colum trahere, quam in his ludis periculose saltare.* Danza naasi au da (dio berriz santu onek) ingurumaria jira bira bat, zeñen erdian dagoan deabrua, ta albo artan bere Aingeru gaizto kondenatuak. San Anbrosio andiak dio: *Emakume dantzari baten pagua San Juan Bautistaren burua.* Danza naasiak dira geienez prozesio luze Infernuko gaizkiñak gidari dituen; dira txit askorentzat arri leun, non laban eginda erorten diran Infernuko osin sakonean. Ona nolako jolas edo dibersioetan igarotzen dituzten kristaurik geienak jai egunak. Dakartela santu bat anbesteren artean ez dionik danza naasi oek dirala peligro andikoak. Sinistuko ez diegu alako testigo asko nai digutenai?

Jaunak esan beza nai duena, gazteai etzaie eskatu bear eremu batera joatea. Ez dira dibertituko? Ez litzake gaiztoago izango bazterretan sartuta egotea? Ona soñu betikoa tanbolinarenarekin konpas batean dabilena. Soñu au ixiltzeko ez dira asko santuen esanak? Ez degu iñor bidaldu nai eremura, ez eskatu egon didilla beti etxean sarturik. Baña eskatu bear degu gordetzeko anima kondenazioko peligro andietatik. Eskatuko diegu gazteai kristau onak izatea, ateratzea begia, ebakitzea oñak bagaramate bekatura, esan nai det esku ta oñak baño laztanago diran okasio gaiztoak largatzea esango diegu Jesu Kristorekin, zorionekoak orain negar egiten duteenak, zerren gero izango diran gozatu, edo poztuak. *Mundua gozatu, edo alegratuko da,* esaten zien Kristok bere jarraitzalleai, *ta zuek ebilliko zerate tristura iritzian.* Baña zuen tristura biurtuko da atsegin edo gozatasunera. Beraz lurreko alegria, jolas eroak, ez dira Kristoren jarraitzalleenak, ta bai mundu Kristoren etsaiarenak. Eskatuko diegu gazteai egin dezatela ora-

zioa tentazioan erori nai ezpadute ta ez joatea tentazio asko dauden ebi-lune, ta olgantzetara; gazteak daukatelako kontu geiagoren bearra aragiak, ta munduak engaña ez ditzan. Esango diegu gaztetasuna ohea dala Jangoikoa serbitzeko zaartzeta baño; zerren gaztetasun onak dakarren geienez zaartzeta ona, ta txarrak txarra. Eta egia esateko, zein dira danza peligrsoen bandari edo defensorerik azkor ta gogorrenak? Zaar gaztetan dantzazaleak izan diranak; agure ta atso ille urdin ta bekoki zimurdun asko dira gazte bakartade zaleai esaten dienak; ah txoro txaldan gatzgabea! Ez du inork naiko, izeba txar bat izan bearko den; Elizak, ta orazioak eman-go diñee senarra; len ere baziran animako maisu ta konfessoreak, doktriña berridun batzuek agertu ditun, beti danzeen kontra jardun ta jardun daudenak. Nork sinis lezake dirala guraso obligatu nai dituztenak beren umeak irtezera danza lasaietara ta largatzen dienak nola nai ebiltzen? Norako dira onelako gurasoak?

Ez dute gazteak olgatu edo dibertitu bear? Bai ordu onean neurri ta modu onean bada, ez modu gaiztoan ta animako peligro andiekin. Dantzatuko balira mutillak mutillekin, neskatzak neskatzakin, oek mutilkeria gaiztorik egin gabe, ez legoke peligru ezagaturik kolpe bat edo beste emana gatik mokorka; ta onelako danza peligro gabeak egingo balira Elizako orduz kanpora, urrituko edo gutxituko lirake bekatuak, ta esango genuke askorentzat onak lirakeala. Baña ez, ez iñolaere erririk geienetan egin oi diran danza naasi edo mutil neskatzekikoak gatik. Danza utsa peligro gabea, batek bakarrik egiña, da geienez erakeria, ta ordikeriaren ondorena, esan zuen Zizeron Jentillak; baña ez da luxuriaren bizkorgarria, ez bekatua. Iñork ez du deadarrik egiten danza bakar edo mutillak alkarrekin, edo neskatzak gizaseme bage egiten diranen kontra, bai ordea naasi ta modestia guzia galtzen dutenen kontra.

Bekatu geiago egingo lirake, gaiztoago litzake plaza dantzak kenduko balira, zerren zokoetako dantzak, egoerak, ta izkuneak dakarten kalte geiago. Bada beste sesio, baña sustrai gabea San Pablok esanik larga zigun, ez dirala inoiz egin bear gauza gaiztoak ekarriko baligute ere on asko. Gezur txiki bat ere ezin esan genzake, bagiñaki aterako genukeala eriotzaren ortzetatik Errege, edo Aita Santu Erromakoa. Atoz ona; nor baitek ostuko balizu etxean dezuna, ta lapurrak eranzungo balizu, gaiztoago izango zala eriotza ematea, zer eranzungo ziñioke? Etzuela ez bata ez bestea egin bear, biak daudela debekatuak. Ori berori nik ere eranzungo dizut, ez dezula ez zoko danza gaiztorik egin bear, ez egoera ta izkune okerrik bakartadeetan; ez da ere plazan danza naasi edo modu gaiztokorik; non nai eragozten du Jangoikoak oker ebiltzea, ta tentazio andien lekuan ego-



tea. Bazterretan izkune, ta egoera txarrak dauzkeenak, edo eskuka zatar agirikoekin danzaten duteenak, ezagutzen dute beren gaizki egiña, ez dute sesio edo aitzakiarik estaltzeko bekata; gutxi batzuek dira oi dabil-tzanak orrelako tokietan, konzienziak kezkatzen ditu; baña plaza agiri orietan esku estutze, ta amore akzioak egiña gatik, ez dute ezagutzen gaizkirik dagoala, ta dabilza jende pillo edo aldra andiak matasaturik, kateaturik, kolpeka, parreka lasaitasun guzirako prestatzen dirala gazteak. Ezpada nondik dator pestatik etxera biurtzean, ta gero kale bazterretan egitea anbeste izkune ta akzio lotsagarri? Pesta bukatzen da illun-abarrean, edo Abe-maria kanpaiak jotzean; mendietxeetako, edo erbestekoak biurtzen dira illunez edo gabaz etxera, bideetan illunean zenbat zanzo, ipui, izkera txar-oratze, apa laztan, ta beste eskuka lotsagarri? Nork kontatu zenbat bekatu egiten diran? Egun argiz ere naiz kalean, naiz bideetan lotsaren apur gabe dijoaz neskatzak mutillakin alkarri oratuta ta egiten dira esku erabilte gaiztoak. Gaztetxoai begiak idikitzen dizte; ikasten dute eskola bera. Egun santuak biurtzen dira Luziferren doktriñak erakatsi ta ikasteko. Erriko jendeak gelditzen dira bazterretan, kale zokoetan, etxepetan illunduta ere. Alkate-jaunak alde batetik kentzen baditu, dijoaz beste bazterretara. Nork esan zenbat gaistakeria egiten dituzten? Danzeetan adiskidetzen dira, len ezagutzen etziranak ere. Emendik gero anbeste ezkontza itz, anbeste erorte, auzi... Ixillik igarotzea obe litzake, esan bear ezpada, agertzeko nola gordetzen diran egun santuak. O euskaldun maiteak! Lotsatzen naiz esan bearraz. Ezta kristau erri, ez hereje, ez jentiletan arkituko plaza, kale, bide, ta leku agiritan anbeste lasaitasun, lotsagabekeria, apa laztan ta eskuka zatar, nola ekusten dan euskaldunen artean. Urte askoan bizi izan naiz erdaldunen artean; ez det iñoiz ekusi kale, bide ta leku agiritan eskuka ta tentatze txar bat gizasemeak egiten emakumeari. Dira lotsati edo grabeak. Berriz euskalerrietan ez naiz atrebitzen irtetera pesta egunean paseo bat ematen, zerren ekusi oi diran zatarkeria asko. Nondik dator? Jendea lasaitzen da danzako soñu, algara, botaka, mokorka ta esku-erabilliekin, ta gero egin oi dira lotsagabe eskuka zatarrak.

Jauna, guk ez degu peligrorik ezagutzen; ez degu uste iñoiz gauza txaarrik egin degunik; ez det iñoiz konfesatu danzeetan egin dedan bekatu-rik. Ongi. Eztezula ezagutzen peligrorik? Au da peligrorik andiena, zere burua ez ezagutzea. Biotza jiratu, ta aldaturik bazenuka Jangoikoagana, beldurtuko ziñake bekatuaren usai ta gerizarekin ere; maiteago izango zenuke anima gorputza baño. Eta maiteago dezu danza-zale itxutua. Ez naiz aspertuko esaten. Baziñaki danzan dabilztanak daukatela beren eskuetan sarna zatar eraaskorra joango ziñake? Iges egingo zenuke laster

ta arin onean plazatik edo joango etziñake plazara. Esango zenuke zere artean banarame danzara iraatxiko didate bear bada beren sarna. Nolako igui ta gorrotoa emango ez lizuke sarnatien eskuetan ebilli bearra! Zerk egiten du au? Beldurtzen zaitu gaitzaren peligroak; maite dezu korputza. Eta anima sarnatu edo ezkabitzeko peligroak ez du bear kontu geiago?

Baña demagun, ez dezula gaitzik egiten ez konsentitzen danza naasi orietan. Ukatuko didazu asko dabilzala modestia gabe, ta egiten dituztela akzio txarrak? Maite bazenu Jangoikoa, gorroto baziño bekatuari etzenuke iges egingo anbeste bekatu besteak egiten duten dibersio edo jolasetik? Ebilliko ziñake atsegiñez, olguraz, parrez ta algaraz beste danzarien modu gaitzoko ebilleretan? Badabilza askotan eun baño geiago neskatz ta mutil kate luzea eginda. Inguru aietan bost-eun edo geiago begira parrez. Ona zer gertatzen dan. Gizon bakoitzak du bere Aingeru zaille edo Goardakoa. Bitik bat, edo Aingeruak iges egiten dute plazako baralla, iskanbilla, ospe edo bulla alakoetatik, edo daude an naita ez bezela. An badaude, zer esango dute alkarren artean? Nolako aserre santua eduki bear ez dute Jangoikoaren ofensa asko egiten dan lekuan egon bearra? Nolako injuria egiten etzaie anbeste lasaitasunen testigo izatera eramaten diralako? Iges egiten badute andik, gelditzen dira danzariak laguntasun gabe, Aingeru gaitztoen eskuetan bezela. O kristauak! Begira zazute, dio San Bernardok, ez egiteaz Aingeruari gaitz iritziko dion gauzarik.

Beraz alde egin bear da alako lekuetatik? Bai bai, ta milla bider bai. Ezagutzen dezu egin dituzula len danza nasitan esku estutze amorezkoak, esan izketa txatarrak, ta ebilli modu gaitztoan? Zuretzat da okasio ezaguna, ez larga bear dana salbatu nai badezu. Zuk emakume eroa, konsentitu dituzu eskuko txarrak, poztutzen ziñan oratze amagarriekin ta igarten dezu danza naasi orietara joanda berriz ta berriz ere egingo dizkituztela akzio desonesto, edo esan itz zatarrak, edo likatzen zaitzula kariño, oniritzi edo amorea danza lagunarekin? Iges egin bear dezu salbatu nai badezu, dalako zuretzat okasio ezagutu ta jakiña anima galtzeeko. Gaitztoa bazera ta erorkorra, gaitztoago egingo zera okasioakin. Ona zera, ta gorroto diozu bekatu loiarri? Jarraitzen badiozu danzari, gaitzotuko zera, ta laster kenduko zatzu bekatuaren gorrotoa. Konzienziak lenbiziko aldietan zauka egingo dizu; gero etxezakurrak bezela jolas ta pesta. Lenengo joateetan artuko diozu, usai txarra; baña oitutzen bazera, batere ez. Eta gurasoak obligatzen banau danza naasietara joateko, zer egin? Animako kaltearekin, ez diozu obeditu bear guraso gaitztoari, zerren leenago da Jangoikoaren borondatea egitea, zeña dan gurasorik onena, urkoena ta osena, lurrekoarena baño; banatzen bazaituzte irten nai ez dezulako plaza



orietara, mutil artera zorionekoak zure kolpe ta zauriak; sendatuko dizkitzuz Kristok ezkutuko balsamo ederrarekin bere amorez egin dizkitzuten zauri edo oñazak. Kristau guziak iraatxi bear dituzte beren biotz barrerentan Jesu Kristoren itz eder oek, ez gaituztela beldurtu bear korputzeko bizitza kendu al dezakeenak, ta bai Jangoikoak, zeñek duen eskubidea korputz ta anima Infernuko leizara botatzeko.

Eta bekatu mortal egiten dute danzara dijoazen guziak? Ez det ori esan nai. Diot bada, danzak badira gauza txatar edo bekatuzkoak egiten diranak, onelakoetara joatea dakizula peligro ezagutua dala bekatu mortala. Onelako danzak dira geien geienez bakar lekuetan mutil neskatxak egiten dituzten fandangoak. Eun fandango danzatzetik jende lasaien aurrean, ozta bat izango da, zeñean egingo ez dan eskuegozte gaiztoa edo gona altxatu naia oñarekin, edo korputz urreratzean aurpegiz aurpegi mobimentu eskandalogarria, aurrean daudenai ematen zaiela gogorazio loietarako bidea. Oek ekusita parre ta parre. O emakumeak! Nora da zuen modestia, jarten zeratenean gizaseme lujurioso, ta lotsagabeekin alako danza gaiztoetan? Da bada bekatu mortala irtetea danzara, igarten danean zer egingo dioen gutxi gora bera, edo egingo diozkela esan diran gisako akzio txatarrak. Zer esan berriz etxeko-jaun edo guraso beren etxeetan onelako danzak permititzen dituztenak gatik? Zenbat bekatuekin kargatzen dituzte beren anima gaixoak? Plaza danza agiritan egiten ta konsentitzen dituztenak akzio desonesto, ta esan itz bekatuzko ta amoragarriak edo eskandalosoak, oro bat egiten dituzte bekatu mortalak. Amore gaiztoan bizi diranak egiten dute bekatu mortal alkarrekin danzan ebilliaz, zerren dan onelakoentzat okasio gaizto ta ezagutua.

Bein edo berriz, gutxi gutxi batzuetan dijoazanak asmo gaizto gabe, lotsaz edo mundukoen beldurrez, ta afizio edo eraspen gabe, agindu edo erregeru utsez, proposito sendoarekin ez konsentitzeko uste kabean akzio txarrik egiten badie, ez dute bekatu mortalik egingo, zerren ez dago onetan peligro ezagun ta urrekorik. Baña Jangoikoak nai du bekatu usaietatik ere aldegitia, ta nere konsejua da ez inoiz joatea milla erregeru egiñagatik. Gauza bat da bekatu mortala ez izatea ta beste bat obe izatea, edo Jangoikoak naiago izatea egin ez dezagun. Apaintzea burua arrotasunen batekin, pilotan jokatzia denpora geiegian, dibersio alperrak bekatu mortalik ez dakartenean ere, dira Jangoikoak nai ez dituenak. Ala bada, plaza danza euskal-errietan egiten diranetara irtetzea bein edo beste, asmo gaizto gabe, ta gogo sendoarekin ez lekurik emateko gauza edo akzio txatarri ez izanagatik bekatu mortala alde askotatik da obe ez joatea. Jende lasaiak ekusten dituztenean kristau onak danzatzan plazako bulleetan, uste dute

berak ere ibilli ditezkeala oker ebiliagatik; ez dute konturik ateratzen batzuentzat bekatu mortala dan gauza bat ez dala beste batzuentzat. Besetik anima Jangoikoa urtxotik serbitu nai duteenak iges egin bear dute mundu usaia, ta biotza lasaitzea dakarten dibersioetatik.

Baña nork libra ditzakez kondenazioko peligratik sarri, afizioz, borondate prestarekin okasio danetan dijoazenak danza naasietara? Oentzat da peligro andi, urreko, ta ezaguna, gutxi gutxitan, indarrez bezela, gogo gabe, lotsaz, edo resoluzio sendoaren paltaz okasio andi ta urreko ez dana. Esana da, iturrira sarri dijoan morko edo bonbilla, ausiko dala. Gizaseme batek itz egitea bein edo beste neskatx batekin asmo gaizto gabe, ez da bekaturako peligro urrekoa; baña itz egiteak sarri, afizioz, borondate prestarekin dakar berekin peligro andi ta ezaguna, ta ez luke konfessore begiratu batek absolbituko onelakoa, larga nai ezpazio tratatze ain luze, estu ta afiziozkoari. Tratatze sarri ta estuak dakar kariño edo afizio; onek begien arintasuna edo itxastea; begiratze afiziozkoak gogorazio lizunak, tentazioak, itz amorezkoak ta azkenean zer ez? Nondik datoz mundukoen bekatu loiak? Ala bada danza sarri egiñak, afizioz artuak, okasio danean borondate poztzen dutenak dira peligrasoagoak itzketa utsak baño. Eskuz esku luzaro oraturik ebiltzea, alboan ain urrean sua ta amullua egotea, ematen diran mokorkada bota ta tirak, parre algarak, dira peligro andiko gauzaak asmo agiri gaiztorik ez darametentzat ere, zerren begiak ta eskuak galtzen dituzte asko, sartzen da persona edo danza lagunarentzat oniritzi edo kariñoa; kariñoak dakar itzkera labañ ta samurra, onek tentazioa, lujuria biztzea... ta zer ez?

Ego absque ulla haesitatione existimo, incapaces esse sacramentalis absolutionis juvenes utriusque sexus, qui parato animo sunt ut frequentent choreas quae, in usu sunt quia iudicio prudentum, et esperientia ipsa teste, sunt occasio proxima ad multa peccata lethalia. Qui secus agunt Confessarii, qui parvi pendunt haec tam periculosa consortia sunt, ni fallit animus, duces Coecorum. Quid de illis loquar, qui si non manibus, at voce plaudunt haec luxuriae, incitamenta! Quando agitur de vitando peccato formali, inquirunt Segnerius et Ligorius, sequendae sunt opiniones minus faventes laxitati; et hi Apostolici viri, in regendis animis peritissimi, et pietate pleni, non sunt Antiprobalistaru<m> patroni. Non disputamus, an choreae ex se sint indifferentes; sed an ut in patria nostra exercentur, et frequentantur sint occasio proxima ruinae spiritualis.

O kristau euskaldun maiteak! Noiz begiak idikiko dituzte ezagutze-ko ez gaituela Jangoikoak juzgatuko munduko usuario, oitura, edo legeetatik, bere lege santutik baño? Zertarako dira anbeste sesio ta anbeste eder- garri iraun erazitze-ko dibersio anima askoren ondagarriak diranai? Zerta-



ko sinistu ez Zeruko bidetik joan ziran Santuei? Zertako asmatu berria dala danza onelakoak eragozten dituen doktriña? Ona zer dion Jangoiko ber berak, *urratu zituzten nere egunak*, edo Jai santuak, *ta nik ezarriko det nere aserrea beren gañera. Nik zabalduko det jaien simaurra zuen arpegira*. Da esatea, simaurtu ta zikintzen ditugula bere egunak, ta arpegian emango digula egunen batean gure lasaitasunaz. Eta zenbat obeago izango degu igarotzea Zeruko pesta ederretara zelebratzera an jaiak Aingeruen musika, ta anbeste Santuren alabantzakin! Non da gure fedea? Gaiztoak igarotzen dituzte beren egunak alegria, ta atsegiñ ematen dien dibersio txarretan, ta beingo batean jesten dira Infernura, dio Job Santuak. Nai degu dibertitu deabruarekin? Ezingo degu erregiñatu Jesu Kristorekin esan zien San Pedro Krisologok bere enzula ta eleiztarrai. Ereiten badegu penitentiako negar malkoa bilduko degu pozarekin betiko gloria. Ala izan didilla. Bai arren bai.

ERAKASTE XIII.

Jangoikoaren legeko laugarren mandamentuaren gañean

Honora Patrem tuum, et matrem tuam, ut sis longaevus super terram.

G. Zeren gañean izango da gaurko doktrina?

E. Laugarren mandamentuaren gañean, zeña dan au: *honra itzatzuz aita ta ama bizi zaitean luzaro lurrean*.

G. Beraz luzaro biziko da gurasoak honratzen dituen?

E. Jangoikoaren eskintza korputzaren onekoak aditzen dira, ez iz utsetan, ta bai bere espirituan. San Luis Gonzagak, San Stanislao Koskak, ta beste santu ta santa gaztetxo askok, honratu zituzten txit asko beren gurasoak, ta etziran luzaro bizi izan lurrean; baña eman zien Jangoikoak emengo bizitza orde, bizitza obeago bat, ta luzeagoa Zeruan; bada emen igaro zezaketen zaartzarañoko bizitza, igaro zuten Jangoikoaren aurrean. Baña animarentzat ohea danean luzaro bizi izatea lurrean, iritxiko dute gurasoak honratzen dituztenak.

Esan genuen doktriña batean ekarri zituela Moisesek amar mandamentuak izkribituta ol bitan; batean zeuden Jangoikoaren honrari dagozkion lenengo iru mandamentuak, zeintzuek adirazo ta zeaztu ditugun orain artean, ta beste zazpirak bigarren olean, ta oek eman zituen proximo edo lagunaren onerako; ta nola projimo guzien artean urrenak diran gurasoak, senar emazteak, etxeko jaunentzat morroe-mirabeak,... ala bigarren olean zegoan lenengo gurasoak honratzeko mandamentu edo agindua.

G. Zer adirazo nai digu Jangoikoak onraren izenez, edo nola onratu bear dira gurasoak?

E. Onratuko dira laguntasuna emanaz bear orduan, obeituz edo beren esan zuzenak egiñaz, lotsa edo errespeto ona erakarriaz, ta biotzean maite izanaz.

G. Nolako laguntasuna zor zaio gurasoari?

E. Zor zaio bai sokorru edo laguntza bear besteko ta borondate onekoa beren premia guzietan. Eta egiaz, nondik daukate umeak Jangoikoaz beetik beren izate ta bizitza? Nork azi ditu? Ez dira gurasoak? Beraz esker gaiztokoak ez izatera, zor die laguntasuna, ta alegin guzikoa. Ala dio Belarmino Kardenal beneragarriak bere urrezko doktrina liburuan.



G. Nola zor die umeak gurasoi laguntza edo sokorrua, karidade utsez edo justiziaz?

E. Zor dute justiziaz, zeren eman zien gurasoak jana ta janzia, umeak gero emateko kargarekin, ta gurasoak zor badie justiziaz laguntasuna umeai, oek ere bai gurasoi, ta dira bide lapurrak baño gaiztoagoak ume gurasoi laguntasuna ematen ez dioenak.

Emendik dator, egotea bekatu mortalaren bean obligatuak laguntze-
ra gurasoi, ez bakarrik beste projimoai bezela premia estu estu, edo azken azkenekoan, baita ere andi edo astunetan. Ala bada eri edo gaixorik badago gurasoa, ta ezpadu onek zerekin erosi osakarri edo botikakokak, zerekin pagatu osatzalleak, bear dituzte pagatu umeak, nola gurasoa dagoan obligatua alako orduan pagatzera umeak osatzeko bear diranak, umeak ez dutenean zerekin. Guraso bat sartu badute karzelan zorren bati ezin eranzun izan diolako, pagatu bear du umeak zor ura, karzelatik gurasoa ateratzeko.

Ume ondo bizi diranak, daukatenak zerekin jaten eman ta janzi gurasoa, ezin largako dio aterik ate ogi eske ibiltzen, lotsari ta neke andikoa dalako limosna eskatze au. Zer esango genuke guraso ondo bizi dan bategatik bere umea premiaz aterik ate ogi ta arto atzean dabillega largako balio ala ibiltzen, mantenu dezakeala? Biotz gaiztokoa dala. Bada zor dio gutxiago umeak gurasoi onek umeai baño? Nork artu du geiago, edo umeak gurasoagandik, edo onek umeagandik? Orregatikan ere gurasoak maiteago oi dituzte umeak, obeto laguntzen die aiek oei, oek aiei baño. Ona Santo Thomas Irakasla andiak erakasten duena: Kristau batek dauka gurasoa batetik, ta bestetik ume bat, guraso ta umea arkitzen dira premia batean; ez du zerekin lagundu bie. Nori lenen lagundu bear dio? Onra ta amorio geiago zor diola, dio Santu onek, gurasoi, baño janari edo alimentuaren aldetik geiago egin bear duela umea gatik; ez dala ordea libratzen alako kristaua egin al guzia egiten ezpadu laguntzeko gurasoi. Anbesteraño lotzen badute gurasoa, ala naturalezako itzak, nola Jangoi-koak, nolako obligazioa ezarriko ez die umeai gurasoen alderako? San Juan Ebanjelistak badio, lagunari ematen ez dionak jana, edo janziak premia egiazkoan arkitzen danean, ez duela karidaderik, zer esan gurasoen alderako gogorrek diranak gatik?

Ori ala da, dio ume batek; nik lagunduko nioke pozik nere buruaren jabe bakarra banintza; baño ditut emaztea, ta umeak; oek dira leenago. Bai; baño esadazu egia, ez dezu zerekin lagundu guraso premian dagoanari zere umeak ta emaztea galdu gabe? Ez dezu alperrik ezer gastatzen edo jokoan, edo jan edanean, edo premia gabeko janzian? Eman gloria

Jangoiko guzia dakusanari ta aitortu egia. Bildu nai ote dezu etorkizunerako dote on bat umearentzat, ta bitartean guraxo (sic) gaixoa goseak illik ta narru gorrian bezela? Eta ez dezu konfiatu bear ez duela ezer etxeak galduko, Jainkoak beste aldetik geiago emango dizula, laguntzen badiozu gurasoi? Nor galdu da oraindik limosna zuzenak gatik? Zenbat esesio ta estalki igaroko ez diranak Jainkoaren aurrean. Zer itxadon dezakete ume diru zale, zeken ta zikotzak gurasoen alderako? Nola bedekatuko ditu Jaunak? Edo zer egingo dioe bere zartza, ta premietan berari ume geiegi ta gaizki maite dituen oriek? Etxeko ate-abean esekita dago ezkutuko kana bat, zeñekin neurtuko dituen Jainkoak. Nor arrituko ez da egunoro ekusten danaz? Gurasoak txikitatik azitzen dituzte aurrak. Aitak bere buruari ematen diozka atsekabe, ta miñ asko, korputzari neke gogorrek ogia billatzeko. Amak sabelean zerabiltzan artean, zenbat ikara? zenbat peligro? zenbat naiez? jaiotzan zenbat min ta zein portitzak! jaiio ta gero ematen dio bere bularra, garbitzen diozka sarri zapi loituak, gauetan igaro bear ditu ordu osoak lorik egin gabe aurraren ardura gogorra gatik; orain negarrez ixiltzen ez dalako aurr, gero gaisotzen dalako, ta ez gutxitan ito ez didin edo oean, edo seaskan. Zenbat laztan gozo ta estu ematen ez diozka? Zenbat itz ero esan amoriotik irtenak? Kanpora irteteko egiten danean umea, zenbat beldur erori ta banatu ez didin? Ala geienez azi ta estadia eman artean beti dabilta gurasoak umeak zaitzen, jana ta janzia ematen, ta txit sarri amorio geiegiarekin nai guziak egiten. Zartzen dira zerbait gurasoak; nola eranzuten dioe seme ta alaba askok anbeste mesede ta amoreri? Esanik egin ez batzuetan gauza onerako izanda ere, egiten duteenean, egin marmarioz, mormosietan, bekoki illunarekin, begi aseratuakin, ezin bestez, borondate bage. Zer geiago? Botatzen dituzte etxetik guraso zaarrekin bizitzarik egin nai ezta; amaren zartzako argaltasunak igaro nai ez, etxean badaukate, illda balego, gogo osoarekin, baztertuta egun gozo bat ematen ez dioela; ume zitalak berak amama gaixoari farre ta siñu egiten diela, ta oen gurasoak kastigatu ez. Gurasoa zartuak anbeste desprezio eraman ezinda bezala, biraoka ta araoka seme, alaba, ta illobai; infernu txikitik andira erorteko bizitza daramela. O ume gaiztoak! Nola igoko ez dute Zerura gurasoen negar ta madarikazioak? O etxe zorigaldukoak! Zertara joko dezute azkenean, Zeru guzia zuen kontra dezetela? Berriz ere diot, etxeko abean esekirik dagoala ezkutuko kana bat, ta ez dutela ume gogorrek egun on bat gero ekusiko, bizi badira ere, beren ondorengoetatik. ume onak gorde bear liozke guraso zaarri jatekorik onenak, ipiñi maian aurrenean, erakutsi beti arpegi amorezkoa, gaixo bada zaitu, albora joan, galdetu zer nai lukean, ta eman amorezko



ezaugarri guziak, ta itz batean, egin gurasuak berekin egiten zuteena aurrak ziranean.

G. Umeak iduki bear dute konturik gurasoen animakin?

Bai bai; nola gurasoak iduki bear duten kontu andia Zerurako azitzeko aurrak, ala oek ere gero bear dute begiratu gurasoen salbazioko gauza guzietan, ez gaizki esanez, ez gogorki tratatuz, ta bai ondo esanez, ta artzen dituztela neurri guziak salba ditezen; au eskatzen du zor dien amorioak. Ala bada, eritzen diranean gurasoak ta jarri iltzeko arriskuan, dendatu bear dira umeak Sakramentuak artu ditzaten; ta ill ondoan lagundu bear die alegiñez, orazioakin, ta ezpadute gurasoak zerekin egin enterratzea, ta oi diran honrak, ez dituzte utzi bear hospitaleko enterruarekin, umeak dutenean zerekin egin. Gurasoak badira bizio edo oitura gaiztoakoak, ordi, gastatzalle, ta birao zaleak, esan ondo, itz egin biguñki, ta konseju onakin egin al dan guzia ondu ditezen. Badira Euskal Errian ume on asko guraso ill ziranai urteoro artu oi dienak illen Bulda santua, atera erazitzen dituztenak mezak gurasoen animak gatik. Zer galduko dute onelako seme alabak?

G. Gurasoak ill aurean, edo testamentuz, edo itzez agindu bazuten mezaren batzuek ateratzeko, edo restituzioren bat egiteko, umeak zer egitera beartuak daude?

E. Ume herederu, edo gurasoen ondasunak beretu dituztenak, daude lotu edo obligatuak, gurasoak eman dituen agintza ta karguak konplitzera. Gurasoak ezpazien ezer larga, ta badute zerekin konplitu kalte andi gabe, gaizki egiña izango da ez egitea gurasoak ill aurean eskatu ziena. Erederu bi edo geiago izan badira, umeak alkar artuta konplitu bear dituzte guraxoen obligazio edo eskintzak. Ai! ta zenbat ume gaizto diran kausio ta jaramonik egiten ez dienak guraxoen obligazio ta eskintzai herederu edo jaubegai gelditu diranean! Arrapatu beingoan gurasoai larga dituzten ondasunak, ta aaztu aitaren obligazioakin. O Seme, lapur guziak baño lapurragoak; anima gaixoai ostutzen dienak, dauzkeela urte askotan Purgatorioan meza aginduak atera erazi ez dituztelako! Nola egongo da tormentu gogor aietan guraso gaixoa seme-alaben aztutasun edo nagitasuna gatik? Herederua dago obligaturik pagatzerra leenagoko jabearen zor egiazkoak; baita ere egin zituen eskintze, edo agintza modu onekoak. Jauna, esan oi dute batzuek, aita edo amak niri larga zidena, zan maiorazgoa, ez gauza libererik. Maiorazgoak ez du gurasoaren zorrik pagatzeko obligaziorik; etzuen zorrik egin ez baño.

O Seme zeken, diru zale, ta lureko legeetatik zabiltzana, ori zor diozu gurasoari? Nola egin zituen zorrik gurasoak? Jokoa etxea onda-

tuz? Etzan Jauna orren jokolaria. Zertan bada? Bear bada umeai atsegin geiegi ematen, mai ona ipintzen, estudio edo ikasbidea ematen; seme ta alaba asko izanik oek zuzentzen, etxeak moldatzen, azienda aurratzen. Bear bada pagatu gabe larga zituen gurasoak beargiñak eta oen izerdi geldituko da, sari edo alogera gabe? Non da semearen onra? Non anima, negarrez daudenean langillak? Gurasoak artu ta ezarri bazien, zensoren bat maiorazgoari agertu etziolako alakoa zala, zergatik pagatu bear ez dio semeak aitak engañatu bazuen diru-emallea? Beste askok prestatu izango zion gurasoari estutasunean, pagatuko ziolako uste osoarekin. Ill bazan pagatu gabe, zergatik pagatu ez semeak, bear bada iñoren dirubarekin mantendu edo janzi bazan etxea, edo gelditu obetuta azienda? Lurreko legeak onak dira auziak kentzeko; baño anima ta Jaunaren legea dira bearrenak.

G. Zer da Gurasoari zor zaion obediencia?

E. Da beren esanak egitea borondatez, trikatu gabe, ta laster edo bigarrean eraso gabe, agertzen duteela umeak poz gozo bat esanak egitean. *Umeak, obeditu gurasoai, Jainkoak ala nai duelako*, dio San Pablok.

G. Gauza guzietan obeditu bear bazaie gurasoai, naiz gauza txarrak agintzen badute?

E. Ez orrelakorik. Gurasoak agintzen badute Jangoikoak nai ez duen gauzaren bat, ez da egin bear. Ona zer dion Jesu Kristo ber berak: *Gorrito ez dionak gurasoari*, au da egiten ez dituenak leenago Jangoikoaren esanak, Gurasoarenak baño, ezta zer izan nere jarratzalle edo eskolako. Asko alditan etxeokak, guraso ta senideak oi dira etsairik gaizto ta gogai-karrienak. Aita edo ama batzuek dira erakasten duteenak Infernuko bidea; gauzak ostutzen, ostutzero laguntzen munduko ebillera nasaietara irtezen, bear ez dan bizimodua edo estadia artutzen. Ala bada animaren kaltean ez egin gurasoaren borondaterik; obedienciaz ditu bere neurri ta mugak. Seme edo alabak eranzun bear dio gurasoari humil humillik, ezin nezake nik orrelakorik, Jangoikoak debekatzen didalako. Gurasoago da Jangoikoa aita edo ama baño. Baña zer gertatzen da txit sarri? Umeak errazago egitea gauza okerrak, gurasoak agindu dielako estalki, esesio, edo aitzakiz, gauza onak baño. Aitak esaten badio semeari, ta amak alabari: zoazte pestara elizan ta etxean sartuta egon gabe, zein pozik egiten dan agindu au. Esaten badie, etzoazela mutil artera, ez danza nastuetara, zaude etxean; bai berriz! an dira bekoki astunak, arretondo txatarrak, musu astintzeak, begi sutuak, ostikada, eranzuteak; zergatik olatuko ez naiz nere lagunak bezala? zuk naita ez joango naiz. Oro bat badarama aita gaiztoak semea egurrak, ardi, aari, edo beste gauzaren bat ostutzero,



lagutzen dio, ta gero eranzungo du semeak, beldurak eragin zidan zer egingo nuen gurasoak agindu bazidan? Ala prest daude egitera animaren kalteko gauzaak, ta ez animaren onerako agintzen zaiztenak. Obedientzia ederra. Beldurra bear ez danean; ta lotsagabetasun andia egin bear diran gauza onetan.

Obeditu bear zaio bada gurasoari animaren, ta etxearen onerako agintzen duten gauza guzietan, nola bait Kristori bezala, zerren Kristori obeditzea dan gurasoen esanak egitea alako gauzeetan. Ez obeditzea, batzuetan izango da bekatu astun edo mortala, besteetan ariña edo beniala. Agintzen badio gurasoak batu ez didilla onelako, ta alako lagun gaiztoakin, jokatu ez dezala modu gaiztoan, geiegi galduko dalako peligroraz, sartu ez didilla onelako edo alako etxe bekatuko okasioa dagoanean, etorri didilla etxera mugonez, edo gabaz bear ez dan bezelako lekuetan ebilli ez didilla, aplika didilla ikastera, ikasi bear dana, alperrierian denpora igaro gabe; ez obeditzea onelako gauza astunetan da bekatu mortala, zerren ez obeditzeaz datozen animara, ta etxera kalte andiak. Zer da seme alper, lagun gaiztoekin ta gabaz kanpoan modu gaiztoan dabiliena, bere zeregiñetara, erasten ez dana? Da etxerako, ta erri guzirako kaltegarria. Gauza txikietan bein edo beste ez obeditzea modu gaizto andi gabe, ez da bekatu mortala izango. Baña baldin tematzen bada egingo ez duela aitak agintzen dion gauza arin bat, nola dan iturritik ura, sorotik arto edo belarra ekartzea, modu txit gaizto ta sentigarrian eranzuten diola, da desonra ta naigabe andia gurasoari ematea. Oro bat gauza txikiak berenez diranetan sarri desobitzen (sic) badio, mandamentu zuzenik gutxitan baño egin nai ez da. Zer egingo dute gurasoak, nola zuzendu etxea, seme edo alabak txit sarri ukatzen badira mandatu zuzenak egitera? Nagitasunez, lotsaz, edo desprezio andi gabe gauza bat edo beste noiz edo berriz egin gabe largatzea, ez da gurasoari naigabe andia eman oi diona. Baña modu txit gaiztoarekin, temaz, ta agintzen diolako bera gatik ez egin nai izatea umeak, estutzen du asko gurasoa, baita modu ain gaizto gabe sarri desobeditzen dionean ere.

G. Badago Eskritura Santan beldurra emateko kastigorik seme lotsagabeen gañean?

E. Bai ta ona bat. Dabidek egin zuen zerbait aziera ona emateko bere seme Absaloni. Ordea onek irten zuen buru gaiztokoa, aitaren esan ta erakatsiai kausio edo jaramonik egin gabe. Eldu zan aitari erregetasuna kendu nai izateraño; eman ziozkan atsakabe txit andiak; deshonoratu zituan bere emazteak lotsa guzia galdurik; ill ere zuen bere anaje bat. Baña etzan ixillik egon beti Jangoikoa. Izan zuen eriotza gaiztoa arbola batean

illeetatik katigaturik; josi zuten bertan burni urratzalle, edo iru lanzarekin, ta larga zuten baso batean arriekin estalia bere korputz illa, ta anima gaizkiago infernuan, dirudianez.

Berriz, zenbat bedeinkazio zeruko iritxi zituzten Jangoikoaren alde-tik Isaak, ta Tobias gazteak beren gurasoei eman zien honra, ta esanak zuzen egin zituztelako? Zein onak irten zuten ta zein santuak guraso onen erakaste ta doktriña onak artu ondoan! Ume gaiztoak egun onik izango ez dute azkenean mundu onetan ere. Guraso nekez arto ta ogia irabazten dutenei, kentzen dizte ezkutuan etxean bear diran gauza ez gutxi; milla gezur ta asmorekin ostutzen dute arto edo gari zatiak beren janedan, ta jokoetako, ta dabill etxea apapuan, zorrak geitu, ta milla buruko miñien artean. Absalon gaiztoa bezala andinaiera, lasaitasunera, ta lujuriara ematen dira, ta ondutzen dute etxea. Ai balekite ondo gurasoak, zer dan ume bat azitzea Jangoikoaren beldurrean, ta nola dendatuko lirakean alegiñez ondo azitzera, ta mugonez gordetzera seme edo alabak, larga gabe ebilli ditezen jende nasaiaikin!

G. Eta zor die umeak gurasoei obedienziarik artu bear duten estaduaren gañean?

E. Asko dago zer esan onetan. Jangoikoarena da deitzea, edo bokazioa, umearena dei oni jarraitzea, ta gurasoarena laguntzea. Laguntzeko jakin bear du, ta kontu eman umeak. Ez du gurasoak eskubiderik eragozteko bide zuzenetik datorren estadia. Baña umeak ez dute beren buruz ebilli bear bide gaitz onetan. Jangoikoari eskatu bear dio argia ezagutzeko, nola ta zein bidetik obeto serbituko duen ta irabazi Zerua. Estaduak dira iru gisakoak; bata Elizakoa, bigarrena ezkontzakoa, ta irugarrena batere katigatu gabe donzellatasuna gorde nai dutenena. Elizan daude bi bide, bata abadetzea, edo apaiz izatea, ta bestea Relijioan sartzea. Guzian dago zeri begiratu. Abadetzea berez bide ona da; baña ez arinki artu bear dana. Ezagutu bear da, ez dala gauza gaitzagorik apaiz edo abade on baten obligazioai eranzutea baño. Meza bat esatea, koruan kantatzea bali-tza abade on izateko asko, erraz litzake. Baña bertute andira deituak dira munduko sazerdoteak; izan bear dute beste kristauai eskua emateko jakintsuak, ta animazaleak. On asko egin dezake on ona bada, baña kalte asko beretzat ta askorentzat gaiztoa bada. Nola bada sartu estadu santu onetan santidade gabe? Nola izango da ona besterentzat, beretzat gaiztoa dana? Nola bere anima zuzentzen ez duenak zuzenduko ditu besteenak? Ala bada gurasoak ez dute onetan zer sartu, asko sartu oi diran bezala. Asko gurasok konturik eduki gabe beren munduko ona baño, berak artzen dute Jangoikoaren lekua, edo eman bokazioak. Ikusirik bere semea dala bizitza



ez onekoa, dan bezala dala, ordentzeko dui duia ikasten badu, bereala abiatzen dira kapellania billa ta bear bada tratu debekatuakin. Umeak, etzaitzela onetan piatu gurasoakin; billa ezazute konfesore Jangoikoaren urreko bat; agertu oni bizimodu guzia, ta aurrerako gogoak. Berriz Relijioan sartzea berez ona baño obea bada ere ez sartu konseju on gabe, ta sartzea ez larga gurasoen erausi ta agiraka guziak gatik; ezagutzen badezute aldegin bear dezutela mundutik salbatzeko ekusirik zere indar laburak irauteko on izatean munduaren erdian, ta ala orazio, nola komunio-ko une santuetan sentitzen dezutela gogargi edo inspirazio ezkutu ta jarraitu bat sartzeko Relijioan, ez ezergatik atzeratu. Utsegiten duena estada, peligro andian arkitzen da. Jenderik geiena kondenatzen da, zeren artzen diran estaduak ariñegi, pasioz, edo munduko era edo konbenienziaren bategatik.

Ori orrela da; ezagutzen degu ondo begiratu bear dala eliz-gizon, fraile edo monja izateko; baño zer bokazio bear da ezkontzeko? Zertako gurasoari konseju eskatu? Gurasoak atzeratuko nau kontu ematen badiot. Ni naiz ezkondu bear dana, ta nere buruaren jabe. Egia diozu gezurrarekin batera. Gezur andia da ezkontzeko zeruko dei edo bokaziorik bear ez dala, esatea. Zenbat gauzari begiratu bear etzaio betiko bezala buztartu bear danean? Amorio itxu, zatar, ta pasioz datorren ezkontzak, ondoren txatarrak ekarri oi ditu geien geienez. Lagun artuko dana ezpalin-bada Jangoikoaren beldurreko, ta bai okerra, nolako bizitza egingo da? Ardora emana bada; zenbat buruko-miñ emazteari? Ostutzeko oitura txarra badu, lagundu eraziko dio emazteari lapurrerietan, ta biak kondenatzeko bide ederra. Ala bada bear da ezkontzeko katigatu baño leenago orazio egin Jangoikoari, konseju ona artu guraso, ta konfesoreagandik, ta aztertu edo ondo jakin ezkongeiaren kondizioak. Gutxi gutxitan gertatuko da gurasoak galerazotzea bide oneko, edo ondo datorren ezkontza. Galerazo nai balio umeari arrazoi on gabe, itundurik konfesore jakintsuarekin, artu legeak ematen dituen eskubideak, baño beti ekarri bear zaio gurasoari onra ta lotsa ona. O zenbat ume gaiztok egiten dituzten ezkontza bidegabeak beren buruz, amorio gaiztoz, bekatuz aseta bezala, deabruari korputzak leenaz emanda! Neskatzak siniserrazak edozein itzi loturik, datoz pekatuak egitera. Mutil gaiztoak pasio loi baten itxutasunean edozer gauza eskintzen dutela; batari bear bada gaur itza eman biaramonean beste bati; emendik eskandaloak errietan, guraso ta senideen naigabeak, auzi txatar ta ondagarriak; ta zer ez? Umeak, zorigaiztokoak izango zerate aitaren bedinkazio bage bazoazte ezkontzara Jangoikoak ere etzaitu bedinkatuko, ta gero zer gauza on izan? Ona bada emen bildu edo pillo-

tuta umeen, obligazioak gurasoen alderako. Zor die amorio txit andi bat, erruki oso oso bat, onra ta lotsa andia, atsegin eman naia ondo dan guzian, laguntasuna premia orduetan; eriotzan, ta illorduan ere gogoan idukitzea; beren esanak, okerrak ez badira, prestasun andi batekin egitea. Oitura txarrak baditu, itz biguñekin, ondo esanarekin, ta erreguz edo palagatzez eman onbidea. Au egiten duen umeak txit maite izango ditu Jangoikoak. Zenbat andiagoa zan Jesukristo, bere Ama ta San Jose baño? Bada egon zan beti bezala beren mendean. *Et erat subditus illis*. Beraz zorionekoak izango dira ume gurasozaleak. Bai bai. Ez dute aztu bear mandamenduko itzekin. *Onra itzazuz gurasoak bizi izan zaitean luzaro*; aditzen da arimako kaltean ezpada. Izango dute zorte ona. Neurri berarekin neurtuak izango dira. Ume onak izango dute gero nork lagundu ondorengoetan, ta bakarra bada ere, Jangoikoak idukiko du bere ardura edo kontua. Ume gaiztoak izango dute zaartza gogorra (zartzen badira), naigabe andiak, lapur gurutzeta, gozagarri gabea, ta infernuko asipena. Eta izango ote da gurasoari eskua ezarriko diona kolpetzeko? Izango ote da birao ta madarikazioak ezarriko diozkana? Ill didilla onelako seme edo alaba gaiztoa, dio Jangoikoak berak. *Aitari siñu gaiztoa egiten dion umearen begiak atera ditzatela egazi beltzak, edo beleak ta aglakumen janari izan ditezatela. Madarikatua izan didilla nere aldetik ama itz gogor, garratzakin mindutzen duena*. Ona Jangoiko berberaren esanak.

Nai dezute umeak, ezun Jangoikoak eman zuen ordena edo agintza anziñako legean? *Seme gaizto edo esan egin nai ez duena*, dio, *eramango dute gurasoak errietako agintari edo juezen aurrera, ta esango die: Jaunak, gure semea da buru gaiztokoa, gure esanik egin ez duena, joko, jan, edan, ta emakumeetara emana*. Salazio edo akusazio au enzunda, zer egin bear zuten juezak? Agindu erriko jendeak iltzea arrika alako seme gaiztoa, kendu zidin erriatik gaitza, ta beste guzioi beldurra emateko edo ikusi zezaten jende oni lotsa ekartzen. Egia da Jesu Kristo etorri ezkeru kendu zirala munduko kastigo eriotzako, legeak agintzen zituenak. Ordea bekatua gutxitu ez da, ta bai andiagoe egin kristaudentzat ta infernuan gogorrako kastigatuak izango dira kristau umeetan gurasoei egiten dieten bidegabe edo ofensak, anziñako legekoak egiten zituztenak baño. Bukatuko det doktriña au. Espiritu Santuaren itz oekin: *Umea, lagundu bear diozu zere aitari, zere kontura artzen dezula zaartzako egunetan, ta ez arren bere bizitzan naigaberik eman*. Ala egiten duten seme-alabak, geldituko dira Zeruko ta guzien guraso Jangoikoaren kontura bizitza guzia osasunean, ta gaisotzan, izango dira zorionekoak lurrean, ta alere geiago beste munduan. Ala izan didilla.



ERAKASTE XIV.

Gauza beraren gañean. Nolakoak diran Gurasoen eginbide edo obligazioak umeen alderako

Patres, educate Filios in disciplina, et correptione Domini.

G. Zeren gañean izango da gaurko erakastea?

E. Beren umeai gurasoak zor dien kontuaren gañean.

G. Nola ori, Jangoikoaren laugarren mandamentuan orrelakorik aita-tzen ezpada?

E. Ezta ansi; batak dakar bestea; esan nai det, umeak zor badio gurasoi onra, lotsa, ta maitetasuna, zor ere die gurasoak umeai aziera ona; ta aziera onak dakar berekin bear kontu andi bat. Berriz alperra bezela da eskatzea gurasoi umeen amorio edo maitetasuna, zeren naturalezak berez dakar au, ta agindurik ere bear ez da. Zoazte ekustera Turko, fedegabe, ta herejeen artean, zer gertatzen dan? Ekusiko dezute zein maite dituzten beren umeak. Ordea gure Relijio santuak eskatzen du naturale-zaz gaiñeko amorioa, zein dagoan zuzentzean umeak Jangoikoaren bidean. *Gurasoak*, esaten die San Paulo Apostoluak, *azi itzatzu umeak Jangoikoaren eskolan ta zigorraren bean*. Edozeñek usteko du gurasoak maite dituztela beren umeak; baña egia esan bear bada gutxi dira benaz, ta bear bezala maite dituztenak. Maitetasun egiazko au eztago erruki txatar batean, naigaberik ez eman naian, ondo jaten ematean, ta largatzean egin dezen nai duteena. Dago bada ematen aziera eder bat, ondo bizi izan da salbazioa iristeko izango dan bezelakoa. Ondasun ta aberastasun guziak larga arren umeari largatzen badu animako pobreza gogorrean, zer amorio erakutsi dio? Obe zan umearentzat erakatsi balio bere itz, ta egiteakin pobrezalea izatea, ez lurreko ondasun galkorretan biotza lotzea, batzalle zeken bat izatea baño. Guziok ao batekin diogu, mundua gaiztoa dagoa-la, bekatua zabaltzen dala bazter guzietara, lujuria, lapurreta, ekusi eziña, ta beste bizio guziak burugora dabilzela. Ala da, bai zorigaiztoan. Baña nai degu ezagutu kalte guzien iturburua? Begiratu bada nola azitzen diran umeak: zein gaizki; zenbat lasaitasunarekin? Eta badago nola mundua zuzen erabilli? *Azi umeak Jangoikoaren eskolan*. Emen ikasiko da garbi ta umil izaten; emen iñori kalterik ez egiten; emen bakoitzari berea ematen, gezurrakin ez ibiltzen, ta orra mundua bestetuta. Jangoikoaren eskolan

aziko balirake umeak, Elizak idukiko lituzke sazerdote birtetsuak, relijio-ak fraile ta monja santuak; neskatx ta mutillen artean ekusiko genuke moduan geiago, ezkonduetan pake ta amorio garbiagoa, ta kristaurik gei-netan usain ohea. Ez det ukatuko noiz edo berriz gertatzen dala guraso santuetatik irtetzea seme gaiztoak, ta seme onak guraso gaiztoetatik. Dabid, ta Ezekias erregeak, santuak izan ziran; eman zien alegiñez aziera ona beren umeai, ta irten zuten oek gaizto batzuek. San Hermenejildo Martiri ta prinzipiak izan zuan aita gaiztoa, ta ugazama gaiztoagoa, baña izan zuen osaba santu, ta emazte santa, bera santu atera zutenak. Baña geienez nolakoa azia, alakoa frutua; aziera onak ondoren ona.

G. Sinisten det ori; baña nola beteko ditu guraso batek bere eginbide edo oblikazio osoak. Zer da aziera ona ematea?

E. Izango da guraso egiazkoa, ta eranzungo die obligazio guziaz itzen baditu umeak beren korputz, ta animetako on izatean; ematen badie jana, ta janzia gutxiegi ta geiegirik gabe, estadia artzeko dote bear dana, al dala eskolan irakastea, doktrina santua ikasierazotzea, konseju onak, ta bear danean agiriaka egin, ta zigorra erabilli.

G. Zertan, ta nola uts egin oi dute gurasoak gauza onetan?

E. Iru aldetara; arreta edo ardura gabeaz, edo nagitasunez; ardura larregi edo geiegiz, ta bidegabeko arduragatik, edo gaizki zuzenduz.

G. Nik aituko badet esan didana, zeatzago, ta argiroago adierazo bearko dit.

E. Bai, ta ona argibidea. Egiten dute beinik bein bekatu arreta bearraren paltaz umeen jan, ta janzirako bear zana ondatzen duteenak auzi bidegabeetan, jokoan, ardantegi, edo tabernetan, baita ere alperra izanaz irabazi bear lukeena, bear egiñaz, irabazten ez duteela. Eta gero ume gai-xoak erdi billosik, edo larru gorrian, otzak igarota neguan, ogi ta arto eske, ta zer eman ez dagoala etxean guraso gaiztoa dala bide. O guraso dragoiak! Nola ekusi erruki gabe negarrez umeak, goseak igarota auzoetan, edo aterik ate ogi billa. Etortzen dira eskribauak enbarguak egitera artzeko duenaren eskabidez; badaramez ganaduak, edo etxerako bear ziran bei, edo buztar idiak; saltzen dira arto ta tresna etxean daudenak. Zorrak ta eskribauak ondatzen dute guzia; gero ematea erneguz madarikatzen senarra, umeak bear bada biraoka aita gaiztoa gatik, ta Infernu bizi bat eginda etxea.

Baña demagun palta ez dala etxean itu ituan zer jan. Zergatik zerbait aurreratu ez beren denporan umeai estadu, edo bizimodua emateko? Neskatxa ezer gabe dagoanak gurasoen alperkeriz, edo ondabidea gatik, nolako tentazioak izango ez ditu, nola edo ala, oker bada ere billatzeko



zer jan, edo ezkontza? Zein bestera gertatzen zaien guraso begiratu, bearingin, ta buruonekoe! Maite dituzte umeak, dakustelako oek, nekatzen dirala gurasoak beren onagatik; ekartzen die lotsa ona, laguntzen die bearrean borondatez; ala etxe guzia dabill zuzen; bada zer jan, ta zerekin janzi; eskribauak ez dute olesik atean egiten; birao orde, alkarrekin gogoz esaten da gauean errosario santua, ta doktriña. Ez degu ekusten nolako maitetasun edo oniritzia dien egazti gurasoak beren umeai? Olloak nola dei egin ta biltzen dituzten txitatxoak jan dezen, berak irakazten diela nola jan? Nola berotzen dituzten beren egopean? Eta zer, usain egiten dutenean miruren bat aidean dabillega? Txoriak urratzen dituzte beren buruak negarrez bezala, mutiltxoren batek arrapatu diozkanean umeak abiatik. Kaiola batean sartutzen badituzte txorikumeak ta ipiñi leioren batean, ara diaz beldur gabe bezela, len etxera urreratzen beldur ziranak ere; eramaten die jatekoa katigu edo karzelan dauden umeai. Ala dendatzen dira arrazoi gabeko beste egazti, ta abere asko ondo azteko beren umeak. Eta zergatik gizatasun ta arrazoi apur bat daukaten gurasoak egingo ez dute alegin guzia umeen aziera onerako?

Egiten da bekatu ardura ta arreta geiegiz

G. Nola ori?

E. Ona nola. Badira guraso bat baño geiago, billatzen dutenak umen jana, ta janzia bide gaiztotik, lapurretara emanda edo bai beste irabazi okerrekin. Barkatzen ez die soroetako artoai, ardi, edo aunts mendiko larretan dabiltenai. Basoetara joan ta ganadua mantentzeko orria egiteko estalkiz egiten dituzte arboletan kalte andiak. Auzoetako beresi edo aristian arkitzen dute egurra surtarako. Ikatz burdi, edo manda kargak daramatez olara iñori ostuta. Umeai bear bada lagun erazitzen die lapurreta onelakoetan ta ala arkitzen dute zer jan, gero trokatu, edo errabesatuko badituzte ere. Onelako bidetik dakarten mantenimentu edo janariak iraungo ote du? Ez ote dira biziko iduki ez edo premia andian egun gutxiren buruan? Nolako osasuna emango die iñori ostuta, jaten duten arto, ogi, ta aragiak? Bekatuko ogiak, zer on egingo die? Nolako biraoak ezartzen ez dizte gaizki bada ere, kaltearekin gelditzen diranak. *Probetxo gaizto egingo al dio; pozoi biurtuko al zaio: eriotzako jana izango al du.* Onelakoak dira eragin oi dizten madarikazioko itzak. Eskola ederra umeentzat, da uste-nean gurasoak artzen dituzten biotzaz berak mantentzeko!

Beste batzuek dituzu ots ta beldur gutxiagorekin ostutzen dutenak umeai jana ta janzia emateko. Oek dira tratu edo artu eman, saldu-erosi, ta kontratu bidegabekak egiten dituztenak. Zenbat gezur gaizto, ta tranpa

saldutzeko gauzak? Zenbat ostutze kana laburrekin neurtuaz, edo ontzat txatarrak salduaz, diruak logreriaz emanaz, ta beste milla aldetara? Oek ez dute beste lapur agiriak bezala ezagutu nahi gaizki egiten dutenik. Umeak ondo janzita badabiltza, etxean lapiko ona bada, ta estadu eder bat emateko dirua ugari or konpon beste guziak. Konfesore zurrak estutzen baditu absoluzioa ukatzeko bian, biurtzeko irabazi okerrak, eranzuten dute: umeak dauzkat; nola geldiko dira? Dator eriotzako ordua, len egon ziranentzat ebe luzeak artzeen, ta betiko egingoan. Zer gertatzen da? Umeai ematen badie kargua biurtzeko batari onenbeste, besteari beste anbeste, atera al badute konturik, itz onekin ezer egiten ez dute. Oek zatitzen dituzte ondasunak alkarren artean; gurasoa ill da aztu oi dira, ta animaren kaltean bizi dira bide gaiztotik zetozen ondasunekin, ta guraso umezaleegi ta zekena joan zan beste mundura bere obligazioai eranzun gabe, ta umeak gelditzen dira kondenzioko zori ezin gaiztoagoan.

Badituzu beste guraso ume-zalegi batzuek beren buruekin kontu gutxi daukatenak umeai geiegi begiratzearren. Ematen die duten guzia, itxaropen ero batekin, begitandutzen zaiela, umeak emango diela bear dan guzia ta eramango duela zaartza on bat. Umeak egiten dizte milla eskintza eder, donazio oso bat egin artean: aita, edo ama pia zaitte nerekin; ezer paltako etzatzu; ez dezu beste zeregiñik idukiko, ezpada meza enzun nai dezunean, jaiki nai dezunean, errosarioa esan...Baña gero? Beretu ezker o aita edo amaren gauzak, bear bada naiagoko lukee umeak, illik balego gurasoa; erakusten die arpegi astuna, bekoki illuna ta an dago baztertuta negarrez itz bat ateratzen aizartzen ez dala bere buruba mada-rikatzen bezela, ain eroa izan zalako. Gurasoa, esaten dio Espiritu Santuak, *ez eman besteri zure ondasun osoak damutu ez dakizun. Obe da umeak egon ditezen eske, ezen ez zere burua ekustea umeen eskuetan.* Eta egia esateko obe ez da umeak eskatzen egotea gurasoari umil umillik buruz bera, gurasoa umeari eskatzen egotea baño beldurrarekin. Umeak eske dabilzan artean dira nai ta ez bada ere humillak; gurasoaren ondasunak izaterren (sic) gero, ekarten die lotsa, eregatzen dituzte, ta dabiltza inguruan bezela atsegin emateko; baña bein berena egin ezker o, ezpadute geiagoren usterik, badakuste gurasoa billosik bezala zer eman ez duela, gurasoak berak ebilli bearko du errege ta palaguka eskatzen; ta bear bada ekusi bearko ditu bekoki illunak, begi aserreak, ta itz garratzak. Ona emen gertaera asko erakusten duenak gauza onetan.

Juan Conchia zeritzon guraso batek eman zion seme bati zuen guzia ezkontza baterako; itz onak eman ziozkan seme ark emaitza edo donazio osoa eragin artean, ta ala gelditu zan seme ta erraiñaren besoetan bezala.



Lenbiziko egunetan egiten zioen arrera ta arpegi ona; baña egun gutxiren buruan soñu berri bat enzun zuen. Etzioen ematen egun on bat; jango zuen ogia busti bear zuen malkoekin, onik egiten etziola aora zeraman ogi borondate txarez emanak. Itz gogorak, arpegi illuna ta mustur astintzea ziran ematen zioen alogera. Damutu zitzaion egiña; baña asmatu zuen gauza bat, zeñek irten zion txit ederki. Auzoko gizon bati eskatu zizkon ixillik diru zati batzuek egun gutxiren epean biurtzeko itzarekin. Diru oekin sartu zan gela batean, asi zan kontatzen, ta otsak eragiten. Diruen otsak poztu zituen seme, ta errañaren biotzak. Urreratu ziran gelara, ta ate artetik begiratu ta zelatatu zuten gurasoa, zein zegoan mai gañean diruak kontatzen, ta nola gero gorde zituen kutxa-kisket batean. Nolako poza! Galdetu zioen urrengo egunean: Aita, zer egiten zenuen atzo gelan bakarrik sartuta? Norenak ziran diru otsegiten zuteenak? Eranzun zien: Zuek baño ume geiago badituz; gorde dituz diruak ill ondolan izan ditezen ondoen artzen nauenarentzat. Nork esan berri onekin nolako arrera egiten zioen andikan aurrera? Maian aurrerengo, jatekorik onena, arpegi gozatsuak, itz amoragarri, ta samurrak; galdetzen zioen, Aita, ondo zaude? Miñik badezu iñon? Zertako jaikitzen zera ain goizeitik? Zaude oean nai dezun artean. Ala bada zeramazan egun zaartzako gozoak. Alako batean, gaixotu zan; lagundu zioen ezin obeto. Ill zan agure on au; ta joan ziran arinka kutxan zegoala uste zuteena arrapatzera. Ordea, etzuten ardiapat ere arkitu, ta bai makilla labor lodi bat, ta paper, itz oek izkribituta zeuzkana: *Nik Juan Conchia, azkeneko Testamentu onetan agintzen det, Kutxa onetan arkituko dan makilla sendo onegin emateko galantak, bere buruaregin konturik ateragabe, duten guzia bizi diran artean umeai ematen dien Guraso ero ta onegai.* Gelditu ziran onela diru gabe seme ta errañ gaizto aiek, ta aita asko jakiñak erakatsi zien beste gurasoei zer egin.

G. Nola bete bear dute gurasoak bigarren obligazioa, zeña dan umeen instrukzio, edo erakastea?

E. Kristauak diran aldetik erakatsi bear die txikitxotatik doktriña santua, edo ezauerara eldu ezkeru jakin bear diran lau gauzak; ta oek dira *Kredoa, Aita gurea, Amar mandamentuak, ta zazpi Sakramentuak.*

G. Zergatik erakatsi bear zaie txikitxotatik?

E. Errazago ikas, ta errazago gordetzen dalako aurtxoa danean ikasten dana; mugonez egin ditzen akto fedeko, esperanzako ta amoriozkoak arrazoia eldutzeko egunetan. Zein erraz ta ongi ikasten degun jaioterriko itzkuntza! Zergatik ala? Zeren mingaña samurra dagoan ta jiraeraza lenengo urteetan. Ezta arritzeko gauza zenbat ipui luze, berriketa ta kanta soñu ikasten duten mutil ta neskatxatxoak zazpigarren urterako? Eta bear

bada berritxu, soñulari ta ipui ikasla oek ez dakite Aita gurea ta ez ondo ziñatzen ere. Nondik dator au? Erakasten etzaitelako, gurasoen arretaga-beagatik.

G. Asko ote da erakastea buruz ondo ikasten duteen bestean?

E. Ez; buruz ikasten duteenean, edo beintzat ondo ikasita, adirazo bear zaie zer esan nai duteen itzak. Guraso erri batuetan bizi diranak, zergatik eman ez eskola umetxoai ikasi deken irakurten, ta onen bidez doktrina santua? Zenbat on dakar erakurten jakiñak? Etxeetan erakurriko lirake libru onak, gurasoak berak ikasiko lituzkee jakin bear asko; eragotziko lirake izketa alper edo txatarrak; jakingo lukee nola konfesatu, komulgatu, ta ondo bizi izan. Zein gauza negargarria ekustea astegunetan mutiltxoak alperreria garbian kale, zoko, ta joko-lekuetan beste asko eskolan dauden artean! Etxealde, edo baserrietako umetxoak ez dute guziak erarik eskolara joateko, baña nola ez, erri bildu edo barruetan bizi diranak? Ona zein moldetan erakatsi bear zaien umetxoai doktriña santua. Erakurten ikasteko, dio San Anbrosiok, erakasten zaie lenen, letrak ezagutzen, gero geldika bildu edo batutzen, geroago zati batzuek erakurten, ta ala geldika arkitzen dira edozein libru erakurteko erraztuta. Ala bada, dio Santu andi onek, erakatsi bear zaie gaztetxoai; lenengo, buruz geldika; onen ondoren zer esan nai duteen itzak; gero nola bizitza ona eraman bear dan, nola iges egin bekatutik, nola konfesatu garbiro ezer gorde gabe lotsaz, nolako debozioarekin eldu komulgatzera, ta nola eskerrak astiro eman Jesu Kristori. Baña zertan iduki bear duteen kontu andia, da bidaltzean doktriña santuko esplikaziora. Buruz ondo dakiten mutiltxo neskatxak asko aurreratuko dira kura edo erretora jaunak egiten duen esplikazioa enzunaz. Ejenplotxoren bat enzuten badu ipuiak ikasten dituzten erraztasun ta pozarekin ikasiko dituzte; kontatuko dutee etxean. Dabid errege santuak zion, berak umetatik, lenengo urteetatik iduki zuela Jan-goikuaren aginduen ezaguera ta berria. *Initio cognovi de testimoniis tuis.* Argizai samurrak arteen du edozein sillu edo marka; dala Jesu Kristoren irudi edo imajiñarena, naiz mauru batena; naiz San Migelena, naiz bere azpiko beltz itxusiarena. Enzuten duteena sillatzen ta eraasten da gazteen biotz samur ta bigun-errazetan. Enzuten badituzte birao, izen gaizto, edo itz madarikatuak, irtengo dute biraogillak, ta ao gaiztokoak. Enzuten badituzte itz onak sarri ta amorez esanak, gorroto izango die biraoi ta itz gaiztoai. Kanpoan ikasi ez dezen gauza gaiztorik esaten edo egiten, azarri ebilli bear dute guraso onak; zaitu nolako lagunekin biltzen edo alkartzten diran. *Umeak dauzkatu?* esaten dio Espiritu Santuak, *eman bada erakaste edo dotrina ona, ta obendu itzatzuz txikitxoak diran artean. Filii tibi sunt? Erudi illos,*



et curva illos a pueritia illorum. Lepo gogortzen badira, ezer egingo ez dute; buru gora badabiltza txikitan, munduko legeai erasten badira, ez dute lepoa makurtu naiko eramateko Jaunaren legearen uztarria. Landaratzko gaztea erraz sustraitzen da lurrean, zuzentzen ere bai aizeren batek okertu badu. Baña aldatu nai badezu arbola sendo egin dan bat beste lur batera, ez du geienez sustrai berririk emango, ta igartuko da. Aize portitzen batek makurtu badu, utzi bearko diozu dagoan bezela; oker etorri bazan lenengoan ta lenengo okertualdian zuzendu ezpazan, ausiko dezu, baña zuzendu ez gerora. Ori berori esan bear da gazteak gatik. Gaztetxoak diranean seme-alabak zuzen erabiltzea gaitz ezta; zigor, edo agiraka batek beldurra emango die, ta beldurrez bada ere aldegingo dutee gaizki egite-tik; gero amorezko itzakin, konseju onekin, etorriko dira birtutea maitatzera, bekatuari gorroto artzeera, errosario ta elizazaleak izatera, gurasoai ondo nai izatea. Ordea, azi badira gaizkian, iduna gogortu bazaie, lotsa galduko die gurasoei, esan onik egingo ez dute, ebilliko dira lagun gaiztoekin, etorriko dira berandu etxera; zerbait esaten badie gurasoak, itz txarrekin eranzungo die, ta gurasoak izango dituzte egun gaiztoak lenengon-an bear bezela azi etzituztelako. Jangoikoari begiratuko ezpalie ere, den-datu bear lirake gurasoak, umeak Jaunaren beldurrean azitzera. Ume Jangoikoaren beldurrekoak ekarriko die lotsa, onra ta laguntasun geiago gaizto lasai ta animaren konturik ez duteenak baño; etxeari ez die anbeste gas-taerazoko, nola gaizto mundura emanak. Onetarako zer egin bear da? Aurtxotatik, edo zerbait ikasten asitzen diranetik eraatsi beren belarrietan itz onak. San Luis Errege Franziaikoari txikitxoa zanean, esan oi zion bere ama onak: *Luistxo, naiago zinituket ekusi illik korputzean, jakin baño egin dezula bekatu mortal bat.* Soñu au txit sarri jotzen zion belarrian, ta anbeste eraatsi zitzaion biotzean, non da bizitza guzian gogoan erabilli zuen, iñoiz bekatu mortalik egin gabe igarotzen zuela, ta ala irten zuen santu andi. Erakatsi bear die goizean jaikitzen diranean Jangoikoari eskerrak eman, ta eskintzen egun guziko bear, ikaste, ta zeregiñak; eragin berekin fede, espe-ranza, ta amoriozko aktoak; erreza erazi iru *Abe Maria* Ama Birjiñaren onran, eskatzen zaiola gorde ditzala egun artan animako ta korputzeko erorbide, edo okasio galgarrietatik. Gabaz oera dijoazenean oro bat artue-razo, edo egotzi ur bedinkatua, errezaerazi iru *Abe Maria* Ama Birjiñari, zerbait Aingeru Zailla edo Goardakoari, gorde ditzan etsai gaiztoetatik. Berriz egun artean erlojuak jotzen duenean esan dezatela *Abe Maria*, egu-noro Errosario santua, jan orduetan mai bedinkatzea asieran, ta azkenean esker ematea. Sarri aitatu zein ona dan Jangoikoa, nolako sariak dauzkan Zeruko glorian emen onak diranentzat, nolako kastigoak Infernuan gaiz-

toentzat. Nork esan lezake zenbat frutu artuko dan gerora onelako azie-ra ona ematen bazate txikitxotatik? Ordea, nolako asipenak izan oi dituz-te umerik geienak? Nolako utsegiñak guraso askok konturik ez idukitzea-rren Jangoikoak bera serbitzeko eman dizten umeekin? Arritzeko gauza! Ain arreta gabeak dira guraso asko, batezere nakazarien artean, ezen era-tzoten dituzten berekin oe batean sei ta zazpi urteko umetxoak, jakin bear ez dituztenak ikasteko bidean. Oro bat neskatx ta mutiltxoak, neba ta arrebatxoak oe batean alkarrekin. Zenbat anima gazte galdu ez dira bide onetatik? Deabru animazaleak ez du lorik egiten; egiten du alegiña gazte-txoai galerazitzeko bateoan artu zuten grazia; argitzen ditu gaitz egiteko, onerako ezaguerarik ez duten egunetan. Guraso kontugabeak usteko du lotan daudela umetxoak, ta bear bada egongo dira zelataka ta zaitzen bear eztana, ta atsegin gaiztoak artutzea ixiltxorik, edo eskuka zatarrak egiten. Nork sinis lezake bost edo sei urteko aurrak egin ditzaketela andi gaizto-en asmo zital lotsagarriak? Deabruak azkortzen ditu, batezere gauza bear ez dan bat ekusi badute. Animako etsai andi onek badaki zenbat kalte eto-rrri oi diran lenengo urteetako bekatuetatik. Batzuek jarraitzen die geroa-go ta geiago txikitan artu zuen oitura gaiztoari; beste batzuek jarraitzen ezpadie ere, lotsatzen dira konfesatzera txikitan egiñikako akzio loiak; gero zenbat sakrilejio, konfesio ta komunio gaiztoen bidez? Sinis lezake? Badira gurasoak beren buruekin ekusi duteenak esan dedana, ta orregati-kan ere ez konturatu zer gerta ditekean bere ume gaixoe-kin. Negar egite-ko gauza! Gela batean gurasoak, ume azitxoak, ta bear bada morroe ta mirabeak. Nai nuke mundu guzira eldu ditekean itz zoli zoli bat esateko: *Gurasoak, eragotzi bai umeen bekatubide guziak. Kontu, nola zabiltzaten oe ta gela oriekin. Zuen eskuetatik eskatuko ditu Jaunak umetxoan animak. Iduki amar begi baño geiago zaitzeko peligrak. Ez uste izan, txikiak diralako oker biderik ikasi-ko ez duteela.*

Jauna, esango dute bear bada; enzun degu ori bein baño geiagotan; ezagutzen degu arrazoiz itz egiten duela; baña zer egin genzake oe gutxi ta gela gutxi baditugu etxean? Etxejaun aberatsak bagiña geituko ginituke oe ta guziak, baña ezer ez degu; nekez bizi gera. Etxe-jabeak errenta diru edo gariak artutzeko prest daude, baña ez obrak egiteko. Au aitatzea litza-ke aserraerazitzea, ta etxetik botatzeko bideak ematea.

Ah! nekazari gaixo onenbestean mendeturik zaudeen etxeko jabeen gogortasunez! Zer esango dizuet? Ez dezutela oerik non eratzo banaan umetxoak, naasi ipiñi gabe arrebatxoak nebatxoakin? Bearrak zakaztela alaba edo seme azitxoak oe baten eratzotzen guraso biakin? Zer egin dezakegu diozute? Zer? Nola ala konpondu nekez bada ere. Obe da emen



zerbait igaro korputzean anima galdu baño. Egin al dan guzia erosteko oe zatartxoak badira ere. Erregutu Jaunaren amorez etxejabe, edo ugazabari geitu ditzala egotegi edo gelak essi (sic) batzuegin bada ere. Iduki eraaspen edo konfianza geiago Jangoikoagan, zeñek ondo bizi bazerate lagunduko dizue guzirako. Badakit kontu estuak artuko dizkeela Jangoikoak etxejaun zeken, diru batzalle zikotzai, errentak osoz artu ta etxeakin konturik ez duteelako, obligatzen dituztela errentero gaixoak egitera etxeko obra bear bearrak ere.

Badira ordea ondo bizi diran etxe jabeak utsegiten duteenak gauza onetan; daukatenak zerekin oek geitu, ta gela geiago egin, ta nagitasunez, dirurik atera naiezaz, edo anima galtzeari begiratu gabe, eratzoten dituztenak semetxoak alabakin, edo oek berekin oe batean, gaisto izatea ikasi dezakeen urteetan, edo bai semetxo onelakoak mirabeakin. Egunen batean jakingo da orain sinistu nai ezdana, ta da, nola asko ta asko kondenatu ziran gauza onetan kontu andi bat ez idukiagatik. Idi ta beiekin ardura geiago eduki oi da. Ekusten dira korteetan toki bana edo bereziak. Baña ez bide du balio geiago, askoren iritzi edo egiñetan, animak abere batek baño.

G. Zertan iduki ere bear dute gurasoak kontu andi bat?

E. Beren umeak bildu, batzandu, edo alkartu ez ditezen lagun gaiztoakin *ez zabiltzala, nere Semea, pekatariakin, larga aien bide gaiztoai*, dio Espiritu Santuak. Gauza gaiztoa errazago eraasten da, ona baño. Lagun gaiztoak dituzte itzkera lasai txatarrak; ta San Pabloren esanez, galdutzen dituzte oek oitura onak. Gaiztoak aitaturko dituzte izen zatarrak, erakatsi jakin bear ez diranak. Oetatik sartzen dira gogorazio itsusi ta aragia arrotzen duteenak. Dator gero ekusi edo egin naia, ta azkenik guziak egiten dira alkarren lagun gaizkirako. Mutil gaizto bat asko da galtzeeko beste eun gazte; neskatz lasai mutil zale batek galduko ditu asko neskatz berez doktriña onean azi ziranak. Ala bada, ez dute gurasoak laketu edo permititu bear beren umeak alkartu ditezen lagun gaiztagiñakin. Zaitu bear dituzte, non dabilzan, nola dabilzan, non igarotzen dituzten orduak jaiegunetan.

Erraz esaten da ori, diote guraso batzuek; baña ezin ebilliko gera iñude bat aur txikiarekin bezala. Joan nai dute jai edo pesta egunetan dantzera. Nola eragotzi? Esango digute besteak ere badabilzala. Etxean loturik idukiko ditugu? Au da betiko soñua. Ah gurasoak! Erakutsi baziño alabari txikitxotik, zein kaltegarriak diran ibillera, jolas, jostatze naasi mutil neskatzakikoak, gorroto artuko zien. Baña erakatsi diezu beste bide bat. Aurrerengo bazerate alako lekuetan, zer ikasiko dute alabak? Danza

dezatela ordu gaiztoan bide gaiztoko alabak, sasikumeak, dio San Ambrosiok aserre santu batekin, danza dezatela Herodianaren gisako alabak, baña guraso prestu, onradu, ta kristau batek erakatsi dezola alabari, ez danza, ta bai Jangoikoaren lege garbia. *Saltet, sed adulterae filia; que autem pudica est, religionem doceat, non saltationem.*

Jauna, erregutuzten dute, ez du berorrek munduarekin konturik atezaten. Gaurko egunean irten edo plazakoak ezpadira neskatzak, ez dute arkituko ezkongairik, geldituko dira izebatzat, ordea ederki janzi ta dantzaten badira izango da mutil bat edo beste billatuko duena. Bestelakoak dauzkee monjagaitzat. Ez dira baketzen iraunsi oekin; esango ere die alabai: Zoazte pestara; janzi zaitezte onela edo ala; ta alabak nai ez padu, ekin ta ekin, jardun ta jardun; ha epel, txaldan, gatzgabe, ta ezertako ez aizana, eliza bazter batean kokoturik egoteko baño, larga eien erakeria oriei, gazteak bere denpora bear din, gu ere onela oi giñan. Zer gauza txar arkitzen den danza orietan? Ire konfesariak etziakin zer ondo dan munduko izateko. Onela ereiten dituzte azi gaiztoak seme-alaben biotzetan, nasaitzen dituzte, ta gero ekusten dira anbeste ezkondu kontu, Elizan ezkondu baño leenago; anbeste buruko miñ, ta gero dakustenean neskatz galanta mutillak ukatzen diola, edo ezkontza itza (zeiña oi dan aurrerena bekatu egin baño leenago) edo bai dala aurraren aita, orduan negarrak, biraoak, auzia, zer esanak, kostuak...ta esateak: ez nuen uste onelakorik egingo zidala nere alabak. Baña zer? Nasaitasunak ez dakar amorea, onek oniritzia, sentiduen askatutasuna, ta emendik edozein gauza? Adiña edo zenzu apur bat daukan mutillak ez du naiko ezkontzarako neskatz ero, ebiltari, ta molde gaiztoko. Ezagutzen badu dala erorreraza bekatuan, gerorako ere beldur izango da, ta beti biziko da susma, zaio, edo errezero gaiztoan. Neskatz garbi, begiratu, elizazale, ta Jangoikozkoa ohea izango da ezkondu bear duen gizasemearentzat, etxea zuzentzeko, burua gordetzeko, senarraren borondatea egiteko, neskatz gaizto, lasai ta gizazale bat baño. Ezkondu baño leenago garbia izan dana, garbi izango da ezkondu ere; eztio senarrari ezkutuko gaiztakeriarik egingo.

O gurasoak! Zaitzen dituzte ganaduak aldendu ez ditezen; ostu ez ditzen lapurren batek; enzuten danean dabillega txakur amorratua, bereala sartzen dituzte etxean. Zenbat, zakur amurratuak baño pozoi geiago duten gizaseme, dabilza kale, karrika, edo plaza orietan usikitzen duteenak anima itz labañakin, esku askatuakin? Eta agindu alabai irten dezatela etxetik oen ortzetara joateko? Eta maite dituzutela umeak? Eta izango zeratela ain kontu gutxikoak? Badira bai guraso ain gaiztoak, non da beren etxeetan ta begietan arkitzen duten umeak galbidea. Biltzen dira



auzoetako mutil neskatxak ta etxeokekin bat eginda dabilta etxean bertan danza ezin gaiztoagoetan, eskuka, apaka...ta gurasoa begira parrez. Norako dira onelako guraso ta seme-alabak? Deabruari leku eman etxean, igeserazi Aingeru santuari, zer itxaron dezakete azkenean?

Eta gurasoak eragotzi bear ote dio umeari artu nai duen estadia? Onen gañean itzegin da leenagoko doktriñan, aitatu diranean umeen obligazioak gurasoakgakiko. Emen esan bear degu utzi bear diela umeai aukera edo libertade osoa. Sartu nai badute relijioaren batean, ez nai ez gogorrik erakatsi. Eskatu bai gizon birtutetsu ta jakitun bati aztertu edo esamina dezala dan edo ez bide oneko edo Jangoikoagandik jaioa dei edo bokazioa. Badiruri dala gizon aituaren iritzian, ez atzeratu, ta bai lagundu. Indarrez atzeratzen dituztenak, izango dituzte buruko min asko lurrean ere. Ezkontzako bidetik joan nai badute, ez obligatu relijioan sartzeera, baña ez utzi artu dezan adiskidetasun gaiztorik; zeren bide okerreko ezkontzak, dakarte Jangoikoaren aserrea. Gurasoak ebilli bear dute aurrerenak ume ta etxearentzat ona izango dan ezkontza egiteko. Erabaki bada ezkontza, itza eman, gorde ta zaitu ondo umea; ez larga alkarrekin egoten, zeren Deabruak puztu oi ditu gauza okerrak egiteko bitarte artan. Apaiz izan nai badu, begira nolakoa dan bizimodua. Bizitza nasaikoa bada, atzeratu bear du asmo ero artatik, bada Jangoikoak deitzen ez ditu Sazerdote izatea bizitza oneko ta birtutetsuak ez diranak. Baña zer gertatzen da geienekin? Etxearekin kontuak ateratzen dituzte, ez animaakin. Gurasoak ebakitzen dute bokazio edo eman gogoak. Au etxerako, bestea Elizarako. Eta gero zenbat kalte?

G. Eta iñoiz kastigatu bear da seme edo alaba?

E. Bai, baña amorez, bear orduetan, ta ondu ditezen gogoz, ez neurri ta modu gaiztoan. Ona zer dion Espiritu Santuak: *Zigorra ez darabilen gurasoak*, ez du maite semea, ta gaizki nai dio. Eta San Pablok: *Ez aserra erazi* gogortasun modu gaiztoekin *zuen Semeai*. Ezagutu dezatela ematen zaien kastigu edo zigorrada, dala ondo naiz, maitetasunez, ez gorrotoz. Uts egiten da bada ez egiñaz, ta gaizki egiñaz. Ez egiñaz, erruki kaltegarritz kastigatzen ez diranean bear dan orduan.

G. Noiz ordea bear da zigorra artu umeak kastigatzeko?

E. Ez ariñegi, baizikan bear bearrean, amorez ta beste bidez eskuratuko ez danean. Ume batzuek ezi ta eskuratzen dira errespeto, itzal, edo aurpegiko begirauneakin; beste batzuek sari, ta ondo esanekin; beste batzuek dira lepo gogorrekoak, tema gaiztokoak berearekin irtetzeagatik urkatuko lirakeenak; ondo esanez baño beldurrez geiago igitzen diranak. Ala bada ezin eman genzake zuzenbide bat guzientzat. Gurasoak ezagu-

tu bear dituzte sustraitik seme-alaben jenioak, ta oetatik aterako dute nola ondo azi, amorez, erreguz, palagatzez, sariematez, edo beldurbidez, azote, zigor, masallako, jana gutxituz, illunbean idukiz. Beti billatu bear du zuzentzea okertzen asi dana; baña ez bere pasio aserrekor edo koleratsua asetzea. Badituzu guraso mauru-gisakoak, edozein utsegite gatik kolpeka banatzen ta mankatzen dituztenak, itz on bat ez duteenak, ta bai demonioai deika, biraoka ta araoka etxea goitik beera irabiatzen dabilzanak. Katillu bat naibage, edo uste ezean ausi badute, nolako iskanbilla, ospe, deadar ta kolpetzarrak? Zertako kulpa gabe gaixoak banatzea? Morko, ta katilluak, edanonzi, ta bondillak (sic) nork nai ausi litzakez eskuetatik erorita. Onelakoetan asko da agirakatxo bat, kontuz ibilli ditezen.

Zergatik artu bear dan zigorra, edo azotea, ona emen. Aitak ekusten duenean umeak ekartzen ez diola lotsa ama, edo guraso zaarrai, beldurra sartu bear die. Aita baten begirune itzaltsu, edo zigorra artze bat geiago da, amaren belar-ondoko, masallako, ta deadar guziak baño. Amari lotsa gaiztoa ekartzen dien umeak gutxitan ekusiko da aitari begirune astun bat egiten. Argatik alargun emakumeen seme-alabak daude lotsagabeak izateko peligro edo arrisku andian.

Ondo esan da, Elizatik igesi dabilzan umeak, mezako denporan jostatzen diranak, mugonez etxera ez datozanak, biraoak egiten dituztenak, ta itz batean, Jangoikoaren kontrako gauza ezagunak egiten dituztenak oituraz ta inklinazioz, bear dituzte zigorradak. Utzi itzai, utzi deadar ta biraoai, ta mankatu edo azurrik ausi gabe, oratu azoteari; *gogortu ez didin, minberatu bere alboak*. *Tunde latera eius dum infans est, ne induret*; ala agintzen du Espiritu Santuak.

Baña zer egin gogortu bada umea; jo ta guzi ondu nai ez duena, onera ta gaizkira artuta ere egunoro gaiztoago dagoana? Zer egin gurasoari jaikitzen *danarekin*, itz bat esaten bazaio, ogei gogorragoak eranzuten baditu? Zer egin konseju onik artu nai ez, ta bizi bada Jangoikoak eragotzi dituen bide gaiztoetan? Gurasoak: zuzendu bear zerate Jangoikoaren aurrera orazio edo eskaari beroekin. Larga biraoai, ta madarikatzeari. Bide au gaiztoagoak egiteko da. Biraoak eransiko zaizke, ta etorriko dira naigabe ta burukomiñak. Monikaren negar ta orazioak goiz edo berandu enzunak izango dira. Ez aspertu erregutzez Jangoikoari; jo sarri bere miserikordiako atean. Zer egiten zuen Job Santuak? Bere umeak onak irten zeken, jaikitzen zan egunoro txit goiz, ta eskintzen ziozkan Jaunari sakrifizioak, ta ala etzioen iñoiz burukomiñik eman. Ezekias ta Josias Erregeak txit santuak ziran, baña beren semeak etziran ebilli beren urrats, edo oñatsetatik; gogortu ziran itz, ta jarraigarri onetara. Baña ekusi dira



seme-alaba aldi batean gaiztotu asko, etortzen bide zuzenera gurasoen orazioak dirala bitartez.

Ordea kontu andia ekusten ote da gurasorik geienetan? Orazio asko ondu ditezen umeak? Dirudite egiten duteela alegin guzia umeak gaiztoak izan ditezen. Zer enzun ta ekusten dute etxean? Birtuteko bidea, edo bekatukoa? Biraoak ugari, iñongo basoetan ostu egurrak, egin kalteak. Bear bada eman konseju umeari arrapa dezala iñoren ardi, edo auntza, jan etxean; agindu joan ditezela munduko ebillera nasaietara; jakin dabiltzala lagun gaiztoekin, ta begitandu gazteak gazte edo gaizto izan bear duteela. Etxera badatoz berandu milla gaiztakeria eginda, edo egingo dituztela ezagutu bearrean, itz makal batekin larga. Eta gero, zer gertatuko da? Zer itxedon dezakete ume gaiztoetatik? Ondatu etxea ezkutu edo agiri; amorerik ez gurasoai. Zer da gauza sarriago ekusten danik? Guraso batek largatzen badu semea ondasun andien jabe; seme ura gaiztoa bada, emakumezale, ardanzale, edo jokolaria, laster ondatuko ditu ondasunak, guraso ta asaben neke izerdiakin bilduak. Doterik ederrena da Jaunaren beldurra. Tobias gaztea utzi zuen aitak ondasun andien jabe, ez zekentasunez ta diruen zalegitasunez bildu zituelako, ta bai limosna andiak ugariro bedinkatu zituelako Jangoikoak. Seme on ta santu oni aita onak beste konseju on askoren artean agindu zion, izan zidilla limosnari edo pobrezalea. Eta galdu zuen etxea? Ez iñolaere. Bere ogitik ematen zien gose ziranai; larga zuen munduan izen ona, etxea onra andiarekin, ta anima Zerura zuzendu zuen. Berriz seme gaizto ondasun andien jabeak, dira edo zeken dollor batzuek, dirubatzalleak, iñork ekusi ezin dituenak; edo ondatzalleak bide gaiztoz; pobrei eman bear ziena daramatela edo emakume gaiztoa, edo jokoak, edo gastu alperrak, bearbada zor andiekin etxea larga ta ondorenak bere izena madarikatzen duteela. Seme-alaba onak aztuko ez dira gurasoekin, oek ill da ere; lagunduko die purgatorioan badaude limosna, orazio ta meza ateratzeekin. Berriz gaiztoak ez die kausio edo jaramonik egingo.

Baña nolako kastigoak izango ez dituzte gaizki azia gatik beren umeak? Nor arritzen ez da erakurri ezker Eskritura Santuetan gertatu zitzaionaz Heli zeritzon gizon bestetik guziz onari? Seme bi zituen zekentasunez edo ondasun naiz atzeratzen zituztenak asko Jangoikoaren sakrifizioetatik. Ezagutzen zuen aitak, ta zigorra galanki erabilli bearrean, bakarrik artu zuen agiraka otz, ta makal batzuek egiteko bidea. Nolako aserrea baña agertu zuen gero Jangoikoak, kastiguaren bidez seme gogor gaizto aiek zuzendu etzituelako? Egun batean kendu ziozkan Heliri, ta ill ziran bere seme biak, ta guzi orren gañeko zama, ta geien bat Heli mindu

zuena, Testamentuko Kutxa santua ere arrapatu zuteen etsaiak, ta berri au enzun zuenean, erori zan eserita zegoan aulkitik, ta gelditu zan bera ere illik, ta igaro zan bere ondorengo askotara Jangoikoaren aserrea, iltzen zirala zaartu gabe urterik ederrenetan. Zer kastigu egingo du, gutxienez beste munduan, ejemplo edo jarraigari gaiztoak ematen dituzten gurasoekin? Zer itz edo konseju okerrak ematen dituztenekin?

Nai dizueta kontatu San Agustin jakitun, ta egia zaleak dakarren gertaera bat, ta bera Hiponako Obispo zala igarota. Zirilo zeritzon Jaun batek zedukan seme bat geiegi naiz largatzen ziona lasai bizi izaten, ta irten zuen buru gaiztokoak. Egun batean lagun bera bezelakoakin jan edanean zegoala, berotu zuen ardoak, joan zan etxera zezen bat bezela, ta oratu zion amari, zein zegoan aurreragoteko; geroago esetsi zion bere arrebatxo bati bekatu eragiteko. Nekez gorde zuen bere burua deadar ta igesari emanda. Topatu zituen beste arreba biri, eman zien eriotza, ta azkenean ill zuen bere aita gaizki azi zuena. O gurasoak! Azi umeak Jangoikoaren beldurrean, ta izango zerate zorionekoak lurrean ta Zeruan. Ona emen beste ejemplo edo gertaera atsegingarriagoa.

Erakurten da Erromatarren libruetan kondenatu zutela bein erriko agintariak gizon bat iltzera gosez. Sartu zuten presondegi estuan, ta debekatu zuten iñor sartzea jatekoa eramateko. Zedukan alaba ezkondu ta umetxo bat bere bularrean azitzen zuena. Zer asmatu zuen ume errukitsu onek? Joan zan karzelara, eskatu zuen lizenzia bere gurasoa ekusteko. Nekez bazan ere, iritxi zuen sartzea, baña ondo ekusi ezker etzeramala jatekorik. Aitari ixiltxorik ematen zion bere ugatza edo bularrekoa aurtxo bati bezela. Egun askotan egin zuen ala. Galdetu zuten Juezak, ez ote zan ill gizon ura anbeste egunen buruan? Artu zuten estu, ta galdetu zioen nola zegoan gosez ill gabe? Eranzun ta aitortu zuen, nola bere alaba ona sartu zan egunoro bera zegoan tokian, ta nola bere ugatz edo bularreko arekin bizitza gorde ta luzatu zion. Jakin zutenean juezak deadar egin zuten, O! alaba ona baño obeagoa! Ez dezu irabazi kastigurik, ta bai sari andiak. Ez du ill ere bear, zu bezelako alaba azi duen gurasoak; ta ala atera zuten karzelatik. Oni deritzazu asko? Enzun andiago bat.

Toledon, Don Pedro gogorra Errege zan egunetan, bizi zan zillargin bat, zeñi asmatu ziozken gezur astunak, ta kondenatu zuten iltzera leku agiri batean. Jakin zuenean bere seme batek, zuzendu zan juez, edo sententzia emalleetara, ta esan zien: Jaunak, mesede bat egin bear didate, ta da barkatzea bizitza nere Aitari, ta neu naramatela urkamendira; pozik illko naiz bere orde. Ez orrelakorik, esan zioen juezak. Irten etzuen bere gogo ta asmoarekin, joan zan beste juez edo agintari nagusiago bategana



eskaari bera egitera, ta iritxi zuen nai zuena. Atera zuten aita katigotegitik, ta sartu zuten semea. Aitak jakin zuenean zer gertatzen zan, joan zan seme onagana, ta esan zion: Nere seme onegia, ez det nai lurrean bizitzarik zuk galtzen dezula; oben, edo kulpagabe nago; baña zuk ere ez didazu orrenbat zor, ta naiago det neuk irten urkamendira, zu joatea baño. Ala zoaz etxera, ta nik igaroko det eriotzako sententzia. Aita, zer diozu? Ez dizudala onenbat zor? Jangoikoaz bean zeuk emana da dedan bizitza; zere arpegiko izerdiarekin iraunerazi didazu, zuk eman ere jan dedan ogia. Ala ez det gauza andirik egingo, bear dedana baizik zure orde zere nere bizitza emateaz. Nork ekusi zitzakean guraso ta seme on oek burruka bezela, batak baño besteak geiago nai zutela eriotza artu? Azkenik, irten zuen semeak berearekin. Atera zuten kalerik kale urkamendira eramateko; bildu zan jendea ugari ekustera sinistu ezin zutena. Pregoilariak esaten zuen oiuz ta deadarrez, seme au daramate eriotzara bere nai utsez, aitari bizitza gorde nai diolako. Nolako negar ta errukia jende ekusleena? O seme ona! esaten zuten, Jangoikoak etzaitu largako sari andi gabe anbeste maite dezulako zere gurasoa. Juezak berak ere nai zituzten atera biak eriotzatik, ta jendeak eskatzen zuen barkazioa. Ordea denpora gogor aietan, etzion barkatu eriotza juez nagusi errege gogor aren gisakoak, ta ill zuten. Ill da ere laztantzen zuten jendeak, ta egin zioen enterru onra andiko bat, bere anima zorionekoak premiarik izango ezpazuen ere Jangoikoaren aurrean. Umeak, zer diozute gertaera au enzunda? Egingo zenukete zuek onenbeste gurasoak gatik? Edolarik, zertako lagundu ta onratu ez? Gurasoak, badakutsute zein zorionekoa izan zan aita aitatu deguna, azi zuelako ondo ta Jangoikoaren beldurrean seme bere amorez bizitza galdu zuena? Zorionekoak bai guraso ume onak dauzkeenak. Zorionekoak ume gurasoak ondo azitzen dituztenak. Madarikatuak emen ta gero seme ta guraso gaizto ejemplo txarra eman ta artu dutenak. Gurasoak, ez naiz aspertuko esatez San Pablarekin, *Azi umeak Jangoikoaren eskolan*, itz ta jarraigarrri edo ejemplo onekin. Oroi zaitezte au dala zuen obligazio txit estua, ta zuen eskuetatik eskatuko dituela Jaunak beren animak, ta izango zeratela dontsuak orain ta gero, bizitza onean alegiñez largatzen badituzte. Ala izan didilla.

ERAKASTE XV.

Gauza beraren Jarraitza

Obedite Praepositis vestris.

Ikusi ditugu leenagoko erakasteetan Umen, ta gurasoen eginbide edo obligazioak alkarrekiko; baña geiagora zabaltzen da Jangoikoaren Legeko laugarren mandamentua.

G. Nola ori?

E. Gurasoen izenez aditzen diralako nagusiagoak urteetan, dignidade, ta agintzeko eskubidean.

G. Ezin aituko det esan duena argiroago ta zeeago adirazotzen ezpadit.

E. Atsegin andiarekin azalduko ditut itz gutxian esanak. Guraso ordekoak dira batzuek animaren aziera ur urrekoa emateko kargua duteenak, edo anima zaiak. Oek dira, Eliza guzian Aita Santu Erromako, Kristau guzi guzien Burua, Kristoren ardi ta bildots guzien Arzaia. Gero Obispo Jaunak bakoitzak mugatuta dauzkan errietako kristauetan. Oen mendean kura, edo errietako erretora, au da anima zuzentzalleak. Gurasoen izenean aditzen ere dira. Abade, sazerdote, edo apaiz guziak, dirala relijiosoak, dirala mundukoekin kanpoan bizi diranak, ta oen artean bakoitzak bere konfesorea, zeñi ematen dion erregek berak ere aitaren izena. Oek guziok daukate animak zaitzeko ta zuzentzeko obligazioa, batzuek geiago, besteak baño. Guziak alkartu bear dutee gerra emateko infernuko etsai animaak irentsi nairik dabilztanai, edo erakatsiz edo orazio modu askorekin. Oek gatik geien dio Apostoloak, *Egjzutez zuen agintarien esanak; eman bearko duteelako Jaunaren aurrean zuen animaren kontua.*

Beste agintari edo guraso ordekoak dira munduaren aldekoak. Oek dira errege, bere mendekoen buru Jangoikoak ipinia; ta onen bean eza gutzen ditugun beste agintariak, zeintzuek gorde bear duteen erri ta etxeetan pakea, ta eman bakoitzari berea, ta erriertak diranetan; edo nere da, arena da esaten danean, erabaki bear duenak zuzen, noren aldetik dagoan arrazoa. Au onela ezpalitza, nola ibilliko litzake mundua? Ezpalego agintaririk kastigatzeko eskubideaz, zenbat lapurreta, zenbat eriotza, zenbat errierta? Indartsuagoak beretuko litzuke besteen gauzak, ta lurra izango litzake Infernuaren irudi bizi bat. Guziak nai balute berdiñak izan, guziak naiko lukee agindu, ta besteen esanik egingez Gurasoak ez luke pakerik izango etxean, morroiak jaikiko lirakee etxeko-jaunen kontra;



mirabeakin ezin egingo luke bizitarik etzeko-andreak, ta guzia izango litzake baralla, iskanbilla, ta atralaka gogorra.

G. Ori orrela izango litzake; baña zertako egin zituen Jangoikoak gizonak desberdintasun onelakoan? Zertako batzuek aberats, besteak premia estuetan? Zertako batzuek agintatzen, ta beste gaixoak burua goratu ezinik andien mendean? Guziok gera kreatura Jangoikoak egiñak, aita baten umeak bezela, Kristoren odolarekin erosiak. Zertarako anbat kate, ta mendetasun?

E. Atoz ona kristaua, nai diozkatzu Jangoikoari kontuak artu? Bada zera Infernua jo zuten Aingeru gaizto Demonio egin ziranak, bezelakoa. Oen bekatua Zeruan izan zan Jangoikoarekin bat izatea; ez bururik eza-gutu naia, *similis ero Altissimo*. Luzifer Aingeru nagusietakoak erein zuen Aingeru eder askoren artean azi gaizto edo doktriña txaar au, ta beren andinai ta arrotasunaren kastigoan, jaurtikiak izan ziran Infernura. Luzifer gaizto kondenatuak irten zuen berriz lurrera doktriña bera erakastera gure lenengo guraso Adan, ta Ebari, esaten ziola oni, Jangoikoa beste izango zerate jakiturian, berak debekatu dizuten Arbolako fruta jaten badezute. Gezur onekin galdu zituen; eta Jangoikoaren Semea, ain andi izanda, txikitu zan serbitzari baten janzia arturik erakasteko humill ta beezaleak izaten. Egia da Jangoikoak nai duela guzietan berdintasun biotzeko bat. *Zuen artean andiena dana*, esan zien Kristok Apostoloei, *egin didilla txikiena bezela*. Zan esatea, ez duteela andi ta agintariak ere anduste ta arrotasun biotzekorik izan bear; maitatu bear dituztela beeragokoak ta ez iduki jentil edo argigabeko erregeak bezala agintatze astin ta beldur garri-rik. Zergatik egin ditu batzuek aberats ta besteak ondasun gabe? Ah gal-detze adin gabea, baldin lotsagabe esaten bada. Zorionekotzat daukazu aberatsa? Ez det nik erakurri Eskritura Santa guzietan aberatsak dirala zorionekoak, ta bai guzinez kaltegarriak lurreko ondasun geiegiak. Era-kurten det nik, guziz gaitza dala aberatsak salbatzea, diruetan amorio edo eraspina ez idukitzea, ta zekentasuna dala idoloak adoratzeta bezala. Era-kurten det, kondenatu zala aberats burugin, erruki gutxikoa, ta Aingeruak eraman zuteela Lazaro pobrea Abranen egotokira, ta ura zegoala Infernuan ur tanta batzuen eske suen artean, ta ematen etzioela; berriz Lazaro pobrea, zeñentzat izan zan ain gogorra, zegoala ezeren palta gabe atseren ederrean. Zertarako dira bada anima galtzeeko bidean ipintzen gaituzten gauzak? Beraz mesede egiten die geienez Jangoikoak ondasun andi gabe ipiñi dituenai. Zergatik Kristok autatu zuen beretzat pobrezaren bidea? Zergatik bere Ama Maria, ta Aita ordeko Jose egin zituen ondasun gabeak? Obetzat zedukalako pobre izatea aberats baño. Izan dira bai abe-

rats onak ere, egia da; baña oek ziran biotzez pobreak, pobrezaleak, berentzat bearra artu ta gelditzen zitaitena, zabaltzen zuteenak premia zeukatenen artean. Ala bada ez naigaberik artu aberatsak ez geralako. Berriz obe ez ote da humil humillik esanak egin edo obeditzea, agintzea baño? Zenbat errazago da humilla izatea mendeko izanda, agintari izan-da baño? Karguan karga andiak daude. *Esku andiko edo poderosoai itxaraten die tormentu andiak* beren obligazioai ondo eranzuten ezpadie; ala dio Espiritu Santuak. Españaiko Errege on batek eriotzako gaitzian esan zuen: Ai izan banintza konbentu bateko atezai edo portero! ango giltzak pisu gutxiago idukiko zuten nire koroa, ta zigorrak baño. Jesu Kristok ez du personeen banatasun edo desberdintzarik Zerurako gauzeetan. Ez maiteago Españaarra, Franzesa baño. Mauru belz gizonen begietan itxusia, ez da alakoa beretzat. Guziak erosi zituen bere odolarekin, guziai esaten die atozte nigana; guziak deitzen ditu bere maira prest badaukate anima. Borrero ondo bizi dan bat maite du, ta gorroto dio errege gaizto bati. Guziaz ere agintzen du, beeragokoak obeditzea goragokoai, pagatzea zorrak, honra, lotsa, ta petxuak. Errege, ta beste agintariai gaiztoak badi-
ra ere, agintzen ez dutenean Jangoikoaren kontrako gauzarik, zor zaie beti honra ta obediencia. Berriz ematen badute bekatu egiteko biderik, eranzun bear zaie San Pedrorekin, arrazoi geiago dala Jangoikoari obeditzea, gizonai baño.

G. Baña onelako munduko agintariei obeditu bear zaie beldur utsez, edo bai animako kargaz ere?

E. San Pablok argiro dio, zor diegula konzienziako obediencia, ta bekatu dala ez egitea beren agindu zuzen, edo bide onekoak; batzuetan izango da bekatu astuna, besteetan ariña, nolakoa da agintzen dan gauza, edo agintzen duenaren gogo. Anziñako kristauak bizi ziran errege gaizto ta fedegabeen azpian. Joaten ziran gerra bidezkoetara trikatu gabe; baña esaten bazien adora itzatzuez idolo edo erromatar ordukoak zeuzkaten Jangoiko asmatuak, ori ez, esaten zuten. Oro bat Kristoren legearen kontra ezer agintzen bazitzaian.

G. Beraz gaizki egiña da gaizki esaten egotea agintarien ordena edo eginbideak gatik.

E. Bai, Jangoikoaren kontra ezer agintzen ez dutenean. *Niri dagokit kontu artzea ta kastigatzea agintari ta guzien gaizkiegiñak. Mea est ultio. Nere aldetik denpora artzen dedanean, nik juzgatuko ditut juez edo agintariak.* Kristau onak ixiltxorik eraman bear ditu gogortzat dauzkan ordena edo aginduak; probatu nai ditu Jangoikoak bereak ta eroapen edo pazieniaz irabazi dezatela zeruko koroa. Eskatu bear diogu Jangoikoari argi ditzala aginta-



riak, ta ibilli ditezela bide zuzenean. Oek onela izanik, leenen leenen animako gauzeetan zor diogu onra, lotsa ta obediencia Aita Santu Erromakoari, ta onek erakasten badigu zein dan doktriña zuzena, zein okerra, sinistu bear degu biotzez ta bear orduetan aitortu aoz erakasten diguna. Ardiak joan bear dute arzaia daramazien larrera, edo belartegira. Aita Santu Erromakoetan beti gorde da kristoren doktriña ederra. San Pedrok erakatsi zuena erakasten da gaur, erakutsiko ere bai munduak dirauan artean. Mai onetan bildotsa jaten ez duena, arrotza da, dio San Jeronimok. Errege onak dira aurrerenak aitaren izena ematen San Pedroren ondorengoai, ta nork ez daki aitari zor zaiola onra, lotsa ta obediencia? Aita Santua ez da gurekin sartuko animari dagozkion gauzeetan baizik. Ez digu esango: Atozte gerrara, baña bai agertu, zein dan doktriña ona, zein txatarra, noiz ta zertan utsegiten dan kristauaren eginbideetan, noiz ez. Esango ere digu obeditzeko errege, ta agintariak agintzeko eskua duten gauzeetan. Kristauak geran aldetik zor diegu onra Obispo Jaunai. Oek ere esku andia dute Kristok emanda, ta dira animako guraso andi edo nagusien artekoak, ta erakasten ez duenean ezer Elizako doktriña jakiñaren gañean (ta ez du Jangoikoak laketuko guri erakastea) zor diegu lotsa ta obediencia. Errietako kura edo erretora jaunak ere erakatsiko dituzte elizan doktriña onak, ta erakatsiko balute txarrik, Obispo Jaunak artuko lukee bear dan bidea.

G. Eta zor diegu honra ta obedienciarik konfesoreai?

E. Bai, ta oek ere dira guraso errekoak, anima mantenitzen dutenak itz onen ogiarekin; erakasten digute Zeruko bidea, dabilitza gure animen billa, ta geiago zor diegu nolabait lurreko gurasoei baño. Ez det nik uste, emango digutela doktriña gaiztorik. Jangoikoak nai ez dezala, inoiz emango balute, eman kontu beste konfessore jakitun ta birtutetsu bati, ta emango zaio zuzenbidea. Sazerdotea izan diteke gaiztoa, Judas izan zan bezala apostoloen artean. Doktriña, ta conseju gaiztoa ematen duena, Zeruko Aingerua badirudi ere, madarikatua izan didilla, dio San Pablo Apostoluak. Ez jarraitu inoiz tentatzalleari, iges egin deabruari bezela edo geiago. Aita baten conseju txarrik ez dira jarraitzekoak. Aita gaizto bati ekartzan dio lotsa ume onak beste gauza guzietan, ez dio laguntzen gauza txarrean; errukitzen da, ta eskatzen dio Jangoikoari ondu dezan; ez ditu zabaltzen aitaren utsegiteak, ta Noeren Seme onak bezela estaltzen ditu ezkutuan egon bear diranak. Ekusiko banu nik sazerdote bat gaizki egiten esan oi zuen Konstantino Enperadore Santuak, estalduko nuke nere mantuarekin inork ekusi ta jakin ez dezan. *Sed vae illis Sacerdotibus, qui scandalizant pusillos, qui laqueos parant animabus Christi sanguine redemptis; qui, impudi-*

ctiae dediti, et verbis, et tactibus sunt ruina in populis. Sub ovina pelle Lupi rapaces, dispergunt Christi gregem: electi ad animarum salutem curandam pravo exemplo in infernum eas secum detrudunt. Vae miseris! Vae iterum! et millies vae!

G. Eta zer zor die etxeko jaunak morroe mirabeai, ta zer oek aiei?

E. Zor die bearraren sari edo aloger osoa, ondo dan besteko jana, doktriña, ta ejemplo ona. Zor die erruki ta amorioa, ta ala ez dituzte gaizki, deadarka ta biraoka tratatu bear, ez kolpeka erabili. Eritzen, edo gaisotzen badira, ez da ondo egiña etxetik kanpora bereala botatzea, batezere serbitzariak ezpadu guraso nork arturik. Badira denporak limosna egitera obligazio estua dakardenak (sic); ta nork du eskubide geiago orretarako morroe edo mirabe gaisotuak baño? Bear bada itsatsi zaio gaitza etxeko bearretan, edo neke gogorren batekin.

G. Zer dute zer ekusi etxeko-jauin edo andreak morroe-mirabeen aziera onarekin? Ez dituzte etxera ekarri doktriña erakastera, baizikan bear egitera, etxeari ondo begiratzera, ta argatik ematen die ogia ta urteko soldata edo bearsaria.

E. Au dioten ugazaba, edo etxe-buruak ez bide dakite dirala kristau ta guraso-ordekoak serbitzari, edo ogitukoen alde. Ona San Pablo Apostoloaren itz desegingo ez diranak, ezta ere gezurtatuko: *Bere etxekoan ardu-ra edo kontua ez duenak, galdu du fedea, ta da Jentil edo fedegabea baño gaiztoagoa. Fidem negavit, et est infideli deterior.* Zer esan lezake geiago? Guraso orde gelditu badira, nola umeai bezela begiratu ez? Doktriña ezpadakite, ezin gordeko dute Jangoikoaren Legea; au gorde gabe, salbatu ere ez; ta Kristau buru guziak bear die lagundu bere mendekoei salbazioko bidean. Ez dakianari erakastea zor da bekatuaren bean aldi batzuetan. Noiz, galdeitzen du Asteteren doktriña liburu labur baña urrezkoak? Eta eranzuten du ederki, gizon aitu edo jakitunen iritzian premia estua dagoan orduetan. Non premia andiagorik salbazioa baño?

Obligazio oni eranzuteko ez da asko erakastea buruz doktriña bearra etxean. Bialdu ere bear dituzte sermoiak enzutera; ez goizean meza arin bat enzun ta kura jaunen doktrina edo erakasteak enzungebe urterik geienan iduki. Aldizka baño ezpada ere, bialdu bear dira meza nagusira, enzun deken sermoi edo doktriña bere arzaiaeren aotik; agindu ere bear zaie konfesatzeko illean bein edo debozioa duten egunetan etxeko kalte gabe. Aste guzian dabilitza geienez arazo askoren artean Abe Maria bat esateko astirik ez dutela, batezere baserri edo etxealdeetan, ta arrazoia da jaiegunetan zer edo zer egin dezeen Jangoikoaren honran ta beren salbazioa gatik.



Andiki, edo erri barruetan ondo bizi diranen morroe-mirabeak enzun dezakete astegunetan meza, etxeko lanen kaltegabe, batezere goiztxo meza ematen bada. Ala egiten dute ez gutxik, ta etxea ez da gaizkia-go ebilliko.

Morroe-mirabeak kristau on, ta Jangoiko zaleak badira, aurrerapen geiago egingo dute etxeak. Jose mutil gazte, ta Ijitoko Jaun baten morroe onagatik, zenbat irabazi ta aurreratu etzuen etxeko-jaun ark? Berriz gaizto ta Jangoikoaren beldurgabeak badira serbitzariak, zenbat kalte egin lezakete? Zenbat ezkutuko lapurreta? Zenbat ordu alper igaro? Etxeko buruak begi asko iduki bear dituzte; etxeko andreak adrillu artean bezela ebilli bear dute zaitzeko nola bizi dan etxeko jendea. Bear bada morroe gaizto batek erakatsiko die etxeko alabai doktriña gaiztoa ta ipiñi galtzeko bidean. Jose Ijitoko aitatu dedana, izan ezpalitza ain Jangoikoaren beldurrekoa, etxeko jaunari emazteak berak egingo zion traizio ta billaukeriarik beltzeena. Mirabea ba da lasai mutil zalea, galduak dira etxeko semeak. Egunoro enzuten dira onetan negargarrizko gauzak. Ala bada kendu etxetik bekatu-bideak, ta serbitu Jangoikoa.

G. Eta morroe edo mirabeak etxetik irteten badu urtea osotu edo kunplitu gabe, zor ote zaio egin duen denporako bearsari, edo soldata?

E. Bai. Gutxi gutxi dira arrazoi on gabe etxetik irtetzen duten serbitzariak beren honragatik ere. Bear bada etxeko-andrearen ernegazio, irritutasun, edo gogortasunak igaro ezinik, dia etxetik. Bear bada, dauka gurasoak bere laguntasunaren premia, ta oek leenenak dira. Bear bada, ezta dagoan etxea bere animaren onerako, ta bai kalterako bide batetik baño geiagotik, ta gauza guziak ezin ager litezkez; ta dan bezala dala bearegiñak bear du sari edo pagoa.

Errukiaren aldetik txit ondo egingo dute etxekoandreak ez zikotz edo zekenak izateaz serbitzariekin. Ogia gilz estuetan dagoan etxea, etxe prestuez ta dollortzat dago; beste aldetik geiago galduko da uste ez dala. Erri guzian jakin oi da, ta gaizki esan. Badira berriz etxeko-jaun ta andre soñoko txit asko bazterturik dauzkeenak sitsak jaten bezela, ta morroe mirabeak irabazi laburrarekin gaizki janzirik. Zertako bada emango ez die alperrik galduko dana kutxa barruan? Nolako pozarekin egingo ez dute bearra, nolako amorez begiratu serbitzariak beren etxekojaun edo andreaki eskuberoak baditzate, ta ez murri, estu ta sakatuak? Bazter guzietan zabalduko dute etxe artako prestutasuna; alkarren leian billatuko dute askok alako etxearen serbitzioa, ta izango dira honratuagoak zeken estuak baño.

G. Zerekin oartu edo oroitu bear dira etxeko-buruak amore ta errukia idukitzeko serbitzariakin?

E. Ona Espiritu Santuaren itz ederrak: *maita ezazu serbitzari leial, ta zuzena zere bizitza bezala; ez estutu bide gogorrez; ez diozu larga bear erori didin premia edo pobrezan; ez dezu luzatu bear goizeraño ematea bere bear saria. Ez dezu etxekoekin leoia bezela izan bear, ikararen azpian, ta zapaldirik darabiltzuzala.* Eta San Pablaren aoz: *Eta zuek, etxeko buruak, barkatu kiñatze, zemaitza, edo agiraka gogor bidegabeai, izan zaitzte errukior ta biguñak. Et vos, Domini, eadem facite illis, remittentes minas. Agertu zaiozute serbitzariak borondate ona ta asko naia; bigunki itzegiten diezutela; bada jakin bear dezute, zuek, ta oek daukazutela Zeruan Jaun bat, zeñek ez duen personen aukera, edo desberdintzarik.* Nola-ko kontua iduki ta amorea agertu zuen bere serbitzari gaixotuaz Ebanjelio santuan erakurten degun erromatar soldadu zenturionaren izenarekin aditzen danak? Nolako eskariak Kristori senda zezan? Eta nolako alaban-zak Kristok bere fedeagatik? Itz gutxitan, nai izan bear degu besteai egitea, geretzat naiko genukeana. Zer naiko genuke guk morroe, edo mirabe bagiña? Gogoratu au ondo, ta askotan. Orain bada, alako kontua iduki bear badute etxeko-buruak beren serbitzariakin, ala animako nola lurreko premietan, nolakoa izango da beren obligazioa ez emateko ejemplo gaizto, edo jarraigari txarrrik bizitza gaiztoarekin? Nagi ta arretagabeak fedegabeak baño gaiztoagoak badira San Pablaren aozan, ta kristautasuna galduak bezelakoak, *fidem negavit*, zer esan bekaturoko bideak ematen dituzten etxeko buruak gatik? Zer esan, itz ta eskuka tentagarriekin galtzen badituzte neskame, edo miraben anima gaixoak? Zer esan? Dirala deabrua baño gaiztoagoak, ta au geiegi esan gabe. Iges laster onelakoen atzapar ta etxetik. Dragoi gaiztoekin nor bizi? Zertarako dirala deritzazute, mirabe gaixoak, alakoen eskintza, erregalo edo sariak? Zuek katigatzeko, zuen animak deabruari emateko. Badira beste batzuek erakusten dienak lapur izaten, aginduz ostu dezatela bata ta bestea, edo beren lapurretan partil izatera. Iges laster lapur etxetik ta Jangoikoaren usairik ez dagoanetik; bada bekaturo erorbide edo okasioan dagoala borondatez, ez dago konfesio onik.

Txit atsegin andiarekin enzuten dituzte morroe mirabeak etxekojaun eta andreen obligazioak; baño enzun bear dituzte berenak ere.

G. Zer zor die serbitzariak beren Etxekojaun edo andreaki?

E. Zor die honra, lotsa, esanak egiteak, leiala izatea, isiltasuna, etxeko gauzai ondo begiratzea, oniritzi edo amorea. Obligazio guzi oek sartzten ditu San Pablo Apostoloak itz eder oetan; *Serbitzariak, obeditu zuen Jaunai, edo aragiko etxeko buruai lotsaz, ta beldur onez biotz zinzoarekin Jesu Kristo berari bezala...Ez dituzute beren esanak egin bear, berak zakustezalako, gizonai atsegin ematearren; egin bai biotz onez Jangoikoaren borondatez Jesu Kristoren serbi-*



tzariak bezala; serbitu bada amorez, begiratzan diezula beretan ez gizonai, bai Jangoikoari. Zer geiago esan diteke Kristori bezala begiratu bear zaiela baño? Jangoikoaren ordeko bezala daude; oei obeditzea da Jangoikoari obeditzea. Zor die bada beldur on bat, lotsa, esanak borondatez egitea, ta ez beldur utsez, edo bakarrik begietan.

Lenen, zor zaie leialtasun oso bat, ala bear egitean, nola gorde edo zaitzean berai largatzen dizten gauza guziak. Onen kontra bekatu egiten dute berak dakitela, ez ekusia egiten dutela, ta gaiztoago dana bideak eman, edo ontzat darameela, largatzen duenean ostu ditzen etxeko gauzak, ala beste serbitzariren batek, nola kanpokoak.

Jauna zer egingo det nik, esango dute, serbitzari lagunak ostutzen badituzte ixiltxorik gari, arto, okela, urdai ta onelako beste gauzak? Salatzan baditut, bizitza gaiztoa eramango det; nik ez diet esaten ostu dezate-la. Zer egingo dezun? Egin lenengoan agiraka; esan, berriz egiten badute emango diozula kontu etxekojaun edo andreari; anima salbatu nai dezula, ta ez partil izan iñola ere beren lapurretan. Ondutzen ezpadira, galdetu zere konfessoreari, ta esango dizu gauzai ondo begiraturik, zer egin bear dezun. Animari ez ezen, honrari ere begiratu bear diozu. Etxeko buruak igarten badie gauzak gutxitu edo galduaz diazela, usteko dute zu ere lagun izan zerala besteakin; ekingo dizute; zuk burua garbitu naiko dezu, besteak ere bai, ta guziok gatik gaizki esango dute, ta bear bada guziok etxetik atera. Nola ebilliko da orduan zure honra? Uste dezu iñori ere esango ez diela zergatik etxetik bota zaituzten?

Pekatu egiten dute ixillik ostutzen dituztenak arto, gari ta beste gauzak. Au badakite; baño ona emen estalgarria: Jauna, soldata laburra det, ezin janzi nindeke bear bezela ematen didatenarekin. Atoz ona; itundu ziñan soldata, ukatzen badizute? Ori ez Jauna. Bada debekatuta dauzka Jangoikoak, ta Elizak ere bai ezkutuko lapurreta oriek, ta gaiztotzat emanda zure esesio, edo garbigarriak. Konfesatu bear dezu zere gaizki egiña estalki gabe ta damu andiarekin, ta biurtu kendu dezuna edo balio zuena konfessoreak agintzen dizun bezala.

G. Eta serbitzariak egin lezake limosnarik etxeko jaunen gauzeetatik ta oen agindu gabe?

E. Noiz nola. Badakite ontzat eramango dutela, edo eman oi dutela artarako baietza edo lizenzia, egin dezakete; ez bestela. Berai ematen dien gosaria, errukiz ta karidadez eman nai badute, ez da bekatu, ta bai egitanda ona, beste gosari bat artzen ezpadute. Au ba da goizeko txokolatea, ta gordetzen badute beren beste premietarako, ez dute bekatu egingo, gosari berriren batekin gastaerazitzen ezpadioe etxeari. Badago oraindik

zer esan; baño bakarrik esango det konzienzia argia dala leku eman nai bazaio, ta ez da baidaren bat datorrenean, ez ezer egin konfessore argitu ta jakitun bati galdetu gabe. Esango die Jangoikoak kontua artzean: *eman zadazu kontu zuzena zere eskuetan bezela larga diran gauzeena. Redde rationem villicationis tuae.*

G. Zertara obligatzen ditu zor dion obediencia?

E. Egitera agintzen diena, ala beren animako onean, nola etxean bear diran gauzeetan. Ala bada agintzen dienean etortzeko etxera mugonez, edo gaba baño leenago, batu ez ditezela lagun txarrekin, joan ez ditezela biguira edo ebilmodu kaltegarrietara, enzun dezatela meza nagusia, ta an egiten dan sermoia, konfesa ditezela ondo dirudian ta dan beste aldiz, nola gauza guzi oek diran anima ondo erabiltzeko, ta arrazoizkoak, bear die obeditu, ta gauza batzuetan ez obeditzea izango da pekatu mortala ta besteetan benial edo ariña, nola dan agintzen dan gauza. Mortala izango da animari kalte andia datorkean ez obeditzeaz, nola dan lagun gaiztoekin batutzea okerrerako edo oker ebilteko pelgroaz, joatea ibillera txarretara; bestelako gauza ariñetan ez obeditzea, da berez bekatu beniala.

Orobat agintzen ditzenean etxerako gauza bearrak, nola diran bear egitea, zaitzea kontuz etxeko gauzak, daukate obligazioa obeditzeko, ta izango da bekatu mortala etxeko kalte ezagutu edo andian ez onelako esanak egitea. Serbitzari alper, nagi, ta denpora asko igarotzen duenak bearririk egin gabe bear egunetan, ekartzen dio etxeari kalte andia; bere nagitasunez ta konturik ezaz galtzen diranean etxeko gauzak, ta gauza ez txikiak, ez du betetzen bere obligazioa. Eskatzen dio arrazoiz etxeko buruari ondo dan jatekoa; bada, dio Apostoloak: *ez dezala jan, bearririk egiten duenak. Si quis non vult operari, nec manducet.*

Baña agintzen badie Jangoikoaren kontrako gauzaren bat, ez die obeditu bear, nola dan zerbait ostutzea, edo ostutzen laguntzea. Ez da onelako agindurik egin bear milla agiraka ta deadar gatik, ez da etxetik botatzen badute ere; obe da ez egon eskola gaiztoko etxean. Orobat, agintzen badio ekartzeko etxera onelako, edo alako persona bide okerrekoa, ta gauza gaiztorako, ez Jauna, eranzun, ez det egingo bekatu dan gauzarik jai egunean, bear debekatuak egiten agintzen badio, ez du obeditu bear; esan bear dio, Elizak debekatzen dit, Jangoikoak ere bai bear egitea bere egun santuetan. Baña gogortzen bada, ta errierta andiak izango balira, ez da pekatu bein edo berriz kalte andiaren beldurrez laguntzea bear egiten. Baña sarritxo bada, irten etxetik, ta Jangoikoak argituko dio etxe obeago bat. Ala ere, etxeko buru gutxi dira lenengotik esaten bazate sendo, ez dala bearririk egin bear jai egun katigatuetan, ta ez diola konzienziak larga-



tzen alako laguntasunik egiten, estutuko duenik morroe edo mirabea. Beti aditzen da bear debekatua, ta ez etxe bear egunoro ta jai egunetan ere kristau onak egiten dituztenak.

Ez dute obligaziorik beren dirutik erosteko ausitzen diran etxeko onzien ordea, baldin uste ta naigabe ausi bazaitez. Badira etxeko andra dollor ta zikotz, bonbil, katillu, ta edan onziren bat mirabeak ausitzen badu; etxe guzia deadarrez darabiltenak, ta gero soldatan gutxituaz pagaezitzen dienak. Beren soldata laburretik oñean iduki bear dituztela mirabeak? O gogortasun zerura deadar egingo duena! Agirakaren beldurrez ere gordeko dira mirabeak borondatez ausitzetik.

Lotsa ta honra ere zor die serbitzariak etxeko jaun ta andreaki; ez die gaizkirik ta lotsa gaiztoan eranzun bear; ez arpegiko mukertasun, ta astuntasunik erakutsi.

Jauna, diote, nere etxeko andrea ezagutzen ez du, da irritu ta ernegatua; beti deadarka ezerez bategatik. Abiatzen da biraoka ta araoka, bere naira gauza guziak irteten ezpadie. Badakit ala dala batzuetan; baña orra non Jangoikoak agertzen dien Zerua irabazteko bidea pazienza andi batekin. Ixiltxorik badaramazuz agiraka, ta iraunemate zitalak, etzera sari gabe geldituko. Eranzute guziak ez dira bekatu mortalak, ta errazago egin lezake bekatu mortala umeak bere gurasoi ezaguera ta borondatez lotsa galduaz, morroe ta mirabeak etxeko buruari baño. Birtute guziz andi bat bear da beti ixillik eramateko alakoen ekin ta jardunak. Baña dendatu bear gera alegiñez pazienza oso bat artezera. Morroe ta serbitzariak daude fraile ta monjak baño ere mendetasun estuagoan; zeren fraile ta monjaen buruak begiratuagoak dira, ez dute alako ekin ta jardunik, nola etxeko andra askok. Serbitzari gaixoak, borondatea ukatzeko era eder ta egokia zuek dezutena. Obeditu bada humil humillik Kristori bezela gauza gaiztorik agintzen ez dizutenean. Pagatzalle ona daukazute zeruan. Etxekojaun ta andreak, morroe ta mirabeak egiten badituzte San Pabloren aginduak, etxe guzia ebilliko da zuzen; izango da pake osoa, ta amorea, ta mai batean lurrean biltzen diranak, batuko ere dira zerukoan.

Etxeko jaun ta serbitzariak esan zatena, esan ere bear zate etxejabe, ta erreteroiak; alkar estimatu bear dute. Aiek ez gogortasunik erakutsi oei, errenta andiegiak etxeai ipiñita. Nor ikaratuko ez da Santiago Apostoloaren itz oekin? *Jakin zazute, dio, zuek galerazitzen diezun bearrak, zuen soroetan frutuak biltzen dituztenai, deadar egiten du Zerura; ta zuen lurretan jardun dutenen negarrak, igo dute Ejerzituena Jaunaren belarrietara.* Zer da bearra galerazitzea? Da bearrak ez balio izatea errenta gogorregi ta bearrak gañekoak ezarritak. Errenta andiekin ondutzen dira nekazari erreteroiak; dabilta pagatu

ezinik; luzatzen bazate, urrengo urtean gelditzen dira zorpeturik, burua jaso ezinik. Andik laster botatzea etxetik, katigatu edo enbargaturik duten guzia, ta azkenean edo aterik ate umeekin, edo lapurretara. Iñork ez du uste errenta geiegi egozten dionik etxeari; badira sartu nai dutenak, diote; egia da, baña estuak edozein gauza eskini erazitzen du. Erreteroa ondo bizi bada, ondo ebilliko da etxea, ez dute basoetan lapurretari egingo, lur ta soroak obeto giatuak izango dira. Baña bere izerdia galerazitzen dutenak errenta geiegiakin, beste bearren batzuek eragiñik pagatu gabe, arri edo gorriñak galdu duenean fruturik geiena ta eskatzen dienak errenta osoa artu ez duenetik, dira biotz gogorren jabeak, Jangoikoagandik azkenean gauza onik izango ez dutenak. Etxejabeak bear dituzte maitatu beren erreteroiak, bada oen nekeak bizi ditu. Orobat andiki ta aberatsak bizi badira era askorekin, oe ederra, mai ugaria, ta janzi apaindua darabil-tela, nori zor dioe nekazari berak gatik mankatzen diradenai baizik? Baña erreteroiak ere izan bear dute leialak, zaitu alegiñez etxe basoak; ez ezer ostu, ez ikatzak gutxitu, ez iñoren olara eraman ezkutuan. Ah! zenbat animak galdu bear duten agintari ta mendekoen artean, bakoitzak bere obligazioai ez eranzutea gatik! Izkribiturik dago, ez dala zeruan sartuko ez lapurrik, ez biotz errukiorra ez duenik.



ERAKASTE XVI.

Jangoikoaren Legeko bostgarren mandamentuaren gañean

Non occides.

G. Zeren gañean izango da gaurko erakastea?

E. Jangoikoaren Legeko bostgarren mandamentuaren gañean, zeñek dion, ez inor iltzea.

G. Ori da burua alperrik nekatzea, zeren gure artean ez dago batere inor ilduenik, ez degu ere uste orrelako bekaturik egingo degula.

E. Aditzen ematen dezu doktriña gutxi baño ez dakizula, azaletik baizik begiratzen ez diezula itz oei, *ez dezu inor illka*. Agindu itz laburreko au zabaltzen da gauza askotara. Badu animak ere bere bizitza korputzak bezela, ta onek baño ohea. Ala bada eragozten dira mandamentu onetan lagunari egiten zaizkan bidegabe, ta kalteak korputz ta animan. Debekatzten dira bada auzi txatar, ta bendekukoak, gorroto biotz gaitzokoak, kolpeak ematea eskubidegabe, auzka ta makillaka egitea, gaitza biotzez opa edo nai izatea, inoren egiazko kalte edo gaitzean borondatez poza artzea; bada gauza guzi oek prestatzen dituzte bideak eriotzarako.

G. Zenbat gisara egiten zaio kalte proximo, edo lagun urkoari?

E. Iru gisara, itzez, gogoz ta obraz edo egite txarren batekin.

G. Nola itzez?

Egozten zaizkonean maldizio edo madarikazioren batzuek, nola dan esatea, illko *al aiz, egun on bat ekusiko ez al dek; deabruak eramango al au*. Onen gañean itz egin degu bigarren mandamentuan. Oro bat honra edo izen ona galtzen zaionean murmurazioen bidez. Onen gañean itz egingo degu zortzigarren mandamentuaren esplikazio edo azalduran. Mingaña da kalterik geienak guzira egiten dituen. Ona zer dion Espiritu Santuak: *Azotearen zanbro, eratzi, ta eritzeak dakar odola, baña mingañaren zauri ta eritasunak, ausiko ditu ezurak. Flagelli plaga livorem facit, plaga autem linguae comminuet ossa*; au da, galeraziko ditu korputz ta animako sendotasun ta indarrak. Eta beste leku batean, *Bizitza ta eriotza mingañaren eskuan daude*. Ezpatak baño geiago galdu ditu mingaiañ gaiztoak. Gaitzari obeto igarten dioe medikoak pulsutik baño mingaiañetik. Nondik igarri obeto zer dagoan gure biotzean itzetatik baño? Gezur andi asmatuak, deklarazio gaizki emanak

eraman dituzte asko eriotzara, bizi bear zutenak; ta atera eriotzatik, ill bear zuteenak.

G. Baña zer du zer ikusi gogoz lagunari gaitza nai izateak onen eriotzarekin?

E. Eranzungo dizu San Juan Ebanjelistak itz oekin: *Bere Anajeari* (guziok egiten gaitu anaje edo auride) gorroto benetakoa *diona, eriotzgaña da. Homicida est*. Ematen dio eriotza biotzean.

G. Zenbat modura utsegiten da obraz mandamentu onen kontra?

E. Egiñaz, ta ez egiñaz. Egiñaz, kolpetzen, mankatzen, heritzen, ta iltzen danean. Ez egiñaz, laguntzen ezpaziao zer jan emanaz, jan ezarekin lagunak ill bear duenean. *Sinon pavisti, occidisti*. Mantedu ezpadituzu, ill dituzu, dio San Ambrosiok.

G. Eta jotzea, banatzea, auzka egin edo burrukatzea alkarrekin eragotzia dago?

E. Eskua duenak, nola diran gurasoak, ta maisuak jo dezaketez seme ta ikaslaak bear danean, ta bear dan bezela. Baña bestelako aserre joak, ta kolpeak eragozten dizkiguz Jangozioak. Mutiltxoak egiten dituzten auzka edo burrukak geienez ez dira bekatu mortalak, gaitz andirik egiteko gogorik izan ez oi dutelako, benetan aserratzen diranean ere. Baña guraso ta maisuak kastigatu bear dituzte mutil burrukariak, bada bestela irtengo dute gerora ere gaiztagilla batzuek. Txikitan artzen diran oiturak, jarraitu oi dute geienez gero ere. Ez da berdin erabaki bear andi, edo nagusien kolpetze, ta burrukeen gañean. Oen gorroto ta aserrea, beintzat ordu aietan, oi da benetako ta astuna; jartzen dira laguna mankatzeko, edo bera mankatua izateko peligr egagutuan; baita aurrera gorrotoak irautekoan ere; ematen dute ejemplo gaiztoa, ta askotan gertatzen da bi asitza burruka, ta gerora egitea amar edo geiagok, batzuek bataren bando, ta besteak bigarrenaren alde irten oi duteelako. Berriz makillaka aserrekoak, nork nai daki, dirala bekatu astunak, ta eriotza bideak. Ortik gero kerellak, gastuak, etxeak galtzeak, seniden arteko naigabeak, ta zenbat beste ondoren txaar? Badituzu mutil ta gizon ez gutxi, biotzez beti daudenak prest inork biderik ematen badie, burrukatzeko ta makillari eskuak egozteko. Nik pakean largako diot, esan oi dute, baña ez diot nik oñik atzeratuko tentatzen banau inork. Zer esango lukee, nigatik iges egingo banu aupadatu, edo desapiatu ezker? Koldar, billau, biotzgabe beldurti bat naizala, gorua erabiltzeko ohea, gizartean agertzeko baño. Baña nongo eskolan ikasi dute doktriña au? Jesu Kristorenean, edo Luziferrenean? Infernukoak dira dabiltzanak beti alkarri gaizki egiten edo alkarren gorrotoan. Betiko bekatu mortalean daude Aita Santu Erromakoak ere absolbitu ezin deza-



kezala alako biotzeko prestamentuan daudenak, gaitz egiteko gaitz egiten dionari, banatzeko banatu nai duena, ta gaizto batzuek esan ez deken koldar, billau bat dala, aldegin nai ez dutenak tentatzen dituztenean. Burla egingo didate oña atzeratzen badet. Nork ordea? Anima gabeko gizaseme gaiztoak, ta ez gizon zenzun oneko, ta kristautasuna zer dan dakitenak. Galduko det nere izen ona. Zein da izen ona? Besteak baño makillakari sendoagoa zerala? Honra ederra egiaz gizon ordi ta ardanzen arerako. Jesu Kristok dio: ematen badigute masallako bat, prestatzeko beste alde bigarrena artzeko, barkatzeko gaizki egiten digunari. Zuk berriz beste doktriñarik daukazu; etzera beraz bere eskolako, ta bai deabruarena. Azken ona izango dezu. Zenbat makillakari daude Infenuan, aserrear bertan illda? Eta honra andia atera zuten munduan alakoak eriotza gaiztoarekin? Eta nolako tormentuak izango dituzte leku gogor artan? *Non-dik bekatu egin duen, andik tormentatua izango da*, dio Espiritu Santuak.

Eta zer esan desapioaren gañean? Au dala bekatu oraindik andiagoa. G. Zer da baña desapioa?

E. Da bi edo geiagoren arteko alkar-artze, edo ituntzea irteteko onelako lekura ta ordu erabakian probatzeko indarrak, edo ezpata, edo suarma, edo makillakin bizitza galtzeko peligroaz.

Onelakoak gelditzen dira deskomulgaturik asitzen badira peleatzen, gero nola bait aldegin bazuten ere. Eta iltzen danak desapio alakoan, ezin izango du Eliz lurrik, ta bai mando *luurra* nonai. Ala daduka erabakita Eliza Ama Santak. Ez die balioko ez onra galtzearen estalkiak, ez beste eman oi dituzten esesioak. Kristoren doktriñaren kontrakoa, da deabruarena.

G. Ondo egiña da gurasoak berekin oe batean eratzotzea aur txikia?

E. Ez; non ta aurra ustekabean itozeko peligr guziak kontuz kentzen ez diran; bada arreta orren faltaz asko itoak gelditu izan dira, edo mantapean arnasa artu ezinik, edo lotan dagoan gurasoak jiraren batean azpian artuta. Geiegi fiatzean dago arriskua.

G. Baña oraindik jai ez dan, ta amaren sabelean dagoan aurra, edo aursaia, galtzea bekatu da?

E. Noiz nola; amaren naiezaz, ustekabe, edo naturalezaren argaltasunez bada, ez; baña bestela bai, ta bekatu txit andia.

Bi modutan egiten da bekatu gauza onetan; bata nagitasunez, edo arreta gabeaz, bestea egiten danean zerbait berariaz, galtzeko sorturik dagoan aurra.

Utsegiten dan lenengo aldetik, jartzen danean gurasoa sabelean duen aurra galtzeko peligr ezagutu, edo andian.

Oen artekoak dira karga astunegiak, ta bear gogorrekiak egin ta darabiltzanak. Badakit andra nekazari ta bear korputzekoetara oituak, ezin egongo dirala ezer egin gabe; ordea denpora guziak ez dira berdiñak, korputza asko mankatzen bada karga astunekin, edo bear gogorrekin, aurra galtzeko peligroa daukate. Ala bada soroak laiatzea, lisiba edo gobada jotzea, batezere neguan ibaiurean, ta karga asko, bear gogorrak dira. Bide euritsu ta labañetan, aldatsgora-beeretan karga astuna badaramate, jartzen dira peligr andian aurra galtzeeko. Mezarik enzuteko obligaziorik ezpate bide gaizto ta labañetan elizara jetsi bear duten baserritar, edo mendi-etxeetakoak labandu, erori, ta kolperen batekin mankatu ta aurra galtzeeko peligroa daukatenean, zenbat gutxiago ebilli bear dute bide alakoetan karga astunekin? Denpora luzeko laiatzeak gizonik sendoena ere mankatzen du. Begiratu bear zaio bakotxaren sendotasunari, ta aurdun dagoanaren estadu aurreratu edo atzetuari, ta nola konzienzia argia dan, ez egin ezer aurraren kaltean. Berriz ikartzeko da askoren danza naia; dabilta bat baño geiago sabel andiekin danza naasietan, kolperen batekin aurra galtzeko irrisku andian.

Gertatzen da noiz edo berriz etortzea aurdun dauden emakumeai egun debekatuetan aragi gauzaren bat jateko gurari, edo nai estu burutik kendu ezina. Eta nola bere gogo bizi arekin irtengo ezpalute, galdu litekean aurra, onelako aldietan ta beldur esana dagoanean, jan lezaket aragia bekatu egin gabe, gogo estu ura kendutzeko bestean. Orra nola elizak berak ere libratzen dituen bere agindutik aurra galtzeko peligroetan. Ah gurasoak! Eta baziñakite zer darabiltzuten sabelean! Anima bat, Jangoikoak bere irudira, ta an bertan korputztxoari eraantsia, ta Jesu Kristok bere odolarekin eresia. Santa Brijidaren Ama arkitu zan bein itxasoan itozteko irrisku andian, ta itoko ere zan, Jangoikoak, amak sabelean zedukan aurtxo gatik, gorde ezpalu, Aingeru batek gero adirazo zion bezala.

Badira berriz guraso, dragoiak baño gogorrakoak galtzen dituztenak sortu diran aurrak berak dakizten asmoekin, ta beintzat bai egin galtzeko asmoak. Onrari begiratu nairik, edozein gauza egiten dute; batzuek konsejua emanda, besteak nola egiten dan erakatsita, besteak eginda. Anima gabe balitza ere aursaia, litzake bekatu andia galtzea, edo galtzeko bideak egitea. Baña guziz andiagoa animaturik daudenetan. Eta anima, askoren iritzian, irasten zaio sortutako lenengo egunetan, ta dan bezela dala denpora luze gabe. O ama otsoak! O konsejari gaiztoak! Ekusiko dezute egunen batean, nola bateo santua ta zerua galerazi diozuten aurtxoak deadar egingo duen zuen kontra. Pekatu onetan erorten diran emakumeak, jes-



ten dira geienez infernura, konfesatzera bere bekatu itsusi, emen konfesatu etzutena lotsaz.

Berriz mediko edo osagille guziak dendatu bear dira gaixoak ill ez ditezen alegiña egitera, ta irabazirik ez dutelako, gaixoak diralako ezer gabeak, oek iltzen badira, berak bisitatu ta osabideak eman ezaz, oen eriotza beren anima gañean izango dute. Aberatsentzat geiegiaz bisitak, pobreentzat bearrak ez, zer esango dioe Jesu Kristok? *Gaixorik egondu nintzan, ta ez ninduzuen bisitatu*. Pobreak gaixorik daudenean dago gaixorik Jesu Kristo, ta ez aberatsak daudenean. *Cuandio fecistis uni ex his fratribus meis minimis, mihi fecistis*. Aberatsak emen pagatzen dute munduko diruekin, Kristok gero pobreak gatik.

G. Baña bekatu ote da bakoitzak bere burua iltzea?

E. Bai, ta beste bat iltzea baño ere geiago, edo andiagoa ta da bekatu barkatzen ez dana, zeren lekurik gelditzen ez dan penitentzia egiteko ill ezker. Ez gera gere bizitzaren jabeak. Eliza Santak eragotzen du beren buruai eriotza eman dienak ezaueraz, ematea obi edo eleiz *luurra*, ta orazio egitea alakoak gatik, ill diralako kondenazioko bidean. Ori egin zuen Judasek, ta badakigu infernuan dagoana. Ekusiko dituzu emakume bat baño geiago ain aserrakor ta sutuak, non da esaten duten, *itoko det burua, urkatuko naiz, pakea emango diot nere buruari*, ta Jangoikoa tentatzen dabil-tzanak birao andiak beren buruai egotzirik.

G. Eta inori gaitza nai izatea, edo bakoitzak bere buruari, bekatu da?

E. Benetako edo alde guzietatik gaitza ba da, bai; ez bestela. Adi nazazute. Batek bere buruari eriotza opa izatea bide onez, ta arrazoi garbiz bekatu ez da; lenen, mundu onetako presondegitik irten ta Jangoikoa aren arpegia ekusteko garrez. Ala zion San Pablok: *Nork atera nenzakean korputz illkor onetatik? Nai nuke desegingo balitzaket nere korputza Kristorekin egoteka*. Onelakoan eriotza gaitza ez da, ta bai zerura joateko bidea. Bigarren, nai izan dezakegu eriotza bekatuko erorbide edo okasioetatik irtezarren, zeren au dan naiago izatea eriotza Jangoikoa ofensa baño. Ala da eskari ona esatea, O nere Jesus ona! Betor nigana orain eriotza zu gero ofendituko bazaitut. Eta Kristau guziak iduki bear dute deseo edo naikunde onelakoa. Irugarren, ez da ere bekatu nai izatea eriotza irtetearren mundu onetako miseria, edo naigabeetatik, oek eragotzen digutenean animako salbazioa, edo Jangoikoa amorez, edo zeloz. Onela Elias Profeta santua igesi zijoala erregiña gaizto baten persekuzioetatik, egondu zan eriotzari deiez, zekusalako Jangoikoa ain ofenditua.

Ala ere munduko naigabeen artean, nola gutxik duten Elias, Santa Theresa, Santa Maria Magdalena Parisko, ta santu santeen espiritu amore

garbiz betea obe da ixiltxorik eramatea naigabeak, ta esatea, *ez ill, padezitu bai*, zeren naigabe guziak zuzentzen baditugu bear bezela, ta igaro Kristoren amorez, ekarriko dizkiguez on asko animara; emen arkituko degu Garbitegi edo Purgatorioa, ta ez degu bota bear Kristok ezarri nai digun gurutzea.

G. Noiz izango da bekatu bakoitzak bere buruari eriotza opa edo nai izatea?

E. Ernegazioz, irrituz, ta pazienziaren faltaz danean. Au da bere buruaren gorroto gaizto Jangoikoak debekatzen duena. Baginiaki zer dagoan beste munduan nola santu batzuek ere ikaritzen diran eriotzaren ondorenaz, gordeko giñake eriotza nai izateaz erneguz, ta ezer igaro nai ezaz. Egia da zaar triste asko nekez inguraturik daudenak, arpegi gaiztoekin etxean begiratuak diranak; oean min luze ta portitzekin daudenak naiago izatea eriotza, igaro baño alako naigabeak, ta eskatzea Jangoikoari eraman ditzala mundu onetatik, ez dutela bekatu andirik egiten geienez; baño obe da eskatzea Jangoikoari eroapen edo pazienzia oso bat, ta gure borondatea lotzea Jangoikoa arekin zeñek ez digun bialduko bere graziarekin eraman ezin dezakegun naigabe ta gurutzerik. Nai du gaitzak bialtzean, balia gaitzen berekin animak mundu onetan garbitzeko ta geitzeko bekatuaren damua. Purgatorioko ordu erdi batean geiago daramate angok animak, emen urte askotako gaitz luze ta gogorrekin baño. Au sinisten badegu, ez gera eriotzari deika egongo padezitu nai ezaz.

G. Eta inoiz ill lezake gizon bata beste bekaturik egin gabe?

E. Bai; ta au gertatzen da justiziako agintari orretako Jangoikoak emanda eskua duteenakin. Ezpatarekin beste iltzen duenak, ezpatarekin berak ere ill bear du. Esan nai du Jangoikoak, kendu bear zaiola bizitza justiziaren bidez, lagunari bizitza kendu dionari? Eta gu poztutzen bagera gaiztagiñak deserritzen, karzelatzen, ta urkatzen dituztenean, ez degu bekaturik egingo justiziaren amorez bada, ta ez gere gorrotoz.

G. Badakigu, Jauna, bekatu ez dala illerazitzea Justiziako eriotzgin ta beste gaiztagiñak; baño ill dezakegu geu ill nai gaituena?

E. Noiz nola: bekatu ez da izango alakoan iltzea gordetzen badira Santo Thomas Aingeru lurrekoak bere jakituria andiarekin eskatzen dituen letra edo kondizioak. Oek dira, ez bear bearra baño egitea; iges egin al dezagunean, edo dei egin gordeko gaituztenei, iges egin bear da, edo dei egin. Banatuarekin burua libra al badezakegu, ez da ill bear; ta beste biderik ezpada gere bizitza gordetzeko eriotza ematera datorrenari eriotza emanda baño, ez da bekatu izango; baño egin bear da ezin bestez, nora ezean, biotzeko gorroto gabe, nola oña ebakitzen largatzen duten



batzuek naigabez, bizitza gordetzea gatik. Lege guziak alkartzen dira onetan. Jesu Kristok eragotzi baligu eriotza ematea alako denporetan, lapur ta gizon gaizto askok artuko zuten bidea eriotzak egiteko nai duten guziaz gabaz etxeetan sartu, ostu ta iltzeko. Obeago izango litzake, egia da, grazian dagoalako uste arrazoizkoan ematea bere bizitza bestea illda infernura ez didin. Baña ez dago onenbesterako obligaziorik. Gabaz etxean lapurra sartutzen bada, ta oni ematen bazaio eriotza, etzaio eriotza au egotziko egin duenari; baña bai egunez sartu bazan. Au zan anziñako legean Jangoikoak eman zuen legea. Gabaz burua gordetzea gaitz da, iges egitea, edo eskatzea laguntasuna burua gordetzeko, ez da erraz, baña bai egunez. Esan nai du legeak, bekatu dala eriotza ematea libratu al bagaitez nola bait, baña ez dala bekatu estu estuan, ta ezin bestez bizitza gordetzea gatik iltzen badegu eriotza eman nai diguna.

G. Baña baratzen sartutzen badira lapurrak, edo zerbait ostu nai badigute etxean, edo eskuen artetik, bekatu izango da alako lapur zitalak iltzea?

E. Bai, bai, ta Elizak debekaturik dauka erakustea ez dala bekatu diru gutxi batzuek ostu nai dizkigelako, lapurra iltzea. Gizon baten bizitzak geiegi balio du, ondasun labur batzuek gatik eriotza korputzeko ta animakoa emateko. *Gorputz estalkia, edo alkandora indarrez, edo auziz kendu nai digunari, eman kapa ere*, dio Jesu Kristok. Eta San Pablok, *zergatik igaro ez, ematen dizkiguen bidegabeak? Quare non magis injuriam, accipitis?* Ez det uste zuen artean iñork laguna il duela. Bidegabeko eriotza egiten duenaren kontra deadar egiten du il danaren odolak Kainen kontra egiten zuen bezela Abelenak. Egun gozo ta paketsu bat izango ez du lurrean. Beti kezkatu du illaren gogorazioak. Zoratuta bezela ebilli oi dira eriotzgiñak, ta nola ezta kitela ere sartu oi dira justiziaren eskuetan. Baña asko dira biotzeko eriotzgiñak, itez ta gogoz eriotza lagunari eskintzen dienak. Ai bagenuka alkarren maitetasun ta ongi naia! Ai bagiña humillak! ta zein zorionekoak izango lirakean gizonak lurraren gañean, ta gero ere! Ai sar-turik bagenuka Jesu Kristoren erakaste ederra, ta nola beingo batean desegingo giñituzke ez da baida guziak! Ikasi zazute nigandik, dio, humill, otzan ta errukiorrak izaten, ta onela arkituko dezute animako pakea. Aser-ratzen ez danak bidegabeak artuta ere, edo aserrea itotzen dutenak ta agertu gero lagunari arpegi ona, arkituko due aserreari leku ematen ez die-nak arkitzen duten pakea. Esango dizuet bada Kristorekin, pakea, pakea zuekin. Ala izan didilla.

ERAKASTE XVII.

Gorroto gaizto, ta bere ezagugarrien gañean

Diligite inimicos vestros...

G. Asko ote da bostgarren mandamentua gordetzeko ez iñor iltzea korputzez?

E. Ez; bada eragozten ere da biotzez eriotza ematea; gorroto benetako lagunari diona, eriotzgiña da, dio San Juan Ebanjelariak. *Omnis qui odit fratrem suum, homicida est.*

G. Ori aditzen da gorroto badiogu geure ongin, edo mesedegillai; baña gorrotorik ez izan etsai ekusi nai ez gaituztenai, gaizkillai, egun on bat ematen ez digutenai, ori geiegi eskatzea litzake. Lege gogor, astun ta eramaten gaitza. Eta Jesu Kristok dio bere buztarria biguña dala, ta karga ariña.

E. Itz eroak, mundu gaiztoko eskolan ikasiak, ta ez Jesu Kristoren eskolan. Jangoikoak ez digu eskatzen egin ezin dezakegun gauzarik bere graziaren laguntzez. Ezin deguna, billatu bear da orazio sendo baten bidez. Bere amoreak erraztzen ditu gauzarik gaitzeenak. Zezen bat illko ezin degu gere indarrekin; baña su-arma edo eskopeta baten bidez erraz egingo degu. Bada Jangoikoaren laguntasun, benaz ta humillik billatu ezkerro, emango zaiguna, sendoagoa da naturalezaren ezin egiñak garaitzeko, eskopeta balatua zezena iltzeko baño. Zenbat kristau gure orakoak laztandu dituzte etsaiak amorerik andienarekin? Zer diot Kristauak? Anziñako legean, noiz etzegoan orain beste azkorgarri etsai on egiteko, zenbat on egin zion Dabid Erregeak bere etsai Sauli, sarri onek billatu bazuen ere bizitza kentzeeko? Nolako negarrak bere eriotzan?

G. Baña jakin nai nuke, zertan dagoan lagunaren benetako gorrotoa.

E. Ongi galdetzen dezu, zeren asko dira gorrototzat artzen dutenak benetako gorrotoa ez dana, ta beste asko, gorroto andia idukirik, begitantzzen zatenak ez dutela gorrotorik.

G. Zer da benetako gorroto, edo itz arrotzez esan oi duten *odioa*?

E. Da borondate sendotik biotzean dagoan lagunaren gaitziritxi bat, ekusi ezin ta bendekunaia, artu duen bidegabe edo ofensaren bategatik. Ala lagunaren arpegirik ekusi ezin borondatezkoa, bere on ta alabanzarik enzun nai eza egin dion injuria gatik, poztutzea ta geiago laguntzea gaizki esatean, dira igargarririk onenak ezagutzeko biotza kalteturik dagoana.



G. Bekatu ta gorroto egiazkoa ote da damu eman ta sentitzea lagunak egin digun bidegabe edo ofensa txarra?

E. Ez, aurrera igarotzen ezpada. Gu gerez sentikorrek gera. Birtute goratu ta txit andia bear da ematen dizkigen naigabe, ta persekuzioak ixil isillik ta biotza igitu gabe igarotzeko, ta oraindik geiago apostoloak bezala idukitzeko biotzeko olgura, pozkaria, ta atsegin betea deshonra, ta asmatzen dizkigen gezur astunetan. Ez da pekatu noiz bait triste, estu, larri ta negarrez egotea, bidegabeko ofenseetan, borondate txarrrik ezpadaukagu egin dizkigunarentzat. Gaixo bati mediko edo sendagilleak ematen dizkanean edari mingoitzak, artzen dio igia, ta naieza edariari, baña ez ematen dion medikoari. Borondatez, gozoz ezpada ere, artzen du edaria bere mingoitzasun ta guzi; zeren artzen du artu gabe egon ditekeala. Dio beregan edari au mingoitza da baña osasunkorra. Ematen didanak nere osasuna nai du. Au berau gertatzen zaie kristau on askori. Badakite, iñoren eskuz bada ere, ematen diela Kristok, animen sendagille onak bere pasioko kalizatik edari apurtxo bat. *Potum dabis nobis in lacrimis in mensura.* Badute naturalezaren aldetik atzerapena aoa idiki ta edateko; ordea nola dakiten esku onetik datorrela, osasun animakoa emateko dala, begiak itxi itxi eginda edaten dute, gorrotorik artu gabe gaizki egiten dionari.

G. Jauna, ezpadu Jangoikoak nai iñoren bekatua, nola naiko du guri lagunak gaitz egitea? Ez digu Jangoikoak guri gaitz egiten, lagun gaiztoak baizik.

E. Begi aragizkoekin begiratzen diezu gauzai. Baziñaki profeta baten esana, ez dala *Erri guzian gertatzen Jangoikoa gandik ez datorren gaitzik*, etzenuke alakorik esango. Semei gaiztoa ill nai zuten Dabidekin zijoazen lagunak, zeren egin zion arrika ta esan zizkon milla itz astun Errege Santu oni, ta eranzun zien benganza artu nai zutenai, ez gaitzik egin gizon orri, *zerrer Jangoikoak agindu dio niri gaizki esateko.* Jangoikoak nai eztu gaizki egiten digunaren borondate gaiztoa; baña largatzen dio gaitz egiten, eragotzi dezakeala, guk gaitz artatik irabaziak ateratzeko. Nai gaitu probatu maite degun. Jaurtikitzen badiozu zakur bati arriarekin, zakur eroak oratzen, ta usikitzen dio arriari, konturik ateragabe arria geldi egongo zala jaurtiki zion eskua geldi egon balitza. Guk ere, oraindik eroagoak, egozten ditugu begiak lurreko gaitzetara, ta gaizkilla urretik miñ ematen digunetara, ez Jangoiko ongiñ, min emanda sendatu nai gaituenagana.

Baña artu daigun erdi larga genuen aria. Diot bada atzerapena, naieza, edo naigabea idukitzea gaitz egiten digutenean, ez dala bekatu, ta bai aragiaren argaltasuna, ezpadezu nai gaitzik etorri dakion gaitzgilleari; prest bazaude Kristoren amorez barkatzeko, ta zure bear orduan arkitzen

bada, on egiteko edo laguntzeko. Etortzen bazatzu beingoan gorroto ta ekusiez in zitalen bat, ez eman lekuri biotzean, kendu bereala ezagutu ondoan, eskatu Jangoikoari bera gatik barkatu, degiola gaitz egin dizunari zuk barkatzen diozun bezela. Barrunbeko naigabe ta guzi, itz egin era datorrenean aserrerik agertu gabe, ez arpegiko mukertasunik; auzoak bazerate, tratatu len bezela, ez igarrierazi besteai aserre zeratela. Onela lotsatuko dezu etsaia, ezagutuko du bere gaizki egiña, baketuko da, ta irabaziko dezu bere anima. *Ez didilla Eguzkia sartu pakeak egin gabe*, edo beintzat biotzean aserrea dezula. Esan nai digu Jangoikoak itz eokin, bereala ito bear degula aserre edo naigabea. Au da Kristoren doktriña ederra. Baña zer gertatzen da? Biotzean ondo gordetzea aserre ta gorrotoa. Jangoikoari erregutu bearrean etsaiaren ona gatik, barkatu bearrean Jesusen amorez, asitzen dira gaizki esaka, ta bear bada birao, ta araoka lagunaren kontra. *Ah dollor traidore gaiztoa! Pagatuko didak, gogoratuko zak bai noiz niri au edo ori egin didan. Etorriko aiz nere bearra noiz edo noiz, ta orduan jakinko diat zer egin. Infernuoak ere ez aute artuko niri eman didan gozo gaiztoa gatik. Ez dek Jangoikoaren arpegirik ekusiko niri barkazioa eskatu artean. Ez diatzak lo Jangoikoa. Arren...* ez ditut esango noiz bait egin oi dituzten, arren askorekiko biraoak. Onela itz egiten dutenean biotzetan sarturik dago barren barrenaño gorroto oso bene benetakoa, ta mingañak itz egiten du ateratzeko bete beterik dadukana.

G. Beraz beti da bekatu aserre ta gorrotoa?

E. Jesu Kristok larga digu doktriña egoki ta ederra eranzuteko galde oni. *Iñor aserraten bada anajearen kontra, deitua izango da juiziora.* Anajeak, etorki batekoak gera guziok Kristoren aoon, batezere Kristauok, bateo batean berriz jaiok bezala.

G. Zer esan nai du gure Salbagilleak dionean aserraten dana deitua izango dala juiziora?

E. Ona itz oen esplikazio edo azaldura. Juezak eman lezake epai edo sententzia, edo kastigatzeko gaitzgillea, edo libratzeko gaitzgabea. Deitua danak juiziora, irten lezake ondo edo gaizki. Ala bada aserraten danak ere eduki lezake oben edo kulpaa, baita ez ere. Aztertu bearko da bada nolakoa dan aserrea: bide onekoa bada bekatu ez da, ta bai irabazi andikoa.

G. Noiz da baña bide onekoa?

E. Lagunaren onez, pasio gabe, edo Jangoikoaren onragatik danean. Onela aserratu zan bein Jesu Kristo inoiz ez bezala arkitu zituenean Jerusalemengo elizan erosla ta saltzallak. Egin zuen azote bat zigorrekin, asi nan jotzen, ta ateratzen tratulariak leku santutik, esaten ziela miñ miñik ta arpegi itzaltsu batekin: *Izkribiturik dago; nere etxea eskari lekua da, ta zuek egin*



dezute latro-zulo edo lapurtegi bat. Nolako aserrea agertu etzien San Pedro Apostoloak Ananias ta Safira senar-emazte gezur andietan arrapatu zituenai? Illik erori ziran biak bein banaan Apostoloaren itz beldurgarriekin. Nora ninoake ekarri nai banitu santu askok aldi askotan agertu duten aserre ona, ta bide zuzenekoa bekatari gogortuen kontra ta Jangoikoaren honra gatik? Maite zituzten ordea aserre une aietan, zematzen zituzten bekatariak, emango zituzten bizitzak, beren salbazioa gatik. Onegiten zien alegiñez, ta aserre ta guzi, zeuzkaten biotzak lagunaren amarez argal-durik bezala. Ona emen aserre santuaren ezagugarria.

Ala bada aserratea gurasoa bide onez ume gaizki egiten duena gatik, jo ta kastigatzea neurri onean, pasio gabe, amoreak, ta umea ondu naiak zigorra darabilela, da aserre zuzen edo bide onekoa. Neskatz bat aserraten bada bizkor bizkor bere garbitasunaren etsaiaren kontra, gaizki esaten badio arpegi aserrearekin, anima gordetzerren (sic) ta beste bein tentatu ez dezan, da aserre bearra, garbi ta bide onekoa, zeren makaltasunarekin ezer egiten ez dan egoak eman baizik tentatzalleari. *Aserra zaitzte*, dio Espiritu Santuak Dabiden aoz, *baña bekatu gabe*. Aserre onetik datorren gorrotoa, da ona ta zuzena. Ona zer dion Jesu Kristok: *gorroto ez dionak Guraso, edo aideari, ez da nere eskolakoa*. Esan nai du, ez gorrota ditza-gula Gurasoak gaizki naiz; ta bai ez egiteko beren esanik, ez jarraitu konsejurik Jesu Kristoren doktriñaren kontra. Agur batekin larga guraso ta aide guziak, Kristok dei egiten badigu beste leku batera. Lotsa gaiztorik galdu bear etzaie, baña bai atzetu beren amorea, aurretik datorrenean Kristorena.

Jesu Kristoren eskolako erakatsiak ona emen: *Masallako bat ematen badigute*, eraman ixillik aserre gabe, *ta prestatu* edo eskeñi *beste alde bigarrena artzeeko*. *Auziz kendu nai badigute Korputz estalki edo alkandora eman kapa ere bakearen amarez*. Persekuzio, esetsi, iraun gogor, ta naigaberik miñenak ematen badizkigez, naiz asmatu gezurrik astunenak, ez aserratu, ez gaizkirik egin gaitz egiten digunari; *maita ezazutez zuren etsaiak; erregutu Jainkoari persegitzen zaituzten, ta ez tiranak asmatzen dezkitzenagatik; eta on egin ietzue gorroto dizuenai*. Onela bada eragozten du Kristok gere buruaren amore aragizkoz, edo gerekoitasunez aserratea; ta gorroto artzea, ta bakarrik nai du aserra gaitzela neurri onean, pasio gabe gere animaren ona gatik, edo Jangoikoaren onra dijoanean, edo bai aserrea zuzentzen danean lagunaren onera, biotzean bere amorea gordeta.

G. Baña adierazo bear dit zeago, noiz izaten dan bekatu aserrea, noiz bekatu mortala, noiz ariña edo beniala.

E. Aserraten geranean arrazoi zuzen gabe, iraun erazitzen diogunean aserre txarrari, beti da bekatu; baña aserrea bada txikia, biotzean gutxi sartua, edo igui naturaleza argaletik geiago datorrena borondate gaiztotik baño, izango da bekatu benial, edo parkaeraza. Gurasoak batzuetan aserraten dira muga edo modu gabe, egiten dizte agiraka molde gabeak edo gaizkiegi esan umeai; baña nola borondate txarrik ez dien geienez, ta biotzean kalte andirik ez dagoan, ez dute bekatu mortallik egiten, baña bai benialak, arrazoi ta neurri onekoak ez diranean. Ez det esaten guraso birao andiak ta sarri egiten diztenak gatik, zerren asko alditan egiten dute bekatu mortal, edo eskandaluz, edo borondate gaizto. Oro bat maisu, etxeko jaun, ta agintariak izan oi dituzte borondate gaizto gabeko aserratzak gordetzen ez dutela itzetan, ta egiteetan karidade bear dana, edo pasioak darabiltzanean. Oen onelako aserreak ez oi dira igaro bekatu ariñetik.

Badira Kristau batzuek berritxu, itzjarioko, ta gogaitkarriak beren gatzgabatasuna gatik. Onelakoai artzen zaie igui, edo enpadua, atzeratzen gera bere tratutik, aldegiten degu beren itzkera edo konbersaziotik gorroto modu bat zaie; baña nola biotzean borondate gaiztorik ez diegun, poz-tuko ere ez giñatekean beren gaitz egiazkoetan, alako igui, aserre motel, edo enfadu artzea, ta aldegitia, ez oi da izan bekatu mortala, ta noiz bait ez beniala ere karidadeari ikutzen ezpazaio. Injuria edo bidegabe ezagunen bat egiten ez digutenai, gutxitan gertatuko da artzea gorroto gaizto biotz osokoa.

Baña zenbatek egiten dituzte bekatu mortal ta latzak injuria edo kalte andiren bat egiten dienean, edo begitantzen zaienean egin diela? Onelakoak agertzen dituzte señaile ezagunak igarteko daukatela pozoitua biotz guzia.

Lenengo ezaubide edo señaile argia da, injuriaren ondoren birao gogor ta gaitz andiaren eskiñigarriak egiten dituztenena. Oen artekoak dira neskatxa garbitasuna galdu duteenak ezarri oi dituztenak galaiaren kontra ukatzen dienean oek aurraren aitatasuna, edo ezkontzako itza. Nork esan zenbat ta nolakoak diran? Amore gaizto leengoa biurtzen da gorroto gaiztora. Orduan dira esateak, milla demoniok eramango al du, ilko al da konfesio gabe, ta burura datorkien guzia. Isilduko ziran birao gabe, ondo irten baliete beren asmoak; dote ona atera balute, ta geiago ezkontzarekin irten, esango lukee, zorionekoa nere bekatua.

G. Zer bada, gorrotorik artu bear etzaion bekatu lagun edo anima galdu digunari?



E. Bai bide onez, ez gaiztoz. Jangoikoagana biurtu dan animak, edo biurtu nai duenak (baña nork biurtu bear ez du?) erakutsi bear dio arpegi astun, illun ta mukerra bekatu lagun edo tentatzalleari, iges egin urrutitik itzik ere ez egiteko. *Kristaua bada bekatu loira emana*, dio Apostolo batek, *ez onelakoarekin mai batean jan*. Zenbat arrazoi geiagorekin iges egin bear da alakoak tentatzalleak badira, ta animak galtzen dabiltzanak? Oei zaten gorroto edo ekusi ez naia, da animaren onean, ta bide onekoa. Baña idukitzea gorroto biotzekoa munduko honra, edo on izatea galdu digulako, ekitea birao ta araoka, da ernegazio ta deabru gorrotoa.

Badira auzoetan bizi diran batzuek errierta bat izan dutelako, gordezen dutenak borondate gaiztoa ta ezagutu nai ez dutenak. Ez dute len bezala alkarrekin tratatu nai. Dagoala bere etxean, ta ni nerean. Ez nion nik gaitzik egin; bera asi zitzatan gaizki esaten, nik biderik eman gabe. Barkatzen diot, ez diot gaizkirik nai, baña bukatu ziran nere, ta aren arteko itzketa, artu-eman, ta etxe-sarrerak. Pakea eman bear diot nere buruari. Onelakoak bizi dira bekatu jarraituan, ta egiten dituzten konfesioak dira gaiztoak, gezurrezko, ta damu gabeak. Ona emen jakitun guzien zuzenbide ez da baidagabea.

Aserre edo injuria artu danaren ondoren ematen ez dituztenak Kristau-amorearen señaile, edo ezaubide agiriak, bizi dira gorroto osoan. Señaile oek ez dira guzietan berdiñak; aideak aideai, auzokoak auzokoai zor die geiago Kristau bata besteari baño.

Igarobidezko agur otz, ta motel bat ez da asko aserre izan diranen artean agertzeko ongi nai, edo amore señaileak. Aserrerik izan ez dutenak, ta gorroto gabe daudenak agur egin gabe igarotzea, bekatu ez da; au gertaliteke prest daudenen artean onegitera. Baña egiten danean demostrazio au aserrearen indarrez ta adirazotzeko bakoitzaren erra txatarra, da ukatzea bear dan señailea. Gertatzen da baserri, edo mendi etxeetan aserre bat auzoen artean. Gaisotzen da etxe batean nor bait. Alakoetan ekusi edo bisitatu oi dute auzokoak gaixo dana. Aserrea izan da, ta ez joan bisitatzera, ez eraman olloa edo zerbait aserre izan ezpalitza eramango zana, ta beste auzoetako aserre ez diranak bezala, sua palta danean ez joan billatzera lengo gisan, ta itz batean, ukatzea auzo onak oi duteen artu-emana, ta au aserrearen indarrez, da ez ematea auzoak auzoari zor diona usuz, edo oituraz ta agertzea biotzeko gorrotoa. Emendik datoz zer esanak, jendeak esatea gorrotoan daudela, ez dakitela nola konfesatzen diran. Nongo doktriña da au, *begy bera bere etxean, ta ni nerean?* Zer esango die Jesu Kristok onelakoai egun batean? dijoala ori bere etxera, edo Infernura, ta ni nereakin nerera. Badira guraso gaiztoak aserre ondoan galerazi, edo

debeketzen dienak seme, alaba, morroe mirabeai aserratu danaren auzoko etxera joatea. Pakea eman nai diot buruari. Eta da pakea ematea pake gabe, kezka betikoan, erra txarrean auzokoarekin bizi izatea? Ona zer dion Kristok: *Eraman nai badezu altarara eskinsari*, edo ofrendaren bat, *ta gogoratu bazatzu nor baitek zure kontra kez karen bat duela, aserre dala, larga beiniik bein ofrenda eramateari, billaezazu aserre dagoana, egitzatuz pakeak, ta gero egizazu ordu onean eskintza edo presenta aldarakoa*. Ez du Kristok esaten, itxedon bear dezula besteak pakerako billa zaitzan; dio zeuk billatzeko; ez dio Kristok au, zeuk aserrerako bidea eman ta gorrotoan zaudenean, ta bai bestea aserre danean ta gorrotoa duenean zure kontra. Badago zer eranzun Kristori? Asmazio ta esesio guziak ebakitzen ditu Jesu Kristok itz oekin. Ez du nai artu ofrendarik pakean ezpagaude, paketzeko bideak artu gabe. Zoaz eranzutera Salbagille oni, Jauna, ez nion nik gai edo motiborik eman aserratzeko, ta gorrotoan egoteko; berak billatu bear nau, ta nik bera ez paketzeko. Lotsa naiz itz egiten; bear bada egoak artuko ditu berriz ere ni zapaltzeko; esango du nere etsaiak, berea zala arrazoia, nik barkazioa eskatu diodala, ta lotsaturik geldituko naiz... Zer esango lizuke Kristok? Bera ere guk ofenditu degula lagunak gu baño sarriago. Berak billatzen gaituela gu ere berekin pakeak egiteko; bein baño geiagotan ezetzta eman diogula, bota degula ordu gaiztoan bezala; itz batean humillatu bear degula lagun aserratu paketzeko. Mundurik geienari gertatzen zaio onetan auzitan dabilzenai bezala; bakoitzari deritzo bere aldetik dagoala arrazoia; ta ala bata bestea gatik, alkar billatu nai ez da, diraute aserreak, gorrotoak, ta zer esanak ematea; ta Kristok, zeñek eman digun doktriña erabakia, agertuko du guziena, edo alde bietatik zegoala kulpa, edo obena, ta bialduko ditu inoiz pakerik izango ez dan betiko etxera. Azken ederra. Konfesorerik jakitunenai ere zoroerazitzen die onelako estalgilla, ta asmari gaiztoak; ta oñean gelditzen dira aserre ta gorrotoak. Ala diaz komulgatzera esanarekin, Jauna ez diot nik gaizkirik nai, barkatzen diot, prest nago edozein mesede egiteko nere bearrean gelditzen bada; itz ederrak, baña joango zera bere etxera len bezela? Itz egingo diozu amarez ta arpegi onarekin? Biurtuko zera lengo artu-eman, edo auzo onak bezala, len alkarrekin zeunkatenera? Jauna ori ezin nezake bera leenago nere etxera ez padator. Besteak esango dio beste anbeste bere konfesoari, ta ala oñean geldituko da eskandaloa, ta ezagutu nai ez dezun gorrotoa, ta biok kondenatuko zaitu Jesu Kristok jarraitu etziñelako bere doktriñari.

Egon ere oi dira gorroto estaldu edo ekusi ez nai ezkutukoak opizio batekoen artean. Jostun, edo dendari batzuek besteen batzuen kontra irabazia gutxitzen dielako, dabilza alkar gatik atzetik gaizki esaten, bata bes-



tearen alabanza edo onik enzun nai ez dute; galtzen die honra, esanaz puntada txarra duela, ojal asko bear duela zerbait egiteko, iñoren onik ekusi ezin duela, zataltxo galantak ezkututzen dakizkiala; ta zer ez? Barberak medikoen kontra, oek alkarren kontra; ta ala arotzen, olagizonen, ta bestelako opiziokoak bestelakoen kontra izan oi dituzte ekusi eziñak, gaizki esate bakoitzaren onnai edo interesetik jaiotzen diranak. Ez dira guziak alakoak, baña geiegi ekusten da.

Berriz, zer esan auzilarien arteko gorrotoen gañean? Jauna, zer dio? Auzitan egitea, bekatu da? Ori ez diot, baña bai auzitan dabiltzanak geien geienak bizi dirala bekatu gorrotozkoetan. Ez dezu sinistu nai?

Enzun bear nauzu. Auzitan dabiltzanak, dabilta edo kerella utseko auzietan, edo ondasunen batzuen eske, deritzelako esku edo deretxo ona daukatela. Nik deritzot, onegi nabillela badiot, kerella utseko auzien artean nekez nekez arkituko dala bat bendeku naitik ez datorrena. *Nondik auziak zuen artean?* galdetzen zien San Tiagok bere egunetako Kristauai. *Ez ote datoz zuen guraari, edo naikunde bidegabekoetatik? Unde lites in vobis? Kristauak kristauarekin auzitan Aita baten umeak izanik? Zergatik igaro ez pazienziaz auzi gabe? Zergatik, ez da baidaren bat jaikitzen bada, billatu ez alkarrekin ondo jartzeko bideak Konsejari Kristau aituen bidez?* Badago zer eranzun San Pablori? Zer esango zuen Apostolo onek balekusaz gaurko auziak? Igaroko balitza Tribunalak dauden errietara ekustera anbeste eskribau, ta prokuradore kalzarbeak prozesoz beteak, ogei ezkutuko bat balio ez duen gauza gatik, gezurra esan dezu esan dielako beste gabe, beltziturik eun pliego baño geiago? Onra galdu dit, kalteak egin ditzaz. Etsaia ezpalitza, ez legoke zer barkatu; etzedukan zer agindu Jesu Kristok, on egiozute gaizki egiten dizutenai. Ez da Kristoren eskolan ikasiko orrelako ordue-tan kerellak ematea, onra igarokor ta galerraz bat beretzerren. Ixiltasunak, ta onez igarotzeak irabazi ta pake geiago ekarriko dizu, lagun etsaiaren kontra paperak belzitu, ta biraoka ipiniak baño. Jauna, esan oi dute, nik ez det bengai bidegaberik billatzen; nere eskuz gaizkirik egin nai ez diot; zuzentzen naiz Justiziaren legeetara; orretarako daude juezak lurrean gaiztoak eskura ekartzeko gastigoaren bidez. Ederki, baña ondo irtengo dizute Jangoikoaren begietan esesio, estalki, ta buru garbitu nai oriek? Aztertu konzienziako zokondo, ta arkuntza guziak. Ez dezu bengairik nai; baña esaten dezu, zuk erakatsiko diozula obeto itz egiten, gogoan iduki-ko duela zer egin, edo esan zizun; pagatuko dizula; kondenatuko dutela juezak zuri barkazioa agirian eskatzera, ta auziko gastu guzietan. Ez dezu bengairik nai, baña bai gaizki esan, edo egin dizunaren diruak igarotzea eskribau ta justiziakoen eskuetara. Etsaia ipintzen dezu bide onetatik

etxerako bear zituenak gabe; au gelditzen da betiko gorrotoan bezela zure kontra; bear bada ezarten dizkitzuz milla birao. Bere etxeakoak, senide ta adiskideak esango dituzte milla gaizki zure kontra; galtzen dituzu anima asko ixillik ta geldi egon etziñalako, ta jarraitu etzenuelako Jesu Kristoren esana, ta nola irtengo dezu justiziak berak juzgatuko dituen juez Jangoi-ko onen tribunalean? Esango dizu, zuk billatzen zenuen lurrean etsaiaren kontra justiziako bidea. Nik ere bai orain. Nik justiziako bidetik juzgatu-ko zaitut; barkatu etzenuen; ez da nik ere orain.

Arrazoiz itz egiten du, ta ez dute zer esanik itz utsak gatik kerellak ematen dituztenak. Honra billatzeko bidea da ixillik, ta onez eramatea; etsaia bera lotsatu ta etorriko da bestera itz egitera; baña eman dit belarondoko andi bat. Niri geiago, dio beste batek; ostu dizkidaz soro, baso, edo etxetik nere gauzak... Zer egin justiziarri zuzendu gabe? Belarondoko, edo masallakoa gatik, dio Kristok, ez atzeratzeko beste bat artzetik; esan nai du igaro ditzagula onelako ofensa edo bidegabeak pakean ta ixillik. Gauzaren bat, au da korputz estalki edo alkandora eskatzen badigute auziaren bidez, emateko kapa ere. Doktriña au jarraituko balitza, eskribau gutxi bearko lirake; etxeak obeto, erriak pakean, ta pobre gutxiago.

Ala ere esan ez dezazun obligatu nai zaitudala jarraitzera estu estu perfekzioko doktriña ederra, erakatsiko dizut nik zer egin kalteak egin dizkitzuenen. Beñik bein ez sutu, ez aserrearri lekurik eman; erakori begiak Jangoikoari zure esturasun ta naigabeen; ez dizut esaten estutu etzaiteala; eztago zere eskuan estututzea biotza, baña bai zuzentzea Jau-nagana eskatzeko pazienziako grazia. Zoaz gero erriko kura, edo sazer-dote on bat bategana, esan zaozu zer gertatzen zatzun, nolako kalteak egin dizkitzuen, ta onek artuko du bidea eskribauetara joan gabe bakean gauzak konpontzeko.

G. Baña auzi bat iñori eman bear badiogu, azienda edo ondasuneta-
ra eskubide ona degula baderitzagu, zer egin? Nola egon auzirik egin gabe?

Auzia iñori emateko arrazoiz, gauza askori begiratu bear zaio ase-
rregabe, edo bide zuzenez eman nai danean ere. Gere buruaren asko-nai ta maitetasun larregiak itxutu lezake borondate onekoa ere. Erraz sinisten degu gere alde dagoala arrazoia ez dagoanean ere. Bagoaz galdetzera lege-
gizon, edo letraduari, nola ez dan erraz jakitea besteak dauzkan arrazoi guziak, utsegin lezake bere iritzia ematean. Bestetik atsegin eman nai zaio alegiñez, edo arrazoi apur bat arkitzen bada galdetu edo konsultatza-
ra dijoanari. Eta zer, letradua balitza diru zaleegia, irabazian geiago Jangoi-
koagan baño bere begiak ipinita dauzkana? Irabazi nai bidegabeak, zen-



bat itxutzen ditu? Arrazoi guziz pisutsu ta erabakiak iduki bear dira pose-sio, edo jabetasunean dagoanari eskatzeko beretzat pakean zeukana; zeren arrazoi berdiñetan onelakoarena da eskubidea. Artu ere bear da gogoan, nolako naigabea eman bear zaion lagunari auzi eman, ta kendu nai izatean beretzat zedukana. Eta geienez, nolako gorroto, ekusi nai eza, ta amorrua artuko ez dio? Nolako biraoak? Zenbat ekusi ezin oen aide, ta adiskideta-tik? Galdu bear da diru ta denpora asko gora-bera, ta auzi abarretan. Itz batean dio San Franzisko Sales pakezaleak, *San Agustiniñekin auzitan jardun ta bekatu-rik egin ez, ozta ozta grazia ori emango zaie Santuei*. Ala bada, auzi bear bearra eman orduko egin bear dira Zerura eskari beroak; billatu bear da biotz onez gizon pakezale, aitu, ta zuzen bat konseju artzeeko. Auzia pre-miazkoa bada, eman baño leenago artu bideak eskribau ta justiziako ospe gabe, bitarteko onakin, pakeak egin al badidiz zerbait galduta ere. Ezin bada, ta auzia abiatu bada, ez gorrotorik artu, ez gaizkirik esan, jarraitu len bezala adiskidetasun, edo itz egiteari. Erregutu Jangoikoari izan deza-la indarra arrazoi egjazkoak, ta ez gezurak.

Berriz auzi ematen badigute, ta burua gorde bear bada, artu pazien-ziaz naigabea; bakea billatu, arkitu al badidi; ez gorrotorik artu auzi emalleari; bear bada arrazoi onak dauzka artarako nik uste ezpadet ere. Ez tes-tigo gezurrezkorik billatu; ebilli zuzen ta egiaz; eskatu Jangoikoari lagun-tasuna arrazoa gure alde bada, arkitu ditzan Juezak, ta auzia galdu bada, ez abiatu biraoka, madarikatzen laguna, ta lagunaren adiskideak. Artu kolpe au humill humillik, ta ekusiko degu, nola mundurako galdu degu-naren orde, emango dizkigun animan, ta bear bada mundu onetan, onda-sun geiago balio dutenak, Job Santuari biurtu zizkon bezela. Oek dira Kristautasuneko legeak, ta jarraituko balira, auzi gutxi lirakee, ta diranak ere ospe ta aserre gabeak. Baña zer ikusten da? Auziak auziaren gañean, nekazaria ondaturik, eskribau ta oen laguntzalleak, apaindu, gizendu, ta diruz josirik. Gorrotoak, ekusi ezinak, biraoak, ernegazio itzak, emen gaizki ta gero gaizkiago. Auzien bidez, zenbat anima galtzen diran, baka-rrik Jangoikoak jakin lezake. Pakea ematera etorri zan Jesus lurrera; pakea eskeñi ta opa zigun Zerura joan aurrean, ta kristau errietan arkitzen da auzi geiago ez diranetan baño. Ala da. Judu gogorak, Turku, Mauru, edo Mahomaren jarraitzalleak ez dute auzi gutxi ta laster bukatzen dituztenak baizik. Onra ederra ematen diogu Jesu Kristoren lege, amorio, ta karida-dean sustraituari! Infernuan izango dute asko auzilarik, iñoiz azkendu edo bukatuko ez dan auzi ederra. An gorroto, ta alkar ekusi ezin betikoa, ta pakezaleak zeruan betiko pakea.

Ona bada zuzenbidea lagunari zor diogun amorioaren gañean. Amatu bear degu biotzez, ta agiriz, barru ta kanpo; amatu bear degu amo-rio Jangoikozkoaz, ta ez bakarrik lurrekoaz; ez bakarrik aideak, ongiñak, ezagunak, adiskideak, ta erri batekoak diralako. Zer? dio Kristok, *Fedega-beak ere ez dute orrenbeste egiten? Nonne et Ethnici hoc faciunt?* Au da nere legea dio Maisu Jangoiko onek, *maitetu dezazutela alkar, nik maitatu zaituztedan bezala*. Eta zergatik maite izan zituen Kristok bere eskolakoak? Ez aideta-sun, errikotasun ta mesedeak artu zituelako, ta bai amorio garbiz. Onela bagabiltza, ez diogu begiratuko lagunagan, baizik Kristoren aginduari. Etsaia bada ere, on egingo diogu. Guziok gera Aita baten umeak, bere odolarekin erosiak, mai batean biltzen geranak, ta guk galtzen ezpadegu, Zeru batean idukiko gaituenak. Zer besterik bear da? Azkenean ona iñoiz desegingo ez diran Jangoiko-itzak: *Zorionekoak errukiorrak, zeren berak ere arkitu, edo eretxiko duten erruki edo miserikordia*. Berriz biotz gogorren jabeak, gaizki ebilliko dira azkeneko orduan. Ez dezu barkatu nai biotz osoarekin? Etzaituez bada barkatuko zuri ere bekatuak. Zuk laguna neur-tzen dezun neurri berarekin, neurtua izango zera. Aserre gorrotozkoan zauden artean, ez du Jangoikoak zure eskaririk enzungo, ta ez egite onik artuko ere. Santu guzien penitenziak, martiri guzien tormentuak, Apos-toloak beste anima, Zerurako irabazteak, ezer balioko ez dizu gorrotoan bazaude, ta arima guzitik barkatzen ezpadiozu. Ta zure azkena izango da alkarren gorroto ta betiko etsaitasunean dauden infernukoekin. Jangoiko-ak gorde gaitzala ala izaitetik (sic).



ERAKASTE XVIII.

Animako Eriotza, edo Eskandaluaren gañean

Vae mundo a Scandalis...

Esan degu leenagoko doktriña bietan, zer aditzen dan korputzeko eriotzaren izenean; nola kendu bear dan biotzeko gorrotoa edo eriotza. Badago eragozten dan beste eriotza bat ere, zeña dan animakoa, ta kaltegarriagoa korputzari bizitza kentzea baño, ta oni deitzen zaio Eskandaloa.

G. Zer da ordea Eskandaloa?

E. Da esatea, edo egitea zerbait ezaueraz, edo ezagutu bearraz nondik lagun edo proximoak artu dezakean bidea bere anima galtzeko. Edo orobat ez esatea, edo ez egitea, egin, edo esan bear dana, ez esan edo ez egiñaz animaren bat galtzeko bide edo gaia ematen danean.

G. Bekatu au beti da andi edo mortala?

E. Ez; nolakoa dan animari ematen zaion kalte bidea. Gezur txiki bat erasotzen badiozu, edo aserre gutxiren bat artu erazo, izango da bekatu beniala, zeren bakarrik ematen diozun bidea bekatu benial edo ariñen bat egiteko. Baña tentatzen badezu egin dezan gezurraren gañeko juramentua, edo eman bidea nai dezula, edo ezaueraz maldizio astunak egiteko, izango da bekatu mortala, ematen diozulako bidea, bekatu mortala eragiñarekin, kalte guziz andia animara ekartzeko.

G. Beraz nik bekatu mortalen bat egiteko bidea emana gatik lagunari, onek egiten ezpadu, ez det nik bekatu mortalik egin izango?

E. Ez diozu ondo; bada, asko da bidea ematea, ta peligro andian ipintzea, ematen dionak bidea, bekatu mortala egiteko.

G. Baña nola bekatu izan kalterik etorri ezpazai?

E. Egin dezulako zuk bide gaiztoa emanaz zerez bear zana bestearen anima galtzeko. Demagun jaurtiki nai diozula zuk suarma batekin gizon bati bera heritu edo iltzeko asmoz, ta ez dizula surik artu, edo utsegin dezula. Zerez danez ill edo heritu zenuen biotzean, edo gogoz. Ala bada zuk esaten diozkatuz emakume bati bekatoren bat eragiteko itz tentagarriak; onek lekurik eman ezagatik, ordu gaiztoan uristatu, edo bota zaituelako, zuk egin dezu bekatu eskandalozkoa Jangoikoaren begietan.

G. Eta esaten edo egiten dan gauzak nondik bekatu egiteko bidea ematen diozun lagunari, nai ta ez izan bear ote du berez txar edo gaiztoak?

E. Ez; asko da batzuetan gaitzaren irudia idukitzea, ez izanagatik. Ona zer zion San Pablok: *baldin nere aragi jateak ematen badio kristauren bati eskandalu edo bekatubidea, ez det aoan aragirik sartuko*. Osasun ona daukadala badirudit, ta egiaz ez idukiaz ta ondo dakianaz konsultatu edo itunduaz, jan badezaket ere aragia egun debekatuetan, jango ezin det nakustanen aurrean oei sinistu-erazo gabe, osasun paltaz, jan dezakedala aragia. Etxeren batean sartzeaz ematen bada zer esana ta gaizki esateko bidea, asmo gaiztorik iduki eza gatik sartzen danak, larga bear du sarrera, jendeak ezagutu dezan artean ez dagoala gaizki juzgatu edo esateko biderik.

G. Ori orrela bada utzi bearko dira gauza onak ere, eskandalorik ez ematearren?

E. Noiz nola. Jakin bear da onetarako gerta ditekeala eskandalua artzea bi aldetara; malizia edo gaiztotasun utsez, argaltasunez eta jakin ezaz. Baldin egitada edo obra ona bada bear bearra, ez da larga bear egin-gabe zer esan edo eskandaluaren beldurrez. Fariseoak esaten zituzten gaizki andiak Jesu Kristoren kontra Salbagille onen mirari ta Sermoiak gatik. Ordea jarraitzen zion predikatze, ta mirariak egiteari; oek bearrak ziralako, ta ez borondate utsekoak; berriz Fariseoen murumurazioak gaiztotasun utsez egiñak ziran. Baña pagatu zion Erromako Enperadoreari zor etzuen petxa edo tributua, zekialako gaitz-iritzia izango zala ez pagatzea. Gaurko egunean zer esan, edo murumurazio beldurrez larga bear balira gauza onak, utzi bearko giñoke sarri konfesateari, limosnak egiteari, bizitza ona eramateari, ta irten bearko genuke munduko jolas gaizto, nasaitasun guzietara; bada ez dago gauza ekusiagorik nola dan persegitzea, ta murmuratzea gauza onetan jardun nai dutenak gatik. *Sinite eos, Coeci sunt, et duces coecorum*. Esango likegu Jesu Kristok bere egunetako Fariseoak gatik ziona: *larga larga* esan dezeen nai duten guzia; *itxuak dira, ta itxu mutillak*. Nork jarraitu itxua dan gidari, edo itxumutillari? Noiz edo berriz gerta diteke utzi bearra gauza ona ta obligaziokoa, eragoztearren lagunaren bekatua, ta bakoitzaren animako pelgroa. Emakumeren bati gizaseme gaiztoren batek pausoak zaitzen badizka bekatu bidea emateko, ta meza enzun bear dan egunen batean ezin irten badu etxetik Elizara bakarrik baizik, ta uste badu bidean zaituko duela gizon gaiztoak, egon bear du etxean mezarik enzun gabe. Onelakoak gutxitan gertatzen dira. Dakuskun bada zenbat gisakoa dan eskandaloa. Bata da agiria, zabaldua, edo publikoa; bestea ixill edo ezkutukoa. Agiria da askoren begi edo belarrietara eltzeen dana, zeña zabaldu oi dan geiegi ere. Onelako eskandalo asko dago. Neskatz bat erorten da bekatu loian, ta gelditzen da aurdun. Onen bekatuak ots egiten du erri guzian ta albokoetan. Zenbat



zer esan, ta murmurazio bide? Lenengo illetan asitzen dira susma, zaio, edo sospetxak; batak, aurdun dagoala urlia neskata; besteak, ez dagoala; batak, izango dala urlia mutil, edo gizonarena; besteak, berendiarena. Ezarten dioe erru edo kulpa eztenari; aitatzen da leku askotan; bakoitzak esaten du otu edo antojatzen zaiona. Dia zabalduaz; aideak beldurtzen dira; gurasoak milla naigabe. Artzen diztez kontuak; lenengoetan uka ta uka; gero ezin ixilduan, esaten du urlia mutil edo gizonak engañatu zuela. Aita danak bear bada milla biraorekin ukatzen du. Orduan negarrak, ille ateratzeak, madarikazioak, auziak... Zenbat animako kalte edo eskandalo, onelako bekatuetatik? Noren leporako dira? Ai ai mundubarena eskandaluak gatik! dio Kristok. Nora ezekoak bezela dira eskandaluak; etorri bearrak mundukoan gaiztotasunez. Baña ai alako eskandalo emallea! Obe zuen jaio ezpalitza.

Beste eskandalo ixilleko edo bakarrekoa da banaan, bakarrean, edo baten edo besteren aurrean ematen dan bekatuak bidea. Eskandaloa eman liteke zuzen, artez, edo zerrera, naiz albokerara, (*directe, vel indirecte*). Ematen da zuzen edo artez esan edo egiten danean zerbait lagunari bekatua eragiteko asmoz, onela eskatzen dionak neskatarik bekatuak laguntasuna, naiz batek besteak konbidatzen duenean gauzaren bat ostuzera. Zerrera edo albokerara ematen da eskandaloa, billatzen ez danean besteren bekatu egiterik, baña esan edo egiten duenean zerbait, igarten duela, edo igarri bear liokela, artuko duela nork edo nork argaltasunez bekatuak bidea. Ala guraso maldizioko itzak sarritxo esaten ditzenak umeai, edo umeen aurrean besteai, ez dute egiten artu dezeen oek maldizioak egiteko biderik; baña igarri bear dioe enzunaz ikasi, beldurra bota, ta gero artu dezakela umeak ere alako oitura txarra; bada eskola txarrean azi danak, geienez ikasiko ditu egiten gauza txarrak. Orobat esaten dituztenak jende gazteen artean ipui itxusi loi, naiz bestelako itzketa desonesto edo bekatu loiarene gogoragarriak, nai ezpalute ere iñork lekuri ematea atsegin gaiztoari, nola igarri bear duten jartzen dirala bat baño geiago konsentitzeko edo borondatez gozatzeko irrisku edo bidean, ematen diote askori eskandaloa askoren aurrean bada, ta beren animen gañera artzen dituzte ematen diran bekatu bideak, ta besteen animetako kalteak. Itz zatar edo desonestoak enzunda jende ato edo pilla batean, batak egiten du irri parretxo bat, beste batek algara gozoa, beste batek txalo pozez; besteak, geitzen edo luzatzen du itzkunza ura. Aragia ez dago illik; mutil edo neskata gaztetxoak abiatzen dira gogoan itzak artu, ta zer esan nai ote duten; ikasten dituzte etzekizten gauzak; ta emendik zenbat galdu dira

gero beren bakartadean itz aiek gogoan artu, ta deabruak sendoago eraatsita?

Jauna, diote mingain madarikatuen jabe oek: Nik ez nuen nai itz alakoak esatean iñork bekatuak egin zezen; bai bakarrik parre eragin, ta denpora igaro olgantz. Baña etziñon igarri bear bekatuetako bideak ematen zinituela alako itzkerakin? Nai dezu parre eragin bekatu mortalak eragitiñ? Olgatu Jangoikoaren ofensen artean? Au da gaiztakeriarik andiena parrez ta jokoz bekatua egitea. Bazenuka zuk zere etxean zakur andi gaizto ta kateatua egon bear duena, eta aterako bazenu kanpora igarri bearrean galduko dituela arkitzen dituen jendeak; edo oro bat etxeko kortan zezen gaizto bat, ta idikiko baziño atea, zakur ta zezen oek egiten dituzten kalteak, noren lepora joko lukee? Eranzu ezazu. Zer balioko lizuke esatea zuk atera zinituela etxetik mutil ta gizonak olga zitezen suerteak ateratzen? Olgatze edo dibersio ederra anbete kalteren peligroekin. Jakingo balizu lurreko justiziak zer egin dezun, kastigatua izango ziñake zakur ta zezenaren kalteak gatik. Eta zer egingo dizu zuri Jangoikoaren justizia testigorik bear ez duenak jakiteko zer igarotzen dan emen, zere aotik konbersazio edo izkune loi zatarrak aterata eman badituzu animak galtzeko ta bekatuak zabaltzeko bideak? *Agñia agñia gatik; anima anima gatik*. Esan nai du, zere animan infenuan pagatuko dituzula emen animetan egin zinituen kalteak, ta zure bidez infernura joango diranak, esetsiko dituzela zakur amorratuen gisan ara eramateko bideak zuk egin zinituelako. Egun ederrak itxaroten dizute penitenzi egiazko gabe eriotzak arrapatzen bazaitu. Ona emen gertaera edo ejemplo ez anziñakoa, ta bai neuk ezagutu dedan Sazerdote bati igarora.

Bizi zan erri batean beste asko bezelako mutil gazte Jangoikoaren beldur gutxiko bat, zeñek zeramazan egunak jokoetan, itz zatarrak esan ta eskuka tentagarriak neskataxi egiten. Joan zan gau batean oera ardura gabe; ta lotan zegoala artu zuen ames lurrekoa baño geiago zana. Zeritizon agertu zala Jesu Kristoren tribunalean animak korputza largarik. Ipiñi ziozken begien aurrean galdu zituen animak bere itz, ta eskuka zikiñen bidez, ta ondo merezitu zuela Infernura joatea. Mutil au asi zan denpora zati bat eskatzen penitenzia egiteko; esturasun artan eskeñi zan bizitza on bat egitera, ta eranzun zitzaion: ematen zatzu bada urte biko epe, asti edo denpora penitenzia egiteko. Onenbesterekin iratzartu zan, ta luze zeritizon goizari arinka joateko konfesore baten billa. Eguna ondo argitu gabe bezala elizara joan zan, billatu zuen neure ezaguna zan konfesorea, ta erdi illa zirudiala esan zion: Jauna, arren konfesatu bear nau. Esan zion lenengo konfesoreari, zer gerta zitzaion, ta sinis dezan, Jauna,



egia dala, begira nere alkandorari, ta erakutsi zion guzia odolean sartua bezela; zeren larritasun, beldur ta ikarak ateraerazi zion korputz guzitik odolezko izerdi ugaria Jesu Kristori baratza santuan biotzeko naigabeen irten zion bezela; eta nola ikusi zituen ain argiro bere bekatu guziak zeruko ames artan, zeduzkan gogoan eraatsirik ta esan zituen erraz ta biotza erdibitzen zitzaion damuarekin. Asi zuen bizitza berri ta penitente bat; zaitu zuen konfesoareak noiz iltzen zan, ta ill zan Jangoikoaren erruki edo miserikordiak mugatu zion denporan, au zan urte biak osotuta bereala, ta orduan argiroago ezagutu zuen konfesoareak zerukoa izan zala ekusmen zorioneko ura.

Ez det, Jauna, dio nork edo nork, orrelako ames beldurgarririk izaten gazte ark bezala igaro badituz ere urteak itz zatarrak esan ta eskuka tentagarriak egiten. Lo egiten det galanki, ta gozo gozo. Anbat gaiztoago zuretaz Jangoikoa ixillik egotea; aserre andiogoaren señaleara da, eta ezarriko dizu eskua kolpe gogorragoren batekin. Maite izan zuen mutil esan deguna amorezko aserrearekin dei egin, ta eman ziolako penitentzia egiteko denpora. Ixillik egon nintzan, dio Jangoikoak, gorde nuen nere itza, edo aserre ona, *Tacui semper, silui*. Baña urratuko det nere ixiltasuna, atera-ko det arpegia, ta emango det itz ondo zolia, artuko det zigorra.

Bada beste eskandalo emate gisa bat, ta da parre, edo siñu egiten zaienean ondo bizi diranai; ala atzeratu ditezkealako bertuteko bidetik. Ekusten badituzte sarri konfesatzen, lurreko ospe edo bulla zoroetatik aldegiten, au da esatea: *Ona emen beata moda berriko bat, egun gutxiko santa; laster ekusi bear degu aldaretan*. Nor piatu onelakoekin! *Len zerbait bazan; baña orain guzia galdu da; gatzik ez du ezertako, gona luzeakin, mantillarekin arpegia estaldu, ta kokoturik eleiz bazterretan alperrearian egoteko ona da*. Zorigaiztoko burlariak! Zenbat kalte egin dituzuten anima argaletan! Zenbatak largatzen duten Jangoikoaren bidea munduko ero, baño gaiztoagoen esamesak gatik! Abiatu ziñaten ondo esaten zien San Pablok, zenbiltzaten ondo: *Quis vos fascinavit?* nork zoraerazo dizute? *Currebatis bene; quis vos impedit?* Nork largaerazo dizue artu zenduten bide ona? Gaizto, onik ekusi ezin dutenak. Madarikatuak bai infernukoen lanak artzen dituztenak; baña zorigaiztokoak ere mundukoen esames, parre, ta esetsiak gatik aldegiten dutenak Jangoikoaren bidetik. Biurtu ziranean Hebreotarrak Babiloniatik, abiatu ziran jasotzen Jerusalem en erri inguruko orma edo muruak. Albo-etako jente gaizto batzuek, urreratu zitzaizten beargillai; egiten zuten alegiña bear ura eragozteko; etzien ezeri barkatu orretarako, ta besterik ezin zutenean egiten zien parre, ta burla. Baña ona zer eskatu zion Jangoikoari Nehemias Profeta Santuak: *Jauna, ez gorde, ez ez tali oen gaiztakeria; ez didi-*

lla desegin beren bekatua zure arpegitik; bada siñuka ta parrez atzeratu nai dituzte bear ta lan onean diardutenak. Orain bada, nolakoa izango da Jaunaren aserrea animako salbazioko lanak eragotzi nai izatea siñuka ta gaizki esanez? Gaiztoak nai dute kezka guziak kendu; besteen on egiñak ezarten die beazuna beren biotzetan; lotsatzen dira gauza onak ekusita, ta begien aurretik kendu nai dituzte; guziak beren lagun egiten badira, kenduko zaiela, uste dute, barrunbeto arantza ta keza; ta ez dute ezagutzen eroak, justu edo onen orazioak dauzkala bizirik edo kastigu gabe. San Pablaren amorez gelditu ziran ito gabe berreun baño geiago onzi batean galduagiñik ebilli ziranak. Ala bada ematen dituzte anima onen galbide edo eskandaloak, gaizki esaten dutenak kristau zuzen ta garbien kontra. Eta nolako bekatua au Jangoikoaren aurrean?

G. Nork bada eman oi du bekatu bide edo eskandaloa?

E. Txit askok; oek dira, itzez, eskuz, arpegiz, oñez, edo dan bezela dala lagunaren animak galtzeko peligro, edo irrizkuan ipintzen dutenak bekatu mortalen bat eragiteko bide ta gaia emanaz.

Orregatikan, ematen dute eskandalo, edo gaitzerako bidea aserrenen baten ondoren alkarrekin artu-eman arrazoizko ta len bezalakoak ez dauzkeenak; ematen dituztelako zer esanak, geitu gorrotoak alkarren aide, etzeko, ta adiskiden artean; bada batzuek jartzen dira bataren alde edo bando, ta besteak, bestearen; ta asko alditan auzoera edo erri zatia naastzen da biren aserrea gatik.

Ematen dute eskandalo edo gaitzerako bidea apaintzen diranak modestia galdurik, ondo estaldu bear diran lekuak agirian darabiltzkieanak; edo amorio gaiztoan katigatzeko asmoz apaintzen danean. Munduko moda ero ta ondagarriak ez dute balioko Jangoikoaren juizioan. Ikaratzeko doktriñak erakurtzen dira emakume apainzale ta arroen kontra Eskritura Santeetan, ta Elizako Santuak larga dituzten libruetan. San Ignazio Loiolakok agintzen zien bere diszipuluai, ez denporarik alperrik galtzeko konfesonarioan alako emakume mudazaleakin; lenengo etorreran konesju onakin egin zezatela alegiña janzi zitezen arrotasun gabe, ta bear zan modestiaz; ordea, ondu nai ezpazuten, ta bai jarraitu beren janzi modu astin ta arroi, bidaltzeko absoluzio gabe. Eun dama ta neskatx apainduen artean, bear bada ozta arkituko da bat apaintzen ez dana on iritziz, eder agertu naiz, arrotasun edo banidadez. Eta zenbat, gizasemen amorio ez ona iristearren? Oek dirudite Kristoren alabak? Mundua da gure animen etsaia. Nola bada anima gorde munduko arrotasunen artean? O lotsatzeko gauza! Jaikiko balira euskal-errietako lengo Señora ta Dama oraingoan asabak, ta ikusiko balituzke beren ondorengo buruetako



asmoak, ta korputz-janziak, zer esango lukee? Oraingo mirabeak arroago janzirik dabilta lengo etxeko-andra andikiak baño. Larga nai diot gai oni alperrik nekatu gabe, ta bakarrik orain esango diet, galtzen dituztenak animak janzi arroegi, ta modestia gabeakin, ematen dutela gaitzerako bidea, zeña dan eskandaloa.

Ematen ere dute eskandaloa neskatz ez gutxik beren arpegi ta begietako askatutasun, ta lotsa gabeaz. Ikusiko dituzu oen artekoak saltoka, deadarka, ta gizasemeai mokorkadak ematen, tenta ditzen asmoz, edo igarri bearrean mutillak elduko diela. Eta zer besterik nai dute? Ezтира aizar-tzen, egia da, mutil gaiztoak bezala musuak ematera, gizon gauzari eskuak egoztera, aitatu bear ez diran tokietara; baña ezarian, edo ezer egiten ez dutelakoan ematen dituzte bideak eragiteko gauza txarrak. Au da egia gar-bia, mutillik gaiztoenak geienez lotsa andiarekin begiratzen diela neskatzta modesta, Jangoikozale, ta aldegiten dutenai munduko bulla ta ebillune naasietatik. Eta noiz bait tentatu badituzte, ekusirik egin dion arrera txat-tarra, agertu dion aserrea, ta artu zuen igesa, beste beingo atzeratzen dira. Baña dakustenean neskatz mutillazale, bullazale, modestia gabe, ta arpegi jaiki bat, begien arintasunean, itzen nasaitasunean, ta ibilmodu eroan agertzen duena bere biotzean zer dagoan, agur mutilla, agur gizona; an dira eskukak, an apa laztanak, an itz lotsagarriak, an zer ez? Beraz emakumeak galtzen dituzte anima asko beren nasaitasunakin. Beraz erorten dira eskandaloko bekatu kaltegarrian, ta dira deabruaren eizariak.

Arritzeko gauza da San Juan Ebanjelistak Jesu Kristoren aldetik edo partez Tiতিরাকo obispo santu bati bialdu zion mandatu bat: *Au dio Jangoikoaen Semeak...ezagutzen ditut zure egite onak, zure fede, karidade, pazienza, ta aurrerapenak* gauza onetan; *ordea badaukat zerbait zer esan zuri; largatzen diozu ixillik*, edo bear bezala arpegia ateratzen ez dezu *Jezabelen* gisako emakume baten kontra, zeñek ematen dituen eskandalook, galdu animak, erakasten duela bekatu loietako doktriña txatarra. *Eman diot emakume gaizto oni epe ta lekua penitenzia egiteko, baña ez du penitenziarik egin nai, ez larga bizi-tza loi ta luxuriosoari, ez animak galtzeari. Nik ezarriko det* Infernuko oean, *ta berekin bekatu lagunak diranak*, egiten ezpadute egiazko penitenzia, *arkituko dira naigabe gogorrean*. Orain bada, zenbat onelako Jezabel, edo emakume daude ez leku zabalean, bai edozein errian? Zenbat, beren nasaitasun, begietako arintasun, itzen askatutasun, ta ebillera arroekin, likatzen dituztenak gizaseme gazte ta edade guzietakoak? Norako dira beren maitatzalle, ta jaraitzalleakin (sic) egiten ezpadute penitenzia, gogortzen badira enzun gabe Jangoikoaen deiak? *Mittam ean in lectum*. Ezarriko du Infernuko oera bekatuko oe zalea; ta oe artara bilduko dira berari jarraitu zioen

gizasemeak. Eta zer igaro bear dute alkarrekin Infernuko oe gogor suzko artan? Ala bada, denpora guzietan egin dituzte, egiten ta egingo dituzte kalte andiak animetan emakume lotsagabe, lasai, begi eraskor, itz ero, ta oin ariñetakoak. Ekusten dira oek mutil gizonekin bideetan, ardantegietan sarturik, edo besoak alkartuta saltoka, ijuika dabilzala. Jangoiko maitea! Zenbat bekatu egin ta eragiten dituzte? Etxean ostu gurasoai arto edo garia, apaindu bear baño geiago, ipiñi meriendak beren galaia... ta zer ez?

Ematen dute eskandaloa jaiegunetan bear debekatuak leku agrietan egiten dituztenak edo seme, alaba ta mirabeak obligatzen dituztenak bear egitera bekatu mortalera eldutzeko beste denporan; baita ere meza obligaziokoetan berriketa luzeetan daudenak, eragozten diela alboetakoai meza ondo enzuten, berak ez enzutea asko ez dala.

Egiten dituzte eskandaloko bekatuak guraso maldizogillak, umeai ostutzeko konsejuak ematen dizteenak, edo berak dakitela gauzak ostuaz, edo ontzat ematen dituztenak umeen lapurretak. Zer ikasiko dute seme-alaba, ta morroe-mirabeak ekusten badute, guraso, edo etxeko-jaunak dakartzela etxera auntz, ardi, ikatz, ta alako gauzak iñori osturik? Etxe guzia bekatuz bete ta diranak prestatu infernurako. Baldin eskandalo edo bekatu bidea ematen duen edozeñgatik badio Kristok: *ai gizon eskandaloa ematen duena. Obe izango zuen inoiz jaio ezpalitza*; zer esan guraso, umeai bekatu bidea ematen dienakgatik!

Berriz nork neurtu seigarren mandamentuan ematen diran eskandaloak? Zenbat daude ez dutenak beste itzkuntzarik zatar desonestoak baidiz? Biltzen dira gazte ta zarrak sukalde, ta bear lekuetan. An izaten da gaiztoren bat bereala asmatu ta ateratzen dituenak konbersazio ez garbiak; batzuek lagundu, besteak geitu, geienak algara gozo egin, ta orra askotan zar ta gazte animak galdurik. Eta nork esan biotz barrenetik igarotzen diran naikunde, edo gurari zikiñak? Zenbat ume edo gaztetxori irasten zaiez itz loiak, ikasten dituztela jakin bear ez diranak? Zenbat kalte emendik? Bai, dio San Pablo Apostoloak, *oitura onak galtzeen dira itzkuntza gaiztoekin*. Ez du ezer balioko Jangoikoaen aurrean esateak, olgatzeko, jostatzeke, parre eragiteko esaten zirala. Mingaña da sentidurik kaltegarriena, ezitzen ezpada. Zartuta ere irauten du ekandu edo oitura gaztetan artuak; ta ekusten dira agure ta atsoak zabaltzen infernuko doktriña gazteen animetan. Au da deabruaren errosario ta letaña gogo geiagorekin esaten dana Ama Birjiñarena baño. Nola iges egingo ez dute Aingeruak alako lekuetatik? Nola poztu ez deabru Jangoikoaen ofensa ta anima gal-tzea dagoan tokietan?



Egiten dituzte eskandalo ta bekatuak bideak, batari oratu, besteari musu, besteari eskuak egotzi, aitatu bear ez diran lekuetaronz. Deabruak dauzka asko adiskide bere orde animak arrapatzeko. Zer eskandalo ematen degu Jauna, esan oi dute, musuka, apaka, oraka ta onelako olgantzeetan neskatz ta mutillak ibillia gatik? Pakean gabiltza, ez degu auzka ta aserre gauzarik izaten. Onelakoak ez dute iñoiz aditzen zer dan eskandaloa. Uste dute ez dagoala eskandalorik erri guziari zer esan ematen zaion gauza gaiztoren bat egiten ezpada. Eskandalotzat dauzke ordikeriak, aurdun irteteko bekatuak egiteak, auzi gaiztoak, alkarren gorrototan askok dakitela egoteak. Baña dibersio, arazkeria, umore ontzat, bestelako eskuka, musuka ta aragiaren sugarrak: Nik diot ordi andi batek baño eskandalo ezagunagoa ematen duela, alako asmorik etzuen neskatz bati musu bat eman, edo esku egotze zatar bat egiten dionak. Ordi jakin ta ezagun bati guziak dioe gorroto, ta aldi askotan ez da iñor igitzen morkortzera, ordi andia ekusia gatik. Eta onetan dago eskandaloa, ematean bekatu egiteko bidea. Berriz neskata musu ta eskukorekin tintatua, jartzan dan leku emateko irrisku edo peligran biotzaz baño ezpada ere, ta bota badu mutilla ordu gaiztoan bekatu egin ezagatik neskatzak, bai mutillak eskandalokoa, bada berez zanez eman zion konsentitzeko edo nai izateko bidea. Etxe bati su ematen badiozu, gero itzeli arren sua etxekoren batek, zuk egin zenduen zerea biotzez. Izango dira mutil ta gizon beren egunetan eun emakume edo geiagori eman distenak anima galtzeko bideak; geienai bekatu eragin dienak atsegin txarren bat artuaz; ta bizi dira orregatikan anima galtzallak umore galantarekin. Zer geiago? Badi-tuzu doktriña gaiztoak irakasten dituztenak. Gertatzen da noiz bait gizon-semeren batek tentatzea eskuekin emakume Jangoiko beldurrekoren bat, onek aserre santuren batekin eranzutea, ez duela Jangoikoak alakorik nai, bekatu dala, ta larga dizola berari pakean, ken dedilla bere aurretik. Zer asmatzen dute tentatzalle onelakoak bekatuaren beldurra kenduerazitze-ko? Batzuek esan oi die, konfesatuta barkatuko dala, Jangoikoak badakia-la gure argaltasuna. Beste batzuek ematen die herejiako doktriña au, ur bedeikatuarekin barkatuko dala; ez dagoala artan bekatu egin, Zerua ezta la ain erraz galtzen; eskuka ta musu batzuek gatik ez dagoala infernuratze-rik. Oek bai dirala doktriña ederrak, herejiak erakastea, sinistu nai izatea bekatuak ez dirala Elizak ta Santu guziak bekatutzak dauzkenak. Oek dira eskandaloa zabaltzen dutenak fedearen kontrako gauzak erakatsirik; ta estaldu nai dute beren doktriña gaiztoa, Inkisiziora salatu ez ditzeen, esanaz, pasio gaiztoz esan dituztela, ez ala sinistuz. Nork daki beren biotze-ko berri? Herejiako doktriñak erakastea, ala dala sinis dezan emakume

argalak, ta bekatuko bidea zabaltzeko, da kastigatu bear dana fedeko doktriñak zaitu edo gorde bear dituztenen eskuz. Herejeak berak ere ez dituzte sinisten osoz, beintzat ez guziak, beren aldetik dagoala arrazoia. Luterok ezagutzen zuen etzala on ta Zerurakoa bere doktriña. Elizak kastigatzen du agertzen dana. Doktriña gaiztoak ereiten dituztenak salatu bear dira Inkisiziora, ta enzuten dutenak zerbait esan dala fedeko doktriñaren kontra, itundu edo konsultatu bear dute konfessore jakitun batekin. Luxurriara emanak diran txit askok, galtzen dute fedea, ta herejariak geienak jai o dira bizio zikin onetatik. Biotz ustelduak, usteltzen ere du erraz adin edo entendimentua, ta gero kezka guziak kentzeko, ez da sinistu nai Jesu Kristoren doktriña garbia. Ikusten ere da noiz bait egun debekatueta aragia jan edo baraurra ausitzeko esaten dutenak, *aitik sartzen danak, ez duela zikintzen anima*. Jesu Kristoren esan au gaizki aiturik, berak aragia jan ta besteai ere jan erazi nai die Elizako aginduaren kontra. Nola ordea zikindu zituzten Adan ta Ebak beren animak jan zutenetik Jangoikoak eragotzi edo debekatu zien frutua? Elizari sinistu nai ez diona, fede gabea da. Orra nola kristauen artean ere arkitzen diran, eskandalorik latzenak ematen dituztenak doktriña gaiztoakin. Nolako kastigoa itxaroten die?

Nork banaan adiraz zenbat aldetatik ematen diran eskandalo edo animen galbideak? Nolako asmoak asko gaiztorenak bekatuak lagunak billatzeko? Nolako erregu, eregu edo palaguak, sari eskintzat erakarteko bekatu egitera? Mandamentu guzietan zabaltzen dira eskandaloak. Lapurretak egiten dituztenak, edo billatzen dituzte ostutzeko lagunak, edo ostuak estaltzeko. Ematen die bidea kaltea izan dutenai gorroto gaizto, maldizio astun, edo juizio txarretarako. Murmuratzalleak ematen dizte bekatu bideak enzuten enzunleai; zerren askok laguntzen dizkie mormurazioan, beste batzuek poztutzen dira enzutean lagunaren gaitza. Au aditzen da, nolakoa dan mormorazioa; astuna ta desonragarria bada bekatu mortal izateraño, eskandaloa ere izango da bekatu mortala. Nork esan berriz nolako bekatua dan umetxo gazteai bekatu eragitea? Oek pekatu egitetik, zenbat kalte? Zenbat konfesio gaizto? Itz gutxitan, ta ez aztu zuzenbide au; esaten danean (oro bat egin edo ez egin) zerbait, nondik artu dezakean argaltasunez, edo jakin ezaz, lagun edo proximoak anima galtzeko edo bekatuak bidea, egiten da eskandaloko bekatu ain astuna. Eta askori aldebera eskandaloa ematen dienak, beren gain dituzte anima galtze guziak, nola batek illko balitu tiro batekin bost edo sei gizon. Eskandaloa da karidadearen kontrako bekatua; eta Jesu Kristok obligatzen bagaitu oker egiten dutenak zuzentzera al degunean, nolakoa izango ez da obligazioa oker ta gaiztoak ez gaiztoagoak egiteko? Nolakoa berriz



zuzenak, edo ondo bizi diranak ez okertzeko obligazioa? Alkarri lagundu bearrean gu ere animak salbatzeko, badirudi gizon edo kristauak alkar galtzeko bizi dirala. Ezpalego konsejari txarrik, tentatzallerik, ta ejemplo edo jarraigari gaiztorik, kenduko lirake bekaturik geienak. O tentatzalle, deabruaren lanetan zabiltzatenak! Zaku batean bezala gordeko ditu Jangoikoak zuen bekatu kaltegarria. Aterako ditu egunen batean, ta ezagutu eraziko dizute, zer dan bekatuak zabaltzea, azi gaiztoak ereitea Elizako landan, zer balio zuen anima batek! Zer emango dioe Kristori anima galduaren orde, edo trukadan? Ai bada, ta milla bider ai! bekaturako bidea ematen duena.

ERAKUSTE XIX.

Zein astun ta kaltegarria dan bekatu eskandalokoa

Vae homini illi per quem scandalum venit.

Erakatsi degu igaro dan doktriñan, zer dan eskandaloa, nork ematen duen; baña bekatu gaizto gaizto oni ego luzeak ta oñ ariñak ebakitzeko, jakin bear da, zein astun ta kaltegarria dan.

G. Zertan dago bada eskandalorearen gaiztotasun, astuntasun ta kaltegarritasuna?

E. Esan da, eskandaloa dala bekaturako bideak eman ta Jangoikoa ofendierazitzea, ta animak galtzea. Zer jakin bear da geiago fede apur bat badago, ezagutzeko bekatu onen gaiztotasun kaltegarria? Ala ere esan bear da ezer geitu gabe, bekaturako bideak ematen dituen dala Antekristoaren laguna, Deabruaren Prokuradore edo bearrak egiten dituen, Jesu Kristoren etsai ta Gurutzearen frutuen galtzalea, ta zer ez?

G. Jesus Jauna, esango du eskandalo emalleak; ez det nik orrelakorik nai izan; Jangoikoak nai ez dezala ni deabruaren adiskide, bitarteko, ordeko, edo prokuradore izatea, ta gutxiago Antekristoaren lagun ta Kristoren etsaia. Nola galdu berriz bere Gurutzeko irabazi edo frutua?

E. Zer da ordea ansi zuk orrelakorik ez nai izatea, ala bazera? Nai dituenak bitartekoak, nai du oen ondorena. Animak galtzea da Antekristo edo Kristoren etsaia izatea. Zuk animak galtzen dituzu. Beraz zera Antekristoa. Lapur batek kendu balizkitzu etxean dituzun guziak, ta largatzen bazaitu ezer gabe, paketuko ziñateke lapur ark eranzuteaz, ez dala zure etsaia zure gaitzik nai ez duela? Zer eranzungo ziñoke? Ah traidorea! Anbeste ostu, anbeste kalte egin, ta nai ez dala nere gaitzik? Orain bada, lapurrak geienez ostutzen dituzte gauzak, ta kalteak egin, bakarrik beren onez, ez gaitzik egin naiz zuzen; ta mesede egin dienai ere ostu oi dizke. Baña kalteak beti dira kalte; jakin ezkerro kalte egiten dala, ta egiten bada, naizkoa edo borondatezkoa, da kalte-egiña. Ala bada ostutzen dizkionak animak Jesu Kristori, egiten dizkio lapurreta ta kalterik andienak, ta lapurreta oek dira nai izanak, edo borondatezkoak, zerren egin ziran ezagutuz, edo ezagutu bearrez, zala Kristori kalte andiak egitea. Ah gizon gaiztoa! Zuk milla erregu ta palagurekin eragin zingon bekatu zeuk dakizun neskatz, edo andreari. Onen anima larga dezu deabruaren mendean, dago



kondenazioko peligran. Iraungo du bekatuan; bear bada eragingo die besteren batzuei bekatu, zuk kendu ziñolako Jangoikoaren beldurra. Egongo da lotsaz konfesatu ezinda, aurrera bekatu loirik geiago egiten ezpadu ere, ta salbatuko zan anima, bialtzen dezu Infernura. Kristok salbatu nai zuena ematen diozu deabruari. Beste bekatuak bizitza guzian egin ezpazendu ere anima bat galtzea baizik, ez da asko ta larregi penitentzia egiteko? Eta penitentzian sartzen bazera ere, nola bizitza guzian kenduko dezu biotzetik arantza gogorra, *nik galdu det anima bat?* Eta zer esan askori bekatuko bideak ematen diztenak gatik? Ez det nik orrelako asmorik. Eta zure asmorik ezak, aterako ditu Infernutik ara bialtzen dituzun animak? San Ignazio Loiolako Euskaldun guzian honragarriak, Jangoikoaren gloria aoan ta biotzean zerabilenak gau ta egun bezela, animen goseak zedukana argaldurik, esan oi zuen bekatu mortal bat eragozte gatik Zeruan balego ere, jetsiko zala lurrera igarotzeko bizitza nekatsu ta gogor bat. Ezagutzen dutenak zer dan Jangoikoaren ofensa, zer Infernu igaro bear dan bekatu mortal bategatik, damutzen dira ekusirik kristau askoren itxutasun ta betiko galdu bearra. Bai Jauna, esaten zion Dabid Erregeak Jangoikoari, *argaldu*, sikatu, ta zimeldurik *narabil zure honraren egarriak, zure itzaz aztu diralako gaiztoak*. Orain bada, nolako gaiztakeria izango ez da, bat bera gaizto izatea asko ez dala, ematea besteai gaizto izateko edo Jangoikoa ofenditzeko bidea? Ez da au deabruaren adiskide ta ordekoa izatea? Zer dio Infernuko etsaiari animak badaramaz, edo berak tentatuz, edo gizonen bidez? Atoz fedeko begiekin mundua egin berria zanean gertatu zana ekustera. Noren bidez erakarri zuen Adan fruta debekatua jatera? Suge askojakin edo Luziferrek atera zituen kontu oek. Banoa lenengo ni Adan tentatzera jan dezan, ez det ezer aterako. Sendoa da, botako nau, ta ezin bekatuak eragingo diot; noan bada emakume Ebagona; au galtzen badet, galduko det Adan bere bidez. Ala irten zion bere gogora asmo gaiztoak. Ekin zion Ebari deabruak milla berriketa ta erausirekin, janerazi zion oni; onek gero ekin zion senarrari, ta ala galdu zuen Adan. Deabruak berak ezin duenean anima galdu, baditu bere adiskideak, bere mandatariak, ta oen itz, ta egikizun gaiztoekin galdu oi ditu, nork esan zenbat anima? Ala galdu zuen Salomon andia emakume txatarren bidez. Ala galdu ditu bein baño geiagotan mirariak egiten zituzten bertute andikoak.

Nik ez det orrelako asmorik diozu eskatua gatik norbaiti egin dezala gezurrezko juramentua; bakarrik nai det gorde nere burua justiziak kastiga ez nazan, auzi bat irabaztea gatik. Ederki, eta bide gaiztoko burua gordetzeak, auei irabazteak, norako du juramentu gezurrezkoa eragin dio-

zun anima? Pekatu eragin diozu, ta nola etorriko da au, gezurra desegite- ra agirian, ta biurtzera kalte egin dituanen ordeak? Ai Jauna, esango dio Konfessoreari; nere honra leenago da; ez det nik biotzeko gezurti eginda gelditzeko Juezen aurrean; sinistuko ere ez naute, edo kastigatua izango naiz juramentugille gezurtia bezela. Berriz zeri ta zertara biurrera edo restituzio kalte egiñena niri agintzea? Nik ez det ezer atera; auzia irabazi duenak, ta juramentu gezurrezkoa eragin zidanak, egin dezala. Adiskidea, esango dizu Konfessoreak, zuk egin bear dezu, egiten ezpadu auzia irabazi zuenak. Eta egingo du? Leenago Infernura geienez orretara etorri baño tentatzalea. Ala biak lotu dira kate batean infernura joateko. Baña nork izango du kastigo andiagoa? Juramentu gezurrezkoa egiteko bideak eman zituenak. Beste batek billatzen ditu lagunak zerbait ostutzeko. Laguntzen dienak naastzen dira bekatuan. Oei nork sinitserao obligatuak daudela biurtzera ostuak, lagundu baño besterik egin ezpazuten? Ala galtzen dituzte anima asko konsejari txarrak.

Enzun berdintza au. Neguko otzean berotu nairik bidiazti bat sartu zan etxe batean, non zegoan lasta gela bat. Berotu nairik su eman zion; lastoak suartuerazi zion etxeari; etxeko garretatik igaro zan sua beste erriko etxeetara, ta erre zirar etxe asko. Jakin zan nondik irten zuen suak; justiziak arrapatu zuen lasto su emallea; erriko guziak bere kontra zituen. Zer egin dezu! galdetu zioen. Nik ez nuen kalterik egin nai, ta bai nere burua berotu. Ah traidore gaiztoa! esaten zioen, etziñakian lastoa erre erraza zala; bere sua igaroko zala etxe guzira, ta etxe batetik bestera sua igaro litekeala alkarren urrean badaude? Ala ez dago barkaziorik, ta bidaldu zuten bizitza guzirako gaztelu gogor batera. Ala bada Juez Jesu Kristok ere berotu nai dutenai luxuriako suan, nondik igarotzen diran anima askotara txingarrak, itz, akzio, edo beste gauza zatarren bidez, ez die artuko esesio edo aitzakiarik, ta bialduko ditu Infernuko presidio, edo gaztelu gogorrera bekatu bideak ematen dituztenak.

G. Esan beza nai duen guzia; baña ez du sinitsereziko kristau bat izan ditekeala deabrua baño gaiztoagoa.

E. Gaiztoagoren izena aditu genzake bi aldetara; alde batetik deabrua gaiztoago da, ta bestetik deabruak baño gaiztoagoak dira kristau anima galtzalla ez gutxi. Deabruak beti du gogo ta asmoa bekatuak erein, eragin ta zabaltzeko Jangoikoaren gaizki naiz edo gorrotoz, ta gure zorionaren damuz. Kristauak gaizki egiñez ez dute billatzen, egia da, bekatuak erein, ta zabaltzea Jangoikoaren gorroto, edo gaizki naiz ta zuzen animak galtzea, oen kondenazioan atsegin artzen dutelako, ta alde onetatik gaiztoagoa da deabrua bere asmo, ta gogoetan. Baña kristau ez gutxi egiten



dituzte kalte andiagoak, erein ta banatu bekatu geiago, deabruak baño, ta errazagoa da gordetzea burua infernuko gaizkin guzietatik, kristau gaiztoetatik baño. Ez dezu sinistu nai. Enzun nazazu. Deabrua gure inguruan dabill lorik egin gabe leoi orroalari baten gisan, gure animak irensteko asmoz, ta San Pedrok esaten digu ez lorik egiteko, edo egoteko prest fede sendo batekin arpegi emateko. *Cui resistite fortes in fide. Jarki zakioz deabruari*, dio Santiago Apostoloak, ta igesa artuko du. *Resistite diabolo et fugiet a vobis*. Deabrua koldar, beldurti, ta biotzgabekoa da, arkitzen dituenan kristau Jesusen amorioari lotuak, esaten zien bezela San Antonio Abatak bere diszipuloai. Etzerate asko gauza, esaten zien San Antoniok, ni bezain gizon argal bategana anbeste zatozanean. Ur bedeikatu apur batek izutzen ditu; Jesus ta Mariaren izenak aitatzea, ta Gurutzearen señailea egitea asko da garaitzeko. Elizak ere baditu konjuroak aienatu, edo urritzatzeko etsai gaiztagin infernutik datozenak. Baña, zerk izutu Kristau tentatzalle gaiztoa? Ur bedeikatu, Jesus, ta Mariaren izenak? Gurutze ta Konjuroak? Nora iges egin? Badira Eleizan bertan ere azartzen diranak begirune, ta siñuakin bekatu bideak zabaltzen. Nora iges egin oetatik? Kanean, basoan, etxe barruetan, ta non nai ekiten dioe beren lan infernukoari. Zezen gorituak bezela esesten die indarrez ere bekatu eragiteko. Badago onelako deabrurik? Ez dute infernuko gaizkiñak onenbat eskubide; zauka egiten dute, dio San Agustinek; tentatzen dute ezkutuan; baña kateakin loturik dauzka Jangoikoak; ta joan bear da beren ortzetara, kaltea izateko. Baña munduko gaizto tentatzalleak kategabe dabilta, urreratzen dira nora nai; belarrietara egozten dituzte itz galgarriak, begietara gauza likagarriak, eta eskuz egin, ezin esan dezakedana.

Zer egin etzuen deabruak pazienza galerazitzeko Job Santuari? Galeratzi ziozkan asto, ardi, abere ta giberri guziak; aize sendo batekin ezarri zuen lurrera etxe bat, non zeuden bere seme ta alaba guziak, asko ta ederrak ziranak, batek ere bizitzarekin irten gabe. Korputz guzia oñazatu, zauritu, ta ezkabi zikiñez bete zion; ondasun andien jabe zala, larga zuen ezer gabe. Ala ere, etzuen ezer atera; Jangoikoak eman zizkidan, ta berak kendu dizkidaz; izan didilla bedeikatua bere izen edo eskua. Au zan bere itzketa. Ernegatu zuen deabruak ezer atera etzuenean bere asmo ta egitada galgarriekin. Etorri zitzaizkon gizon santu oni konsolatzeako asmoz bere iru adiskide. Une onetan deabruak ipiñi zituen oen mingañetan itzketa estalki onekoak, baña ernegarriak. Oek etzuten ezarri guziz, baña bai zerbait zabutu Joben pazienza. Orra nola deabruak berez ezin egin zuena egin zuen gizonen bidez. Ala galdu dituzte kristau gaiztoak

denpora guzietan, deabruak egin ta ezkutuko tentazio guziakin galdu ezin zituenak.

Ona zer dion Predikadore santu batek. Obeago litzake, dio, Jangoikoak esango balie infernuko gaizkin guziaz: Zoazte diranok mundura, emanazute animetan nai ala gerra, arzazute, ta agerzaitzte dituzuten itxura gaiztoekin. Oetatik iges egitea Eleiza batera, edo fede sendo batekin arpegi ematea, Jesusi dei eginda indar gabe largatzea beeko ejerzitu billau, ta itxusi guzia, ez da orren gauza gaitza, nola dan Jesusen izenak ikaraten ez dituzten kristauei iges egitea. Oek agertzen dira adiskide edo maitatzalleen itxurapen edo estalkiekin; ondo naia, oniritzi, edo kariñoaren janziaz, dira etsairik andienak animentzat.

Itz labañak, eztizkoak, amorean koipetuak, eregu edo palaguak dira arma sendoagoak animak galtzeko, deabruen itxura, tentazio, ta esetsi guziak baño.

G. Ote dago zer esan geiago eskandalo edo bekatu bidea ematen dutenak gatik?

E. Bai; esan genzake oek gatik Jeremias Profeta santuaren aoz Jangoikoak dioana: *Arkitu dira nere jenteen artean Eizari gisa batzuek ipintzen dituztenak lakirioak animak katigatzeko*. Bai bai; tentatzalleak, bekatuak zabaltzen dabiltzanak dira Infernuko eizariak. Izen egoki ta berariazkoa. Ona nola. Ekusiko dituzu lurreko eizariak irtetzen dutenean erbi edo basaurderen baten eizara, nola egon oi diran zai, zelata gelditurik paradan, itxaraten erbi edo basaurdeari. Badituzte orretarako zakur ondo erakatsiak, usaia artzen dutenak oñatzetatik, ala erakoritzeko eiza. Alako batean agertzen da erbi gaiso, edo basaurde zaterra. Jaurtikitzen dioe amorruz bezela. Nolako poza iltzen, ta irtetzen badute beren gogoaz? Eta nolako naigabe ta damua, utseginda iges egiten badie?

Zer esan nai det berdintza onekin? Badirala animen eizan dabiltzan kristau asmari gaiztoak, dituztenak zakur orde mandatariak, billatzeko ta eramateko artu duten paradara, bekatura nai dutena. Mandatari oen bidez jaikitzen da eiza, irteten du emakume eroak eiztaria zai dagoan tokira, onelako bidera, basora, etxe, edo lekura. Nolako atsegin ta pozkaria irte ten badie ondo bere asmoak, galtzen badute neskaxa txoroa! Berriz nolako atsekabe, ta damua mandatariak ondo egin ezpadie agindu zitzaiona, edo emakumeak irten nai ezpadu bere tokitik? Biurtzen dira onelako eizariak beren etxeetara bekoki astunekin, motel motel, ta buruz bera lurreko eizariak ezer eztakartenean baño illunagoko arpegiarekin. O deabruaren eizariak, ta anima galtzallak! Bizi zerate zorigaiztoan Zeruari gerra egiteko. San Felipe Neriri eman zioen animen eiztariaren izena, zerren bere



sermoi, konfesonario, ta milla asmo onez irabazten zituen animak Jesu Kristorentzat. Onela bada dira deabruaren eizariak itz ta egite gaiztoekin animak galtzen dituztenak. Nork esan zenbat kalte egiten dituzten Infernuko eizari oek? Lurrekoak iltzen dituzte egazti, edo piztia askotan kaltegarriak; deabruaren eizariak berriz anima anbeste balio dutenak. Aiek ezarten dituzte lurrean, aidean zebiltzan txoriak, ta oek ezarten dituzte infernura Zerura igo bear zutenak. Nolako begiak begiratuko dizte Aingeru onak beren kontura zeuzkaten animak galtzen dizten eizari gaiztoai? Zer esango dute, berak deabruaren esetsi edo tentazioetatik gorde zituztenak, gorde ezin dituztenean kristau tentatzalleetatik? Bekatari baten egiazko konbersio edo biurreran poztu baziran anbeste. Aingeruak zeruan Kristo berberak dionez nolako lutua, esan genzake, artuko dutela Espiritu zorioneko aiek, dakustenean alderagiten diela kristau gaizto batzuek graziatik bekatura beste kristau argalen batzuei?

Ona beste arrazoi biguntzekoa fede apur bat duen edozein kristau. Gauza jakina da zenbat kontu edo ardura duen Jesusen Amak gure animakin; ezala jesten Zerutik Jangoikoaren graziaz, berak eskatu ta bere eskuetatik igaro gabe. Penitente guziak zor dioela Ama maitagarri oni Jangoikoagana biurtzeko izan duten grazia; ta ala Aingeru guziak baño geiago poztutzen dala justuen iraupenean, ta bekatarien konbersio egiazkoan; ta zenbat damu ematen dioe Jangoikoaren ofensak? Orain bada, zer egiten dute eskandalo-emalla, edo tentatzalleak? Galdu ta desegin Ama Birjiñaren lan, ta errekuak; kendu artu zuen poza, eta berak salbatu nai zituenak bidaldu infernura. O zorigaiztokoak! salbazioko aterik ederrena itxiten dezute, ta nolako aserrearekin begiratuko ez dizute Jesusen Ama onek?

G. Borondate osoarekin enzun ditut arrazoi egoki esan dituenak ezaguerazitzeko eskandalo edo bekatu bidea ematen dutenen gaiztakeria; baño jakin nai nuke, dagoan edo ez beste argigarririk ezagutzeko bekatu onen anditasun ta eskeratasuna.

E. Badaude bai, ta ona emen ondo aitzen erraza dan arrazoia. Bekatuaren gaiztotasuna geitzen da, nola geitzen diran dakazkien kalteak. Etxe bat erretzea lagunari, bekatu andia da, baño andi eskeragooa erri guziko etxeak erretzea. Bide batera irten ta lapur batek kentzen badiozka nori bait eun ezkutu, bekatu andi gaiztoa da; baño andi ta gaiztoagoa dirua kentzea asko ez dala, bizitza ere kentzen badio. Zergatik ori? Zeren kalte andiagoak egiten dira erri guziko etxeak erre, ta bizitza kentzeaz, etxe bat erre ta eun ezkutu kentzeaz baño. Ala ez da? Beraz bekatu ura izango da andiagoa zeñek egiten diozkan kaltea andiagoak. Eta zer, lagunaren kal-

teak asko ez dirala, Jangoikoaren kontra ere bada zuzen zuzen? Orain bada, zer bekatu da lagunari kalte geiago egin, ta Jangoikoari sentikizun edo damu geiago ematen dionik, anima bati bere grazia galeratitzea baño? Jangoikoaren grazian dagoan animak dauzka berekin ezin esan beste ondasun. Zein aberatsa dagoan? Trinitadeko iru Personak berekin ditu atsereten bezala; Aingeruen lagun da; ederrago begiak ekusi al ditekenez gain maite du Jangoikoa, Jangoikoak ere bera bai. Kristau gaiztoa, bekatu eragiten diozu onelako anima bati, mandamenturen bat ausieraziaz gauza astunean? Galdu dezu guzia. Kendu diozkatu animatik iru Personak, ezaindu edo zatartu dezu ikatz guziak baño beltzago egiten dala, *denigrata est super carbones*, deabruak artzen dio jabetasuna, ta ala iltzen bada, bidaltzen dezu sekula guziko Infernura. Izan liteke kalte andiagorik? Bai gizon edo mutil zorigaiztoan jaioa, zuk orain parrez ta arduragabe esaten dituzu itz zatar, desonesto, atsegin loa aserazitzeko egiñak diranak; erakasten diezu bati baño geiagori jakin bear etzuteena, artuerazi diezu atsegin gaiztoa, eragin parre gozoak enzun zaituztenai; ipiñi dituzu ala bekatuan grazia galerazorik. Zer egin diezu? Zenbat kalte? Nola desegin? Eta lo egiten dezu galanki beldur gabe? Zaude zaude apur batean; ekusiko dezu egunen batean zer egin zenduen. Zuk neskatha ero mutilzale, mundura irtena, zere apainduria ta begi arroekin likatzen dituzuna giza-semeak, amorio ez onera daramazuzala; zure salto, itz alegre, arpegiera azartuarekin irizikitzen diezula lujuriako sua, zaude zaude asti batean; zuk uste dezun baño leenago ezagutuko dezu zenbat kalte egin dituzun animetan. Erakatsi diezu zere lagun beste neskathai zure gisakoak izaten, zabaldu dituzu bekatuak, geitu Jangoikoaren ofensak, ta kalte geiagorako, zoaz konfesatzera ontzeko asmo sendo gabe, ukatzera, ta estaltzera bekatuak, ta artzera zere gañera Kristoren korputz ederra, daramazula biotz zikiñera, izan didin zure gaiztakeria guzien testigoa. Badakizu zenbat kalte egin dituzun anima argaletan? Zenbat ipintzen dituzun infernuko bidean? Nola biltzen dituzun infernurako lagunak? Nola egongo zerate an? Zu emakume gazte, edertasun usteko batekin arroturik, non gogoa an zankoa darabiltzuna, tanboril soñuak geiago poztutzen zaituena sermoi guziak baño, nolako poza zurea besteak baño billatuago zeranean danzarako! Itz eroak enzun ta gozatzen zerala, ta uste dezula ez dala plaza guzian izan zu baño begiratuagorik; zure ille ederki orraztuak eman diela inbidia zure lagunai; labur deritzazula udako arratsalde luzeari mutillen eskuetan ibiltzeko, norako zera zere lagun jarraitzalle oriekin? Espiritu Santuak egia badio, zerekin dezu pozoi gaizto ta kaltegarria, zeñekin galtzen zeran zeu ta galtzen dituzu beste asko.



Zabiltza zabiltza; baña murrutuko ditu Jangoikoak zure buruko ille eder oriek, ta zure zanko ariñak makalduko dira. Lotuko zaituzte infernuko karzelan, ezarriko zaituzte, largatzen ezpadiozu bizitza orri ta egin penitentzia, oe gogorrean ta jetsiko dira zure albora zere modu gaiztoarekin galdu dituzun animak.

Sari irakurri det iñoiz aztu etzatan San Dionisio Areopajitaren esan au: *Jangoikozko gauzen artean jangoikozkoena dala, bear egitea animak salbaziora zuzentzen*. Beraz deabruzko gauzeen artean deabruzkoena da okertzea animak salbazioko bidetik. Zer geiago? Animako salbaziora laguntzen dutenak ipintzen dute Jesu Kristoren pasio edo odolari palta zaiona. Bai, dio San Pablok, *betetzen nabil Jesu Kristoren pasio santuari palta zaiona*. Nola izan liteke Jesu Kristoren pasioari ezer paltatzea? Palta da eraastea animai Jesusen Pasioko frutua. Kristok nai du gu guziok salbatzea; ugariak dira bere irabazi edo merezimentuak, baña gu baliatzen ezpatera, geldituko gera frutu gabe. Iturri ugari batek beti ematen du ura; baña ezpagoaz iturritik ura artzera, illko gera egarriaz. Ibai batek busti edo erregatuko badi-tu soroak, egin bear dira ur bideak igaro didin ura; bestela gelditu dira soroak agor ta siku. Animen salbazioko lanean dabiltzanak igarotzen dituzte Jesu Kristoren alboko ur ederrak animetara, Sakramentu santuari ondo arteera prestatzen dituztenean kristauak. Baña tentatzalle edo eskandaloa ematen dutenak urratzen dituzte ubideak edo kanalak; era-gozten dute Jesu Kristoren Pasioko frutua, ta dira bere Gurutzearen etsaiak, San Pablok dionez. Eta au ez da Antekristo izatea?

Ah Jauna! Zertara datoz asmazio oriek? Antekristo bat baizik izan-go ez da, ta bera etorriko da Juizioko eguna urreratzean. Zer? Antekristo bat baño ez dala, ta bera gero etortzekoa? Nere asmazioa dala besterik esatea? Ona zer dion San Juan Ebanjelistak: *Antekristoa etorri da; ta oraiñ Antekristo asko egin dira*. Ematen die Apostolu onek Antekristoaren izena bere denporan ziran kristau oker ta gaizto batzuei, zeintzuek atzeratzen zituzten besteak Jangoikoaren lege, ta Jesu Kristoren doktriñatik, zeren onelakoen ta Antekristo etorriko danaren lanak berdiñak dira, ta lan gaiz-to au da animak galtzea, eta au da Jesu Kristori gerra ematea jasotzen dute aldara aldarearen kontra, artzen dute Luziferren bandera ta biltzen dituz-te onen azpira, Jesu Kristoren banderapean zeudenak edo egongo zira-nak. Esan egia, etzan etorri Jesu Kristo lurraren gañera salbatzera galdu bear zutenak bestela? Etzan etorri Jesus Arzain ona bezela billatu ta bil-tzera aldendurik zebiltzan ardiak? Etzan etorri gure animako gaitzak osa-tzera bere korputzeko odol edo balsamo ederrarekin? Etzituen igaro ani-mak salbatzeagatik esan ezin beste atsekabe, azote, ta mesprezio; eta azke-

nean eriotza lotsagarri ta tormentu andien artekoa? Zer egiten dute bada animak galtzeeko lan gaiztoan dabiltzanak? Kondenatu edo betiko galdu Jesu Kristok salbatu nai zituenak; kendu Jesu Kristoren eskuetatik, bildu zituenak; sartu otso gaizto ta, gosetiak bezala Kristoren arditagian, ill ta irentsi bere arditzat nai zituenak; animako bizitza kendu Jesusek osatu zituenai; erabili oinpean Kristoren odol, ta balsamorik ederrena; kendu Aingeruai poza ta lagunak, ta Zeruan Jangoikoa alabatzer a egon bear zutenak beti beti, bidaldu Infernura ernegatzera ta Jesusen izen santua madarikatzer a. O gaiztakeria berdin gabea! Amaren sabelean dagoan aur-txoa galtzen duenak borondatez egiten badu bekatu ain izugarria galera-zotzen diolako bateora eltzea, ta bialtzen duelako Linbora, nolakoa izan-go da anima bat, bi, edo geiago tentazioak emanaz infernura bialtzea? Ala da, ezpalego tentatzaillerik, infernura joango ez litzake joaten dan erdirik. Alkar galtzen dizte kristauak, alkar salbatzeko lagundu bearrean. Zori-gaiztokoa bada bekatura bidea ematen duen anima.

Badakit zer eranzungo didazun, bekatu eragin badiezu besteai kon-seju, edo ejemplo gaiztoekin, ez dutela konfesatu baño; konfesioak barka-tuko ditzela zuk eragin dituzun bekatuak; zuk ere ala egingo dezula; zuk ez diezula ez konfesatzeko konseju txarrik eman. Ederki. Baña badakizu Jangoikoak emango dien konfesatzeko epe edo astirik zuk bekatu eragin diezunai? Ez dakizu iltzen dirala batzuek beingo batean, ta beste batzuek burua galduta konfesorako ezaguera bear danik ez dutela? Ez dakizu txit asko kondenatzen dirala bekatuak ondo ta garbiro ez konfesatzea gatik lotsaren indarrez, ta bear bada zuk eragin diozun bekatua beste bati, onek gordeko duela agertu gabe? Ez dakizu bekatu batak bestea dakarrela, ta zuk bekatu eragin diozunak geituaz eramango dituela bekatuak, ta bear bada lotsagabeko eginda, besteen batzuei emango diela bekatuak bidea, edo itzez, edo bizitza gaiztoz? Ez dakizu bizi dirala beste asko bekatu eginda damu gabe konfesatzen, edo egiten konfesio ta komunio beste sakrilejio izugarri? Noren lepora joko dute kalte oek? Zenbat bider kon-sejari gaiztoak aldegin nai zutenak bekatutik, largatzen ez die milla erau-sirekin deabruak bezela sinistuerazi naiz, errukiorra dala Jangoikoa, noiz nai artuko dituela, zer edo zer esan bear dutela konfessore ta predikatza-lleak? Orra nola penitentzia egiteko bideak galdu nairik dabiltzan. Zenbat alditan gertatzen da kezkaz beterik zeuden animak, arantza min ematen ziena atera nairik, Aingeru onak ezkutuan dei egiten ziela largatzeko beka-tuari, ta gogo beroak artzen zituztenean biurtzeko Jangoikoagana, bein-goan oztu ziranak gaiztoen berriketa ta erauntsiak gatik? Zenbatek larga-tzen die bide on zerabilenai besteen beldurrez? Zenbat anima, gauza txak-



rra zer zan etzekitenak, ikasi dituzte gaiztakeriak inork erakatsirik, ta gero egin bakarrean lotsatzeko gauzak? Bai, bai; anima bat galtzea gaiztoagoa da Kainek bere anaje on Abel iltzeaz egin zuena baño; bideetara irten ta lapurretan ibiltzea baño; Elizako atearre ta zillar guziak ostutzea baño; Santu bati, Sazerdote bati, ta Aita Santu Erromakoari bizitzea kentzea baño.

Nai dezu geiago enzun? Ez dago inor aserraten ez danik Neron, Diokleziano, ta Elizako lenbiziko irureun urteetan ekusi ziran errege ta beste agintarien kontra, iltzen zituztelako fedea gorde nai zuten kristauak anbeste tormenturen artean. Baña mesede geiago ekarri zien Elizako umeai gizon odolzale aien gogortasunak, kalte baño. Eriotza ematen zienen bidez, igoten zuten kristauak Zeruko gloriara. Zenbat martiri zorioneko jαιο etziran ezpaten artean? Santu egin ziran, bestela epel batzuek izango ziran asko. Baño bekatuko bideak ematen dituztenak itz amoragarrri ta biguñakin, ondo esan ta palaguakin, zer egiten dute? Onak izango ziranak, gaiztotu; Zerurako ziranak Infernura bidaldu. Beraz alde onetatik gaiztoagoak dira Neron ta Diokleziano baño. Aiek federik etzuten; etziakien nor zan Jesu Kristo; etzuten Zeruaen berririk, ez egiten zuten bekatuaren anditasunarena ere. Itxuan zebiltzan. Baña kristau fedea dutenak badakite zer dan anima galtzea. Bai, bai; esan genzake Dabid Errege Santuaren itzak: Zuk egin dituzunak, o Jangoiko ona, desegin dituzte. *Quae perfecisti, destruxerunt.* Jesusen neke ta irabaziak galtzen dituzte animak galduaz. Zer balio du Jangoikoaren sazerdote animazaleak buruak nekatzeta sermoi, ta beste alde askotara, baldin beren bearrak galtzen baditez deabruaren ministro ta predikatzalleak? Baña zer sari itxaroten die azkeanean? Birtuteko bideak zabaltzen dituztenak askoren sari ta alogera izango badute Zeruan, nolako Infernua izango ez dute bekatuko aziak ereiten dituztenak? Nola infernura aurrez bialdu dituztenak, deadar egingo ez dute arako bideak eman diztenen kontra? Nola oratu ta esetsiko ez die zakur amorratuak bezela ara dijoazenean? O eskandalo emallea! Anima galtzalea! Milla bider madarikatua zu, lan gaizto orri larga, ta negar egiñaz, ta bizitza santu batekin palagatzen ezpadezu Jesu Kristo ain ofenditua. Pensaezazu ondo.

ERAKASTE XX.

Jan ta edan geiagiaren gañean

G. Zeren gañean izango da gaurko Erakastea?

E. Jan ta edan geiagiaren gañean.

G. Zer du baña zer ekusi bostgarren mandamentuak geiegiazko jan ta edanarekin?

E. Txit asko; bada eriotza eman ta artua eragozten diranean, eragozten ere dira osasunaren kalteko gauza guziak; ta geiegi jan ta edatea dira osasunaren kaltean. Eta zenbat beste kalte?

G. Noiz izango da bada bekatu astun edo mortala geiegi jatea? Ezagun ta jakiña da edanaren bekatua orditzen danean bat bere borondatez. Baña jatean, egon liteke bekatu mortala?

E. Bai ta ona noiz. Beñik bein da bekatu mortala Elizak agintzen dituen baraur egunetan bear ez dan orduan jatea baraur egiteko obligazioa dutenak. Orobat jatea aragi gauzak egun debekatuetan arrazoi zuzen, ta bidezko gabe.

2. Jaten danean osasunaren kalte andian, ta ezagugarrian. Zenbat joan dira beste mundura sabelari geiegi emanaz? Badira batzuek; dio San Pablok, sabela Jangoikotzat artzen dutenak. *Quorum Deus venter est.* Izan dira bat baño geiago egin dutenak tema edo apostea nork geiago jan, ta etorri zaiztenak emendik kalte andiak osasunean, ta eriotza ere bai.

3. Kastatzen danean geiegi janaz etxeko kalte ezagutuan, zorrak egi-ten dirala, edo larga pagatu gabe, mai ugari ta geiegia idukita.

G. Jauna, enzun degu noiz bait aotik sartzen danak ez duela anima loitzen, ta bai irteten duenak.

E. Egia batekin esan dizute herejia andi bat. Itz gaizki aituekin baliatu dira herejeak erakasteko Elizak agindu ezin dezakeala baraurrik, ta eragotzi ere ez aragia jatea. Eta zer? Adan, ta Eba etziran galdu Jangoikoak debekatu zien fruta janaz? Etsizutzen galdu beren animako ta korputzeko doai ta grazia ederrak? Zorigaiztokoak bada Jangoikoaren ordezkariak debekatzen dituen egunetan aragia jaten dutenak arrazoi zuzen gabe, baita ere baraurrak ausitzen dituztenak.

Noiz edo berriz gertatzen da zerbait jatea lotsaz, edo munduko zer esanez, gaitzen bat egingo diolako zaio, susma edo sospetxarekin. Ez da bekatu mortala ziur, ta gaitz andia egingo diola ezpadaki; ala ere geiago kontu egin bear da osasunarekin, sabelaren atsegin apur batekin baño.



Jaten dalakoa egin, jan gauza gutxi bat, ta onekin kenduko da zer esana, ta gorputzak ez du kalterik izango osasunean.

Gaixorik daudenak, medikoak eragotzi dienean zerbait jatea, obeditu bear dioe ta ez jan, beintzat kalte ezagun ta andia egingo diola deritzon dui edo beste. Kalte txiki edo gutxiaren beldurra badago, ez da bekatu mortalera elduko alako jatea.

Baña zer esan sabel gaiztoko batzuen gañean, zeintzuek ondutzen duten etxea erregalao erregalaoaren gañean billatzen dabiltzala? Zenbat jaun edo andikien etxe daude zor gogorren azpian, konbite ots andikoak, ta munduan izena artzea gatik, egiten dituztelako? Lengo andikiak etzuten ezagutzen ez onelako mai aberatsik; zortzi edo amar prinzipioko bazkaria ez da gauza anditzat ezagutzen. Itxaso ta ibaiak eman bear dituzte arrairik onenak; egaztiak ugari ta mota askotakoak agertu bear dira maira. Zenbat beste asmazio sukalde-neskatxak arnasa artzeko astirik ez dutela! Nola damatxoak ase eziñ diran janzi edo soñoko asmo berrietakoz, ala da janean ere. Modara jan bear da, modara maia sentitu, ordua ere modakoa; lo egin bear dan orduetan, gaberdiari apariaren erdian. Itz gutxian, janak ta jaunziak ondutzen ditu etxeak, gelditzen dira oñean zorrak, egiten dira berriak; artzekoak dauzkatenak ixillik egon bear, kaltez bada ere. Ondorengoak irtengo du esanaz, ez duela, maiorazkoak ezer zor; ta ala edo pagatzen ez dira, edo ez guziak, edo nekez ta modu gaiztoan. O konzienzia ederrak! Itz egiten da portizki, ta sendo sendo lapurren kontra, ta iñork ezagutu nai ez du lapurreta prestu ta onradu bat, zeña dagoan iñoren kostura mai ederrak idukitzen. Ixiltxorik dijoaz asko infernura. Zergatik kondenatu zan Ebanjelioko aberatsa? Mai andi ta ederraren zalea zan; janzi arroak billatzen zituen; au ere iñoren kalte ta zorrik egin gabe. Lazaro pobrearentzat gogorra zan, bada maitik erorten ziran ogi apurrak ukatzen ziozkan, bere zakurrentzat jana falta ez pazan ere. Iltzan aberats au beste bizio ezagun gabe, ta dio Kristo ber berak, enterratu zala Infernuan. Suarren goritasunak ematen zion egarri amorrutzkoa; eskatzen zuen ur puska bat, ta ematen etzitzaion. Mingañ erregalaoetara oitua bere bizitzan, ardorik ederrenakin gozatzen zanak, ezin antxitu du ur puska bat, ta nondik bekatu egin zuen, andik zeraman tormenturik latzena. Kastatu zituen ondasunak jan edan geiegietan, pobrei laguntzen etzien, ta gero jo zuen beste gabe Infernura. Ezta au Surio, ta Kantinpratoren ejemplo, enzute gutxi emango zaiona; da Ebanjeliokoa, ta Kristo ber berak kontaktua. Sinistuko zaio? Orain bada, zer itxeron lezakete geiegi kastatzen dutenak janean ta janzian, pobreak bear lukeenak arrotasun, anduste, edo banidade mundukoak daramalla? Norako dira etxeak zorpetu, zorkillak atzetik

gaizki esaten dauzkenak, ta gero erreterero gaixoai errenta berri ta gogoregiak egotzen dizkieenak? Konfesatzen dira? Bai noiz edo berriz; akusatzen dira bekatu oek, ta ain astunak? Ezta burura etorri ere. Ezagutu bear ez lituzke? Bai; baña animako begiak odiatu ta geundua dauzkate, ta igarotzen etzate Zeruko argiak. Zorionekoak begiratu ta pobre zaleak.

Baña zenbat bekatu txiki izeneko edo benial egiten ez dira jan ta edanean! Zein gutxi diran bear bezela ezita daukatenak gustoaren sentidua! Zein gutxi diran premia utsez gelditzen diranak! Korputz ustelbera ta bekatuko au mantentzeko ez lirake gauza asko bear: Adanen jana bekatu ondoan zan izerdi ta nekearen irabazi laburra; piko orri batzuek estalkia, ta gero larruren batzuek. Ordea bere ondorengoak arkitu nai dituzte Paradisuko erregalaoak, bekatu gabeak balira bezala. Pitxi, ta edergarri guziak, asmatu ta asmatu, billatzen dira buruak agertzeko munduan. Jaten da bada geiago atsegin utsez, korputzari iraunerazotzeko baño; orduetatik kanpora noiz burura datorren; billatzen dira janaririk gozagarrienak; jaten da sabela ixildu artean, ta bear bada onek eskatzen duen baño geiago. Gatzgabetxoa, edo erdi motela badago jatekoa, zerbait palta bazai, ixillik egon bearrean, nolako erriertak neskame sukalde-zai, edo kozinerari? Maian jarri baño lenago gogoa mai onean, zer jango ote det? Nola ko bazkaria ipiñiko ote zat? Biotza lenago betetzen da sabela baño. San Bernardo batek negar egiten zuen maian jartzeko unean, atsekabe ematen ziola jan bearrak. Zein urruti gauden! Txokolatea egin ezpada Karakasko kakao bakar ta piñarekin, laguntzen ezpadie azukre, ta kanela ederrak, igui ematen du, ta banidadez kontaktzen da, *nere txokolatea bai dala!* Ala gauza guzietan atsegin osoa eman nai zaio gusto erabageko ta inoiz paketzen ez danari. Mortifikazioko birtutea zer dan ondo dakitenak, ta Kristoren eskola barrukotzat daudenak ere amiltzen dira onetan; ugartzen dira animak bekatu benial jarraituekin, ta biltzen dira sugai edo erregarri asko Purgatoriorako. Ez dute zer sinistu birtutean aurrerapen egiazkorik egitea, sentiduren bat badago ezi bage, edo ematen bazai oituraz eskatzen duen gusto edo atsegin alperra. *Jangoikoaren Erreinoa ez da jana ta edana*, dio San Pablok. Esauri, zerk galerazo zion aitaren maiorazgo ta bendizioa? Mortifikazio piska bat sabelari gose apur bat ez emanak. Zenbat Jangoikoaren bendizio eder, zenbat animako atsegin eder galdutzen ez dira sentidua bidegaber gozatzea gatik! Birtuteko bidean sartu zeratenak, sinis nazazute, ukatzen badiozute sentiduei alperrik eskatzen dutenak, izango dituzutela orazio, ta komunioko mai ederrean atsegin milla bider gozatuagoak, ollagor, eper, bildots, ta korputzeko beste janari guziekin baño.



Baña ez dira ixillik igarotzekoak Espiritu Santuaren esaera oek. *Jan geiegian egongo da gaitza, edo eritasuna. Jan larregiak asko eraman ditu eriotzara;* baña begiratua danak jaanean, luzatuko du bizitza. *Jan neurrigabeak,* edo asko janak *dakar kolika,* edo sabeleko miñ portitza. Berriz nolako kalteak animan? Kentzen du eragabeko jateak Jangoikoaren gauzeen gozotasuna, illuntzen du entendimentua, borondatea dago sabelean; aragia azkortzen ta arrotzen da tentazioetarako; asko janak azkenean dakar murmurazioa postre gozotzat; jaio oi dira erriertak. Jarri edo eseri ziran Israeldarrak jan ta edateko, ta jaiki ziran dantzatzeko ta gero adoratzera Jangoiko gezurrezkoa. Ijituak kipulakin azturik, Jangoikoak ematen zien janariak asperiturik, billatu zituzten edo eskatu beste janari batzuek; eman zitzen Jaunak ugari galeperrak, ta beren sabeletan arkitu zuten eriotza. Oek dira fedeak erakasten dituen gertaerak. Dira asko, esan dezakegu Isaias Profetarekin *zakur salobre, ta lotsa gaiztokoen* gisakoak, ez dakitenak zer dan asetzeara. *Canes impudentissimi, nescierunt saturitatem.* Itzeragiten die onelakoei Espiritu Santuak; *Jan ta edan dezagun;* berdin, laster illko gera. Esango balute bezala, ez galdu denporarik; ill ezkerok ez da guretzat izango jan ta edaterik; orain goza gaitezen... Esan bear zuten laster illko gera, igaroko dira emengo atsegiñak; mortifika gaitezen eriotza on bat izaiteko (sic).

G. Ez nuen Jauna nik uste orrenbat kalte zegoanik janean, zer esango dit bada edan bidebagearen gañean?

E. Zer esan? Gauza asko esan nezakez, baña bear bearrak esango dizkitzudaz ezagutu ditzatzun askok ezagutu nai ez dituzten kalteak. Ala da; gutxi gutxi dira ardanzaleen artean ezagutzen dituztenak ordikeriatik datozen bekatu ta kalteak. Ez dute uste orditzen dirala auspez edo lau oñekoak bezala ezpadabiltza. Zutik etxera badijoaz, amar bider erorten ezpadira etxera eldu orduko, trokatzen edo errebesatzen ezpadute edana zakurrak jana bezala, begiak lausotu, oñak lokatu, korputza zabuka ebilli, ta mingaña motelduagatik, ez dute sinistu nai, gutxiago konfesatu orditu edo moskortu dirala. Ona beren konfesioa, ardoak zerbait berotu nau noiz bait, alegretxo ipiñi nau ardoak; baña Jangoikoari eskerrak ez nuen trokatu beste zatar batzuek bezala, nere oñen gañean etxera joan nintzan, ta gero oera errierta gabe. Galdetu bear zaie: eta emazteak esan zizun biaramonean orditu ziñala? Bai Jauna, baita agiraka galantak egin ere berandu etxera nintzalako, etxean bear diranak kastatzen ditudalako, ta sustrai-gabe itz egiten dedalako alako edan aldietan. Orra bada nola emazteak ezagutzen dituen obeto zure bekatuak zuk baño. Atoz ona, eta ala zoazeean etxera itza moteldurik, begiak lausoturik baten ordean argi bi ekusten dituzula, korputza zabuka, oñak lokatuta gelditzen zeranean, konfe-

atu bear izan bazenu, ondo konfesatuko ziñan? Ori ez Jauna, nere burua astunegia, ta mingaña lodituba gelditzen zat, ta ezin konfesio garbirik egingo nuke. Beraz etzaude arrazoi kristau gisakoan. Au ez da bekatu andi ta kalte andikoa?

G. Noiz izango da bekatu mortala geiegi, edo bidegabeko edatea?

E. Ori eranzun baño leenago jakin bear da oro bat bekatu egiten dala, naiz orditu didilla bat mas ardoaz, naiz sagardoaz, naiz beste edozein edarirekin: ordikeria osoa dala bekatu mortala, ezaueraz, ezautu bearraz, edo borondatezkoa danean. Ona zer dion San Paulo Apostoloak: *orditzen diranak ere ez dute gozatuko Zeruetako Erreino;* ta da esatea kondernatuko dirala, au aditzen da egiazko penitentzia egiten ez padute, zeña gutxik egin oi duten orditzeko oitura txarra dutenak: *Neque ebrosi... regnum Dei possidebunt.*

Ona orain zuzenbide, edo adigarri jakiña. Galtzen dutenak argi arazoizkoa ezagutzaz ta borondatez, Elizako Sakramentuak artzeko dui edo gauza ez dan bestean, egiten dute bekatu mortala. Ez dago egia au ukatuko duen jakitunik, ta edozeñek ezagutuko du egia dana. Orain bada joango baziña sazerdote bat gana oñak lokaturik, albo alboka, begi makaldu edo irabiatuekin, erdi illunean zaudela argi ederrean, ta min loditu ta katigatu nastearrekin esango baziño: Jauna konfesatu nai det, enzun bear nau konfesioan, zer esango lizuke? Pizkorra balitza sazerdotea, esango lizuke: zoaz emendik ordu gaiztoan zuretzat; zatoz burla egitera Sakramentuari? Zu orain konfesatu oñen gañean nekez bazaude, gauza garbi ta zuzenik ezin esan badezu?... Sazerdote paketsu ta otzan bat balitz, esango lizuke: Gizon gajoa, zoaz etxera al dezun moduan, sartu zaite oean... Orra nola ez bataz ez besteak konfesatu naiko zinduzkeen. Ez dute baña berak igarten, ez albo alboka egiten dutenik, ez mingaña moteldu zutenik, ta esango dute oñen gañean zebiltzala, oroitzen zizala biaramonean edanda zegoala ekusi edo egin zituzten gauzaren batzuek. Au ez da siñale edo ezaugarri ona sinistzeko orditu etzizala galanki. Amesetan igarotzen diran gauza askoz ere, oroiu oi gera iratzartuta gero, ta amesetan dagoanak ez du arrazoizko argirik. Ala bada moskor galantetik iratzartuta, oroi diteke mozkortza, edo orditzeko denporan igaro zitzaionaz.

Jauna, ni orditu nintzan uste ustekabeen; ez nion igarri edateko unean anbeste igaroko ninduela ardoak. Atoz ona, edan zenuen asko? Egon ziñan luzaro edaten? Eta etzaitzu len orrelakorik gertatu? Noiz bait gerta diteke korputza aldi txarren bategatik gutxi edanda ere uste kabe ardoak geiegi berotzea; baña geien geienez asko edaten dutenak, edo luzaro orain puska, gero puska edaten daudenak igarri bear dioe jartzen dira-



la orditzeko irrisku, edo peligroan. Zenbat alditan lenago ere gertatu ote zaie beste orrenbeste? Berriz oituraz edo aldi askotan orditzen diranak, ezin iduki lezakete alako esesio ta estalgarririk.

Eta trokatzea bekatu da? Ez beti, gutxi edanda, korputzaren aldi txarra gatik, ta ezauera gabe gaitz egin dionean, ez da bekatu trokatzea, edo errebesatzea. Ekusten dira ordi sats galantak iñoiz, edo gutxitan baño ez trokatzea; berriz ardan asko zaleak ez diranak, zerbait geiago kalte gabe edanda, bereala trokatzen. Baña ardo gutxik sentierazotzen dionak, kontu andiarekin edan bear du. Dakianak kuartillo batek galduko duela, ezin edan lezake kuartilloa bekatu gabe.

Beste argibide bat igarteko noiz dan bekatu mortal edatea, au da. Dakianak zerbait geixeago edan ezkerro, edo ardoak berotuta, onen indarrez egiten dituala bestela egingo ez lituzkean gauza gaizto ta bekatu mortalekoak, egiten du bekatu mortala ala edanaz, osoz orditzen ezpada ere. Ardoa ta lujuria dira senide urkoak. *Ardoak dakar lujuria*, dio San Pablok. Ardoaren berotasunak arrotzen du aragia, gutxitu entendimentuko argia; ta gero emendik oi datoz itz zatar, ta tentagarriak esatea, ikutze edo tokamentu loi ta animen galgarria egitea, ta zer ez? Bada edatea ardoa gaiztakeria oek eragiteko bestean da bekatu mortala, ta bekatu askoren iturburua, zeña ausi bear dan salbatu nai bada. Eta konfesatzen dira onelako edateak? Bai berriz, moskor andi bat artzen ezpada, datorrena datorrela, ezer ezpalitza bezala, ez kausio edo jaramonik egin. Beste batzuek dituzu ardoa edan ezkerro, poliki berotuta, erriertara emanak. Noiz geienez ekusten dira euskal errietan auzka, burruka, ta makillakak? Ardoak berotuta. Pesteetara dijoazenean gutxitan ekusiko dira burruka, ta makillakak soñu ta ardoarekin pizkorturik, pesta azkenerontz, edo pesta bukatuta, aserreak, deadarrak, aupadak, tentatzeak, ta burruka edo makillakak. Ala edaten dutenak, sartzen dira aserretik datozen bekatuen okasio ezagutueta, jakin ezkerro aserre erraza jartzen dala ardoa ondotoxo edanda. Nork ez daki ardantegi edo tabernetan izan oi dirala burruka ta aserre gogorrak? Bitsa ezañetan dutela; oñen gañean sendo egon ezin dirala ere, erriertarako bideak ematen, indar askokoa dala kontatzen. Zer dira edan leku edo taberna oek? Deabruaren elizatxoak, non eskillok edo kanpai orde enzuten diran baso ta pitxar soñuak, Jangoikoaren alabanzen orde, birao ta itz desonestoak.

Egiten ere dute bekatu mortal edaten dutenak etxeko kalte ezagutuan. Zenbat ardanzalek galtzen dituzte etxeak, egin zorrak, emazte ta umeak bear lukeena, ardoak daramatela; asko edan, bear gutxi egin, zorrak geitu, pianzetan sartu, etxera berandu joan, emaztea ernegatzen,

umeak negarrez, ta aziera txarrarekin; itz batean, bizi dira onelakoak betiko bekatu mortalean, bekatu askorekin katea sendo bat egiten dutela. Nork ausi kate lodi au? Zarrago ta ardo zaleago. Eta ondo konfesatzen dira? Bai berriz. Esan ezkerro, tragotxo bat geiago ezarri det noiz bait; ardoak noiz edo berriz berotu nau; ona konfesio garbi ta zuzena, beste kalte guziekin konturik ateragabe. Ez dakit nik nori obeto datorkion Dabiden aoz Espiritu Santuak diona: *Egonik gizona onra andian, ez du eza-gutu; berdin du da abere arrazoi bageakin, ta beren irudiko egin da*. Ez dirudi gizona, gutxiago kristaua, adinbage, edo arrazoa illunduta gelditzen danak ardoaren bidez. Ez du ezagutzen bere jatorri ederra. Abereak berak baño abereago egiten dirala. Abereai ez dieza janeraziko bear dana jan ezkerro; bear duena edan badu, eramana gatik ibaira, makillaka ere edaneraziko ez diezu geiago. Ez dituzu zabuka ta albo alboka ekusiko gaiso ezpadira; beti daude bear egiteko indarrekin. Arrazoirik ez dute, Jangoikoak eman etzielako. Baña gizon ordi bat ardoz ase ezinda; ordi ordi eginda ere ardo eske ekusiko dituzu; oñak lokaturik, zabuka, albo alboka, ta Jangoikoak eman zien arrazoiaren argia illuntzen dute ardo-lañoarekin. Orra zertara dakarren Jangoikoaren irudi edo antzera egiña dan gizona. Ai, dio Jaunak, Isaiasen aoz, *zeratenak sendoak asko edo ugari edateko, ta gizon indartsuak edari ordigarri mota asko sabelean naastuzeko! Ai goizetik jaikitzen zeratenok ordierari jarraitzeko, ta berandu artean edaten dezutenak*. Bildu ditzagun kalte egiten dituenak ardo larregi edo geiegiak. Galtzen du korputza osasuna galtzeaz. Galtzen du anima arrazoa galduaz, ta bekatuz zikinduz. Galtzen ditu ondasunak asko kastatu eragiñaz. Galtzen du onra, bada estimaziorik ez du ardora emanak; iñork piatuko ezin dio ixillik gorde bear dan gauzaren bat; galtzen du Jangoikoa, ta onekin Zerua. Ez dira oek kalte andiak?

Baña sinistu diteke? Gizon edale, ordi-satsak uste du bera dala gizonik prestu edo onraduena; berak dakiala kastatzen; taberna zaleak ez diranak gatik esango dizute dirala prestuez, dollor, zeken, zikotz, diru goseak; ardiapat ez gastatzea gatik urkatuko lirakenak. Ederki. Eta onra andiko gizona da ardotan duena ta ez duena ondaturik zorrez bete, ta zorkillak justiziaz darabiltena? Onra andiko ta gizon prestua da edantegi edo tabernan zorrak egiten dituen, ta etxea galtzen duena, iñork eman nai ez diola aurrez dirurik, ta zatar baldres baten fama edo izena ematen zaiola? Zenbat prestuago da daukana etxean bear dan gari ta ardoa, zerekin erosi bear diranak iñoren kalte bage, ta dakianak non gastatu ta non ez? Ez da obe eskribauak etxean olesik ez egitea, umeai zerekin bizi-modua eman idukitzea, errosario santua gauoro alkarrekin amorez ta pakean esatea, egotea



baño beranduraño kanpoan kastatzen, ta gero errosario orde deadarra ta biraotzarrak egiten, zerekin umeak zuzendu ez daukatela?

Jauna, arrazoi andiarekin itz egiten du orrelako edale ordi etxe ondartzalle, erriertari, biraoti, ta luxurioso gaiztoen gañean. Baña nik ez diot iñori gaitzik egiten ardoan igaroa gatik. Lotara noa ixill ixillik moskortzen naizenean, igarotzen zat goizerako. Badet zerekin kastatu etxeko kalte bage. Ez dizut guzia sinisten. Eundik bat topatuko al da ardanzen artean zuk esan dezun bezalakorik. Baña dana dala, ordikeria benetako ta borondatekoa beti da bizio lotsagarri, ta animaren kaltekoa; beti eskandalo edo ejenplo gaiztokoa; au dalako bekatu ezagun ta ezkututzen ez dana. Ezin komulgatzera joango dira Pazkoaz kendu artean eskandaloa bizio onetara oituraz emanak diranak; dira bekatari publiko edo agertuak, zeintzuei Elizaren aginduz eman bear ezaien komuniorik ondu artean erri guzikok dakustela bere enmienda edo obetasuna. Ez dago bekatu au baño ezagun edo publikoagorik; ez du estalgarririk; erri guziak ezagutzen ditu nor diran, nola darabilten etxea, nola urte osoetan bat diran. Ezagutzen ez dituen konfesoreren bati ateratzen dioe absoluzioa gezurrekin, bekatuak erdikindu, murrutu, ta edertuaz, baña onek ez dio komuniorako aterik idikitzen. Eskribiturik dago desegingo ez diran letrakin: *Ez eman gauza santua zakurrai, ezta ere arri preziosorik egotzi ganadu belz*, edo urde zatarrak. Ez da bekatari, geiago erabazi duenik zakur, ta urdearen izena, nola dan ordia. Ordia ta urdia gauza bat dira. Orditzen diran askok trokatzen dituzte edanak, zakurrak jana bezala. Ekusten dira orditu asko eroririk, ta zikindurik lokaitzetan urde zatarra bezala. Eta oei komunio santua eman? Oen eztarrira igaro Jesu Kristoren aragi Jangoikozkoa penitziaren bidez, ta bizitza on batekin, anima garbitu, ta eskandaloa kendu artean? *Nam et ad vos administrantes*, utor verbis S. Chrysostomi, *sermonem convertere necessarium est, ut multo cum studio haec dona distribuatis. Non parva vobis imminet ultio, si quenquam illius culpaē consci, huius mensae participem esse concedatis: sanguis eius de manibus vestris exquiretur; sive quis Dux militiae sit, sive praefectus, sive Princeps diademate coronatus, indigne autem accedat, prohibe; maiorem illo potestatem habes. Haec quotannis legimus. Nihilominus videmus ebriosos omnes ad mensam Domini accedere. Ergo non parva imminet ultio illis Parochis, qui Sanctum dant canibus, et margaritis omnibus preciose Christi Carnem, mitunt in porcos. Ergo publice neganda est communio, etiam si confessi accedant, illis ebriosis, qui frequenter hac in re delinquant, qui subertunt domos, et nullam possunt afferre excusationem: Nulla in patitur injuriam fama, qua carent. Concussi terrore cum ejiciuntur ex altari, agnoscunt iniquitatem: amici, et domestici subsannant eos, quasi excommunicatos. Experientia teste loquor. Opinio omnium theologorum est, non esse admittendos*

ad mensam Domini peccatores publicos. Siebriosis, consuetudinariis recidivis non est neganda communio, cui deneganda est?

Baña dakuskun Eskritura santeetan esan danaren argia, ta zertara ekarri zituen edan geiegia gizon gaiztoak ez ezen, baita ere on, ta uste-kabe orditu ziranak. Gizon on ta santua izan zan Noe. Orditu zuen bein eskuartean matsa estuturik atera zuen ardoak, igarri gabe burura igoko zionik; bada etzan ezagutu mats-ardoa lenagoko denporetan. Burura igo zionean, gelditu zan dezenia gutxiarekin; parre ta siñu egin zion iru seme zituenetik batak, ta beste biak estaldu zuten arpegia alderaturik. Biurtu zanean bere konorte edo ezaguerara, bedinkatu zituen bere seme on estaldu zuten biak; ta beste gaizto burlariari adirazo zion nolako kastigoa itxeroten zien berari ta bere ondorengoai. Onela, orditze kulpa gabeko batek ekarri zituen Kanaanen seme-alabetara mendetasun ta kalte asko. Gizon ezin ohea izan zan Lot; orditu zuten bere alaba biak Ordituta erakarri zuten engañuz berekin parte artzera igarri gabe aita gaixoak. Eta noiz? Bekatu zikiñak gatik beren begietan bezela Jangoikoak erre zituenen erri osoak jende ta guzi, goitik bialdu zuen suzko euriarekin. Mundu guzia beldurtu zuen. Olofernes Soldau askoren buru ain enzuna, noiz galdu zan? Orditu zan aldi batean; emakume batek ebaki zion burua, ta au eraman zuen zaku batean, ta galdu zuen ejerzitua ere. Noiz kendu zioen Dabiden seme Amnoni bere bizitza? Burua berotu zuenean ardoz. Esan zien Absalonek bere mutil morroiei, zaudete zai noiz orditzen dan Amnon, ta orduan ill zazute. *Observe cum tenulentus fuerit Amnon*. Noiz irten zuten Israeltarrak Jangoiko egiazkoa adoratzetik? Jan ta edan galanki ta astiro egitera eseri ziranean. Noiz ebaki erazo zion Herodesek burua San Juan Bautistari? Konbite andi batean. Bai kristauak, nora niñoake kontatu nai banitu ordikeriatik etorri diran ondoren txarrak? Baña guziak dakartzi kalte andiak aragia daramalako bekatu loi itsusietara. *Luxuriotsua da ardoa*, dio Espiritu Santuak. Sabel ardoz berotuak erraz ematen du luxuriaren pitsa, dio San Jeronimok. Ordikeria guzia da urdekeria, bizio guzien gurasoa, gaiztakeria guzien iturburua, dio San Agustinek. Eurrez edo bata bestearen ondoren ausierazotzen ditu Jangoikoaren mandamentuak. Bere sabela da bere Jangoikoa. Ardoz berotuak arin egingo ditu juramentu bidegabeak, maldizio ta biraoak. Jaiegunak naiago ditu jan edan ta ardantegirako Elizarako baño. Guraso ordi batek emango die aziera gaiztoa bere umeai, ta ume orditu danak lotsarik, ekarriko ez dio gurasoari. Burua berotu ezkerro, aserrea, burrukak, ta kolpeak. Zenbat itz desonesto, eskuka ta tentazio bide? Ardoa izateko ostuko du edozein gauza, iñoren honrari begiratuko eztio. Baña gaitz bada ere ezerekin bel-



durtzea, ta geiago konbertitzea ardo geiegira emana, kontatuko ditut ejenplo edo gertaera arrigarri bi. Ona lenengoa.

Ejemplo I

Erakurten da anziñako Eremitar, edo Padar santuen bizitzetako Libruan, sartu zala gazte bat munduari largata basamorto batean, non egiten zituen penitentzia izugarriak. Deabruak ezin ikusirik eremutar gazte batengan anbeste orazio ta gauza on, ekin zion tentazio loi ta ezin zatarraoen bidez; ezin artu zuen atseren ta arnasa apur bat. Ala ere garaitzen zituen guziak biotzean sarrerarik ez emanaz. Zebillen buruz beera triste, ta pozik arkitu ezinik, ta esaten zuen, zer egingo ez nuke onelako tentaziorik ez izatea gatik? Agertu zitzaion Infernuko etsaia Aingeru eder baten itxuran, ta esaten dio Zerutik baletor bezala: Egin nai badezu nik esaten dizudana, ez dezu geiago tentaziorik izango. Egingo det eranzun zion gazte gutxi zekitzenak deabruaren mausa ta asmoak. Iru gauza oetatik bat egin bear dezu orretarako, dio gaizkin aingerutuak, edo andra batekin bekatu aragizko egin, edo gizon bat ill, edo bein orditu. O gazte eroa! Ez diozu enzuterik eman bear Aingeru gaizto orri, badirudi ere eder ta Zerukoa dala, erakasten dizunean Jesu Kristoren kontrako doktriña. Deabrua da. Gazte ero ark etzion igarri, ta bere tentazio guziekin irabazi zezakeana Koroa eder bat Zerukako iraun balu bere orazio ta penienzie-tan, galdu zuen anima. Asi zan eroa kontuak ateratzen deabruaren esane-kin. Nik bekatu egin emakume batekin? Ori ez egitea gatik, ta pensamentu loi bati lekurik ez ematea gatik dira nere nekeak. Ez nik orrelakorik. Gizona ill? zeri ta zertara? Onen odolak nere odola eskatuko luke Abele-nak Kainena bezala. Ordituko naiz bada bein emen ezkutuan, iñork ez nakusala; igaroko zat edana; ta tentazioetatik irtetzea gatik, egin dezaket. Edan zuen bada urte askotan ardorik aoan sartu ezipazuen ere. Erdi orditurik zegoala, deabruak eraman zuen andra bat baso artara santu bat erakusteko asmoz, ta sartu zan andre au gazte aren kobara edo mendi-gelara. Deabruak eman ziozkan orduan eremutar erdi edanari gerra andiak, ta erakarri zuen bekatu egitera andra arekin. Onen senarra joan zan bere andrearen billa ta arkitu zuen eremutar gaztearekin. Onek esan zuen beregan: iltzen ezipadet gizon au zabalduko du nik bekatu egin dedala bere emaztearekin, ta onen beldurrez ill zuen gizon gaisoa. Onela eragin ziozkan beste bekatuak, orditu zalako. O ejemplo arriak biguntzekoa! Santu

andi bat izango zana egin zuen deabruak bekatari andi beingo batean, zekialako ardoaren bidez eragingo ziozkala bekatuak izugarriak. Ai iraun balu orazioan! Larga ezipalio bere penitentzia! ardorik aoan, sartu ezipalu, ta nolako Koroa idukiko zuen gaur Zeruan! Enzun orain beste ejenplo beldur geiago emango diena ardanazale nekazariei.

Ejemplo II.

Gizon opizio andiko bat zan ardora txit emana, ta zuen zorionez emazte Jangoikozale bat, zeñek beti eskatzen zion Jaunari nola edo ala beldurrez bazan ere, ekarri zezala senarra beragana. Egun batean ardoz berotuta zijoala gizon au, igaro zan zementerio edo illen obitegitik, ta arri batean labandurik jo zuen bea, ta artu zuen kolpe galanta, ta asi zan birao-ka, alakoak oi duten bezala. Agertu zitzaion itxura beldurgarri bat, ta nola ardoak ez duen anbeste beldur, galdetu zion gizon edanda zegoanak: *Nor zera zu?* *Ni naizana izango zera zu ere*, erantzun zion defuntu beltzak. Zera-na zerala, atoz nerekin apaltzera nere etxera, esan zion gizonak. Zoaz bada aurrera, ta nik geroago jarraituko dizut, eranzun zion defuntuak. Eldu zanean etxera gizon ardaotia, sartu zan arduratan egin zuen konbita gatik; esan zion emazteari zer gertatu zitzaion. Beldurrak igaro zion ardo-aren indarra. Jarri ziran aparitan ate kalekoak morrollo ta giltzekin ondo itxirik; onik onenean jo zuten ate kisketa. Nolakoa gizon gaixoaren izerdi larri ta ikara? Emazteak esan zion: biurtu zaite Jangoikoagana; arzazu gogoa ez geiago ardorik eztatritik igarotzeko; bear bada barkatuko dizkitzu, Jangoikoak lengo bekatuak. Ala egin zuen gizon ark; etorri zan defuntua atearatik aterarik, iges egin zuten nora al etxeokak, ta gelditu zan gizona maian igesik ezin eginda. Emen nadukazu, eman dizudan itza bete det. Non dezu jatekoa? esan zion defuntu izugarri ark. Iru egunen buruan etorriko zera nere konbitera. Agur, ta ezkutatu zan onenbesterekin. Emazte onak azkorto edo animatu zuen Jangoikoaren miseriordiarekin. Presta zaite denporarik galdu bage konfesio oso edo jeneral bat egiteko. Ala egin zuen negar andiekin; ta epe edo iru eguneko plazioa eldu zanean ames modu batean eramana izan zan leku ikaragarri batera, non ipiñi zizten janarizat sugeak mai sutu batean, ta inguru artan zeuden munduan ardanazale ordiak izan ziranak. Esan zion defuntu itsusi agertu zitzaionak, orra niri ematen zatan kastigoa nere ardan edate ta ordikeria munduan egin nituenak gatik, edan zazu zuk ere emengo ardoa. Erdi illik zegoala



gizon ura, iratzartu zan, ta biurtu espirituz egin zuen biajetik, nora joango zan benetan ta betiko emazte onaren orazioak erakarri ezpalioe penitentzia edo konfesio oso ta damu andiko batekin anima garbitzea. Aurrerakoan egin zuen bizitza guziz on bat, ardorik aotik igaro bage. O emazte errukarri alako senar ordi ta ardaotiak daukatzutenak! Zertako dira zuen biraokak? Nai dezute infernura jetsi senar gaiztoekin? Obe ez dezute aitatu dedan emazteak bezela eskatu Jangoikoari ondu ditzala zuen senarrak? Biraoka emaztea, umeak ernegu ta gorroto bizian, senarra ordituta, esan dezakete egiaz, nere etxea Infernua da. *Infernus domus mea est*. O gizon zorigaiztoko, bizio onetara emanak zeratenak! Zer esan zuek gatik? Defuntu ordi izan, ta kondenatua agertuta ere etziñokela largako oitura ondagarri orri. Abranek esan ziona aberats kondenatuari, erregutu zionean bidaldu zezala Lazaro: predikatzeren senide lurrean larga zituenai, ez dezutela egiaz sinistuko, ez penitentiari egingo pizturik defuntu batek predikatzen badizute ere. *Neque si quis ex mortuis resurrexerit, credent*. Daukazute Kristo Moises baño obeagoaren legea; daukatzuez profeta lege-erakaslak, ta oen esanik aitu nai ez da. Defuntu agertzearen ikara ta beldurra igaroko litzake ardoa edanaz berotzeraño burua. Zer itxeroten dizu azkenean ardanzale itxutua? Ona zer dion Espiritu Santuak: *beren matsa, beazun matsa, ta mordoak guziz garratz edo mingoitzak. Dragoiien beazuna beren ardoa*. Edari ederra infernuan emango zaiena. Larga egidazute bada esan ditzadan Joel Profeta santuak esaten dizten itzak: *Esna zaitetze gozoro ardoa edaten dezutenok, egizute negar ta ulu*. Ken zazutez eman dituzuten eskandaloak. Ardo ain gozoro zuen aotik igarotzen dana, biurtuko zatzue animako pozoiz gaizto. Igaroko da arin edanaren atsegiña, baña betikoa izango da ekarriko duen miña. Erraz billatuko dezute konfesore on bat aztertzeke anbeste pekatu nola egiten dituzten ardora emanak. Egin denpora guzi orretako konfesio jenerala prestaera onekin; larga lagun ta leku tentagarriak; utzi edateko okasio ezagunak; egin penitentzia oso bat. Ala izan didilla.